



Iturria: *Jesu Christoren lau evangelioac batera alcarturic*, Pedro Antonio Añibarro (M. Pilar Ciarrustaren edizioa). Labayru / BBK, 1991.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AnibarroAlkarturik.htm>

JESU KRISTOREN LAU EBANJELIOAK BATERA ALKARTURIK

Pedro Antonio Añibarro

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Bizi bedi Jesus

**JESU KRISTOREN
LAU EBANJELIOAK
BATERA ALKARTURIK**

D. Bernardo Lamy-k dakartzan erara,
ta A. Felipe Sciok erderatu zituan legez.

A. Fr. PEDRO ANTONIO AÑIBARRO,
ZARAUZKO KOLEJIO A. S. FRANZISKOREN ORDEAKO
MISIONISTEAK EUSKERATU DITU.

Azkenean ifinten da
Urte guztiko Jaietako Ebanjelioen Idorogarri bat;
ta bestebat jakiteko Bizkaiko izenen adierantza Gipuzkoa,
ta Nafarroarako, onela libru santu beneragarri au
guztien onerako izan dedin.



Bizi bidi Jesus

SARRERA

Irakurle euskaldun maitea, aramen non emoten deusudan liburirik preziatuena, santuena, beneragarriena, liburu guztien iturburua, ta dakartzana Jesusen bizitzea, esateak, irakasteak, egiteak, eriotza, ta bizituera. Emen ikusiko dozu zeinbat zor deutsegun Jesusi, ze maite gaituan, ze bizitza nekezkoa egin eban, irunsi zituan gogortadeak, egin zituan mirari arrigarriak, beragandu zituan bekatariak, irabazi zituan arimak, osatu zituan gaixoak, argitu zituanitsuak, atera zituan deabruak, janaritu zituan gosetiak, biztu zituan illak, inguratu zituan bideak, igaro zituan aldats gora berak or emen baterik bestera erririk erri ardi galduen billa Arzain ardurazkoa legez. Emen ikusiko dozuz bere neke-penak, gose egarriak, izerdiak, negarrak, pobrezia, beartasun, persekuziño, lotsaria, ta naibageak. Emen bere humiltasuna, ontasuna, errukitasuna, biguntasuna, ta eroape-na bekatariarik andianakaz; bere maitetasuna bere arerio gaiskiña persegi-lla guztiakaz, eurakaz lagundu, euren etxetara joan, eurakaz jan, ta ebilla-lla, guztia guztientzat egiten zala, guztiak irabazteko: guztiak mesedetu, zoriondu, ta argituten zituala; ta eurak gaiti bere Aita Jangoikoari eskatuten eutsala bere eriotzako larritasunik latzanean.

Ebanjelio santuari zor jakon errespeto lotsa ta beneraziñoa adirazoten deusku Elexa Ama Santeak egiten dabenaz Mezan esaten danean. Misala aldatuten da, eskoako aldera: guztiak zutik ifinten dira bera enzuten, ta adietan emoteko prest abiatuak dagozala bera autortu, ta bere defentsan bizitzea emoteko: Mezemolleak makurturik, ta Ebanjelariak belauniko iminirik Jangoikoari eskatuten deutse gogoz garbitu sutu berotu daizela euren biotz ta ezpanak Isaias Profetarenak legez: lagunduten deutse argi ta inzensoaz: ziñatuten ditu librua ta bere burua, baitabere Elexako guztiak ziñatuten dira: inzensetan dau Ebanjelioa, ta daroioe mun egiteko Sazerdote Mezemolleari. Eta zetarako orrenbeste egikizun? erakusteko fededunai ze gauza beneragarria dan Ebanjelio santua.

Ebanjelio santu au eskribidu eben lau Ebanjelistak Espiritu Santuaren argiaz zuzendurik, ta laurak bat batera kontraesan bago alkar dakarde guztia, baña ez denpora, ta toki baten; ta libru onetan darraioi albitanez San Mateo Jesusen laguntzan ibilli zanari, ta beronen kapituluetara dakardaz besteenak: bada San Juan ta San Markosek eztakardez Jesu Kristoren

txikitako jazoera, edo gertaldiak, ta euren Ebanjelioa asten da San Juan Bautistaren predikaldiatik; San Lukasek barriz ez eban eskribidu ikusi ebana, ezpada enzun ebana, ta Espiritu Santuak agertu eutsana. Laurak dakarren guztia bada ifinten da libru onetan irakurtza jarraian, batzuetan bat bakarria izentaturik, ta beste askotan laurak batera: ta orduan irakurtzaren buruan adirazorik nork ta non dakarren Ebanjelista bakotzak, gero aitatuten eztira erregloi edo urrengo malleetan Lamy-k dakartzan deierak (*Mt. Mar. Luk. Joan*) ebagi eztagien irakurtza-jarraia; bada eztira bear-bearrak euskaldun utsentzat, ta eragotziko leuskioe irakurtea.

Arren bada Jesus Kristo argi argitsuak argitu daizala fedebage itsu sor gor ilunpe itzalean datzazanak, Ebanjelio Santu au ezagutu, sinistu, ta autortuteko; beronen zeruzko barri on, ta sinisgeiak munduko lau aldeetan zabaldu daizala; baitabere zuri gogozko naigura zalegarri gartu bizi egiazko bat emon daizula berau irakurteko; ta bioi bertan dagozan adibideak, egiak, aginduak, ta gauza miragarriak bete, kunpli, ta egiteko. Alan izan dedilla. Bai Jesus maitea.

Advertencia

**a los Censores, o Revisores
de este Libro de los Evangelios traducidos
según la Harmonía de Don Bernardo Lamy**

Se suplica encarecidamente que con la mayor escrupulosidad se anoten las faltas substanciales, voces improprias, o que hacen mudar el sentido del texto sagrado, para corregirlo antes de darlo a la prensa: pues algunas voces se han puesto a mas no poder, por no ocurrirme otras mas legales, y por que no era bien exponer este manuscrito a publica Censura con vacios; y ni me he aferrado en mantener otras voces, sino que las déjo a discrecion de practicos bascongados. Estos bien saben, que el idioma bascongado enteramente dista de el latino, y que ningun parentesco tiene con el: no assi la lengua castellana que es hija de la latina, y facilmente la traduce. Y por esta parte hai que disimular algo a la traduccion bascongada en quanto al mecanismo literal material. De lo contrario no se le podría dar el ayre, gusto, y eloquencia bascongada. Fuera de que los primeros Autores del bascuence no nos dejaron los significados de muchas voces aulicas, academicas, y forasteras que no se usaban en su epoca: v.g.



Hypocrita, Publicano, Sinagoga, Pontifice &a; ni el castellano las tiene sino tomandolas como suenan del latin.

Y assi v.g. hipocrita se explica con fingidor de virtud que no la tiene.

A Publicano a veces le viene bien alcabalero; otras, usurero; otras publico pecador.

O generatio perversa! esta voz generacion explican los bascongados con casta charra. Cásta está en uso, generacion no.

Demoniñoa, endemoniada tienen en el bascuence cierto desabrimiento y aspereza; no los usa sino un ayrado colerico; ni tienen nombre propio en este idioma; y se suplen con *deabrua, deabrutua*.

A Duos viros, dos varones o Angeles que las mugeres vieron en el Sepulcro de J.C. aunque correspondia guizacume bi, se ha puesto gazte bi, dos jovenes; y aun el mismo P. Scio pone dos personajes, y no dos varones.

Otras voces aunque tienen propio, y peculiar significado bascongado, se han acomodado al estilo comun y usual en que son admitidos: v.g. cueva de ladrones: *lapur tokia*; el *tokia* abraza cueva, albergue, sitio, y guarida de ladrones. Por la misma razon se invierte el singular por el plural; y assi omnis homo, omnis gens: todo hombre va, o viene, no se explica bien con *gizon guztia dator*, todo el hombre viene, sino *gizon guztiak datoz* pluralizado. Todo hombre trahe: no *gizon guztiak dakar*, sino *gizon guztiak dakarde* &a. Y a este modo se han hecho algunas pequeñas y pocas variaciones, que no alteran el sentido riguroso; y el mismo P. Scio, y otros traductores hacen maiores que estas que lleva este escrito.

Bizi bedi Jesus

LENENGO LIBRUA

**Jesu Kristo gure Jaunaren Bizitza
bere Jaiotzatik Bateo giño**



1. IRAKURTZA

San Juan Bautistaren sortuera, ta jaiotzako barri onak emoten deutsaz Angeru San Gabrielek Zakarias bere Aitari.

San Lukasek cap. 1. v. 1 ad 25.

Zerren askok ifini gura izan dituezan moduz gure artean jazo izan dirian gauzak:

Guri esan deuskuezan legez, lenengotik ikusi zituezanak, ta berbearen ministroak zirian eurak:

Niri bere eretxi izan deust, ondo jakin ezker, zelan lenengotik jazo zirian, zuri, o Teofilo guztiz ona, era onean eskribietea;

Ikasi dozuzan gauzeen egia ezagutu dagizun.

Herodes Judeako Erregearen egunetan egoan Zakarias eritxon Sazerdote bat Abiasen familiakoa, eta onen Emazte Isabel eritxona Aaron-en Alabeen artekoa.

Biak zirian justuak Jangoikoaren aurrean, ta ebiltzen zuzen Jangoikoaren mandamentu, ta justutasunetan zer esanik emon baga,

Eta semerik ez eukan, zerren Isabel seingea zan, ta bata ta bestea zirian urte askotakoak.

Eta jazo zan Zakarias Jangoikoaren aurrean egoala Sazerdotearen lanak, ta bere aldia egiten,

Sazerdotetasunean oi zan legez, berari egokion suertez Jaunaren Tenplura sartutea, inzensoa eskeñitera:

Eta erri guztia egoan kanpoan oraziño egiten inzenso tenporan.

Eta Zakarias agertu jakan Jaunaren Angeru bat zutik altara inzen-sodunaren eskoatara.

Eta berau ikusirik, Zakarias ikaratu zan, ta bildurra sartu jakon.

Eta Angeruak esan eutsan: Zakarias, etzaita bildurru, zerren zure oraziñoa enzuna izan da: ta Isabel zure Emazteak egingo deutsu seme bat, ta Juan deituko deutsazu.

Eta izango jatzu atsegin ta pozkaritzat, ta asko bere jaiotzan poztu-ko dira:

Zerren andia izango dan Jangoikoaren aurrean: ardaorik, ez sagar-daorik edango eztau, Espiritu Santuaz betea izango da bere Amaren sabel beraganik:

Eta Israeleko seme asko Jaun ta euren Jangoikoagana biurtuko ditu:

Eta joango da bere aurrean Eliasen espiritua ta birtutean, gurasoen biotzak semeetara biurtuteko, ta fedebageak justoen zurtasunara, Jaunari erri oso bat prestatuteko.

Eta Zakariasek Angeruari esan eutsan: zelan ori jakingo dot? bada ni zarra nas, ta nire emazte bere urteetan aurrera doa.

Eta Angeruak eranzun ta esan eutsan: ni nas Gabriel Jangoikoaren aurrean egoten nasana: ta biraldua nas zuri berba egiteko, ta barri on au zuri emoteko.

Zu barriz mututurik geldituko zara, ta barbarik ezin egingo dozu, gauzok egingo dirian eguna eldu arteraño, zergaiti ze bere denporan kunpliduko dirian nire berba oneek siñistu eztozuzan.

Bitartean jente guztia egoan Zakarias itxadoten: ta mirarituden zirian luzetuten zalako bere egotaldia Tenpluan.

Eta urten ebanean ezin barbarik egin eutsen eurai, ta aditu eben ikusgarriaren bat Tenpluan ikusi izango ebal.

Eta berak siñuakaz adietan emoten eban, ta mututurik geratu zan.

Eta bere ofizioko egunak bete zituanean, bere etxera joan zan.

Eta egunok igarorik, bere emazte Isabel seindun gelditu zan, ta bost illebeteen ezkutaturik gelditu zan; ta ziñoan:

Zerren Jaunak mesede egin eustan, begiratu eustan egunetan, nire afruntua gizonen aurretik kenduteko.



2. IRAKURTZA

**San Gabrieleke barri onak Ama Birjiñari
Jangoikoaren Semea bere erraietan Gizon egingo zala
Espiritu Santuaren birtutez.**

San Lukasek cap. 1. v. 26 ad 38.

Eta seigarren illean Jangoikoak biraldu eban Angeru San Gabriel Nazaret eritxon Galileako Erri batera,

Birjiña ezkondurik egoan bategana gizon bategaz, zeñi eritxon Josef Dabiden etxekoa, ta Birjiñaren izena zan Maria.

Enda sarturik egoan lekura, esan eutsan: Jangoikoak salba zaizala, graziaz bete: Jauna da zugaz: Bedeinkatea zara Andreen artean.

Eta berak au enzunik, ikaratu zan aren berbakaz, ta pensetan eban ze salbatasuna zan au.

Eta Angeruak esan eutsan: etzaitze bildurta Maria, zerren Jangoikoaren aurrean grazia idoro dozu:

Aror non seindun geratuko zarean zeure sabelean, ta argitara emongo dozu seme bat, ta Jesus deituko deutzazu:

Au andia izango da, ta Jangoikoaren Semea deituko da, ta Dabid bere Aitaren Erreinuua Jaungoikoak emongo deutso; ta betiko Jakob-en etxean erreinatuko dau.

Eta bere Erreinuak azkenik eukiko eztau.

Eta Mariak Angeruari esan eutsan: zelan au izango da, nik gizonik ezpadazaut?

Angeruak eranzun eutsan zirautsala: Espiritu Santua zure ganean etorriko da, ta Jaungoikoaren birtuteak estalduko zaitu.

Ta orregaiti zuganik jaioko dan Santua, Jangoikoaren Semea izentatuko da.

Eta aror non zure lenkusiña Isabel bere seindun dago bere zartzarogan: ia sei ilebeteko dago, sengea deitu oi zana:

Bada Jangoikoarentzat ez da ezin daiteken gauzarik.

Eta Mariak esan eban: Ara emen Jaunaren Serbitzaria, zure esana legez egin bedi nigan: ta aldegin eban Angeruak beraganik.

3. IRAKURTZA

Santa Isabelen Bisitea, tan an jazo zana.

San Lukasek cap. 1. v. 39-56

Eta egun aetan jagi zan Maria, ta lasterka joan zan montañeetara Juda zeritxan Uri batera:

Eta Zakariasen etxera sartu zan, ta Isabeli agur egin eutsan.

Mariaren agur egite au Isabelek enzun ebanean, beronen sabeleko seiñak gozozko saltuak emon zituan: ta Isabel Espiritu Santuz bete zan:

Eta boz altuan dedar egin eban, ta esan eban: Bedeinkatea zu andra guztien artean, ta bedeinkatua zure sabeleko frutua.

Eta nondik niri au, nire Jaunaren Ama nigana etortea?

Bada zure agurraren boza nire belarrietara eldute orduan, seiñak nire sabelean gozozko saltuak emon zituan.

Eta zorionekoa zu sinistu zenduana, zerren beteko da Jaunaren partez esan jatzuna.

Eta Mariak esan eban: Nire arimeak Jauna andizketan dau:

Eta nire espiritua neure Jangoiko Salbatzallean poztu zan.

Bere serbitzariaren humiltasunean bere begiak ifini zitualako: bada orainganik urrengo jeneraziño guztiak zorionekoa esango deuste.

Guztia al dabenak mesede andiak egin eustazalako, ta santua bere izena.

Eta bere miserikordia urrengoetarik urrengoetara bildurra deutsezentzat.

Bere besoan indarra egin eban: banatu zituan soberbioak euren biotzeko pensamentuetan.

Beratu zituan poderiodunak, ta goratu humildeak.

Goseak illak ondasunez bete zituan: ta aberatsak utsik itxi zituan.

Israel bere serbitzaria artu eban, bere miserikordiaz gomutaurik.

Esan eutsen legez gure gurasoai, Abrani, ta bere urrengoai betiko.

Eta Maria Isabelegaz iru illebetek legez gelditu zan: ta gero bere etxera biurtu zan.



4. IRAKURTZA

San Juan Batistaren Jaiotza, ta orduan jazo zirian mirariak

San Lukasek cap. 1. v. 57 ad 80.

Eta Isabeli bete jakon seiña egiteko denporea, ta emon eban seme bat.

Eta bere auzoak ta aideak enzun eben, Jaunak beragaz bere miseri-kordia andizkatu ebala, ta poztu zirian beragaz.

Eta zortzigarren egunean etorri zirian seiña zirkunzidutera, ta Zakarias bere Aitaren izenaz izentetan eben.

Eta eranzun eban bere amak, ziñoala: ez iñolako, ezpada Juan deituko jako.

Eta esan eutsen beroni: zure aidetasunean eztago izen ori daukanik.

Eta seiñaren aitari siñuakaz itanduten eutsen, zelan gura eban deitu ekion.

Eta tintonzia eskaturik, eskribidu eban onelan: Juan da bere izena.

Eta guztiak miraritu zirian.

Eta ordu atan idigi zan Zakariasen aoa, askatu jakon miña, ta berba egin eban Jangoikoa bedeinketan.

Eta euren auzokoen ganean bildur andi bat etorri zan: ta gauza oneen barria Judeako montañia guztietara zabaldu zan:

Eta enzuezan guztiak euren biotzean gordetan zituezan, ta esaten eben: Nor izango dala, uste dozue, seiñau? Bada Jaunaren eskua beragan izan zan.

Eta Zakarias bere aita Espiritu Santuz betea izan zan, ta profetatu eban, esanik:

Bedeinkatua Israelgo Jaun Jangoikoa, bere erria bisitau, ta erredimitu dabelako:

Eta osasunaren indarra guretzat jaso eban Dabid bere serbitzariaren etxean.

Berba egin eban legez, mundua danik izan dirian bere Profeta Santuen aotik:

Osasuna gure arerioetarik, ta gu gorroto ginduezan guztien eskutik:

Gure Gurasoakaz miseri-kordia egiteko, ta bere testamentu santuaz gomutetako.

Juramentu juramentutu ebana Abran gure aitari, emongo euskula:

Geure arerioen eskuetatik libratu, bildur baga bera serbidu dagi-gun.

Santutasunean ta justutasunean bere aurrean, gure bizitzako egun guztietan.

Eta zu seiña, Jangoikoaren Profeta deituko zara: zerren Jaunaren arpegiaren aurrean joango zara, bere bideak pretautera:

Osasunaren jakituria bere erriari emoteko, euren bekatuen parka-ziñorako:

Gure Jangoikoaren miseri-kordiaren erraia kaiti, zeintzuetan bisitau gaitu goiko Sortaldeak:

Argituteko ilunetan, ta eriotzako gerizan jarririk dagozanak: gure oñak bakezko bidera arteztuteko.

Seiña barriz azi, ta sendotuten zan espirituan; ta bizi zan ermuetan, Israeli agertuteko denpora eldu arteraño.



5. IRAKURTZA

Jesu Kristoren etorrerea gizona dan aldetik, San Mateoren erara.

San Mateok cap. 1. v. 1 ad 17

Jesu Kristo Dabiden seme, Abraanen semearen sortueraren librua. Abraanek sortu eban Isaak: ta Isaak-ek sortu eban Jakob: ta Jakobek sortu zituan Judas, ta bere anajeak.

Eta Judasek Tamarganik sortu zituan Fares, ta Zara: ta Faresek sortu eban Esron: ta Esronek sortu eban Aran.

Eta Aranek sortu eban Aminadab: ta Aminadabek sortu eban Naason: ta Naasonen sortu eban Salmon.

Eta Salmonek Raabganik sortu eban Booz: ta Boozek Ruthganik sortu eban Obed: ta Obedek sortu eban Jesse: ta Jessek sortu eban Dabid Erregea.

Eta Dabid Erregeak Uriasen emazte izan zanetik sortu eban Salomon.

Eta Salomonek sortu eban Roboan: ta Roboanek sortu eban Abias: ta Abiasek sortu eban Asa.

Eta Asak sortu eban Josafat: ta Josafatek sortu eban Joran: ta Joraneke sortu eban Ozias.

Eta Oziasek sortu eban Joathan: ta Joathanek sortu eban Akaz: ta Akazek sortu eban Ezekias.

Eta Ezekiasen sortu eban Manasses: ta Manassesek sortu eban Amon: ta Amonek sortu eban Jonias.

Eta Joniasen sortu zituan Jekonias ta bere anajeak Babiloniako erbestean.

Eta Babiloniako erbestearen ondoan, Jekoniasen sortu eban Salathiel: ta Salathielek sortu eban Zorobabel.

Eta Zorobabelek sortu eban Abiud: ta Abiudek sortu eban Eliazin: ta Eliazinek sortu eban Azor.

Eta Azorek sortu eban Sadok: ta Sadozek sortu eban Atxin: ta Atxineke sortu eban Eliud.

Eta Eliudek sortu eban Eleazar: ta Eleazarrek sortu eban Mathan: ta Mathanek sortu eban Jakob.

Eta Jakobek sortu eban Josef senar Mariarena, zeñeganik jaio zan Jesus, Kristo deritxana.

Eta alan Abraanganik Dabid giño dagozan jeneraziño guztiak dira amalau: Dabidganik Babiloniako erbeste giño, amalau jeneraziño: Babiloniako erbestetik Kristoren etorrera giño, amalau jeneraziño.



6. IRAKURTZA

Jesu Kristoren etorrerea, San Lukasen erara.

San Lukasek cap. 3. v. 23 ad 38.

Eta Jesus bera asi zan izaten ogeta amar urteko legez, ta uste eben semea zala Joserena, zein zan Heli-rena, zein zan Mathat-ena,

Zein zan Lebi-rena, zein zan Melki-rena, zein zan Joanerena; zein zan Jose-rena,

Zein zan Matatiasena, zein zan Amosena, zein zan Nahunena, zein zan Heslirena, zein zan Nagge-rena.

Zein zan Mahath-ena, zein zan Mathatiasena, zein zan Semei-rena, zein zan Joserena, zein zan Juda-rena,

Zein zan Joana-rena, zein zan Resa-rena, zein zan Zorobabelena, zein zan Salathielena, zein zan Neri-rena,

Zein zan Melki-rena, zein zan Addi-rena, zein zan Kossan-ena, zein zan Elmadan-ena, zein zan Her-ena,

Zein zan Jesusena, zein zan Eliezer-ena, zein zan Jorinena, zein zan Mathat-ena, zein zan Lebi-rena,

Zein zan Simeonena, zein zan Judasena, zein zan Joserena, zein zan Jonas-ena, zein zan Eliakin-ena,

Zein zan Melea-rena, zein zan Mena-rena, zein zan Mathatha-rena, zein zan Nathan-ena, zein zan Dabid-ena,

Zein zan Jesse-rena, zein zan Obed-ena, zein zan Booz-ena, zein zan Salmonena, zein zan Naasson-ena,

Zein zan Aminadab-ena, zein zan Aran-ena, zein zan Esron-ena, zein zan Fares-ena, zein zan Judasena, Zein zan Jakob-ena, zein zan Isaak-ena, zein zan Abraan-ena, zein zan Thare-rena, zein zan Nakor-ena.

Zein zan Sarug-ena, zein zan Ragau-arena, zein zan Faleg-ena, zein zan Heber-ena, zein zan Sale-rena.

Zein zan Kainan-ena, zein zan Arfaxad-ena, zein zan Sen-ena, zein zan Noe-rena, zein zan Lametx-ena,

Zein zan Mathusale-rena, zein zan Henotx-ena, zein zan Jared-ena, zein zan Malaleel-ena, zein zan Kainan-ena,

Zein zan Henos-ena, zein zan Seth-ena, zein zan Adanena, zein zan Jangoikoarena.

7. IRAKURTZA

San Joserren zeloak, ta Angeruak emon eutsazan barri onak

San Mateok cap. 1. v. 18-25

Eta Jesu Kristoren sorrera zan onela: Maria bere Ama Jose gaz ezkondurik egoala, batu baño len, idoro zan sabelean seña eukala Espiritu Santuaganik.

Eta Jose bere Esposoa, zan legez justua, ta ez gura izanik bera infa-matu, ixilik larga gura eban.

Eta onetan egoala, aror non amesetan Jaunaren Angeru bat agertu jakon, ta esan eutsan: Jose Dabiden Semea, ez egizu bildurrik euki zure emazte Maria artuteko, bada beragan jaio dana, Espiritu Santuarena da.

Eta seme bat egingo dau; ta deituko deutzazu Jesus; zerren berak sal-bauko dau bere erria bere bekatuetarik.

Eta au guztiau jazo zan, bete zedintzat Jaunak esan ebana Profeta-ren aotik, zeñek diño:

Ara emen non Birjiña batek konzebituko dau, ta semea egingo dau; ta deituko deutse Emmanuel, zeñek esan gura dau Jangoikoa gugaz.

Jagirik bada Jose lotarik, Jaunaren Angeruak esan eutsan legez egin eban, ta artu eban bere emaztea.

Eta ez eban bera ezautu bere seme bakarra egin artean, ta ifini eutsan Jesusen izena.



8. IRAKURTZA

Jesu Kristoren Jaiotza.

San Lukasek cap. 2. v. 1-7

Eta egun aetan jazo zan, urtetea Zesar Augustoren dekreto bat, mundu guztia paperetan eskribitu zedilla.

Señalamentu lenengo au Zirino Siriako Gobernariak egin eban:

Eta guztiak joiazan bakotxa bere Urian eskribiduak izatera.

Josek bere igon eban Nazaret Galileako Uritik Belen Dabiden Urira Judean: zerren zan Dabiden etxe ta familiakoa,

Eskribidua izateko bere Esposa Maria seindun egoanaz.

Eta an egoala jazo zan, Mariak seiña egiteko egunak eldutea.

Eta egin eban bere Seme Lenjaioa, ta batu eban seiñ-oiaketan ta eratzu eban aska baten: ez egoalako eurentzat lekurik ostatuan.

9. IRAKURTZA

Arzaien bisitea, ta Jesusen Zirkunzisiñoa.

San Lukasek cap. 2. v. 8-21.

Eta alderri atan Arzain batzuk egozan, gau-bigiria egiten, ta zainduten euren elia arratseko gaubelan.

Eta aror non Jaunaren Angeru bat euren ondoan ifini zan, ta Jangoikoaren argiak alde guztitik argitu zituan, ta bildur andi bat artu eben.

Eta Angeruak esan eutsen: etzaitzeze bildurtu: bada aramen non dakartzuedan barri on bat, erri guztia pozkaria gozoz beteko dabena:

Zerren gaur Dabiden Urian jαιο jatzue Salbagille, Kristo Jauna dana.

Eta seiñalezat emoten deusuet au: idoroko dozue mantilletan batuarik, ta aska baten etxunik.

Eta onetan batu zan Angeruaz beste Zerutar askoren neurri andi bat, Jangoikoa alabetan ebela, ta ziñoela:

Jangoikoari Gloria goietan, ta lurrean bakea borondate oneko gizonai.

Eta Angeruak eurentarik Zerura alde egin ta laster, zirautsen alkar batak besteari Arzaiñak: Belen giño goazan, ta dakusgun esan jakun au, jazo dana, Jaunak erakutsi deuskuna.

Eta arin lasterka joan zirian, ta aurkitu eben Maria, ta Jose, ta Seiña askan ifinirik.

Eta au ikusirik, ezagutu eben esan jakena, Seiña gaiti.

Eta enzun ebenak miraritu zirian; bai ta Arzainak esan eutsenaz bere.

Baña Mariak gauza guzti oneek gordetan zituan, ta gogoratu bere biotzean.

Eta Arzainak biurtu zirian Jangoikoari gloria ta alabanza emoten, enzun, ta ikusi zituezan gauza guztia kaiti, eurai esan jaken legez.

Eta bete ezkeru zortzi egunak Sedia zirkunziduteko, ifini eutsen izentzat Jesus, Angeruak izentau eban legez sabelean sortu baño len.



10. IRAKURTZA

Errege Magoak Jesus jaioparria adoretan dabe.

San Mateok cap. 2. v. 1-12

Judako Belenen Jesus jaio ezkeru, Herodes Erregearen denporan, aror non Mago batzuk etorri zirian eguzkiaren Jaiotzetik Jerusalemenera,

Esaten ebela: Non da jaio dan Judeguen Erregea? bada ikusi dogu bere izarra eguzkiaren Sortaldian, ta bera adoretera gatoz.

Eta Herodes Erregeak au enzunik, ikaratu zan, ta beragaz Jerusalem guztia.

Eta deiturik Sazerdoteen Nagusi guztiak, ta erriko Letradunak, itanduten eutseen, non jaioko zan Kristo.

Eta eurak esan eben: Judako Belenen, bada alan eskribidu eban Profeteak:

Eta zu Belen, Judako erria, etzara inolako Judako erri nagusien arteko txikerrena, bada zukan urtengo dau Israel nire Erria gobernauko daben Gidaria aurrena.

Orduan Herodesek ixilik deiturik Magoak, billatu eban eurakganik ardura andiaz, izarra agertu jaken denporea:

Eta biraldirik Belenera, esan eutsen: zoaze, ta, arakatu egizue ondo seiña: ta idoroten dozuenean, jakin eragidazue, ni bere bera adoretera joan nadin.

Eurak au Erregeari enzun eutsenean, joan zirian.

Eta aror non Urteeran ikusi eben izarra joian euren aurrean, etorri artean, ta gelditu artean Seiña egoan leku ganean.

Eta guztiz poztu zirian, izarra ikusi ebenean.

Eta etxean sarturik, aurkitu eben Seiña Maria bere Ama gaz, ta auspezturik adorau eben; ta aterarik euren tesoruak, opau eutseezan urrea, inzensoa, ta mirraren doiak.

Eta amesetan eranzuera arturik, Herodesgana biurtu etzitezela, beste bide batetik euren errietara biurtu zirian.

11. IRAKURTZA

Jesusen Eskentza Jerusalemgo Elexan.

San Lukasek cap. 2. v. 22-39

Math. ibi v. 13. Eta eurak joanik, Luk. ait seg

Eta Mariaren garbitzearen egunak kunplidu ezkeru, Moisesen legearen erara, eroan eben Jerusalemenera Jaunari eskeñiteko:

Jaunaren legean eskribidurik egoan legez: gizakume lenjaio guztiak Jaunari konsagrauak izango dira.

Eta Jaunaren legeak aginduten eban legez tortola bi, edo usakume biren ofrendea egiteko.

Eta egoan orduan Jerusalemenera Simeon eritxon gizon justu, ta Jangoikoaren bildurdun bat, Israelgo konsuelua itxadoten ebana, ta Espiritu Santua egoan beragan.

Eta arturik eukan eranzuera Espiritu Santuaganik, ez ebala eriotzea ikusiko, ikusi baga lenago Jaunaren Kristoa.

Eta etorri zan Tenplura espirituan.

Eta Gurasoak Jesus seiña ekarririk, legean oi zana egiteko beragaz: Simeonek bere besoetan artu eban, ta bedeinkatu eban Jangoikoa, esanik:

Orain, Jauna, zeure esana zan legez, itxiko dozu zure serbitzari au bakean ilten:

Zerren nire begiak ikusi eben zure Salbatzallea, Prestau zenduana erri guztien aurrengo,

Jentilak argituko dituana, ta Israel zure erriko gloria izango dana.

Eta bere Aita, ta Ama mirariturik egozan, bera gaiti esaten zirian gauzak gaiti.

Eta Simeonek bedeinkatu zituan, ta Maria bere Amari esan eutsan: aramen non seiñau dagoan ifinirik Israeldar askoren jausiera, ta jasoeratzat, ta kontrakizunaren seiñaletzat:

Eta zure arima ezpata batek igaroko dau, biotz askoen pensamenduak agertu ditezen.

Eta egoan Profetisa bat, Ana eritxona, Fanuelen alaba Aser-go probinziakoa: urte askotakoa zan au, ta bere donzellatasuneti geroz bizi izan zan zazpi urtean bere senarraz.



Eta au alarguna zan, larogeta lau urte urrean zituana: ta iños Tenplutik urteten ez eban, gau ta egun serbietan ebala barau ta oraziñoetan.

Eta berau etorririk ordu onetan, Jauna alabetan eban, ta bere berbak esaten eutseezan Israelgo erredenziñoa itxadoten eben guztiai.

Eta gauza guztiak egin ezkeru Jaunaren legearen erara, biurtu zirian Nazaret Galileako euren Urira.

12. IRAKURTZA

**Jesus doa iges Ejitora;
ta Herodesek ilten ditu Inozenteak.**

San Mateok cap. 2. v. 13-18

Eurak (*Magoak*) joan ezkeru, aror non Jaunaren Angeru bat agertu jakon amesetan Joseri, ta esan eutsan: jagi zaite, ta artu egizuz Seiña ta bere Ama, ta iges egizu Ejitora, ta zagoz an, nik besterik esan artean: bada Herodesek billatuko dau Seiña, ilteko.

Jagi zan Jose, Umea artu eban, ta bere Ama gaubez, ta joan zan Ejitora:

Eta an egon zan Herodesen eriotzaraño; bete zedin Jaunak esan ebana Profetaren aotik: Ejitotik neure Semeari dei egin neutsan.

Orduan Herodesek ikusirik, Magoak burla egin eutsela, asko aserratu zan, ta biraldurik, il erazo zituan Belenen ta bere inguruan egozan urte bi ta berako Seiñak guztiak, Magoetarik jakin eban tenporaren bitartekoak.

Orduan bete zan esan zana Jeremiasen aotik:

Raman enzun zan boza, negarra, ta dedar andia: Rakel negarrez bere semeak, ta gura ez eban konsuelurik, eztirialako.



13. IRAKURTZA

Jesus bere Gurasoakaz biurtzen da Nazaretera.

San Mateok cap. 2. v. 19-23.

Eta Herodes il ezkeru, ara non Jaunaren Angeru bat agertu jakan amesetan Joseri Ejiton,

Eta esan eutsan: jagi zaite, artu egizuz Seiña, ta bere Ama, ta zoaz Israelgo errira, zergaitik tze il dira Seiña il gura ebenak.

Jagirik Jose artu zituan Seiña, ta bere Ama, ta etorri zan Israelgo errira.

Baña enzunik Arkelaok erreinetan ebala Judean Herodes bere aitaren lekuan, bildur zan ara joaten: ta amesetan abisaurik, aldegin zan Galileako errietara,

Eta artu eban bizi-lekua Nazaret eritxon Uri baten: bete zedintzat Profetak esan ebena: Nazarenoa deituko zala.

14. IRAKURTZA

**Jesus Jerusalemgo Tenpluan galdu,
ta idoro eben bere Gurasoak,
ta eurekaz biurtzen da Nazaretera.**

San Lukasek cap. 2. v. 40-52

Eta Seiña azi, ta indartuten zan, jakituriaz beterik: eta Jangoikoaren grazia beragan egoan.

Eta bere Gurasoak urtero joaten zirian Jerusalemenera Pazkuako Jai andian.

Eta amabi urtekoa zala, igon eben Jerusalemenera oi zan legez jaiegunean,

Eta ango egunak azkendu ezkeru, biurtuten ziriala, Jerusalemen Jesus Seiña gelditu zan, bere gurasoak oartu baga.

Eta uste izanik besten laguntzan etorrela, ibilli zirian egun bateko bidea, ta bere billa ebiltzen aide ta ezagunen artean.

Eta ez idororik, biurtu zirian Jerusalemenera, bere billa.

Eta jazo zan, iru egun igarorik idorotea Tenpluan Jakitun Irakastunen erdian jarriarik, eurai enzuten, ta itanduten.

Eta entzuen guztiak ikaratuten zirian bere zurtasun ta eranzuteakaz.

Eta bera ikusirik miraritu zirian.

Eta bere Amak esan eutsan: Semea, zegaiti alan gugaz egin dozu? ara zelan zure aita, ta ni ibilli izan garean larriturik zure billa.

Eta berak eranzun eutsen: zer gaiti nire billa ibilli zaree? Ezenkien nire Aitaren gauzeetan egotea konbeni jatala? Baña eurak ez eben aditu esan eutsena.

Eta eurakaz joan zan, ta Nazaretera etorri zan: ta euren agindura egon zan.

Eta bere Amak gauza guztiok bere biotzean gordetan zituan.

Eta Jesus aurreratuten zan jakiturian, adinean, ta grazian Jangoiko, ta gizonen aurrean.



Bizi bedi Jesus

BIGARREN LIBRUA

**Jesu Kristoren Bizitza San Juanen predikalditik
Bateoaren urrengo lenengo Pazkua giño**

1. IRAKURTZA

**Oraindño San Lukas, ta San Mateo Ebanjelistak
esan dabe Jesusi dagokiona gizona danez;
orain barriz San Juanek emoten deutso asierea
bere Ebanjelioari, Bautistak emon eban
testimonioaz Jesusen Jangoikotasunaren ganean.**

San Juanek cap. 1. v. 1-18

Lenengoan zan Berboa, ta Berboa egoan Jangoikoagan, ta Berboa zan Jangoikoa.

Au zan lenengoan Jangoikoaz.

Bera gaiti gauza guztiak egin zirian; ta egin zanik ezerbere bera baga egin ez zan.

Beragan egoan bizitza, ta bizitza zan gizonen argia: Eta argiak ilu-netan argia emoten dau, ta illunak au ez eben aditu.

Zan Jangoikoak biralduriko gizon bat, Juan eritxona:

Au etorri zan testimonioan, argiaren testimonioa emoteko, beragan guztiak sinistu egientzat bera gaiti.

Ez zan berau argia, ezpada argiaren testimonioa emoteko.

Zan argi egiatzkoa, mundura datozen gizon guztiak argituten ditua-na.

Munduan egoan, ta mundua bera gaiti egin zan, ta munduak ezagu-tu ez eban.

Bereetara etorri zan, ta bereak artu ez eben.

Baña bera artu eben guztiai, eskubidea emon eutseen Jangoikoaren semeak egiteko, bere izenean sinistuten dabenai:

Zeintzuek jaio zirian ez odoletik, ez aragiaren borondaterik, ez gizo-naren borondaterik, ezpada Jangoikoaganik.

Eta Berboa aragitu zan, ta gure artean bizi izan zan: ta bere gloria ikusi genduan, gloria Aitaren Seme bakarrarena legez, betea graziaz, ta egiaz.

Juanek beronen testigantza emoten dau, ta dedar egiten dau, diñoa-la: Au berau da nik esan neutsuena; nire atzean etorriko dana, ni baño lenago izan da: zerren ni baño aurrengo zan.



Eta bere betetasunetik guk guztiok artuten dogu, ta grazia grazia gaiti.

Zergaitik tze Moises gaiti legez emon zan, baña Jesu Kristo gaiti egin zirian grazia, ta egia.

Iñok iños Jangoikoa ikusi ez eban: Seme bakarrak, Aitaren sabelean dagoanak, beronek au agertu dau.

2. IRAKURTZA

San Juan Bautistak prestatuten ditu bere predikaziñoaz Jesusen bideak.

San Lukasek cap. 3. v. 1-6

Eta Tiberio Zesaren agintaritzako amabost-garren urtean, Ponzio Pilatos Judeako Gobernaria zala, ta Herodes Galileako Agintaria, ta Filipo bere Anajea Itureako Agintaria zala, ta Trakoniteko Probinziakoa, eta Lisania Abilinako Agintaria,

Anas, ta Kaifas Sazerdoteen Nagusiak ziriala, Juan Zakariasen semearen ganean egin zan Jaunaren berbea eremuan,

BATERA San Mateok cap. 3. V. 1-4.

San Markosek cap. 1. v. 1-4-6.

San Lukasek cap. 3. v. 3-6.

(Mark.) Jesu Kristo Jangoikoaren Semearen Ebanjelioaren Asierea,

(Mat.) Eta egun aetan etorri zan Juan Batista *(Luk.)* Jordaneko alderdi guztira *(Mat.) (Luk.)* prediketetan *(Mat.)* Judeako eremuan *(Mark. Luk.)* penitentziatzko bautismua bekatuen parkaziñorako.

(Mat.) Eta ziñoan: penitentzia egizue, zerren eldu da zeruetako erreinua.

Mark. Isaiasen eskribidurik dagoan legez: aramen non nik nire Angerua biralduten dodan zure aurrean, prestau dagian zure bidea zure aurretik.

Mat. Luk. Ermuan dedar egiten dabenaren boza: prestau egizue Jaunaren bidea, zuzendu egizue bere bide zearrak.

Luk. Ibar guztiak leunduko dira: mendi, ta muna guztiak zelaituko dira: ta gauza okerrak arteztuko dira: ta bide latz gogorrek bardinduko dira.

Eta aragi guztiak ikusiko dau Jangoikoaren Salbatzallea.

Mat. Eta Juan berak eukan gameluaren ullezko jazteko bat, ta ekarren narruzko garriko bat garri ganean: ta bere janaria zirean ar saltukariak, ta mendiko ezta.



3. IRAKURTZA

San Juan Batistak bateatu, ta irakasten deutse jenteai.

*BATERA. San Mateok cap. 3. v. 5-10.
San Markosek cap. 1. v. 5.
San Lukasek cap. 3. v. 7-14.*

Eta beragana etorren Judeako erriko jentea, ta Jerusalengo guztiak, ta Jordango inguruko jente guztia.

Eta bateatuten zituan Jordaneko ibaian, eurak euren bekatuak konfesaurik.

Baña ikusirik Fariseo, ta Sazerdoteetarik asko etozela bere bateora, esan eutsen onei: suge kastakoak, nok irakasi eutsuen iges egiten etorriko dan arbintasunetik?

Egizue bada penitenziako frutu duina.

Eta ez egizue esan gura izan zeuen barruan: Abran daukagu Aitatzat: bada dirautsuet: altsua dala Jangoikoa eregiteko semeak Abrani arri oneetarik.

Bada ia dago ifinirik azkorea aretxeen sustraian.

Bada frutu ona eztakarren arbola guztia, ebagiko da, ta surtara botako da.

San Lukasek an.

Eta jenteak itanduten eutsen, esanik: zer bada egingo dogu?

Berak barriz eranzunik, zirautsen: soñeko bi dituanak, emon begio eztaukanari: ta zer jan daukanak, beste orrenbeste egin begi.

Baita bere etorri zirian beragana Publikano (edo Arrendatzalleak) bateatu legizan, ta esan eutsen: Maixua, zer egingo dogu?

Eta berak eranzun eutsen: señalaturik dagoana baño geiago ez egizue eskatu.

Soldaduak bere itanduten eutsen esanik: eta guk zer egingo dogu? eta esan eutsen: ez egizue iñor estutu, ez injuriatu: ta kontentu zagoze zeuroen alogeraz.

4. IRAKURTZA

San Juanek erakutsi eban etzala bera Kristo.

*BATERA San Mateok cap. 3. v. 11-12.
San Markosek cap. 1. v. 7-8.
San Lukasek cap. 3. v. 15-20.*

Eta erriak sinisturik, ta guztiak uste izanik euren biotzetan, menturaz Juan zala Kristo:

Juanek eranzun eban, ta guztiai prediketean eutsen, esanik:

Nik egiaz bateatuten zaituedaz urean penitenziarako: baño nire ostein etorriko dana, ni baño indartsuago da,

Ez nas duin bere oñetako erabilteko, ez eta bere oñetako lokarria askatuteko.

Nik urean bateatuten zaituet, baño berak Espiritu Santuan, ta suan bateatuko zaitue.

Berak bere eskuan dauko axe-emollea: ta garbituko dau ondo bere larriña: ta bere garautegian bere garia batuko dau: baño lastoak erreko ditu iños amatauko eztan suan.

San Lukasek an.

Eta onelan bere irakaste asko adierazoten eutsazan jenteari bere sermoietan.

Baña Herodes Agintariak, zerren Juanek arpegian emoten eutsan, beretu ebalako Herodias bere anajaren emaztea, ta Herodesek egin zituan gaistakeria guztiakaz,

Eransi eban guztioi, Juan presondegian sartute au bere.



5. IRAKURTZA

San Juanek bateatuten dau Jesu Kristo, ta beronen ganera jatsiten da Espiritu Santua, ta enzuten da Aitaren boza.

*BATERA San Mateok cap. 3 v. 13-17.
San Markosek cap. 1. v. 9-11.
San Lukasek cap. 3. v. 21-23*

Eta egun aetan jazo zan jente guztiak bateoa arturik, Jesus Nazaret Galileakoa etorri zan Jordanera Juangana, beraganik bateatua izateko.

Baña Juanek eragozten eutsan, esanik: ni zukanik bateatua izan bearean, zu zatoz nigana?

Eta Jesusek eranzun, ta esan eutsan: larga orain, bada konbeni jaku alan betetea justizia guztia.

Orduan Juanek itxi eban, ta Juanek bateatu eban Jordanean.

Jesus bateatua izan ezkerro, bertatik uretik urten eban, ta ara non bateaturik Jesus, ta oraziñoan egoala, Zeruak idigi jakazan.

Eta ikusi eban Jangoikoaren Espiritua, bere ganera jatsiten zala uso ikusgarriaren irudintzan, beragana etorri, ta beragan geldituten zala.

Eta Zeruetaarik boz bat enzun zan, ziñoala: Zu zara nire Seme mai-tea; zukan dot atsegin guztia.

Vers. 23 cap. 3. Luk. Et ipse Jesus erat incipiens quasi annorum triginta, ut putabatur filius Joseph, qui fuit Heli, qui fuit Matat &a vid. supr. libr. 1. lect. 6.

6. IRAKURTZA

Jesusen Baraua, ta tentamentuak Ermuan.

*BATERA San Mateok cap. 4. v. 1-11.
San Markosek cap. 1. v. 12-13.
San Lukasek cap. 4. v. 1-13.*

Eta Jesus Espiritu Santuz beterik biurtu zan Jordanera ta Espirituak eroan eban Ermura, an deabruak tentau legian.

Eta Ermuan egon zan berrogei egun, ta berrogei gau ta Satanasek tentau eban, ta bizi zan abere artean, ta egun aetan ezer jan ez eban.

Eta barau egin ezkerro berrogei egun ta berrogei gautan, gerorengo gose zan.

Eta tentagillea beragandurik, esan eutsan: Jangoikoaren Semea bazara, esazu, arriok ogi egin ditezala.

Eta berak eranzun ta esan eutsan: eskribiturik dago: ogi utsaz baka-rrik bizi ezta gizona, ezpada Jangoikoaren aotik urtetan daben berbatik.

Orduan deabruak artu eban, ta eroan eban Uri santura, ta Tenpluko goi ganean ifini eban.

Eta esan eutsan: Jangoikoaren Semea bazara, itxi zaite jausten emendik bera.

Bada eskribidurik dago: agindu eutsela zu gaiti Angeruai gorde zagiezala, ta euren eskuetan eroan zaiezala, zure oñak arririk jo eztagian.

Eta eranzunik Jesusek, esan eutsan: baita bere eskribidurik dago: zeure Jaungoikoa tentauko eztozu.

Barriro igon eban deabruak mendi guztiz goi batera, ta bat batean erakutsi eutsazan munduko Erreinu guztiak ta bertako gloria.

Eta esan eutsan: au guztiau emongo deusut, zuretzat izango da Erreinu oneetako eskubidea, ta gloria guztia, bada niri emon jataz, ta neuk gura dodanari emoten deusadaz.

Bada baldin zuk auspez adoretan banozu, zureak izango dira diria-nok.

Orduan Jesusek esan eutsan: zoaz ortik Satanas; bada eskribidurik dago: zeure Jaungoikoa adorauko dozu, ta bera bakarrik serbiduko dozu.

Eta azkendurik tentamendu guztia, aldegitzan deabrua beraganik bere denporara giño.

Eta onetan Angeruak eldu zirian, ta serbidu eben.



7. IRAKURTZA

Judeguak San Juani biraldu eutsezan mandatariak jakiteko Kristo bazan.

San Juanek cap. 1. v. 19-28

Au da Juanek emon eban testimonioa, Judeguak biraldu eutseezanean Jerusalem beragana Sazerdote ta Lebitak, itandutera: Nor zara zu?

Eta autortu eban, ta ukatu ez eban; ta autortu eban: ez nasala ni Kristo.

Eta itandu eutsen: Zer bada? Elias zara? ta esan eban: ez nas. Profeta zara? Eta eranzun eban: Ez.

Bada esan eutsen: Nor zara, eranzun daiogen biraldu gaituezanai? Zeuk zeu gaiti zer diñozu?

Berak esan eban: ni nas Ermuan dedar egiten dabena boza: Jau-naren bidea zuzendu egizue, Isaias Profetak esan eban legez.

Eta Fariseotarrak zirian mandatari biralduak.

Eta itandu eutsen, ta esan: zegaiti bada bateatuten dozu, ezpazara zu ez Kristo, ez Elias, ez Profeta?

Eranzun, ta esan eutsen Juanek: nik uragan bateatuten dot: baña zuen erdian egon zan zuek eztazauena:

Au da nire atzean etorriko dana, ni baño len izan dana: zeñien oñetako lokarria askatuteko ez nas duin.

Au egin zan Betanian Jordanetik beste aldean, non Juan egoan bateatuten.

8. IRAKURTZA

Juanek erakusten dala, Jesus dala Jangoikoaren Azuria, ta au enzunik jarraituten deutse San Pedro ta San Andresek.

San Juanek cap. 1. v. 29-42.

Biamonean Juanek ikusi eban Jesus beragana etorrela, ta esan eban: Aramen Jangoikoaren Azuria; aramen munduko bekatua kenduten dabena.

Au da, zein gaiti esan neutsuen: nire ostean dator gizon bat, ni baño len zana: zerren ni baño lenagokoa dan.

Eta nik ez neban ezagututen; baña Israelen agertu dedin, orregaiti ni etorri nintzan urean bateatuten.

Eta Juanek emon eban testimonioa, esanik: ikusi neban zerutik jasthen Espiritua usoaren irudinan, ta bere ganean jarri zan.

Eta nik ez nazauan: baña uretan bateatutera biraldu ninduanak, esan eustan: A bera zeinen ganean ikusten dozun Espiritua jatsi ta ifinten dala, au berau da, Espiritu Santuan bateatuten dabena.

Eta nik ikusi neban: ta erakutsi neban, berau dala Jangoikoaren Semea.

Urrengo egunean bestebein egoan Juan, ta beste bere diszipulu bi,

Eta begiraturik Jesusi igarotean, esan eban: Aramen Jangoikoaren Azuria.

Eta enzun eutsen diszipulu biak jarraitu eutsen Jesusi.

Eta biurturik Jesus, ta ikusirik jarraioela, esan eutsen: Zeren billa zabilte? Eurak esan eutsen: Rabbi, zeinek esan gura dau Maixua, non bizi zara?

Esan eutsen: erdue, ta ikusi egizue. Eurak joan zirian, ta ikusi eben non bizi zan eta egun atan beragaz gelditu zirian: orduan zirian amarrak legez.

Eta Andres Simon Pedroren anajea zan, Juani au esaten enzun, ta Jesusi jarraitu eutsenatarik bata.

Onak lenengo Simon bere anajeari berba egin eutsan, esanik: Idoro dogu Mesias, Kristo esan gura dabena.



Eta Jesusgana eroan eban. Eta begiratu eutsan Jesusek, ta esan eban:
Zu zara Simon Jonaren semea: zu deituko zara Zefas, Pedro esan gura
dabena.

9. IRAKURTZA

**Jesus ezkutau zan Galileara,
ta deitu eutsen San Felipe, ta Natanaeli.**

San Mateok cap. 4. v. 12.

San Markosek cap. 1. v. 14.

San Lukasek cap. 4. v. 14.

Eta enzunik Jesusek, Juan preso egoala, igaro zan Galileara.

San Juanek cap. 1. v. 43-51.

Biaramonean Galileara joan gura izan eban; ta aurkitu eban Felipe.
Eta Jesusek esan eutsan: jarraitu egidazu.

Zan Felipe Betsaidakoa, Andres eta Pedroren errikoa.

Felipek idoro eban Natanael, ta esan eutsan: idoro dogu arako Moisesek legean eskribidu, ta Profetak adierazo eben, Jesus, Jose Nazaretkoaren semea.

Eta Natanaelek esan eutsan: Nazaretik gauza onik urten lei? Felipek esan eutsan: erdu, ta ikusikozu.

Jesusek ikusi eban Natanael bere billa etorrela, ta bera gaiti esan eban: aramen egiazko Israeldar bat, zeinegan engañurik eztagoan.

Natanaelek esan eutsan: nondik nazazu? Jesusek eranzun eutsan, esanik: Felipek zuri deitu baño len, iko-pean zengozanean, ikusi zendudazan.

Eranzun eutsan Natanaelek, esanik: Maixua, zu zara Jangoikoaren Semea, zu zara Israelgo Erregea.

Eranzun eutsan Jesusek, esanik: esan deusudalako, ikopean ikusi zendudala, sinisten dozu: onek baño gauza andiagoak ikusiko dozuz.

Eta esan eutsan: egiaz, egiaz dirautsuet, Zeruak idigirik ikusiko dozuezala, ta Jangoikoaren Angeruak igo, ta jatsiten gizonaren Semearen ganean.



10. IRAKURTZA

**Deitu eutsen Jesusi Kana Galileako Ezteguetara,
non ura biurtu eban ardaotan.**

San Juanek cap. 2. v. 1-11.

Eta andik iru egun izan zirian eztegu batzuk Kana Galileakoan, ta an egoan Jesusen Ama.

Eta Jesusi bere deitu eutsen, ta bere diszipuluai ezteguetara.

Eta faltaurik ardaoa, Amak dirautso Jesusi: ardaorik eztauke.

Eta Jesusek dirautso: Andrea, zer joaku zuri ta niri? oraindo nire ordua eldu ezta.

Bere Amak esan eutsen serbitzariari: egizue berak dirautsuen guztia.

Eta an egozan sei arrizko ontzi, Judeguen garbitzearen erara, ta bakotxak bi edo iru kantaru artuten zituan.

Jesusek esan eutsen: ontziok urez bete egizuez.

Eta goi giño bete zituezan.

Eta Jesusek esan eutsen: atera egizue orain, ta eroan egiozue Maiburuari. Eta eroan eutsen.

Eta gustau ebanean maiko Buru nagusiak ura ardaotan biurtua, ta ez ekian nongoa zan, baña serbitzariak baekien, zerren uretik atera eben: Mai-puruak dei egin eutsan Esposoari.

Eta esan eutsan: gizon guztiak lenengoan ifinten dabe ardao ona: gero barriz ondo edan dabenean, orduan emoten dabe adin ona eztana: baña zuk ardaorik onena oraingo gorde dozu.

Au zan Jesusek egin eban lenengo milagroa Kana Galileakoan.

11. IRAKURTZA

**Nazaretik urtenik doa Jesus Kafarnaunera,
ta emen emoten dau asierea prediketeari.**

BATERA San Mateok cap. 4. v. 13-17.

San Juanek cap. 2. v. 12.

Eta Nazaretko Uritik aldeginik Jesus, joan zan bizitera Kafarnaunera Zabulon, ta Neftalingo bazterreko itxas aldera,

Bera, ta bere Ama, ta bere anajeak, ta bere ikasleak: ta an egon zirian ez egun askotan.

San Mateok an.

Bete zedin Isaias Profeteak esan ebana:

Zabulongo erria, ta Neftalingo erria, itsasoko bidea, Jordanetik beste aldekoa, jenteen Galilea,

Ilunpean jarririk egoan Erriak ikusi eban argi andi bat: ta eriotzaren gerizpeko errian bizi zirianai jaio jaken argia.

BATERA. San Mateok an.

San Markosek cap. 1. v. 14-15.

Ordutik asi zan Jesus prediketetan Jangoikoaren Erreinuko Ebanjelioa, ta esaten:

Eta bada bete da denporea, ta urreratu da Jangoikoaren Erreinua, egizue penitentzia, ta sinistu Ebanjelioari, zergaitik tze eldu da Zeruetako Erreinua.

San Lukasek cap. 4. v. 14-15.

Eta bere fama zabaldu zan erri alde guzti aetan.

Eta berak irakasten eban euren Batzarretan, ta guztiak pozez andizketan eben.



12. IRAKURTZA

**San Pedro, ta San Andresek ateraten ditue
arrain asko itxasoan Jesusen izenean, ta eurok,
ta Santiago, ta San Juanek largarik sareak darraioe.**

BATERA San Mateok cap. 4. v. 18-22.

San Markosek cap. 1. v. 16-20.

Eta Jesus ebillela Galileako itxasoaren urrean ikusi zituan anaje bi, Simon Pedro deritxona, ta Andres bere anajea, sarea ezarten itxasoan ebiltzela, (zerren arraintzalleak zirian).

Eta puska bat aurrerago igarorik, ikusi zituan beste anaje bi, Santiago Zebedeorena, ta Juan, bere anajea, Zebedeo bere Aitagaz barku baten egozala, sareak adobetan.

San Lukasek cap. 5. v. 1-11.

Eta jazo zan, tropeldurik ebillela beragana etorren jentea Jangoikoa-
ren berbea enzutera, bera egoan Jenasaret-ko ur oxinaren bazterrean.

Eta ikusi zituan oxinaren bazterrean egozan barku bi: ta arraintzalleak igaro zirian lurrera, ta egozan sareak garbietan.

Eta igonik Simonena zan barku batera, erregutu eutsan, leorretik puska bat alderatu egiala.

Eta jarririk egoala barkutik jenteari irakasten eutsan.

Eta azkendurik berba egitea, Simoni esan eutsan: sar zaite barrurago, ta askatu egizuez zeuroen sareak pesketako.

Eta Simonek eranzun, ta esan eutsan: Maixua, gau guztian bear egin ezkeru ezerbere atzitu eztoqu: baña zure izenean askatuko dot sarea.

Eta au eginik, artu zituezan ainbeste arraiñ, eze, urratuten zan sarea.

Eta deitu eutseen beste barkuan egozan lagunai, lagundutera etorri zitezen.

Eurak etorri zirian, ta ainbesteraño bete zituezan barku biak, non kasi ondatuten zirian.

Eta au ikusirik Simon Pedrok etxun zan Jesusen oñetara, esaten ebala: Jauna, aldegin zaite niganik, zerren gizon bekatari bat nas.

Bada bera, ta bere lagunak gelditu zirian arriturik, ikusteaz ainbeste arrain artu zituezala.

Baitabere Santiago, ta Juan Zebedeoren semeak, Simonen lagunak zirianak.

Ta Jesusek Simoni esan eutsan: etzaite bildurtu: Emendik aurrera gizonen arraintzallea izango zara.

BATERA San Mateok, San Markosek, San Lukasek an.

Eta esan eutsen (Simoni, ta Andresi) erdue nire atzean, ta egingo dot, zuek izan zaitezen gizonen arraintzalleak.

Eta eurak bereala sareak largarik, jarraitu eutsen.

Eta deiegin eutsen bertati (Santiago, ta juani), ta eurak itxirik barkuan Zebedeo euren aita alogerakoakaz,

Eta ifinirik barkuak leorrean, dana itxi eben, ta jarraitu eutsen.



13. IRAKURTZA

**Jesusek ateraten dau gizon bateganik deabrua;
ta beste gaixo asko osatuten ditu.**

*BATERA San Markosek cap. 1. v. 21-28.
San Lukasek cap. 4. v. 31-37.*

Eta Kafarnaunen sartu zirian: ta gero Zapatuetan Batzarrean sarturik, irakasten eutsen.

Eta mirarrituten zirian bere jakituriaz: bada irakasten eban, al ebanak legez, ta ez Eskriba, edo Erakuskariak legez.

Eta euren Batzarrean egoan gizon bat espiritu loizikiñak jabeturik; ta dedarra goratuaz

Esan eban: Larga gaizuz; zer dozu gugaz zuk Jesus Nazaretkoa? Gu galdutera etorri zara? Ondo dazaut nor zarean, Jangoikoaren Santua.

Eta Jesusek agiraka egin, ta zemaitu eban, esanik: Mututu zaite, ta urten egizu gizonaganik.

Eta espiritu loi-zikiñak esetsiten eutsala indartsuz, ta dedar andiak emoten zituala, ta erdian deabruak botaten ebala, urten eban beraganik, ta kalterik bapere egin ez eutsan.

Eta guztiak gelditu zirian ikaraz beterik, ta miraritu zirian; ta bataak besteari zirautsan, ta alkar euren artean itaunduten eben, esanik: Zer da au? ze berba da au?

Ze dotrina barri da au? bada agintaritzaz, ta birtuteaz espiritu zikiñ eurai bere aginduten deutse, ta obeditan deutse, ta urteten dabe?

Eta bereala zabaldu zan bere famea.

Eta bere famak ots andia egiten eban Galileako Probinziako erri guztietan.

San Mateok cap. 4. v. 23-25

Eta Jesus Galilea guztian ebillan, euren Batzarretan irakasten, ta Erreinuko Ebanjelioa prediketean, ta osatuten Erriko gaixotasun, ta mintasun guztiak.

Eta urten eban bere fameak Siria guztira, ta ekarri eutsezan gaixotia guztiak, gatx ta miñak zituenak, ta deabrutuak, ta alditsuak, ta baldaduak, ta osatu zituan:

Eta jente askok beerrajon Galileatik, ta Dekapolitik, ta Jerusalemendik, ta Jordanen beste aldetik.



14. IRAKURTZA

**Aldeginik Jesus jenteaganik doa mendira,
ta gau guztia oraziñoan emonik,
autu zituen besten artean amabi Apostolutzat.**

*BATERA San Mateok cap. 5. v. 1.
San Markosek cap. 3. v. 13-19.
San Lukasek cap. 6. v. 12-19.*

Eta egun aetan jazo zan, ikusirik Jesusek jenteak, igo eban mendi batera, oraziño egitera; ta gau guztia emon eban Jangoikoari oraziñoa egiten.

Eta egundu zanean, deitu eutsen beragana bere diszipuluetarik gura zituanai.

Eta jarri ezkeru eldu zirian beragana bere diszipuluak.

Eta autu, ta egin eban, euretarik amabi beragaz egon zitezen, ta izentau zituan Apostolutzat, prediketara biraltzeko.

Eta emon eutsen eskubidea gaixotasunak osatuteko, ta deabruak botateko.

Eta Simoni ifini eutsan Pedroren izena.

Eta Santiago Zebedeorenari, ta Juan Santiagoren anajeari, zeintzuei emon eutsen Boanerjesen izena, zeinek esan gura dau; trumoiaren semeak;

Andres-i, Feliperi, Bartolomeri, Mateori, Tomasi, ta Santiago Alfeori, ta Simon Kananeo Zelataria deituari,

Judas Tadeo Santiagoren anajeari, ta Judas Iskariotes-i, zein zan saldu eban traidorea.

San Lukasek an.

Eta eurakaz jatsirik, gelditu zan zelai baten, ta an bertan bere diszipuluak laguntza, ta jente asko Judea guztikoa, Jerusalengoa, itxas aldeko, Tiro, ta Sidongoa,

Zeintzuk etorri zirian berari enzutera, ta osatu egizantzat kuren gaixotasunetarik.

Eta Espiritu loiaz nekaldurik egozanak osatuten zirian.

Eta jente guztiak egiten eban alegiña berari ukututeko: zerren beraganik urteten eban birtuteak, ta guztiak osatuten zituan.

15. IRAKURTZA

**Zelaian bertan Jesusek irakasten ditu
Zoriontasunak, ta beste adibide zeruzkoak.**

*BATERA San Mateok cap. 5. v. 2-12.
San Lukasek cap. 6. v. 20-26.*

Eta berak jasorik begiak bere diszipuluetara, Eta bere aoa idigirik irakasten eutsen esanik:

San Mateok an.

Zorionekoak espiritu, (edo biotzeti) pobreak, zerren eurena dan Zeruko Erreinua.

Zorionekoak mansoak zerren euren mendean eukiko daben lurra.

Zorionekoak negar egiten dabenak, zerren eurak izango dirian poztuak.

Zorionekoak justiziaren gose egarri dirianak, zerren aseak izango dirian.

Zorionekoak errukiarrak, zerren arkituko daben miserikordia.

Zorionekoak biotz garbikoak, zerren ikusiko daben Jangoikoa.

Zorionekoak baketsuak, zerren Jangoikoaren semen izena emongo deuten.

Zorionekoak justizia gaiti persekuziñoa daroenak, zerren eurena izango dan Zeruetako Erreinua.

BATERA San Mateok, San Lukasek an.

Zorionekoak izango zaree, gizonak gorrotauten zaituezanean, madarikatuten zaituezanean, ta eurakganik botaten zaituezanean, ta irainak esaten deutesuezanean, ta zuen izena txartzat desprezietan dabenean, gizonaren semea gaiti,

Eta persegietan zaituezanean, ta guzurtaurik txartasun guztia zuen kontra diñoenean ni gaiti:

Poztu zaitzeze egun atan, ta gozorotu zaitzeze: zerren zuen saria andia dan zeruan.



Bada onela euren gurasoak bere persegitu zituezan, zuek baño lena-go izan zirian Profetak.

San Lukasek an.

Baña ai zuei aberatsoi, zerren dozuen zeuroen konsuelua!
Ai zuei ase-beterik zagozanoi, zerren gose izango zaree! Ai orain barre egiten dozueno, zerren adiaka, ta negar egingo dozuen!

Ai zuei, gizonak ondo esaten deusueanean, bada euren gurasoak bere alan egin oi eutsen euren Profeta guzurtiai.

16. IRAKURTZA

**Jesusek irakasten deutsez
bere Diszipuluai adibide santuak.**

San Mateok cap. 5. v. 13-26.

Zuek zare lurreko gatza: ta gatza uts-bagetuten bada, zegaz gatzituko da? gero gauza ezta, ezpada kanpora botateko, ta gizonak oñazpitudeko.

Zuek zare munduko argia.

Mendi baten ganean dagoan Uria, ezin ezkuta liteke.

Eztabe kandela bat erexegin, ta ifinten imilaunaren azpian, ezpada kandelerruan argi egin dagioen etxean dagozan guztiai.

Alangoz argitu bear dau zuen argiak gizonen aurrean, non ikusirik zuen egite onak, gloria emon dagioen zuen Aita Zeruetan dagoanari.

Eztazue uste izan bear, ni etorri nintzala legea, edo Profetak desegitera: ez nintzan etorri kendutera, ezpada betetera.

Bada egiaz dirautsuet, Zerua, ta lurra igaro arteraño, legeko jota, ez tilde bat bere igaroko ezta, guztia kunplidu baga.

Beragaiti, austen dabena mandamentu oneetatik txikiena, ta alan irakasten deusena gizonai, txikia deituko da Zeruetako Erreinuan: baño egiten dituanak, ta irakasten dituanak, au andia deituko da Zeruetako Erreinuan.

Bada dirautsuet, zuen justutasuna ugariago ezpada Eskriba, ta Fari-seoena baño, Zeruetako Erreinuan sartuko etzareala.

Enzunik dozue, atxinakoai esan jakela: Eztozu iñor il bear, eta ilten dabena, errudun izango da juizioan.

Baña nik dirautsuet, aserratuten dana bere anajearen kontra, errudun izango dala juizioan: ta dirautsana bere anajeari irain astunen bat, errudun izango dala Batzarrean: ta dirautsana zenzun bagea, errudun izango dala infernuko suaren.

Eta alan zeure ofrendea eskeñitera bazoaz altarera, ta gomuten bazara, zure anajeak zure kontra zerbait dabela:

Larga egizu an altara aurrean zure eskeña, ta zoaz lenago zeure anajeaz baketutera, ta gero opa egitera ofrendea etorriko zara.



Konpondu zaitte laster zure kontrarioaz, beragaz bidean zagozan bitartean: jazo eztidin zure kontrarioak zu Juezari entregetea, ta Juezak zu bere Ministroari entregetea, ta presondegian sartu bear izatea.

Benetan dirautsut, andik urtengo eztozula, azkeneko maraia pagau arteraño.

17. IRAKURTZA

**Jesusek erakusten dau Ebanjelioko legea,
atxinako lege guztiak baño estuagoa dala.**

San Mateok cap. 5. v. 27-48.

Enzun zenduen, atxinakoai esan jakela: adulteriorik eztozu egingo.

Baña nik dirautsuet, bere begiak ifinten dituanak emakumeagan, berau kutiziauteko, ia egin dabela adulterioa bere biotzean.

Eta zeure eskoako begiak emoten badeutsu bekaturako bidea, atera egizu, ta zukanik kanpora bota egizu; bada obe dozu gorputzeko zati bat galdutea, zeure gorputz guztia infernuan sartua izatea baño.

Eta zeure eskoako eskuak emoten badeutsu bekatu-bidea, ebagi egizu ta bota egizu zeuganik: bada obe dozu, zeure zatietatik bat galdutea, zure gorputz guztia ifernura joatea baño.

Baitabere esan zan: largetan dabenak bere emaztea, emon begio larga-karta.

Baña nik dirautsuet, itxiten dabenak bere emazte, ezpada desoneskeria gaitik, beartuten dabela adultera izatera: ta artuten dabenak besteak itxia, egiten dau adulterioa.

Orrez geiago enzun zenduen, atxinakoai esan jakela: etzara izango guzur-juramentugilla; baño kunplutuko deutzazuz Jaunari zeure juramentuak.

Baña nik dirautsuet, iñolako juramenturik egin eztaizuela, ez Zerua gaiti, zerren Jangoikoaren jar-lekua dan:

Ez lurra gaiti, zerren dan bere oñazpikoa: ez Jerusalem gaiti, dalako Errege andiaren Erria:

Ez eta eztozu juramenturik egin bear zeure burua gaiti, bada ezin egin ziñei ulle bat zuria, ez baltza.

Eta alan au izango da zuen berbea: bai, bai: ez, ez; zerren emendik igaroten dana, gatxetik dator.

Enzun zenduen, esan zala: begia begia gaiti, ta agiña agiña gaiti.

BATERA San Mateok an.

San Lukasek cap. 6. v. 27-36.



Baña nik dirautsuet, eztagiozuela kontraratu gatxari, lenago bai iñok eskoako matrallan joten bazaitu, prestau egizu bestea bere.

Eta zugaz auzitan ibilli gura dabenari, ta soñekoa kendu gura deutsunari, kapea bere larga eiozu.

Eta iñok beartuten bazaitu milla pausu joatera, beste birmilla bere zoaz beragaz.

Emon egiozu eskatuten deutsunari: ta ordeaz eskatu gura deutsunari ez egiozu atzea biurtu.

Ta zeurea dana artuten dabenari, ez eiozu geiago eskatu.

Eta gura dozuena, gizonak zuei egin daizuen, ori berori eurakaz zuek egizue.

Enzun zenduen, esan zala: maitetuko dozu zeure lagun urkoa, ta gorratauko dozu zeure arerioa.

Baña nik dirautsuet, danzuzuenoi: maitetu egizue zeuroen arerioak, on egiezue gorroto zaituenai.

Bedeinkatu egizuez madarikatuten zaituezanak, ta oraziño egizue persegitu, ta injurietan zaituezanak gaiti.

Izan zaitezen zeuroen Aita Zeruetan dagoanaren semeak: zeñek jaio eragiten dau eguzkia onen, ta gaistoen ganean: ta euria biralduten dau justu, ta bekatarien ganera.

Zergaiti tze baldin maite badozue maite zaituezanak, ze sari eukiko dozue? Eztabe au berau Lukreruak egiten? bada bekatariak bere maite izaten dituez eurak maite dituezanak.

Eta on egiten badeutsezue on egiten deutsuenai, ze merezimendu eukiko dozue? bekatariak bere beste orrenbeste egin oi dabe.

Eta ordeaz emoten badeutsezue, zerbait emongo deusuela uste dozuena, ze meritu eukiko dozue? bada bekatariak bere alkar ordetuten dabe, beste orrenbeste artuteko.

Eta bakarrik zeuroen anajeai agur egiten badeutsazue, zer geiago egiten dozue? menturaz au berau eztabe Fede bageak egiten?

Amau egizuez bada zeuroen arerioak: egizue on, ta ordeaz emon egizue, onegaiti ezer itxadon бага, ta zuen saria andia izango da, ta Jangoikoaren semeak izango zare, bada bera ona da eskerbage, ta gaistoentzat bere.

Izan zaiteze errukiorrak, zuen Aita errukiorra dan legez.

Izan zaiteze bada obetanduak, zeuroen Aita zerukoa obetandua (*edo perfektoa*) dan legez.

18. IRAKURTZA

**Jarraiturik Jesusek mendiko sermoia,
irakasten dau zelan egin bear dirian
limosnak, oraziñoak, barauak:
ta erakusten dau ze zorakeria andia dan
ondasunen ardura geiegia.**

San Mateok cap. 6. v. 1-34.

Begira, egin eztaizuen zeuroen justutasuna gizonen aurrean, eurak ikusi zaizentzat; bada bestela, saririk eukiko eztozue zeuroen Aita Zeruetan dagoanaganik.

Eta alan limosna egiten dozunean, tronpeta soñutu ez egizu zeure aurrean, Hipokritak (*edo Irudigillak*) euren Batzar, ta kaleetan egin daroen legez, gizonakganik honratuak izan ditezen.

Egiaz dirautsuet, euren saria artu dabela.

Baña zuk limosna egiten dozunean, eskoiak jakin ez begi, ezkerrek egiten dabena:

Alangoz eze, zure limosnea egin bidi ezkutuan, ta zure Aita ezkutuan dakusanak sarituko deutsu.

Eta oraziño egiten dozunean, eztozue hipokritak legez izan bear, bada oneek oraziñoa egin daroe zutik Batzarretan, ta plaza basterretan, gizonak ikusi daizentzat.

Egiaz dirautsuet, euren saria artu dabela.

Baña barriz zuk oraziño egitorduan, zeure gelan sartu zaite, ta atea itxirik, ezkutuan zeure Aitari erregutu eiozu; ta zure Aita ezkutuan zakusanak, sarituko zaitu.

Eta oraziño egitean, ez egizuez esan berba asko, Jentilak legez; bada uste dabe berba asko egitea gaiti enzungo jakela.

Eztozue gura izan bear euren antzekoak: bada zuen Aitak baki zer bear dozuen, zuek eskatu baño len.

Zuek bada alan oraziño egingo dozue: Aita gurea Zeruetan zagozana: santifikatu bedi zure izena.

Betor gugana zure Erreinua: egin bedi zure borondatea, nolan Zeruan, alan lurrean.

Egun iguzu geure ogi gurez ganerakoa.



Eta parkatu eiguzuz geure zorrak, guk geure zordunai parketan deusteguzan legez.

Eta itxi ez eiguzu tentaziñoan jausten: baña libradu gaizuz gatxerik. Amen.

Bada gizonai parketan badeutsazuez euren bekatuak, zeuroen Aita Zerukoak bere zuei zuen bekatuak parkatu deutsuez.

Eta baldin gizonai parkatuten ezpadeutsazue zuei bere zuen bekatu-rik zeuroen Aitak parkatuko ezteutsue.

Eta barau egiten dozuenean, etzaitze egon triste hipokritak legez, zeintzuek bestetuten ditue euren arpegiak, adierazoteko gizonai barau egiten dabela.

Benetan dirautsuet, euren pagu-saria artu dabela.

Baña zuk barau egiten dozunean, untau eizu zeure burua, ta garbitu egizu zeure aurpegia:

Usterazo eztagiozuen gizonai, barau zareala, ta bai bakarrik ezkutuan dagoan Aita zeureari: ta zure Aita ezkutuan zakusanak sarituko zaitu.

Ez egizuez batu zeuroentzat ondasunak lurrean, non ugerrak, ta sitsak jaten dituzan: ta non lapurrak lurretik atera, ta ostuten dituezan.

Baña gorde egizuez ondasunak Zeruan, non ez ugerrak, ez sitsak bagetuten eztituzan: ta non lapurrak atera ta ostuten eztituezan.

Bada non zure ondasuna dan, an dago zure biotza bere.

Zure gorputzeko argia zeure begia da: zure begia mea bada, zure gorputz guztia izango da argitsua.

Baña zure begia gaistoa bada, zure gorputz guztia izango da iluntsua.

Eta barriz zukan dan argia iluntasunak badira, ze andiak izango ezti-
ra arako iluntzak?

Ugazaba bi inok serbidu ezin leiz: zergaiti tze edo bata gorroto izan-
go dau, ta bestea amauko dau: edo bata sufriduko dau, ta bestea despre-
ziatuko dau.

Ezin serbidu ziñeiez Jangoikoa, ta ondasunak.

Beragaitik dirautsuet, ibilli etzaitzela nekatu-rik zeuroen arimaren-
tzat zer jango dozuen, ez zeuroen gorputzarentzat zer janziko dozuen.

Menturaz arimea ezta jatekoa baño geiago? ta gorputza jatzekoa
baño geiago?

Begira zeruko egaztai, zeintzuk eztabe ereinten, ez igitanduten, ez
garautegetan bilduten; ta zuen Aitak zerukoak jaten emoten deutse.

Bada zuek etzare aek baño geiago?

Eta nok zuetarik pensaurik eransi leio ukondo bat bere tailluari?

Eta zergaitik zabilte larriturik soñekoa gaiti? Ara zelan aziten dirian
kanpoko liriok: eztabe bearrik, ez goruetarik egiten.

Dirautsuet bada, Salomon bere bere gloria guztian etzala estaldu
onetariko bat legez.

Eta Jangoikoa onelan janziten badau kanpoko bedarra, gaur iraun,
ta biar laban sartuko dabena, zeinbat geiago zuek, fede gitxiko gizonak?

Etzaitze bada larritu, esanik: zer jango dogu, edo zer edango dogu,
edo zegaz estalduko gara?

Bada jenteak onelako gauzakaitik arikatuten dira: ta zuen Aitak daki
oneen bearra dozuela.

Billatu egizue bada lenengo Jangoikoaren Erreinua, ta bere justuta-
suna: ta gauza guzti oneek eransiko jatzuez.

Eta alan etzaitze ibilli arduraturik biarko egunaren ganean.

Bada biarko egunak bere ardurea eukiko dau; asko dau egunak bere
lanaz.



19. IRAKURTZA

Azkenduten dau Jesusek mendiko Sermoia, beste adibide santuak emonik.

BATERA San Mateok cap. 7. v. 1-29.

San Lukasek cap. 6. v. 37-49.

Ez egizue juzgatu, ta etzare juzgatuak izango: ez eizue kondenatu, ta etzare kondenatuak izango.

Parkatu egizue, ta parkatuko jatzue:

Emon eizue, ta emongo jatzue: neurri betea, estutua, goratua, ta ganez egiña zuen kolkora emongo dabe.

Bada juzgetan dozuen juzguaz, izango zare juzgatuak; ta neurtuten dozuen neurriaz biurtuko zaitue neurtuten.

Bai ta zirautsen irudintza bat: zelan itsu batek beste itsu bat gidauko dau? eztira biak zuloan jausiko?

Ezta ikaslea irakaslea baño geiago: eta obetandua izango da bere maixua dun beste dana.

Eta zergaiti dakutsu zeure anajearen begiko lasto txikia, ta eztakutsu zeure begian dozun age andia?

Edo zelan esan ziñeio zeure anajeari: itxi eidazu, anajea, atera daizudan zeure begiko altsia, zeuk ez ikusirik zeure begiko agea?

Guzurtia, len zeure begiko abea atera egizu, ta gero ikusikozu, atereko altsia zeure anajearen begitik.

San Mateok an.

Txakurrai santua emon ez egiozue, ta lañekoen aurean zeuroen perlak ifini ez eizuez: jazo eztidin oñeen azpian zapaldutea, ta zuen kontra abiaturik, zatitu ez zaiezan.

Eskatu, ta emongo jatzue: billatu egizue, ta arkituko dozue: deitu eizue, ta idigiko jatzue.

Zerren tze eskatuten daben guztiak artuten dau: ta billatuten dabena idoroten dau: ta oles egiten dabenari, idigiko jako.

Edo ze gizon da zuen artean emongo deusana bere semeari arri bat, baldin ogia eskatuten badeutso?

Edo arrain bat eskaturik, benturaz emongo deutso sierpe bat?

Bada zuek deungeak izanik, badakizue doe onak zeuroen semeai emoten: zeinbat eta obeto zuen Aita Zeruetan dagoanak ondasunak emongo ezteutsez, esketan deutsezana?

Eta alan zuek gura dozuen guztia, gizonak egin dagizuen, zuek bere eurai egin eiezue: bada au da legea, ta Profetak diñoena.

Ate estutik sartu zaiteze: bada andia, ta zabala da ondamedira daroian atea, ta asko beraganik sartuten dira.

Ze estua dan atea, ta ze bedarra Bizitzara daroian bidea! ta gitxi dira beraganik sartuten dirianak.

Gorde zaiteze Profeta guzurtietatik, zeintzuk datoz zuetara ardien soñekoaz janzirik, baña barruan otso lapurtiak dira.

Euren frutuetatik ezagutuko dozuez.

BATERA San Mateok: San Lukasek an.

Bada ezta arbola ona, frutu txarrak dakartzana: ez eta arbola txarra frutu onak dakartzana.

Zerren bere frututik edozein arbola ezagututen dan.

Bada elorritik ikorik artuten ezta: ta sasitik matsik bilduten ezta.

Onelan arbola onak frutu onak daroaz: ta arbola txarrak frutu txarrak daroaz.

Arbola on batek frutu txarrik eroan ezin lei: ez arbola txar batek bere frutu onik emon ezin lei.

Frutu ona eztakarren arbola, ebagi, ta suan sartuko da.

Alan bada euren frutuatarik ezagutuko dozuez.

Gizon onak bere biotzeko ondasun onetik, ateraten dau ontasuna: ta gizon gaistoak ondasun txarretik ateretan dau dongetasuna.

Bada biotzeko ugaritasunetik aoak berba egiten dau.

Zergaiti bada deituten dozue Jauna, Jauna, ta egiten eztozue diñodana?

Jauna, Jauna esaten daben guztiak sartuko eztira Zeruetako Erreinu; ezpada nire Aita Zeruetan dagoanaren borondatea egiten dabena ori sartuko da Zeruetako Erreinu.

Askok esango deuste arako egunean: Jauna, Jauna; bada erakutsi ez genduan zeure izenean? Eta zure izenean bota ezkenduzan deabruak? Ta miraria asko egin ez genduan zure izenean?

Baña nik orduan argiro esango deutset: Iños ezagutu etzaituedaz: zoaze niganik gaistakeria egiten dozuenak.



Erakutsiko deitsuet noren antza daben, nigana datorrena, nire berbak enzuten dituana, ta beteten dituana:

Dirudi bada gizon jakitun bati, zeñek egin eban etxe bat, zimendua ondo idigirik, zakondurik, ta arri irme ganean seguraturik: ta urak azi ta uriola bat etorririk jo eban etxean, baña banatu ezin eban.

Euriari biñotson, ta etorri zirian ibaiko ur korrontak, ta esetsi eutsen axeak, ta emon eben gogor etxearen kontra, eta jausi etzan, zimendu sendoa arri-atx irmean eukalako.

Baña nire berbok enzun, ta beteten eztituanak, irudingo dau gizon jakinez bati, zeñek area ganean, lur utsean, zimendu baga bere etxea egin ebanari, ta ur korrontak bota eben.

Bada jausi zan euria, etorri zirian ibaiak, biztu zirian axeak, esetsi eben etxe onen kontra, ta bertati jausi zan, ta andia zan etxe onetan egin zan kaltea.

San Mateok an.

Eta Jesusek irakaste oneek azkendu zituanean, jenteak miraritu zirean bere doktrinea enzunik.

Bada irakasten eutsen, agintaritza eukanak legez, ta ez euren Letradun ta Fariseoak legez.

20. IRAKURTZA

Azkendurik mendiko predikaldia, ta bera jatsirik, osatueban Jesusek lepradun bat.

BATERA San Mateok cap. 8. v. 1-4.

San Markosek cap. 1. v. 40-45.

San Lukasek cap. 5. v. 12-16.

Eta jatsi zanean Jesus menditik, jente askok jarraitu eutsen.

Eta jazo zan Erri aetatik baten egoala, etortea gizon bat lepraz betarik egoana,

Eta ikusi ebanean Jesus, etxun zan auspez lurean, adoradu eban, ta belanikuturik, erregututen eutsan, esanik: Jauna, gura badozu, osatu neikezu.

Eta Jesusek beragaz errukiturik, luzetu eban bere eskua, ta ukuturik, esan eutsan: gura dot: garbitu zaite.

Eta au esanik, berpetati kenduzan beraganik leprea, ta gelditu zan garbirik.

Jesusek zemaitu eban, ta despeditu eban bertati.

Eta agindu eutsan: ara, iñori esan ez eiozu.

Baña zoaz, ta erakutsi zaite Sazerdoteen Nagusiari, ta zeure garbitasuna gaiti opa egizu euren testimoniorako Moisesek agindu ebana.

Baña berak joan ta laster asi zan agertuten, ta zabalduen gerta zana.

Eta geiago ta geiago zabalduen zan bere fama: alangoz eze ezin sartu zan Jesus agertu baga Errian, ta geldituten zan kanpoan leku bakarretan, ta leku guztietarik etozen jente piloak beragana, berari enzuten, ta euren gaixotasunetarik osatutera.

Baña bera aldegiten zan ermura oraziño egitera.



21. IRAKURTZA

Kafarnaunen osatuten dau Jesusek Zenturionen otseña il aginian egoana.

BATERA San Mateok cap. 8. v. 5-13.

San Lukasek cap. 7. v. 1-10.

Eta bere berba guztiak esan ezkerro enzuten egoan jenteari, sartu zan Kafarnaunen.

Eta an egoan gaixorik, ta il aginian Zenturionen serbitzari bat, bere Ugazabak maite ebana.

Eta Jesusen barriak enzunik, biraldu eutsazan Judeguen zaar batzuk, erregututen eutsela, etorri zedilla bere otseña osatutera;

Eta ziñoala: nire otseña etxean datz baldaurik, ta guztiz mindurik.

Eta eurak eldurik Jesusgana, erregu andiak egiten eutsezan, esanik: merezi dau, mesede au zuk berari egitea.

Bada maite dau gure jentea: ta berak egin euskun Batzar-etxea.

Eta Jesusek esan eutsan: ni joango nas, ta osatuko dot.

Eta Jesus eurakaz joian. Ta etxearen urrean egoala, Zenturionek bere adiskideak biraldu eutsezan, zirautsala: Jauna, neke au artu ez egizu, zerren duin enas nire etxe barruan sartu zaitezcan.

Eta beragaiti eztoz uste izan duin nasala zure billa urteteko: ta alan bakarrik berba bat esazu, ta nire otseña osatuko da.

Bada ni nas ofiziodun ordeko bat, nire agindura soldaduak ditudana, ta oni dirautsat: zoaz ara, ta doa; ta beste bati erdu ona, ta dator; ta nire serbitzariari: egizu au, ta egiten dau.

Au enzun eutsanean, miraritu zan Jesus: ta bere jarraian joian jentean bihurturik, esa eban: Egiaz dirautsuet, Israelen bertan bere au baño fede andiagorik arkitu eztoz.

Eta dirautsuet, asko etorriko diriala eguzkiaren Urteera, ta Sartuera-tik, ta jarriko direala Zerueta Erreinuan Abraan, ta Isaak, ta Jakob gaz:

Baña Erreinuko semeak botako dira kanpoko iluntasunetara: an izango da negarra, ta agin ikarea.

Eta Jesusek Zenturioni esan eutsan: zoaz, ta sinistu dozun erara egin bedi zugaz. Eta ordu atan bertan osatu zan otseña.

Eta mandatari biralduak biurtu zirianearen etxera, idoro eben osaturik, gaixorik egon zan serbitzaria.

22. IRAKURTZA

San Pedroren Aubea, ta beste gaixo asko Jesusek osatuten ditu.

BATERA San Mateok cap. 8. v. 14-17.

San Markosek cap. 1. v. 29-34.

San Lukasek cap. 4. v. 38-41

Batzarretik urten ta laster, joan zirian Simon, ta Andresen etxera Santiago ta Juanegaz.

Eta Jesus eldurik Pedroren etxera, ikusi eban onen Aubea gaixorik oean etzala min andiakaz.

Eta bertati berba egin, ta erregutu eutseen bera gaiti.

Eta eldurik beragana, artu eban eskutik, ta jagi eban.

Eta bere ondoan egoala agindu eutsan gatzari, ta berpetati itxi eban gatzak, ta jagi zan, ta asi zan serbietan.

Arratsaldean eguzkia sarturik bere aurrean ifini zituezan deabrutu asko, ta era guztiko gaixotasunak eukezan mindunak ekarkeezan.

Eta erri guztia etorri jakon ateetara; ta berak bere eskuak baktxaren ganean ifinirik, osatuten zituan: ta bere berbeaz ateraten zituan deabruak; ta gaixo guztiak osatu zituan.

Bete zedin Isaias Profetak esan ebana: berak beragan gure gatzak artu zituan, ta bere ganean eroan zituan gure gaixotasunak.

Eta askoganik deabruak urteten eben, dedarrez, ta esaten ebela: zerren tze zu zara Jangoikoaren Semea: ta agiraka egin, ta itxi gura ez eutsen esatea, ekiela bera zala Kristo.



23. IRAKURTZA

Ikusirik Jesus jente askoz estuturik, alde egin zan leku bakarrera bere Diszipuluakaz orazino egitera. Bere Ikasle bati laketu ez eutsan joatea bere Aita enterretara.

BATERA San Mateok cap. 8. v. 18-22.

San Markosek cap. 1. v. 35-39.

San Lukasek cap. 4. v. 42-44.

Eta jagirik goxean goxetik, urten eban, ta leku bakar batera joan zan, ta an oraziño egiten eban.

Eta jarraitu eutsen Simon, ta beragaz egozanak.

Eta idoro ebenean, esan eutsen: zure billa dabilz guztiak.

Eta berak eranzun eutsen: goazan urrean dagozan Erri ta Urietara, euroetan bere prediketako: bada onetarako etorri nas.

Eta jenteak bere billa ebiltzen, ta bera egoan lekuraño joan zirian; ta geldituten eben eurakganik joan etzidin.

Eta esan eutsen: Beste Erriai bere adierazo bear deutset Zeruko Erreinua: bada onetarako izan nas biraldua.

Eta euren Batzarretan, ta Galilea guztian prediketetan eban, ta dea-bruak ateraten zituan.

Baña ikusirik Jesusek jente asko bere inguruan, agindu eban igarotea beste ibai aldera.

Eta jazo zan, eurak bidean joiazala,

Beragana eldurik Eskriba batek, esan eutsan: Maixua: nora nai zozala, jarraituko deusut.

Eta Jesusek esan eutsan: azeariak euren lezeak ditue, ta zeruko egaz-tiak euren abiak: baña gizonaren semeak eztauko non eratzoz bere burua.

Eta beste bere diszipuluen arteko bati esan eutsan: jarraidazu.

Ta berak eranzun eutsan: Jauna, larga egidazu joatea neure aita ente-
retara.

Baña Jesusek eranzun eutsan: jarraidazu, ta itxi egizu, illak illak lur-
petu dagiezan.

Zu barriz zoaz, ta predikau egizu Jangoikoaren Erreinua.

Eta beste batek esan eutsan: Jauna, jarraituko deusut: baña lenago
itxi eidazu joatea neure etxeko gauzak abiatutera.

Jesusek esan eutsan: ezta gai Jangoikoaren Erreinurako, bein eskua
goldean ifinirik, atzera begiratuten dabena.

24. IRAKURTZA

Sartzen da Jesus barku baten, ta ekatxa sosegetan dau.

BATERA San Mateok cap. 8. v. 23-27.

San Markosek cap. 4. v. 35-40.

San Lukasek cap. 8. v. 22-25.

Eta egun baten jazo zan arrastegian, bere diszipuluak berari berrajo-
zala, esan eutsen eurai: Oxinaren beste aldera igaro gaitzezan.

Eta jentea despedidu ezkeron, alan zelan egoan barkuan eroan eben,
ta igo eben: bai ta baziran an beste barku batzuk bere.

Eta ugarotuten eben bitartean, bera loak artu eban.

Eta bertati itxasoan eguraldi txar andi bat egin zan: ta oxinean axez-
ko ekatx bat jagi zan,

Eta ur bagada olatuak barkura sartuten zituan, adiña ze bagak bar-
kua estalduten eben; ta urez betetan zirian, ta arrisku andian egozan.

Baña Jesus bera lo zetzan popan burukoaren ganean.

Eta beragana diszipuluak eldurik, irazartu eben, zirautsela: Maixua:
ezer ez joatzu, gu galdu gaitezen? Jauna: gorde gaizuz, ondatu ez gaitzezan.

Eta Jesusek esan eutsen: zeren bildurra dozue, gizon fede gitxikoak?

Eta bereala jagirik, zemaitu zituan axea ta ureko ekatxa; ta itxasoari
esan eutsan: zagoz ixilik, mututu zaite: ta gelditu zan axea: ta etorri zan
eguraldi on bat.

Eta esan eutsen: zegaiti zagoze bildurturik? oraindiño ez dozue
sinismenik? non da zuen fedea?

Eta gizonak miraritu zirian; ta ikara andia euken; ta alkarri zirautsen:
nor uste dozue dala,

Alan axeai, ta itxasoari agindu, ta axeak, ta itxasoak obedieta de-
tsen au?



25. IRAKURTZA

Gizon bateganik atera zituan deabruai agindu eutsen Jesusek, lauñeko batzuetara sartu zitezela.

BATERA San Mateok cap. 8. v. 28-34.

San Markosek cap. 5. v. 1-20.

San Lukasek cap. 8. v. 26-39.

Eta itxasoz igaro zirian Galilearen aurrez aur egoan Jerasenos-en erri beste aldekorra.

Eta Jesus barkutik urten, ta leorrera eldu, ta bertati, sepulturetatik urten eben deabrutu biotz gogor bik, zeintzuk egozanen bidetik inoro igaro ezin zan, etorri zirian beragana.

Eta aror espiritu loiaz beterik egoan gizon bat, deabrua luzero eukana, ta soñekorik janziten ez ebana, ta etxean bere bizi etzana.

Zeñek bere bizilekua sepulturetan eukan, ta kateakaz bere ezin lotu eben:

Bada sarri katea, ta grilluakaz estu eben, ta kateak ausi, ta grilluak puskatu zituan, ta ezin ezi eben.

Eta gau ta egun egoan beti sepultura, ta mendietan, dedarrez, ta arriakaz bere burua astinduten.

Eta ikusi ebanean Jesus urrinetik, beragana arin joan zan, etxun zan bere aurrean, ta adorau eban.

Eta dedar andi bat emonik, esan eban: Zuk Jangoikoaren Semea, zer dozu zer egin nigaz? Ona etorri zara, len bait len gu neketutera? Jangoikoaren aldetik konjuretan zaitut, ez nagizula nekaldu.

Bada Espiritu loi-zikiñari aginduten eutsan, gizonaganik urten egiala: zerren tenpora luzea zan goiberatuten ebala; ta eukia gaiti bere itxirik, ta loturik kateakaz, ta grilluakaz, austen zituan dirianok, ta deabruak esetsirik ermuetara iges egiten eban.

Eta Jesusek itandu, ta esan eutsan: ze izen da zurea? ta berak eranzun eutsan: Lagunkida da nire izena; zergaiti ze asko gara; zerren beragan deabru asko sartu zirian.

Eta asko erregututen eutsen, erri atatik bota ez egiezala; agindu ez egieia Lezera ondautzea.

Eta ez urrin eurakganik ebilla mendiaren inguruan lauñeko talde andi bat.

Eta Espirituak erregututen eutsen, euretan sartutea itxi egieia:

Esanik: emendik ateretan bagozuz, biraldu gaizuz laguñeko taldera, euretan sartu gaitezzen.

Eta Jesusek bertati baimena emon eutsen.

Eta esan eutsen: zoaze. Ta Espiritu zikiñak urtenik, lauñoekoetan sartu zirian; ta talde guztia atx batik bera arinka itxasora jausi zan; zirian birmilla legez; ta itxasoko uretan ito, ta ondatu zirian.

Lauñoekoen arzainak au ikusirik, iges egin eben: ta eldu zirianeau Urira, ta kanpoetara, ta errietara, esan eben jazo zan guztia, ta deabrutuen gertaldia.

Eta urten eben ikustera zer egin zan, ta Jesusgana etorri zirian; ta idoro eben jarririk a gizona, zeñeganik deabruak urten eben.

Eta ikusi eben janzirik, ta bere zenzunean bere oñetan, ta bildur andia artu eben.

Eta ikusi ebena adierazo eutsen, deabrutuari jazo jakon guztia, zelan librau zan Lagunkidatik; ta laguñekoakaz jazo zana.

Eta erri guztiak urten eban Jesusen billa, ta ikusi ebanean, Jerasenos-tarrak erregutu eutsen, euren erri mugatik erbestetu zedilla, zerren bildur andia eukeen. Eta berak barkura igo, ta biurtu zan.

Eta Jesus barkuan sartu zanean, deabruturik egon zana asi jakon erregututen, itxi egieia bere laguntzan joaten.

Baña Jesusek gura ez eban, ta esan eutsan: zoaz zeure etxera zeure-tara, ta esan egiezu, ze mesede andia Jaunak egin deustun, ta zugaz euki daben miserikordia.

Bera barriz joan zan Erri guztitik, ta Dekapolisen asi zan adierazoten, zeinbat esker-mesede Jesusek egin eutsan: ta dirianak mirarituden zirian.



26. IRAKURTZA

Jesusek Baldatu bat osaturik, erakusten dau mirariak egiteko daukan eskubidea.

BATERA San Mateok cap. 9. v. 1-8.

San Markosek cap. 5. v. 21 et cap. 2. v. 1-12.

San Lukasek cap. 8. v. 40: et cap. 5. v. 17-26.

Eta barku baten sarturik, igaro zan.

Eta jazo zan, Jesus biuriturik, ta bestebein Jesus igaro ezkeru barkuan beste aldera, bere ingurura eldu zan jente pilo andi bat: jenteak artu eben; bada guztiak bere begira egozan.

Eta osterabere Kafarnaun bere Errian sartu zan, egun batzuk igaro ezkeru.

Eta jazo zan, egun baten aditutea, etxean egoala, ta ain neurri bako jentea etorri zan bertara, ze ezin artu eban, ez ta ate inguruan bere.

Eta bera egoan jarririk, irakasten: bai ta bere an egozan jarririk Fari-seo batzuk, ta legeko Doktoreak, Galileako Errietatik, ta Judeatik, ta Jeru-salenetik etorri zirianak: ta prediketetan eutsen berbea: ta Jaunaren birtutea zan osatuteko.

Eta beragana etorri zirian gizon batzuk, zeintzuk ekarren oe ganean baldaurik egoan gizon bat: lau gizonek ekarren: ta barruan sartu, ta bere aurrean ifini gura eben.

Baña ez idororik nondik sartu jente piloen bitarteti, igo eben tellatu ganera, idigi eben tellatua, an non egoan; ta zulo bat tellatuan eginik, jatsi eben baldadua zetzan oea, erdira Jesusen aurrera.

Eta Jesusek euren fedea ikusi ebanean, baldau *edo elbarriari* esan eutsan: semea fidanzia euki egizu: bada zeure bekatuak parkatu jatzuz.

Eta an bertan egozan Eskriba batzuk.

Eta Eskriba, ta Fariseoak euren artean pensetan asi zirian, ta euren barruan esaten:

Zelan gizon onek onelan berba egiten dau? Nor da biraoak diñozan au? Nok ezpada bakarrik Jangoikoak parkatu leiz bekatuak? Onek añenak diñoz.

Jesusek bere espirituan ezagaturik, au euren gogoan erabilela, eran-zun eutsen, esanik: zergaiti orrela gogoratuten dozue? Zergaiti deungero zeuroen biotzetan asmetan dozue?

Zein da errazago, baldaduari esatea: zeure bekatuak parkatu jatzuz; edo esatea: jagi zaitte, zeure oea artu, ta zabilz oñez?

Bada jakin daizuen, gizonaren semeak eskubidea dabela lurrean bekatuak parketako; orduan baldaduari esan eutsan:

Zuri dirautsut: jagi zaitte, zeure oea artu egizu, ta zoaz zeure etxera.

Eta guztiak ekusela jagi zan, ta etzan oea artu eban, ta guztiak begi-ra egozala bere etxera joan zan, Jangoikoari esker onak emoten eutsazala.

Eta jenteak au ikusirik, arritu zirian.

Eta miraritu zirian, ta andizkatuten eben orrenbeste eskubide gizo-nai emon eutsen Jangoikoa.

Eta bildur-damuak arturik, ziñoen: mirariak gaur ikusi doguz: orren-beste iños ikusi eztogu.



27. IRAKURTZA

**Jesusek San Mateori deitu eutsan;
ta eskudatuten ditu bere diszipuluak Eskriba,
ta Fariseoar salatu zituan gauzetatik.**

BATERA San Mateok cap. 9. v. 9-17.

San Markosek cap. 2. v. 13-22.

San Lukasek cap. 5. v. 27-39.

Onen ostean urten eban, ta bigarrenez itxasora biurtu zan; ta bera-gana jente guztiak etozan, ta irakasten eutsen.

Eta Jesusek andik urtenik, ikusi eban Lebi, Alfeoren semea, arrendatzallea, Mateo eritxona, diru-maian jarririk egoala, ta esan eutsan: jarraidazu.

Eta gauza guztiak largarik, jagi zan, ta jarraitu eutsan. Eta Lebi baz-kari andi bat bere etxean emon eutsan.

Eta jazo zan, Jesus jaten egoala etxe atan, arrendatzalle, *edo lukureru*, ta bekatari asko etorri zirian, beragaz ta bere diszipuluakaz jatera: bada an bertan egozan asko jarraitu eutsenak bere.

Baña euren Fariseoak, ta Eskribak deungero esaten eben, ta zirautsen Jesusen diszipuluai: zegaiti jan, ta edaten dozue lukureru, ta bekatariakaz? Eta zergaiti lukureru, ta bekatariakaz jan, ta edaten dau zuen Mai-xuak?

Au enzunik, Jesusek eranzun, ta esan eutsen: osasundunak Medikua-
kuaren bearrik ez dabe, ezpada gaixodunak.

Zoaze bada, ta ikasi egizue zer dan a: miseriordia gura dot, ta ez sakrifizioa.

Bada etorri ez nas justuak dei egitera, ezpada bekatariak penitencia egin dagien.

Onetan beragana eldu zirian Juanen diszipuluak, ta barau egiten eben Fariseoak, ta esan eutsen:

Zegaiti Juanen diszipuluak orrenbeste barau, ta oraziño egiten dabe, ta bai Fariseoenak bere, zureak barriz jan, ta edaten dabe?

Eta Jesusek esan eutsen: menturaz beartu zineiez barau egitera espo-soaren semeak, esposoa eurekaz dagoan artean? Menturaz triste egon lei-tekez ezteguetako semeak, esposoaren semeak, esposoa eurakaz egonik? Euren laguntzan esposoa dauken bitartean ezin baraurik egin leie.

Baña etorriko dira egunak, zeintzuetan esposoa kenduko jaken, ta orduko egun aetan barautuko dira.

Eta esan eutsen irudintza bat: oial barriaren adobakia iñok soñeko zarrari ifini eztaroa: zergaiti ze bestela barriak zarra urratuten dau.

Bada soñeko zarretik kenduten da artuten daben guztia; ta andiogo ta deungego zuloa egiten da: ta orrez geiago adobagei barria ezator ondo zarrean.

Ez eta eztau iñok ardao barria zagi zarretan ezarten; zerren bestela ardao barriak zagi zarra urratuko dau, ta ardao bera joango da, ta zagiak galduko dira.

Bada ardao barria zagi barrietara egotzi bear da, ta onela bata ta bes-tea gordeko dira.

Eta igazko ardao edaten dabenak, ardao barria bereala gura eztau; bada esan oi dau: ohea da zarra.



28. IRAKURTZA

Jesusek osatu zituan Jairoren alabea, ta odol-darioa eukan andra bat.

BATERA San Mateok cap. 9. v. 18-26.

San Markosek cap. 5. v. 21-43.

San Lukasek cap. 8. v. 41-56.

Berak au esanik eurai, itxaso ondoan egoan;

Eta Batzarreko Nagusia zana, Jairo zeritxon gizon bat etorri zan; ta bera ikusi ta bertati bere oñetara etxun zan, ta adarau eban erregututen eutsala, sartu zedilla bere etxean;

Zerren amabi urte urrean eukazan alaba bakar bat eukan, ta egoan il aginian.

Eta gogoz erregututen eutsan, zirautsala: nire alaba azkeneko arnasetan dago; eta arren etorri zaite, bere ganean zeure eskua ifini egizu, osatu, ta bizi dedin.

Eta jagirik Jesus joan zan beragaz, ta bazerraioen bere diszipulu, ta jente askok. Eta joiala, jenteak estututen eben.

Eta etorri zan amabi urtean odol-jarioa eukan andra bat,

Eta neke asko Medikuen eskuetan igaro izan zituan, bai ta urtu bere eurakaz eukan ondasun guztia; ta iñolako ezin osatu zan; ta geroago ta gaixoago ifinten zan:

Jesusen barri onak bada enzunik, jente piloan bitartetik sartu zan, ta atzetik eldurik, bere soñekoaren ertza ukutu eban.

Bada bere artean ziñoan: baldin nik ukutu bat bere jaztekoaren ertzan egiten badot, osatuko nas.

Eta ordu berean bere odol-jarioa gelditu zan, ta igerri eban bere gorputzean, gatx atarik osatu zala.

Baña Jesusek ezagaturik berak beragan, beraganik birtutea urten zala; jenteagana biurturik, esan eban: Nok ukutu ditu nire jaztekoak?

Nok ukutu deust? Eta guztiak ukaturik, Pedrok esan eban, bai ta beste beragaz egozanak bere: Maixua, jenteak estu estuan zarabiltze, ta diñozu: Nok ukutu deust?

Eta Jesusek esan eban: batek edo batek ukutu deust; bada nik eza-gutu dot, niganik birtuteak urten dabela.

Eta au egin ebana ikuste arren, egoan ingurura begira.

Emakumea alan agerturik ikusi zanean, ikaturik, ta bildurturik, jakinik zer igaro jakan berari; eldu zan, ta bere oñetara etxun zan.

Eta argiro egia esan eutsan; ta jente guztien aurrean agertu eban zek ekarri eban berari ukututera: ta zelan berpetati osatu zan.

Eta berak berau ikusirik, esan eban: fidanzia euki egizu, alaba, zure sinismenak osatu zaitu: zoaz bakean; ta librau zaite zeure gatxetik.

Eta ordu berean osaturik gelditu zan andrea.

Oraindo berbatutea azkendu ez eban, non bat etorri zan Batzarreko Nagusiagana, ta esan eutsan: zure Alaba il da: zegaiti geiago neketuten dozu Maixua?

Eta Jesusek enzun ebanean ziñoena, Batzarreko Nagusi neskatxaren aitari esan eutsan: Ez bildurrik euki, bakarrik sinistu egizu, ta osatuko da.

Eta beste iñori ezpada Pedro, ta Santiago, ta Juani, Santiagoren ana-jeari itxi ez eutsan beragaz joaten.

Eta Jesus etorri zanean Nagusi onen etxera, ta ikusirik flauten soñulariak, ta otsa egiten eban jente andi bat, ta negarrak, ta dedarrak egiten zituezanak, esan eutsen: zergaiti ots au egin, ta negarrez zagoze?

Zoaze emendik; bada neskatxa eztago illik, ezpada lo. Eta bere barre egiten eben, jakinik, illik egoala.

Eta an egozan guztiak kanpora aterarik, laketu ez eban sartu zitezen beragaz ezpada Pedro, ta Santiago, ta Juan, ta Neskatxaren Aita, ta Ama.

Eta berak oratu eutsan eskutik, ta boza goraturik esan eban: *Talitha cumi*, zeñek esan gura dau: Neskatxa, zuri dirautsut, jagi zaite.

Eta espiritua beragana biurturik, bereala jagi zan. Eta agindu eban, jaten emon egioela.

Eta ibiltan asi zan: ta amabi urte eukazan: ta bere gurasoak guztiz asko miraritu zirian.

Eta berak gogoz agindu eutsen, iñok jakin ez egiala. Eta fama au zabaldu zan erri guzti aetara.



29. IRAKURTZA

**Jesusek itsu bi argitu zituan,
ta osatu deabrudun bat, ta beste gaixo asko.**

San Mateok cap. 9. v. 27-38.

Eta Jesusek erri atarik urten ezkerro, itsu bik jarraitu eutsen dedarrez, ta ziñoela: Dabiden semea, gugaz arren errukitu zaitte.

Eta etxera eldurik, beragandu jakazan itsuak, ta Jesusek esan eutsen: sinisten dozue, zuei nik au egin neikezuela? Eurak esan eben: Bai, Jauna.

Orduan euren begiak ukutu zituan, esanik: zuen fedearen erara egin bedi zuekaz.

Eta euren begiak idigi zirian: ta Jesusek zemaitu zituan, esanik: kontu iñok au jakin eztagian.

Baña eurak andik aldeginik, dana zabaldu eben erri guzti artan.

Eta urten ebenean, aror non opa eutsen gizon mutu bat, deabrua eukana.

Eta deabrua atera eutsanean, mutuak berba egin eban, ta mirariturik jenteak ziñoen: Israelen iños onenbeste ikusi ezta.

Baña Fariseoak ziñoen: deabruen buruaren birtutean botaten ditu deabruak.

Eta Jesus ebillan Uri, ta Erri guztietan, euren Batzarretan irakasten, ta Erreinuko Ebanjelioa prediketetan, ta gaisotasun, ta min guztiak osatuten.

Eta aek jenteak ikusirik, ta euren errukia eukirik, zerren neketurik, ta jausirik ebiltzen, arzainik eztaben ardiak legez.

Orduan bere diszipuluai dirautse: lana egiaz andia da, baña langillak gitxi.

Lanaren Jaunari bada erregutu egiozue, langillak bere lanera biraldu dagizala.

30. IRAKURTZA

**Jesusek bere diszipuluak biraltzen ditu prediketara;
ta orretarako eskubidea, ta adibideak emoten deutsez.**

BATERA San Mateok cap. 10. v. 1-42. eta cap. 11. v. 1.

San Markosek cap. 6. v. 7-13.

San Lukasek cap. 9. v. 1-6.

Eta amabi Apostoluak deiturik, emon eutsen birtutea, ta eskubidea deabru guztien ganean, eurak aterateko:

Eta edozein gatx, ta gaixotasun osatuteko; ta binan binan biraldu zituan.

Amabi Apostoluen izenak dira oneek: Lenengoa Simon, Pedro deitua, ta Andres beronen anajea,

Santiago Zebedeorena, ta Juan bere anajea: Felipe, ta Bartolome: Tomas, ta Mateo Arrendatzallea: Santiago Alfeorena, ta Tadeo:

Simon Kananeo, ta Judas Iskariotes, a bera saldu ebana.

Amabiok Jesusek biraldu zituan Jangoikoaren Erreinua prediketara, ta gaixoak osatutera.

Eta agindu eutsen ez eroiela ezerbere biderako, ez zorrerik, ez ogirik, ez dirurik bolsan, ezpada bakarrik esku-makilla bat,

Orrez geiago zapata-idigiak, ta janzi ez egiezala tunika bi.

Eta agindurik, zirautsen: Jentilen bidera eldu etzaitze, ta Samaritanoen Errietan sartu etzaitze.

Baña bai lenago zoaze Israelgo etxetik galdu zirian ardiatarra.

Zoaze, ta predikau egizue, esanik: Zeruetako Erreinua eldu zala.

Osatu egizue gaixoak, biztu illak, garbitu lepradunak, bota deabruak: doarik artu zenduen, doarik emon egizue.

Jabetu etzaitze urreaz, ez zidarraz, ez eikezue zuen fartikeran dirurik erabilli:

Ez eta bide-zorrerik biderako, ez soñeko bi, ez oñetakorik, ez esku-makillarik: bada beargillari bere janaria dagokio.

Eta edozein Uri, ta Erri sartuten zarenetan, itandu egizue, nor dan duin bertan.

Eta sartzen zaren edozein etxetan, an ostatua artu, ta andik urten ez egizue.



Eta etxearen sarreran egin bear dozuen agurra izango da, esatea: Bakea etxe onetan izan bedi:

Eta baldin a etxea diña bada, bere ganera zuen bakea etorriko da; baña duin ezpada, zuen bakea zeuroetara biurtuko da.

Eta zuek artu, ta zuen berbak enzun gura ezpaditue, etxe atatik, edo Erri atarik urtetean, zuen oñetako auts giñokoa irardausi egizue euren kontrakoz adierantzan.

San Mateok an.

Egiaz dirautsuet, a Erria baño gogortade gitxiagoaz tratauko dala Juizioko egunean Sodoma, ta Gomorrako erria.

Aror non nik biralduten zaituedazan ardiak legez otsoen erdira.

Izan zaitetze bada zurrak sierpeak legez, ta menak usoak legez.

Eta gizonetatik gorde zaitetze; bada agertu erazokoe zaitue euren Enzundetán, ta azotadu euren Batzarretan:

Eta Gobernari, ta Erregen aurrera eroango zaitue, euren, ta jenten testimoniorako.

Eta zaroezanean, ez gogoratu zelan, edo zer berbatuko dozuen: bada ordu atan adierazoko jatzue zer esan bear dozuen.

Bada etzare zuek berba egiten dozuenak, ezpada zeuroen Aitaren Espiritua zuetan berba egiten dabena.

Baitabere anajeak anajea eriotzara emongo dau, ta aitak semea: ta semeak aitaen kontra jagiko dira, ta illerazoko ditue.

Eta nire izena gaiti guztiak gorrotauko zaitue: baña azkeneraño dirauana, au salbaduko da.

Eta Erri onetan persegietan zaituezanean, bestera iges egizue.

Benetan dirautsuet, eztozuez inguratuko Israelgo Erriak, gizonaren Semea etorri baño len.

Ezta diszipulua Maixuaren ganean; ez eta otseña Nagusia baño geiago.

Asko da diszipuluarentzat bere Maixua adiña izatea; ta otseña bere ugazaba dun beste izatea.

Belzebu deitu beutsen etxeko Buruari, zeinbat eta geiago bere etxe-koai?

Ez bada bildurrik euki: bada ezta, agertuko eztan gauza ezkutaturik; ez eta jakingo eztan gauza ixilik.

Dirautsuedana ilunetan, esazue argitan: ta belarriz danzuzuena, predikatu egizue tellatu ganean.

Eta gorputza il, baña arimea illerazo ezin dabenen bildurrik euki ez egizue: bildur bai, infernura arima ta gorputz bota al dabinari.

Menturaz txoritxo bi laumaraian salduten eztira? ta eurentarik bat lurrera jausiko ezta zuen aita baga.

Zuen buruko ulle guztiak kontaurik dagoz.

Ez bada bildurtu, bada txori asko baño obeak zare zuek.

Gizonen aurrean bada autortuten nabena, nik bere bera autortuko dot Zeruetan dagoan nire Aitaren aurrean.

Eta gizonen aurrean baldin iñok ukatuten banau, nik bere au ukatuko dot Zeruetan dagoan Aita nirearen aurrean.

Eztozue uste izan bear, bakea sartutera lurraren ganean etorri nintzala: ez nintzan etorri bakea sartutera, ezpada ezpatea.

Bada etorri nintzan aldegitera gizona bere aitagani, ta alabea bere amaganik, ta errana bere aubeaganik.

Eta gizonaren arerioak, bere etxekoak.

Bere aita, edo bere ama ni baño maiteago dabena, ezta nire diña: ta bere seme, edo bere alaba ni baño maiteago dabena, nire duin ezta.

Eta bere krutzea artu, ta ez darraidana, nire duin ezta.

Bere arima idoroten dabena, galduko dau: ta barriz nigaiti bere arimea galduten dabena, idoroko dau.

Zuek artuten zaituenak, neu berau artuten nau: ta ni artzen nabena, ni biraldu ninduana artzen dau.

Profeta bat Profetaren izenean artuten dabena Profetaren saria artuko dau: ta justua justuaren izenean artuten dabena, justuaren saria artuko dau.

Eta diszipuluaren izenean basu bat ur otz oneetariko txiki bati emote deusanak; egiaz dirautsuet, bere saria galduko eztabela.

BATERA

Eta Jesusek adibideok bere amabi ikasleai emon ezkerro, andik igaro zana euroen Erriai irakastera, ta prediketara. *Math. cap. 11. v. 1.*

Eurak barriz urten eben, ta ebiltzan erritik erri Ebanjelioa prediketana, ta osatuten leku guztietan. *Luk. cap. 9. v. 6.*

Eta urtenik prediketana eben, penitentzia egin egiela. Eta botaten zituezan deabru asko, ta gaixo asko olioaz igozten zituen, ta osatuten zirian. *Mark. cap. 6. v. 12 et 13.*



31. IRAKURTZA

Jesusek irurogeta amabi diszipuluak izentatu zituan.

San Lukasek cap. 10. v. 1-12

Eta onen ondoan Jaunak izentatu zituan beste irurogeta amabi, ta biñaka bere aurrean biraldu zituan, bera joango zan Erri, ta leku bako-txera.

Eta zirautsen: Lana egiaz andia da, baña beargillak urri.

Erregutu egiozue bada lanaren Jaunari, langillak bere lanera biraldu daizala.

Zoaze: Orra non nik biralduten zaituedazan ardiak legez otsoen erdira.

Ez eroazue bolsarik, ez bide-zorrorik, ez oñetakorik, agurrik bere bidean iñori ez eiozue.

Sartuten zaren edozein etxetan, esan lenen: Pakea izan bedi etxe onetan.

Eta baldin bada an bakearen semerik, bere ganean zuen bakea gel-dituko da: ta bestela zeuroetara biurtuko da.

Eta etxean bertan gelditu zaitete, jaten, ta edaten eurak daukena: bada beargillea bear-sariaren duin da.

Etxe baterik bestera igaro etzaitete.

Eta sartuten zareen edozein Erritan, baldin artuten bazaitue, aurrean ifinten deusua jan egizue:

Eta osatu egizue bertan dagozan gaixoak, ta esan eurai: Jangoikoa-ren Erreinua zuetara eldu da.

Baña sartuten zaren Errian artuten ezpazaitue, urten bere plazetara, ta esazue:

Zuen Errian eransi jakun autsa giño astinduten dogu zuen kontra: baña bada jakin egizue, Jangoikoaren Erreinua eldu dala.

Dirautsuet, arako egunean a Erria baño Sodoma gogortade gitxia-goaz tratauko dala.

32. IRAKURTZA

Naingo Alargunaren seme illa Jesusek biztu eban.

San Lukasek cap. 7. v. 11-17.

Eta gero jazo zan, Nain eritxon Erri batera joian, ta beragaz joiazan bere diszipuluak, ta beste jente asko.

Eta Erriko atearen ondora eldu zanean, aror non ama alargun baten seme bakar bat illik kanpora atera eben: ta beragaz Erriko jente asko eto-rran.

Jesusek ikusi ebanean, bere errukia arturik, esan eutsan: Ez egizu negarrik egin.

Eta eldu zan, ta ill-oea ukutu eban. Ta eroanak gelditu zirian. Ta esan eban: Gaztea, zuri dirautsut, jagi zaite.

Eta jarri zan illik egon zana, ta berbaz asi zan. Ta bere amari emon eutsan.

Eta bildur andi bat guztiak artu eben, ta Jangoikoa andizketan eben, esanik: Gure artean Profeta andi bat jagi da: ta Jangoikoak bere erria bisi-tau dau.

Eta Judea, ta bere inguru guztian mirari onen barria zabaldu zan.



33. IRAKURTZA

**San Juanek, karzelan egoala,
enzunik Jesusek egiten zituan mirariak,
beronegana diszipulu bi biralduten ditu,
jakiteko Kristo bazan. Eta Jesusek
euren aurrean milagro andiak egiten ditu.**

BATERA San Mateok cap. 11. v. 2-6.

San Lukasek cap. 7. v. 18-23.

Eta Juani gauza guztiok bere diszipulu bik kontau eutsezan.

Eta Juanek karzelan egoala Kristoren egiteok enzunik, bere ikasle bi biraldu zituan,

Eta esan eutsan: Etorriko dana zara zu, edo besteren bat itxadoten dogu?

Eta gizonok beragana etorririk, esan eutsen: Juan Bautistak zugana biraldu gaitu, ta diño: etorriko dana zara zu, edo besteren baten begira gagoz?

Eta Jesusek ordu berean osatu zituan asko euren gaixotasunetatik, ta gatxetatik, ta espiritu gaistoetatik, ta itsu askori ikustea emon eutsen.

Eta Jesusek eranzun eutsen, esanik: Zoaze, ta Juani esan egiozue enzun, ta ikusi dozuena:

Itsuak dakusela, errenak dabiltzela, lepradunak garbitu diriala, gorrak danzuela, illak biztuten diriala, ta pobreak Ebanjelioa adierazo jakela.

Eta Zorionekoa da, nigan eskandalizetan eztana.

34. IRAKURTZA

**Jesusek alabetan dau San Juan Bautista.
Erakusten dau ez berari, ez San Juani
sinistea emoten ezteutsanen itsutasuna.**

BATERA San Mateok cap. 11. v. 7-19.

San Lukasek cap. 7. v. 24-35.

Eta Juanen mandatariak joan ezkerro, Jesus asi zan Juan gaiti jenteari esaten: Zer ikustera urten dozue ermura? kañabera axeak darabillana?

Baña zer ikustera urten dozue? soñeko bigunez janzirik dagoan gizonen bat? Egiaz soñeko preziatuaz janzirik, ta atsegiñetan bizi dirianak, Erregen etxeetan dagoz.

Zer bada ikustera urten dozue? Profeta bat? Bada dirautsuet; bai ta Profeta baño geiagoa.

Bada au da, zeñegaiti dagoan eskribidurik: Aramen non nik nire arpegiaren aurrean neure Angerua biralduten dodan, zure aurrean zure bidea prestaiko dabena.

Benetan dirautsuet: andretarik jaio dirianetarik Juan Bautista baño andiagorik jagi ezta: Baña Jangoikoaren Erreinuan txikiagoa dana, bera baño andiago da.

Eta Juan Bautistaren egunetatik oraingiño Zeruetako Erreinuak indarra sufrietan dau, ta indarra egiten dabenak irabazten dabe.

Zerren tze Profeta guztiak, ta legeak Juan giño etorkizuna asmau eben.

Eta artu gura badozue, bera da etorriko dan Elias.

Enzun begi, enzuteko belarriak dituanak.

Eta Erri guztiak, ta enzun eutsen Bekatariagiriak Jangoikoari gloria emon eutsen; Juanen bateoaz bateatuak izan zirianak.

Baña Fariseoak, ta legeko Letradunak despreziatu eben Jangoikoaren konsejua euren kalterako; beraganik bateaturik ez egozanak.

Eta Jaunak esan eban: Bada nor dirudiela, ta noren antzekoak diriala, esango dot, kasta onetako gizonak?

Dirudie arako merkatuan jarririk dagozan mutilak, euren artean berbaz, diñoela: soñutu deutsuge flautakaz, ta danzatu eztozue: kanta tristeak esan deutsuegez, ta negarrik egin eztozue.



Bada etorri zan Juan Bautista, ogirik jaten ez ebana, ardaorik edaten ez ebana; ta esaten zenduen: deabrua eukala.

Etorri zan gizonaren Semea, jan, ta edaten ebana, ta diñozue: aramen gizon jatun bat, ta ardao-edale bat, Lukurari, ta bekatarien adiskide bat.

Eta jakituria justutu da bere seme guztiak gaiti.

35. IRAKURTZA

**Erri sinisgorren kontra Jesus ifinten da;
ta esker onak bere Aitari emoten deutzaz,
bere diszipuluak egiten dituen mirariak gaiti.**

BATERA San Mateok cap. 11. v. 20-30.

San Lukasek cap. 10. v. 13-22.

Orduan asi zan kargu egiten, berak mirari geiago egin eutsezan Erriai, penitenziarik egin ez ebelako.

Ai zugaz Korozain! Ai zugaz Betsaida! bada zuetan egin dirian mirariak, Tiron egin izan balira, oraingoz jarririk egingo eben penitentzia, zilizioan, ta autsean.

Beragaiti dirautsuet: zuek baño biguntasun geiagoaz artuko dira juizioko egunean Tiro, ta Sidon.

Zu barriz Kafarnaun Zerugiño goitua, Infernu giño ondatuko zara.

Zerren baldin Sodomako Errietan egin izan balira, zukan egin dirian mirariak, menturaz iraungo eben gaur giño.

Orregaiti dirautsuet, juizioko egunean zu baño gogortade gitxiagoaz artuko dala Sodomako erria.

Zuei danzuenak, niri danzut: ta zuek desprezietan zaituenak, meziprezietan dau biraldu ninduana.

Eta irurogeta amabiak biurtu zirian pozik, ziñoela: Jauna, deabruak eurak bere obeditan deuskue zure izenean.

Eta esan eutsen: Satanas oñeztu bat legez Zerutik jausten zala ikusi neban.

Dakutsue, eskubidea emon deutsuedala, sierpe, ta lupuen ganean ibilteko, ta arerioaren al guztiaren ganean: ta ezerberek kalterik egingo ezteutsue.

Baña onetan atsegiña artu ez egizue, espirituak zuen menpean dagozalako: poztu zaitzeze bai, Zeruetan zuen izenak izentaturik dagozalako.

Ordu berean Espiritu Santuan poztu zan; ta esan eban: Autortuten zaitut Aita, Zeru, ta lurreko Jauna, jakitunai, ta zurrai gauzok ezkutau zeuntsezalako, ta txikitxoai agertu zeuntsezalako.

Alan da, Aita: alan zalako zure gustukoa.

Nire Aitak nire eskuetan gauza guztiak ifini zituan.



Eta iñok ezpada Aitak eztazau Semea; Aita bere iñok eztazau ezpada Semeak, ta Semeak agertu gura deutsanak.

Eta biurturik bere diszipuluetara, esan eban: Zorionekoak zuek dakutsuena, dakusden begiak.

Bada dirautsuet: Profeta, ta Errege askok ikusi gura eben, zuek dakutsuena, ta ikusi ez eben; ta enzun, danzuzuena, ta enzun ez eben.

Erdue nigana nekepeturik, ta arikaturik zagozanok, ta nik arinduko zaituedaz.

Eroazue zeuroen ganean nire buztarria, ta niganik ikasi egizue, zerren mansoa nasan, ta biotz humillekoa; ta zeuroen arimentzat atsegia arkituko dozue.

Bada nire buztarria gozoa da, ta nire kargea arina.

36. IRAKURTZA

Andra bekatari batek bere negar ta ulleakaz garbituten ditu Jesusen oñak.

San Lukasek cap. 7. v. 36-50.

Eta Fariseo batek erregututen eutsan, joan zedilla jatera beragaz: ta Fariseoaren etxean sarturik, maian jarri zan.

Eta Errian egoan emakume bekatari batek, jakinik Fariseoaren etxean maian egoala, alabastroko ontzi ungentuz bete bat eroan eban.

Eta bere atzean bere oñetan ifinirik, asi zan bustiten bere negarrakaz bere oñak: ta leortuten zituan bere buruko ulleakaz, ta oñak mun egiten eutsazan, ta igutziten eutsazan ungentuaz.

Eta Fariseo konbidau ebanak, au ikusirik, ziñoan bere artean: gizon au Profeta balitz, ondo jakingo leuke nor, ta zelangoa dan, ukututen deutsan emakumeau, zerren bekataria dan.

Eta Jesusek eranzun, ta esan eutsan: Simon, gauza bat esan gura deutsut.

Eta berak eranzun: Maixua, esazu.

Artzekodun batek zordun bi zituan: bata bosteun diru zor eutsazan, besteak berrogeta amar.

Baña ez eukirik nondik kitutu, biai parkatu eutsen: zeñek bada mai-teago dau?

Simonek eranzun eutsan, zirautsala: uste dot, ak non geiago emon eutsan.

Ta Jesusek esan eutsan: zuzen juzgau dozu.

Eta biurturik emakumeagana, Simoni esan eutsan: Bakutsu emakume au? Zure etxean sartu nintzan, urik oñetarako emon ez eustan; baña onek bere negar anpulluakaz nire oñak busti ditu, ta bere ulleakaz leortu ditu.

Mosurik emon ez eustan: baña onek sartu zanik, itxi eztau nire oñai mun egitea.

Orioaz nire burua igortzi etzendum: baña onek ungentuaz igutzi ditu nire oñak.

Beragaiti dirautsut: bekatu asko parkatu jakazala, asko amadu dabelako.



Bada gitxi parkatuten jakanari, gitxi ametan dau.
Eta berari esan eutsan: Parkatu jatzuz zeure bekatuak.
Eta an jaten egozanak asi zirian euren artean esaten: Nor da au,
bekatuak bere parketan dituanau?
Eta emakumeari esan eutsan: Zure fedeak salbau zaitu: zoaz bakean.

IRUGARREN LIBRUA

**Jesu Kristoren Bizitzea
Bateo ondoko lenengo Pazkuatik
bigarren Pazkuaraño**



1. IRAKURTZA

**Jesusek Jerusalemenera igoten dau
Pazkuako egunak zelebretara.
Sarturik Tenpluan, kanpora botaten ditu idiak,
ta ardiak salduten egozanak.**

San Juanek cap. 2. v. 13-25.

Enda Judeguen Pazkua urrean egoan, ta Jesusek Jerusalemenera igon eban:

Eta Tenpluan idoro zituan salduten idiak, ta ardiak, ta usoak, ta Kanbiatzalleak jarririk.

Eta kordelakaz azote bat egin eban, ta dirianak Tenplutik bota zituan, ta ardiak, ta idiak, ta Ganbiarien dirua lurrera bota eban, ta maiak banatu zituan.

Eta usoak salduten zituezanai esan eutsen: ken au emendik, ta nire Aitaren etxea ez egizue egin merkatu etxea.

Gomutau zirian bere diszipuluak, eskribiturik egoala: Zure etxeko zeloak jan ninduan.

Judeguak bada eranzun eutsen, esanik: Ze señaile emoten deuskuzu, gauzok egiten dozuzala?

Eranzun eutsen Jesusek, esanik: Banatu egizue Tenpluau, ta iru egunean jasoko dot.

Judeguak esan eutsen: Berrogeta sei urtean egin zan Tenplu au, ta zuk iru egunean jasoko dozu?

Baña berak bere gorputzaren Tenplua gaitik ziñoan.

Eta illen artetik biztu zanean, gomutau zirian bere diszipuluak, one-gaiti ziñoala, ta sinistu zituezan Eskriturak, ta Jesusek esan eban berbea.

Eta Jesus Jerusalemenera egoala Pazkuako Jai andian, askok bere ize-nean sinistu eben, ikusirik egiten zituan mirariak.

Baña Jesus bera etzan eurekaz fietan, zerren guztiak ezaubazan.

Eta berak gizonaren testimonioa iñork emon bearririk ez ebalako: bada berez ekian gizonagan egoana.

2. IRAKURTZA

Nikodemo gaubez dator Jesusgana.

San Juanek cap. 3. v. 1-21.

Eta Fariseoen artean egoan Nikodemo eritxon gizon bat, Judegen Nagusia.

Au gaubez Jesusgana etorri zan, ta esan eutsan: Rabbi, dakigu Jangoikoak biralduriko Maixua zareala: bada zuk egiten dozuzan mirariak, iñok ezin egin leiz, beragaz Jangoikoa ezpalego.

Jesusek eranzun, ta esan eutsan: egiaz, egiaz dirautsut, ezin ikusi izango dabela Jangoikoaren Erreinua, ezpada barriro jaioten danak.

Nikodemok esan eutsan: Zelan gizon bat jaiote liteke, zarra izanik? Menturaz bere amaren sabelera biurte liteke, ta jaiote barriro?

Jesusek eranzun eban: egiaz, egiaz dirautsut, Jangoikoaren Erreinuaren ezin sartu leitekela, ezpada urean, ta Espiritu Santuan barriro jaiote dana.

Aragitik jaiote dana, aragia da: ta espiritutik jaiote dana, espiritua da.

Miraritu etzaitte, esan neutsulako: barriro jaiote bear dozuela.

Espirituak non nai axetute dau: ta bere boza danzuzu, baña eztakizu nondik datorren, ez nora doian: alantxe da espirtuaganik jaiote dan guztia.

Nikodemok eranzun eban, ta esan eutsan: zelan ori jazo leitekete?

Jesusek eranzun ta esan eutsan: Zu zara Maixua Israelen, ta au ezta-kizu?

Egiaz, egiaz dirautsut, dakiguna bera, diñogula; ta dakuskuna, ziurtute dogula, ta gure ziurtasuna artute eztozue.

Nik zuei lurreko gauzak esanik, sinisten ezpadozue; zelan sinistuko dozuez, zeruzkoak esaten badeutsuedaz?

Eta Zerura iñok igo eztau, ezpada Zerutik jatzi zanak, gizonaren semeak, Zeruan dagoanak.

Eta Moisesek ermuan sierpea jaso eban legez; alan bear da gizonaren semea jasoa izan dedin:

Onelan beragan sinisten daben guztia, galdu eztidin, ezpada betiko bizitzea euki dagian.



Bada onenbeste giño Jangoikoak mundua maitetu eban, ze, bere Seme Bakarra emon eban: beronegan sinisten dabena, galdu eztidin, baña bai betiko bizitzea euki dagian.

Bada Jangoikoak bere Semea mundura biraldu ez eban, mundua juzgetako, ezpada beragaiti mundua salbau dedin.

Beragan sinistuten dabena, ezta juzgatua: baña sinisten eztabena, ia da juzgatua: sinisten eztabelako Jangoikoaren Seme Bakarraren izenean.

Baña au da juizioa: bada argia mundura etorri zan, ta gizonak argia baño maiteago izan zituezan iluntasunak: zerren euren egiteak txarrak zirian.

Bada deungero egiten daben gizon guztiak, gorroto dabe argia, ta eztaoz argitara, euren egiteak lotsatuak izan ezteizen.

Baña egia egiten dabena, argitara dator, bere egitekoak agertu ditezen, zerren Jangoikoan egiñak diran.

3. IRAKURTZA

Fariseoak erakusten dira Jesusen diszipuluen kontra, Jai egunean gari buruak batuten dituezalako: ta Jaunak defendietan ditu.

BATERA San Mateok cap. 12. v. 1-8.

San Lukasek cap. 6. v. 1-5.

San Markosek cap. 2. v. 23-28.

Eta Zapatu bigarren lenengoan jazo zan, soloetan igarotea, bere diszipuluak gose izanik, garau-buruak atera, ta esku artean garauturik jaten zituezan.

Eta Fariseoetarik batzuk esaten eutsen: zegaiti egiten dozue, Zapatuan ezin egin leiana?

Eta Jesusek berbea arturik, eranzun eutsen: Irakurri bere eztozue Dabidek gose zala, ta beragaz egozanak egin ebena?

Zelan sartu zan Jangoikoaren etxean Abiatar Sazerdoteen buruaren denboran, ta proposiziñoko ogiak artu zituan, ta jan zituan, ta beragaz egozanai emon eutsezan, zeintzuk ez berak, ez beragaz egozanak ezin jan eukezan, ezpada bakarrik Sazerdoteak?

Edo legean irakurri eztozue, Sazerdoteak Zapatueta Tenpluan Zapatua ausiten dabela, ta bekatu baga dagozala?

Bada emen dagoan au, Tenplua baño andiago da.

Eta bazenkie zer dan arako: *Miserikordia gura dot, ta ez sakrifizioa*, sekula kondenauko etzendu kez inozenteak.

Eta zirautsen: Zapatua gizona gaiti egintzan, ta ez gizona zapatua gaiti.

Eta alan esaten eutsen: gizonaren semea zapatuaren Jauna bere bazala.



4. IRAKURTZA

**Jesusek gizon baten esku il sikatua
Jaiegunean osatutea gaitik
Fariseoen deungero esateak esetsiten ditu.**

BATERA San Mateok cap. 12. v. 9-13.

San Markosek cap. 3. v. 1-5.

San Lukasek cap. 6. v. 6-11.

Eta jazo zan, beste Zapatu baten andik igaro ezker, Batzarrean sartu zan, ta irakasten eban.

Eta an egoan eskoako eskua sikurik eukan gizon bat.

Eta Eskriba, ta Fariseoak zelataka egokazan, ikusteko, osatuten ete eban Zapatuan; idoroteko nondik salatu.

Eta eurak salatuteko bidea arkitutearren, itanduten eutsen, esanik: ondo ete zan Zapatuetan osatutea?

Baña berak ekizati euren pensamentuak, ta esku illa eukan gizonari esan eutsan: Jagi zaite, ta ifini zaite erdian. Ta bera jagirik, zutik ifini zan.

Eta Jesusek esan eutsen: itanduten deuntsuet: ondo egiña bada Zapatuan on egitea, edo deungero egitea? Bizitzea gordetea, edo galdutea? baña eurak ez eben txitik egiten.

Eta berak esan eutsen: nor zuetarik da gizona, eukirik ardi bat, ta baldin au jaiegunean zulo sakon baten jausten bada, menturaz artuko eztau, ta andik aterako eztau?

Bada ardi bat baño zeinbat obeago ezta gizon bat? Eta alan ondo egiña da Zapatuetan on egitea.

Eta aserreaz eurak begiraturik, ta sentimenduturik euren biotzeko itsutasunaz,

Gizonari esan eutsan: Luzetu egizu eskua.

Ta luzetu eban ta bere eskua gelditu zan osaturik bestea legez.

Eta eurak sumiñez bete zirian, ta alkar ziñoen, zer egingo eben Jesusegaz.

5. IRAKURTZA

**Maria Magdalenak beste emakume debotakaz
darraio Jesusi erritik errira.**

San Lukasek cap. 8. v. 1-3.

Eta gero jazo zan, joatea Jesus Uri, ta Errietara, Jangoikoaren Erreina prediketari, ta adierazoten; ta beragaz amabiak,

Baita bere berak espiritu txarretarik, ta gaixotasunetarik osatu zituan emakume batzuk; Maria, Magdalena eritxona, zeñeganik zazpi deabru atara zituan,

Eta Juana, Kusa Herodesen Prokuratariaren emaztea, Susana, ta beste asko euren ondasunakaz serbietan ebenak.



6. IRAKURTZA

**Lapurren eskuetan jausi zan gizonaz,
Samaritanoak egin eban errukitasunaz,
erakusten dau Jesusek lagun urkoak maitetuten.**

San Lukasek cap. 10. v. 25-37.

Eta legeko Letradun bat jagi zan, ta tentaurea gaiti esan eutsan: Mai-xua, zer egingo dot betiko bizitzea irabazteko?

Eta berak esan eutsan: Zer dago legean eskribiturik? Zelan irakurten dozu?

Berak eranzun eutsan, esanik: Zeure Jaun Jangoikoa maitetuko dozu zeure biotz guztiaz, zeure arima guztiaz, ta zeure indar guztiakaz, ta zeure adimentu guztiaz: ta zeure lagun-urkoa zeure burua legez.

Jesusek esan eutsan: ondo eranzun dozu: Ori egizu, ta biziko zara.

Baña berak justutu gura izanik bere burua, Jesusi esan eutsan: ta nor da nire projimu, edo lagun urkoa?

Eta Jesusek irudintza bat arturik, esan eban: Gizon bat Jerusalemik Jerikora jatsi zan, ta emon eban lapur batzukaz, zeintzuk billostu eben; ta llagaz bete ezkerro, erdi illik itxi eben, ta joan zirian.

Jazo zan gero, Sazerdote bat bide atan igarotea: ta ikusi ebanean, aurrera joan zan.

Eta bardin Lebita bat, a lekuaren ondora eldurik, ta bera ikusirik, joan zan aurrera.

Eta bidez joian Samaritano bat eldu zan bere ondora: ta ikusi ebanean, errukitu zan.

Eta urreraturik estu eutsazan llagak, euretan orioa, ta ardaoa botaten ebal: eta asto ganean ifinirik, ostatura eroan eban, ta zaindu eban.

Eta biaramonean atera diru bi, ta emon eutsazan ostatariari, zirautsala: onen kontu euki egizu, ta geiago gastetan badozu, biurtuten nasanean kitutuko deutsut.

Zein iruroktarik uste dozu dala lapurreetan jausi zanaren projimua?

Letradunak eranzun eban: aren errukia euki ebana. Zoaz bada, esan eutsan Jesusek, ta orixe egizu.

7. IRAKURTZA

**Jesus Martaren etxean sarturik,
kexau zan au Maria bere aitzaren kontra.**

San Lukasek cap. 10. v. 38-42.

Eta jazo zan, bidez joazala, sartu zan Jesus Errialde baten, ta Marta eritxon emakume batek bere etxean artu eban:

Eta onek eukan aizta bat Maria eritxona, zeñek jarririk Jaunaren oñetan bere berbea enzuan.

Baña Martak eragoion etxeke lanari beti: etorri zan, ta esan eban: Jauna, eztakusu, zelan nire aitzak bakarrik itxi naben serbietako? esaiozu bada, lagundu daidala.

Eta Jaunak eranzun eutsan, esanik: Marta, Marta arduraz beterik zagoz, ta gauza askotan nasturik zabilz.

Egiaz gauza bat bakarra da bearra. Mariak parterik onena autu dau, kenduko ez jakana.



8. IRAKURTZA

Jesusek bere ikasleai irakasten deutse oraziño egiten.

San Lukasek cap. 11. v. 1-13.

Eta jazo zan, leku baten oraziño egiten egoala, azkendu ebanean, bere diszipuluetarik batek esan eutsan: Jauna, irakasi eiguzu oraziño egiten, Juanek bere bere diszipuluai irakasi eutsen legez.

Eta esan eutsen: Oraziñoa egiten dozuenean, esazue: Aita, santifikatu bedi zure izena. Betor zure Erreinua. Iguzu gaur geure eguneango ogia.

Eta parkatu eiguzuz geure bekatuak, guk gure zordun guztiari parketan deutsagun legez. Ta itxi ez eiguzu tentaziñoan jausten.

Baitabere zirautsen: Nok eukiko dau adiskide bat, ta gaberdian joango jako, ta esango deutso: Adiskidea, ekartzuz ordeaz iru ogi,

Bada bidezko adiskide bat etorri jat, ta eztaukat zer aurrean ifini;

Besteak barriz barrutik eranzungo baleu, esanik: ez zakidaz gogaitu egin, atea ia dago itxirik, ta nire etxeokak bere ni legez datzaz oean, ezin jagi neindeke orrek zuri emoten.

Eta besteak oleska balirau atean: dirautsuet, baldin jagiko ezpaliz bere emotera bere adiskidea dalako; duda бага jagiko liteke bere gogaitasuna gaiti, ta bear dituan ogi guztiak emongo leuskioz.

Eta nik zuei dirautsuet: Eskatu egizue, ta emongo jatzue: billatu egizue, ta idoroko dozue: deitu, ta idigiko jatzue.

Bada eskatuten daben guztiak, artuten dau: ta billatuten dabenak, arkituten dau; ta deiez dagoanari, idigiko jako.

Eta iñok zuetarik bere aitari ogia eskatuten badeutso, emongo deutso arri bat? Edo arraiñen bat, benturaz emongo deutso sierpe bat, arraiñaren lekuan?

Edo arrauntza bat eskaturik, menturaz luzetuko deutso lupu bat?

Bada zuek gaistoak izanik badakizue gauza onak emoten zeuroen semeai; zeinbat eta obeto zuen Aita Zerukoak emongo deutse espiritu ona eskatuten deutsenai?

9. IRAKURTZA

Jesusek bateatuten dau Judean.

Au jakinik San Juan Bautistak, emoten dau bigarren aldiz testimonioa Jesu Kristorena.

San Juanek cap. 3. v. 22-36

Onez geroz Jesus bere diszipuluakaz Judeako errira etorri zan: ta an eurekaz egoan, ta bateatuten eban.

Eta Juanek bere Ennon Salin-en ondoan bateatuten eban; bada an ur asko egoan, ta etozan, ta bertan bateatuten zirian. Oraindiño bada ez eben karzelan sartu Juan:

Eta Juanen diszipulu, ta Judeguren artean ezta-baida bat biztu zan garbitzearen ganean.

Eta joanik Juangana, esan eutsen: Maixua, Jordanen beste aldetik, zugaz egoanak, zeñen testimonio emon zenduan, aror non berak bere bateatuten daben, ta guztiak beragana datoz.

Juanek eranzun eban, esanik: gizonak ezerbere artu ezin lei, zerutik ezpajatorko.

Zeurok testigu zare, esan nebala: Ni ez nas Kristo, ezpada bere aurrean biraldua.

Esposa daukana, Esposoa da: baña Esposoaren adiskidea beragaz dagoana, ta danzuana, Esposoaren bozagaz poztuten da. Bada nire poz au bete da.

Bear da bera azi dedin, ta ni gitxitu.

Goitik datorrena, guztien ganean da. Lurrekoa dana, lurtarra da, ta lurreko gauzak diñoz. Zerutik datorrena, guztiak baño geiago da.

Eta egiatuten dau ikusi, ta enzun ebana, ta iñokpere bere testimonioa artuten eztau.

Bere testimonioa artu ebanak, siñaletu eban, Jangoikoa egiatia dala.

Bada Jangoikoak biraldu ebanak, Jangoikoaren berbak diñoz: zergaitik ze Jangoikoak ezteutso emoten espiritua neurritz.

Aitak Semea maite dau, ta beronen eskuetan gauza guztiak imini zituan.



Semeagan sinisten dabenak betiko bizitzea dau: baña Semeari sinis-
menik emoten ezteutsanak, bizitzerik ikusiko eztau, zerren Jangoikoaren
aserrea bere ganean dago.

10. IRAKURTZA

**Jesusek Juanek baño diszipulu giago eukiteaz,
Fariseoak aserratuten dira; ta orregaiti itxirik Judea,
biurtuten da Galileara: ta Samariatik igarotean,
Samaritaneaz berbaz asten da.**

San Juanek cap. 4. v. 1-26.

Eta Jesusek ezaguturik, Fariseoak enzun ebela, berak diszipulu geia-
go egiten zituala, ta Juanek baño geiago bateatuten ebala,

(Ez Jesusek, ezpada beronen diszipuluak bateatuten baeben bere):

Larga Judea, ta beste bein Galileara joan zan.

Baña barriz Samariatik igaro bear eban.

Etorri zan bada Sikar eritxon Samariako Erri batera: Jakob-ek Jose
bere semeari emon eutsan zelaiaren aurrean.

Ta an egoan Jakob en iturria. Jesus bada bidezko ibilteaz neketurik
egoan alan iturri ganean jarririk. Egerdi ordua legez zan.

Samariako emakume bat etorri zan, ura ateratera. Jesusek esan
eutsan: Ekartzu edaten.

Bada bere diszipuluak Errira joan ziran, janarien billa. Eta ak ema-
kume Samaritarrak esan eutsan: Zelan zuk

Judegua izanik Samariatar oni edaten eskatuten deustazu? bada Jude-
guak traturik ez dabe Samaritarrakaz.

Jesusek eranzun, ta esan eutsan: Bazenki Jangoikoaren doea, ta nor
dan dirautsuna: *Ekarzu edaten*: zeuk berari egiaz eskatuko zeuskio, ta
emongo leuskizu ur bizia.

Eta emakumeak esan eutsan: Jauna, ez dozu zegaz atera, ta ur-zulo-
au sakona da: nondi bada dozu ur bizia?

Menturaz zara zu gure aita Jakob baño andiago, zeñek puzu au emon
euskun, ta bertan berak, ta bere semeak, ta abereak edan eben?

Jesusek eranzun eutsan, zirautsala: Ur au edaten dabena, barriro ega-
rri izango da: baña nik emongo deustadan ura edaten dabenak, sekula
egarririk izango eztau.

Bada nik emongo deustadan ura, egingo da beragan ur-iturri bat,
betiko bizitzara giño saltauko dabena.



Emakumeak esan eutsan: Jauna, ur ori indazu, egarririk izan eztaidan, ta ona ateratera etorri ez nadin.

Jesusek esan eutsan: zoaz, zeure senarrari deitu egiozu, ta erdu ona.

Emakumeak eranzun, ta esan eutsan: Senarrik ez dot. Jesusek esan eutsan: Ondo esan dozu, ez dot senarrik:

Bada bost senar euki dozuz: ta orain daukazun au, ezta zure senarra: onetan egia esan dozu.

Emakumeak esan eutsan: Jauna, dakust Profeta zareala. Gure Aita aurrenekoak mendi onetan adorau eben, ta zuek diñozue, Jerusalem dagoala adorau bear dan lekua.

Jesusek esan eutsan: Emakumea, sinistu eidazu, ordua datorrela, ez mendi onetan, ez Jerusalem Aita adorauko eztozuena.

Zuek adoretan dozue eztakizuen: guk adoretan dogu dakiguna, bada osasuna Judeguetarik dator.

Baña ordua dator, ta orain da, non adoratzalle egiazkoak adorauko daben Aita espirituan, ta egian. Bada Aitak bere billatuten ditu alango adorauko dabenak.

Jangoikoa espiritua da: ta bear da, adorauko dabenak, adorau dagien espirituan, ta egian.

Emakumeak esan eutsan: Nik dakit, Mesias Kristo deituten dana datorrela. Eta datorrenean, berak gauza guztiak agertuko deuskuz.

Jesusek esan eutsan: Neu zugaz berbaz nagoan au nas.

11. IRAKURTZA

Samaritarrak ezagututen dabe Jesus Mesias Jangoikoaren Semetzat.

San Juanek cap. 4. v. 27-42.

Eta onetan bere diszipuluak eldu zirian, ta mirarrituten zirian emakumeaz berbaz egoalako. Baña iñok esan ez eutsan: zer itandu, edo zer dirautsazu emakume orri?

Emakumea bada bere ur-ontzia larga, ta Errira joan zan, ta gizon aei esan eutsen:

Erdue, ta ikusi egizue, egin dodazan gauza guztiak esan deustazan gizon bat: menturaz da au Kristo?

Urten eben orduan Erritik, ta beragana etorri zirian. Bitartean bere diszipuluak erregututen eutsen, esanik: Maixua, jan egizu.

Jesusek esan eutsen: zuek eztakizuen janaria bat daukat nik jateko.

Ziñoen bada alkar diszipuluak: iñok ekarri ete deutso zer jan?

Jesusek esan eutsen: nire janaria da, biraldu nabarenaren borondatea egitea, ta bere agindua betetea.

Eztiñozue zuek, oraindiño lau illebeta dagozala igitaitera? Bada nik dirautsuet: jaso egizuez zeuroen begiak, ta begira zelan dagozan zuriturik soloak, prest igitaituteko.

Eta igitaituten dabenak alogera artuten dau, ta frutuak batuten ditu beti-betiko bizitzarako: batera poztu ditezen ereinten dabena, ta igitaiten dabena.

Bada onetan egiazkoa da arako esatea: bat dala ereinten dabena, ta bestebat igitauten dabena.

Zuek landu eztozuena igitaitutera biraldu zaituedaz: bestebatzuk landu eben, ta zuek euren lan-bearretan sartu zare.

Eta Erri atako Samaritano askok beragan sinistu eben, emakume aren berbea gaiti, baieztuten ebal, esanik: egin dodan guztia esan deust.

Baña Samariarrak beragana etorririk, erregutu eutsen, an gelditu zedilla: ta egun bian bertan geratu zan.

Eta asko geiagok beragan sinistu eben bere predikaziñoa gaiti.

Eta emakumeari zirautsen: zure esanaz eztoqu ia sinisten; bada geuk enzun deutsegu, ta dakigu berau dala egiaz munduko Salbagillea.



12. IRAKURTZA

Biurtzen da Jesus Galileara, ta Kana eritxon Erri baten osatuten dau Jaun baten semea.

San Juanek cap. 4. v. 43-54.

Eta arik egun bi andik urten eban, ta Galileara joan zan.
Bada Jesusek berak baieztu eban, Profeta bat etzala andizkatua bere errian.

Eta Galileara etorri zanean, Galilearrak artu eben, ikusi ebelako Jerusalem jai baten egun zituan gauzak; bada eurak bere Jaira joan zirian.

Etorri zan bada beste bein Kana Galileakora, non ura ardao biurtu eban. Eta Kafarnaunen egoan Jaun bat, zeñen semea gaixorik egoan.

Onek enzunik Jesus etorrela Judeatik Galileara, beragana joan zan, ta erregututen eutsan, jatxi zedilla, ta bere semea osatu egjala: bada illagian egoan.

Eta Jesusek esan eutsan: ikusgarriak, ta mirariak baldin ezpadakutsuez, sinisten eztozue.

Nagusi agintari onek esan eutsan: Jauna, erdu nire seme il baño len.

Jesusek esan eutsan: zoaz, bada zure semea bizi da. Gizonak sinistu eban Jesusek esan eutsan berbea, ta joan zan.

Eta biurtuten zala, bere otseñak bidera urten eutsen, ta barria emon eutsen, bere seme bizi zala.

Eta itandu eutsen ze ordutan asi zan obetuten. Ta esan eutsen: atzo zazpiretan itxi eban gatzak.

Eta orduan Aitak aditu eban, a zala ordu berbera, zeñetan Jesusek esan eutsan: zure seme bizi da: eta berak ta bere etxe guztiak sinistu eban.

Bigarren mirari au egin eban bestebein Jesusek Judeatik Galileara etorri zanean.

13. IRAKURTZA

Fariseoak Herodestarrakaz asmetan dabe Jesusi bizitzea kentzea: ta berak au jakinik doa itxasaldera, jente askok darraiola.

BATERA San Mateok cap. 12. v. 14-21.

San Markosek cap. 3. v. 6-12.

Baña Fariseoak, urtenik Herodestarrakaz batera bertati asmau eben bere kontra, zelan illerazoko eben.

Eta Jesusek jakinik, erri atarik alderatu zan, ta bere diszipuluakaz itxas-aldera joan zan; ta Galilea, ta Judeako jente askok jarraitu eutsen.

Eta Jerusalemendik, ta Idumeatik, ta Jordaneko beste aldetik: ta Tiro, ta Sidongo ingurutik asko ta asko beragana etorri zirian, enzunik, egiten zituan gauzak.

Eta bere diszipuluai agindu eutsen, prest euki egjela barku bat, bera sartuteko, jente piloak estutu ez egian.

Bada ainbeste gaixo osatuten zituan, eze, gatzak bat eukan guztiak bere ganera emoten eben, bera ukututeko. Eta dirianak osatu zituan.

Eta espiritu loi zikiñak zekusenean, etxunten zirian bere aurrean, ta dedarrez ziñoen:

Zu zara Jangoikoaren Semea. Baña berak zemaituten zituan lazkiro agertu ez egien.

Bete zedin Isaias Profeteak esan ebana, ziñoala: Aramen nik autu neban neure serbitzaria, nire maitea zeñegan nire arimea egokitu dan: Bere ganean nire espiritua ifiniko dot, ta justutasuna jenteari adierazo deute.

Eztau eztabaidatuko, ez dedartuko, ez bere dedarra plazetan iñok enzungo:

Ausirik dagoan kañaberea ebagiko eztau; ez eta amatauko kea emoten dagoan metxea, justutasuna aterazo artean biktoriaz.

Eta bere izenean jenteak itxadoten eben.



14. IRAKURTZA

Jenteak estututen dau Jesu Kristo. Ateraten dau deabru bat; ta lotsatuten ditu Fariseo persegillak.

San Markosek cap. 3. v. 20-30.

Eta etorri zirian etxera, ta barrero eldu zan ainbeste jente, eze, jateko bere astirik ez euken.

Eta bereak enzun ebenean, urten eben geldierazoteko: zerren ziñoen: beraganik urten dau.

BATERA. San Mateok cap. 12. v. 22-37.

San Markosek an.

San Lukasek cap. 11. v. 14-31.

Orduan ekarri eutsen deabrutu, itsu, mutu bat, ta osatu eban; alan-goz ze, berba egin, ta ikusi eban.

Eta jente guztia miraritu zan, ta ziñoan: Menturaz da au Dabiden Semea?

Baña Jerusalendik jatsi zirian Fariseo, ta Eskribak au enzunik, ziñoen:

Onek eztitu ateraten deabruak, ezpada Beelzebub deabruen nagusiaren izenean; zerren Beelzebub daukan, ta Beelzebub deabruen buruaren bitartez botetan ditu deabruak.

Eta beste batzuk tentatzearren, eskatuten eutsen Zeruko siñaleren bat.

Eta Jesusek jakinik euren asmoak, ta deitu ezkerero, zirautsen irudinetan:

Bere kontra zatiturik dagoan Erreinu guztia, banatuko da: ta bere kontra-arteke zatiturik dagoan Erri, edo etxeak, iraungo eztau: Satanasek Satanasek zelan bota lei kanpora?

Eta Satanasek ateraten badau Satanasek, bere kontra zatiturik dago.

Eta bada Satanasek beragan zatiturik badago, zelan bere Erreinuak iraungo dau?

Eta baldin Erreinu bat beragan zatiturik badago, Erreinu onek ezin iraun lei.

Eta etxe bat beragan zatiturik balego, ezin iraun lei etxe onek.

Eta Satanasek bere kontra jagiten bada, zatiturik dago, ezin iraungo dau, baña bai jaustera doa.

Zelan bada bere Erreinuak iraungo dau? bada diñozue, Beelzebub- birtutez ateraten dodazala nik deabruak.

Bada nik Beelzebuben bitartez botaten badodaz deabruak, zuen semeak nogan botaten ditue? Beragaiti izango dira eurak zuen Juezak.

Eta baldin Jangoikoaren esku-atzean, Jangoikoaren espirituan botaten badodaz deabruak, egiaz eldu da zuetara Jangoikoaren Erreinuak.

Edo zelan bat sartu leiteke indartsuaren etxean, ta bere gauzak ostu, lenago estuten ezpadau indartsua, ta orduan artuten ezpadeutso etxea?

Indartsu armadunak bere atartea gordetan dabenean, bakean dagoz bere gauza guztiak:

Baña bera baño indartsuago bat etorririk goiartuten badau, bere arma guztiak, zeintzuetan konfietan eban, kenduko deutzaz, ta aren gauzak zatituko ditu.

Nigaz eztana, nire kontra dago; ta nigaz batuten eztabenak, zabal-duten dau.

Beragaiti dirautsuet: bekatu, ta birao guztia gizonai parkatuko jake, baña parkatuko ez jake Espirituaren biraoa.

Eta gizonaren semearen kontra berbea diñoanari, parkatuko jake: baña diñoanari Espiritu Santuaren kontra, parkatuko ez jake, ez mundu onetan, ez bestean.

Eztau iñosbere parkaziñorik izango; bada betiko bekatuaren errudun izango da.

Zerren ziñoen: Espiritu loi-zikiña dauko.

Edo egizue arbola ona, ta bere frutua ona izan dedilla: edo egizue arbola txarra, ta bere frutua txarra izan dedin: bada frututik arbola eza-gututen da.

Suge kastea, zelan ondo berba egin ziñeike, gaistoak izanik? bada biotzeko ugaritasunetik aoak berba egiten dau.

Gizon onak bere tesoru onetik ona ateraten dau: ta gizon gaistoak tesoru txarretik dongetasuna ateraten dau. Eta dirautsuet, diñoen berba alper guztien kontua emongo dabela gizonak Juizioko egunean.

Bada zeure berbeetatik justutuko zara, ta zeure berbetatik kondena-tuko zara.



15. IRAKURTZA

Jonasen gertaldiaz erakusten deutse Jesusek bere Biztuerea, ta eskatuten eutsen señaile miragarria. Emakume batek dirautsaz alabanza andiak Jesusi.

*BATERA San Mateok cap. 12. v. 38-45.
San Lukasek cap. 11. v. 29-32 et 24-28.*

Orduan Eskriba, ta Fariseotarik batzuk eranzun eutsen, esanik: Mai-xua, zuganik señailea ikusi gura dogu.

Eta zelan alde guztietarik jenteak etozen, asi zan esatera: Kasta au kasta gaistoa da.

Kasta txar ta adulterak señailea eskatuten dau: ta señalearik emongo ez jako, ezpada Jonas Profetaren señailea:

Bada Jonas zan legez señailea Ninibetarrai: alan gizonaren semea izango da kasta, *edo jeneraziño* oni:

Bada Jonas iru egun, ta iru gau Balearen sabelean egon zan legez: alan gizonaren semea egongo da iru egun, ta iru gau lurraren biotzean.

Ninibetarrik jagiko dira juizioan kasta onegaz ta kondenatuko dabe, egin ebelako penitentzia Jonasen predikaldian: Ta aramen Jonas baño geiago.

Austroko Erregiña jagiko da juizioan kasta onegaz, ta kondenatuko dau, zerren lurraren bazterretik etorri zan, Salomonen jakituria enzutera; ta aramen Salomon baño geiago.

Espiritu zikiñak gizon bateganik urteten dabenean, leku leorretan dabil, atsegiñen billa, ta idoroten eztau.

Orduan diño: biurtuko nas urten neban etxe nirera. Ta biurtuten danean, idoroten dau utsa, garbitua, ta apaindua.

Orduan doa, ta beste zazpi espiritu bera baño gaistoagoak artuten ditu, ta etxean sarturik, an bizi dira: Eta a gizonarentzat deungeagoa da azkenekoa lenengoa baño. Onela izango da bada kasta entero gaistoaz.

Eta jazo zan, au berak ziñoala, jenteen erditik emakume batek dedarra jaso eban, ta esan eutsan: Zorionekoa zu erabilli zinduan sabela ta uga-tza artu zenduan bularrak.

Eta berak esan eban: Bai lenagoz zorionekoak Jangoikoaren berbea dantzuenak, ta gordeten dabena.

16. IRAKURTZA

Jesusek adirazoten dau bere Ama, ta Anajetzat dituela bere Aitaren borondatea egiten dabena.

*BATERA San Mateok cap. 12. v. 46-50.
San Markosek cap. 3. v. 31-35.
San Lukasek cap. 8. v. 19-21.*

Oraindiño jenteai berbaz egoala, bere Ama, ta bere Anajeak kanpoan egozan, berari berba egin gura eutsela.

Eta ezin beragandu zirian, jente piloa gaiti; ta kanpoan egozala, mandatua biraldu eutsen deituten eutsela.

Eta txit jente andia egoan jarririk bere alboan, ta esan eutsen: ara non zure Ama, ta zure anajeak dagozan kanpoan, ta ikusi gura zaitue.

Eta berak eranzun eutsen, esanik: Nor da nire Ama? ta nortzuk dira nire anajeak?

Eta begiraturik, ta eskua luzeturik bere inguruan jarririk egozan bere diszipuluetara, esan eban: Aramen nire Ama ta nire anajeak.

Bada Zerueta dagoan nire Aitaren borondatea egiten dabena, au berau da nire anajea, ta arreba, ta ama.

Nire Ama, ta nire anajeak dira, Jangoikoaren berbea enzun, ta gordetan dabena.



17. IRAKURTZA

Jesusek adirazoten dau ereingillaren irudina.

BATERA San Mateok cap. 13. v. 1-23.

San Markosek cap. 4. v. 1-25.

San Lukasek cap. 8. v. 4-28.

Eta batu zanean erriko jente pilo andi bat, ta Urietatik asko beragana etorririk: Egun atan Jesus etxetik urten ezker, jarri zan itxaso bazterean, ta barriro asi zan irakasten.

Eta ainbeste jente eldu jakon, eze, barku baten jarri zan ta jende guztia zutik egoan lurrean itxaso-bazterean.

Eta antz-irudintzakaz gauza asko irakasten eutseen, ta zirautsen:

Enzuzue: Ereingilleak bere azia ereinten urten txan.

Eta ereitorduan, azi zati bat bidearen ondoan jausi zan, ta zapaldu zan, ta Zeruko egaztiak etorririk jan eben.

Beste bat jausi zan lur gitxi egoan arri artean: ta laster erne zan, lur sakon gitxi egoalako.

Baña jaio ta laster eguzkiak erre eban: ta ez eukirik sustrairik igartu zan, ezkotasunik ez eukalako.

Eta beste bat aranza artean jausi zan, ta aranzak azi zirian, ta ito eben, ta fruturik emon ez eban.

Eta beste bat lur onean jausi zan, ta frutua emon eban, igonik, ta azirik; ta garau batek emon zituan ogeta amar, beste batek irurogei, ta beste batek eun.

Au esanik dedar egiten eban ziñoala: belarriak enzuteko dituanak, benzu.

Eta bakarrik egon zanean, beragaz egozan amabiak itandu eutsen: ze irudina zan au; zirautsen: zetako irudintzetan berba egiten deutsezu?

Berak eranzun eutsen, esanik: zergaitik tze zuei jakitera emon deutsuedaz Zeruetako Erreinuko ezkutapen, *edo misterioak*, Jangoikoaren Erreinuko misterioa, eurai barriz emon ezteutset.

Bada daukanari, emongo jako, ta geiago eukiko dau; ta ez dabenari, daukana bere kenduko jako.

Orregaiti antz-adigarrietan berba egiten deutset; kanpoan dagozanai guztia irudinetan egiten jake.

Onelan ikusirik ikusi, ta ikusi eztagien; ta enzunik enzun, ta aditu eztagien; biurtu eztezen, ta bekatuak parkatu ez dakioezen.

Eta eurentan betetan da Isaiasen profezia, diñoala: belarriaz enzungo dozue, ta adituko eztozue; ta begiratuaz begiratuko dozue, ta ikusiko eztozue.

Zerren Erri onen biotza loditurik dagoan, ta belarriakaz enzun eben astundurik, ta euren begiak itxi zituezan: begiz ikusi eztagien, ta belarriaz enzun eztaien, ta biotzez aditu eztagien, ta biurtu eztezen ta osatu eztagidazan.

Baña zorionekoak zuen begiak dakuselako, ta zuen belarriak dantzuelako.

Bada egiaz dirautsuet, Profeta, ta justu askok ikusi gura izan eben zuek dakutsuena, ta ikusi ez eben; ta enzun dantzuzuen, ta enzun ez eben.

Eta esan eutsen: Adirantza au adituten eztozue? zelan bada irudintza guztiak adituko dozue?

Enzun bada zuek ereingillearen antz-irudina.

Da bada irudintza au: Azia da Jangoikoaren berbea. Ereillea da ereinten dabena azi au.

Bide ondoan jausi zana dira aek zeñetan ereinten dan, ta enzun ta arik laster, dator bertati Satanas, ta euren biotzetan erein zan berbea kenduten dau, sinisturik salbau eztezen:

Eta onela arri artean jausi zanak adirazoten ditu arako berbea enzunik, pozik laster artuten dabena:

Baña beragan sustrairik ez eukirik, denporazkoa da euren iraupena: gero barriz naibagea, ta persekuziñoa berbea gaitik jatorkenean, bereala izututen dira; zerren denporaz sinistuten dabena, ta tentaziño denporan atzera biurtuten diran.

Aranza artean jausi zanak adierazoten ditu berbea dantzuenak,

Baña munduko lan, ta ardurak, ta ondasunen itsumenak, ta beste griñai emoten deuten sarrerak berbea itoten dabe, ta fruturik areanbere ezta.

Eta lur onean jausi zanak adietan emoten ditu arako biotz on ta zuzenaz berbea enzunik, gordetan dabena, ta pazienziar daroe frutua, batek eun, beste batek irurogei, ta besteak ogeta amar bategaiti.

Eztau iñok argia erexegin, ta ontziren bategaz estalduten, ez oe pean iminten: ezpada kaneleru ganean iminten dau, sartuten dirianak dakusen argia.



Bada eztago gauza estaldurik kanporatuko eztanik, ez ezkutaurik agertuko eztanik, ta jakingo eztanik.

Belarriak enzuteko dituanak, enzun begi.

Eta zirautsen: Begira bada, zelan dantzuzuen: neurtuten dozuen neurriaz, zuek bere neurtuko zaitue, ta geiagotuko jatzue.

Bada daukanari emongo jako, ta ez dabenari, daukala uste dabena bere kenduko jako.

18. IRAKURTZA

**Bedar gaisto, berez ernetan dan azi, mostaza,
lebadura azkarria edo txantxaduria, tesoro ezkutau,
perla preziatu, ta sarearen antz-adirantzak.**

San Mateok cap. 13. v. 24-52.

Beste irudintza bat adirazo eutsen, esanik: Zeruetako Erreinuak dirudi azi ona bere soloan erein eban gizon bati.

Eta gizonak lo etzazala, euren arerioa etorri zan, ta gari artean lollo *edo bedar txarra* erein eban, ta joan zan.

Eta bedarra azi zanean, ta frutua ekarri ebanean, orduan lolloa bere agertu zan.

Eta etxe-buruaren otseñak eldurik, esan eutsen: Jauna, menturaz azi ona zeure soloan erein etzenduan? Zelan bada dago an lolloa?

Eta esan eutsen: gizon arerioak au egin eban. Eta, serbitzariak esan eutsen: nazu, joan, ta artu daigun?

Ez, eranzun eutsen: jazo eztidin lolloa bildurik, beragaz batera garia bere atera eztagizuen.

Larga bata ta bestea igitaiteraño: ta igitaiteko denporan igitariari esango deutset: batu egizue lenengo lolloa ta sortatan estu erretako; garia barriz neure garautegian sartu egizue.

San Markosek cap. 4. v. 26-34.

Baitabere ziñoan: Jangoikoaren Erreina da, lur ganean gizon batek garaua botako baleu legez,

Eta lo egin daiala, ta gau ta egun jagi dedilla; garaua bere erne, ta aziten da berak eztaiala.

Bada lurrak berez emoten dau, lenengo bedarra, gero burua, ta azke-
nean buruan garau betea.

Eta frutuak emon dituanean, bertati igitaita sartuten da, dalako igitaiteko garia.

BATERA San Mateok, San Markosek an.

San Lukasek cap. 13. v. 18-21.



Beste irudintza bat adirazo eutsen, ziñoala: Nori irudirazoko deusegu Jangoikoaren Erreinuak? Edo ze adirantzagaz bardinduko dogu?

Zeruetako Erreinuak da mostaza, edo ziape garauaren antzekoa, zein artu eban gizon batek, eta bere soloa erein eban.

Au egiaz da txikiena lurtean dirian azi guztietatik:

Baña ereinik, igoten dau, ta azten da garau-egosi guztiak baño geiago; ta adar andiak azten ditu; ainbeste ze, bere gerizpean bizi leitekez Zeruko egaztiak; ta abiak egin bere adarretan.

Esan eutsen beste adirantza bat: Zeruetako Erreinuak antz-irudituten da azkarriaz, zein andra batek artu, ta oratuten dau iru neurri urunetan, guztia jagi arteraño:

Gauza guztiok esan eutsezan Jesusek jendeari irudintzetan.

Eta alan adirazoten eutsen berbea antz-bardintzakaz, enzun al eben erara.

Eta antz-irudintza baga ezerbere ez eutsen esaten.

Bete zedin Profeteak esan ebana, diñoala: Neure aoa irudintzetan idigiko dot: agertuko dodaz mundua danik estaldurik egozan gauzak; baño bere diszipuluakaz bakarrik egoanean, dana azalduten eutsen.

San Mateok an.

Orduan jentea despediturik etxera etorri zan, ta bere diszipuluak beragana eldurik, esan eutsen: adirazo egiguzu soloko lolloaren irudintza.

Berak eranzun eban, esanik: Azi ona ereinten dabena da gizonaren semea.

Soloa da mundua. Azi ona dira Erreinuak semeak ta lolloa dira gais-takeriaren semeak.

Eta erein eban arerioa da deabrua: ta igitandea da munduaren azkena: ta igitailleak dira Angeruak.

Alantxe lolloa batu, ta surtan erre oi dan legez, onela jazoko da munduaren azkenean.

Gizonaren Semeak bere Angeruak biralduko ditu, ta bere Erreinitik kanpora aterako ditue eskandalo guztiak, ta gaistakeria egiten dabena.

Eta labako sutegian sartuko ditue. An izango da negarra, ta agin-garraskotsa.

Orduan justuak argia emongo dabe eguzkiak legez euren Aitaren Erreinuak. Entzuteko belarriak dituanak, bentzu.

Soloa estaldurik dagoan tesoro baten antz-adigarria dau Zeruetako Erreinuak, zein idoroten dabenean gizon batek ezkutauten dau: ta bere poz-gozoaz doa, ta dabena guztia salduten dau, ta a soloa erosten dau.

Baitabere dirudi Zeruetako Erreinuak gizon merkatari balioko perleen billa dabillan bati.

Eta arkitu dabenean balio andiko bat, doa, ta dabena guztia salduten dau, ta a erosten dau.

Baitabere irudituten da Zeruetako Erreinuak sare bati, zein botarik itxasoan, dakartz era guztiko arraiñak.

Eta bete danean, dakarde bazterrera, ta an jarririk, aututen ditue onak, ta ontzietan sartuten ditue; txarrak barriz kanpora botetan ditue.

Alan izango da munduaren azkenean: Angeruak urtengo dabe, ta alde-egingo ditue gaistoak justuen arterik.

Eta suzko laban sartuko ditue: an izango da negarra, ta agin-karraskada.

Gauza guztiok aditu dozuez? Eurak esan eben: Bai.

Eta esan eutsen: Orregaiti Zeruetako Erreinuak irakasia dagoan Eskriba batek dirudi, bere tesoretik gauza barriak, ta zarrak ateraten dituan etxe-Buru bati.



19. IRAKURTZA

**Nazaret-ko Batzarrean ifinten da Jesus
Jai baten irakasten. An despreziatu eben,
ta ifini eutsezan zelatak bere bizitzeari.**

BATERA San Mateok cap. 13. v. 53-58.

San Markosek cap. 6. v. 1-6.

San Lukasek cap. 4. v. 16-30.

Eta Jesusek azkendu zituanean irudintzok, joan zan andik;
Eta joan zan Nazaret bere errira, zeñetan azi zan; ta bere diszipuluak
berrajozan.

Eta oi eban legez sartu zan Jaiegunean Batzarrean, ta emen asi zan
irakasten, ta jagi zan irakurteko.

Eta emon eutsen Isaias Profetaren librua. Ta askatu, edo zabaldu
ebanean librua, idoro eban lekua zeñetan egoan eskribidurik:

Jaunaren Espiritua nire ganean: zerren unjitu ninduan, Ebanjelioa
pobrei prediketara biraldu ninduan, biotz-ausiak osatutera:

Kautibuai euren erospenaren barri ona ekartera, ta itsuai euren ikus-
tearena, estutuak askatutera, Jaunaren urte ona, ta sariaren eguna adiera-
zotera.

Eta librua batu ezkeru, Ministroari emon eutsan, ta jarri zan. Ta
batzarrean zirian guztiak eukezan beragan begiak josirik.

Eta zirianak autortuten eben, ta miraritutun zirian bere aotik urteten
eben graziazko berba, ta bere doktrinan,

Ziñoela: Nondik jatorkaz oni gauza guztiok? edo ze jakituria da
emon jakon au; ta ze mirariak bere eskuz egiten dirian oneek?

Ezta au Ofiziodun bat? Menturaz ezta au Ofiziodun baten Semea?
Ezta au Josef-ren Semea?

Menturaz bere Amari ezteritxo Maria, ta bere anajeai Santiago, ta
Josef, ta Simon, ta Judas?

Eta bere arrebak eztagoz guztiak gure artean? Nondik bada ditu
onek gauza guztiok? Ta gatx-bidea beragan artuten eben.

Eta esan eutsen: Duda baga esango deustazue adirantzau: Medikua,
osatu egizu zeure burua: Kafarnaunen egin zenduzala, enzun doguzan
gauza andi guzti aek, egizuz emen zeure errian bere.

Eta esan eban: Benetan dirautsuet, ezta Profetarik ondo artua danik
bere errian: eztago Profetarik onra baga ezpada bere errian, ta bere
etxean, ta bere aide artean.

Egiaz dirautsuet, Eliasen egunetan alargun asko egozan Israelen,
Zerua iru urtean, ta iru illean itxi zanean; erri guztietan gose andi bat izan
zanean:

Eta euretarik beste iñora biraldu etzan Elias, ezpada Sarepta Sido-
niako andra alargunagana.

Eta Eliseo Profetaren denporan lepradun asko egozan Israelen; ta
iñor euretarik etzan izan osatua, ezpada Naaman Siriakoa.

Eta au entzunik, Batzarreko guztiak amurruz bete zirian bere kon-
tra.

Eta jagi zirian, ta Erritik kanpora bota eben: ta eroan eben euren
Erria egoan tontor ganera, andik bera botateko.

Bera barriz guztien erditik igarorik, alde egin zan.

Eta ezin an mirariarik egin eban; bakarrik gaixo banaka batzuk osatu
zituan, eureetan eskuak iminirik.

Eta miraritu zan euren sinisbagnetasunez, ta inguruko errialde guztie-
tan ebillen prediketetan.



20. IRAKURTZA

Jesusek emoten deutsez Fariseoai euren arpegian euren gaistakeriak.

San Lukasek cap. 11. v. 33-54.

Inok argia erexegin, ta ifinten eztau ezkutuan, ez eta imilaunaren azpian, ezpada kandeleru ganean, sartuten dirianak argia dakusen.

Zure begia da zure gorputzeko argia. Zure begia bada mee-tolesbagea, zure gorputz guztia argitsua izango da: baña gaistoa bada, zure gorputza bere iluntsua izango da.

Begira bada zugar dagoan argia, iluntasuna izan eztidin.

Eta alan zure gorputz guztia argitsua bada, iluntasun bapere bagea, guztia argiduna izango da, ta argi argitsu bat legez argituko zaitu.

Eta berbaz egoala, erregutu eutsan Fariseo batek beragaz jatera joan zedilla. Eta sarturik, maian jarri zan.

Eta Fariseoa asi zan bere artean gogoratuten, ta berak beragan esaten, zegaitik garbituko etzan bazkaldu baño len.

Eta Jaunak esan eutsan: Orain zuek Fariseoak kanpotik ontzi, ta platerak garbituten dozuez: baña barriz zuen barrua lapurreta, ta gaistakeriz beterik dago.

Zenzun bageak, kanpotik dana egin ebanak, barruan dagoana bere egin ez eban?

Orrez geiago dozuen ganekoa, limosna emon egizue: ta gauza guztiak garbiak izango jatzuez.

Ai zuek Fariseoak; bada batanaren, ta bostkotxaren, ta hortu-gauzen amarrena emoten dozue, ta Jangoikoaren justizia, ta amorea ausiten dozue! Bearrago zan gauzok egitea, ta aek ez itxitea.

Ai zuek Fariseoak, Batzarretan lenengo jar-lekuak, ta plazeetan agurtuak izateak maite dozuenak!

Ai zuekaz, ikusten eztirian sepulturak legez zoreanok, ta ganetik dabiltzan gizonak eztakiez!

Eta Legeko Letradun edo Doktore batek eranzun eutsan, zirautsala: Maixua, gauzok esanik, gu bere lotsatuten gozuz.

Eta berak esan eban: eta ai zuek legeko Irakasleak; bada astunduten dozuez gizonak jaso ezin dituezan kargakaz, ta zuek atz bategaz bere ukutu gura eztozuez kargak!

Ai zuek jasoten dozuezanak Profeteen sepulturak; ta zuen gurasoak il zituezan.

Egiaz adietan emoten dozue, ontzat emoten dozuezala zeuroen gurasoen egikerak: bada eurak egiaz il zituezan, baña zuek eureen sepulturak egiten dozuez.

Orregaiti Jangoikoaren jakituriak esan eban: biralduko deutseedaz Profetak, ta Apostoluak, ta euretarik ilgo ditue, ta persegituko ditue:

Kasta oni eskatu dakion mundua danik aterazo eban Profeta guztien odola.

Abel-en odoletik Zakarias Altare ta tenpluaren artean galdu ebena- ren odolegiño. Alan dirautsuet, kasta oni bere eskatuko jakola.

Ai zuek legeko Irakasleak, jakindurearen giltzeaz jagi zoreanok! zeurok sartu ez, ta sartuten zirianai eragozten zeuntsen.

Eta gauzok ziñozala, Fariseo, ta legeko Erakusleak asi zirian lazkiro esetsiten, ta gogaerazoten itauna askogaz,

Lakioak asmetan, ta aterazoten bere aotik zerbait, onelan salatuteko.



21. IRAKURTZA

**Jesusek irakasten deutse bere Diszipuluai,
ez gizonen bildurrik eukiten, ta ez gorputz-janariaren
ardura geiegi eukiten. Aberats kutiziotsua.**

San Lukasek cap. 12. v. 1-31.

Eta Jesusen inguruan baturik ainbeste jente, non batak bestea tropelduten eban, asi zan bere diszipuluai esatera: Gorde zaitzeze Fariseoen lebadura, edo azkarriatik, zein dan eztana iruditea, edo hipokresia.

Ez da gauza estaldurik, agertuko eztanik: ez eta gauza ezkutaurik jakingo eztanik.

Bada ilunetan esan zenduezan gauzak, argitan esango dira: eta gela-aposentuan belarrira esan zenduena tellatu ganean dedartuko da.

Zuei bada nire adiskidoi dirautsuet, eztaioezuela bildurrik euki gorputza ilten dabena, gero barriz ezin geiago egin dabena.

Baña nik erakutsiko deusuet noren bildur izan bear zaren: bildurra euki egiozue, bizitza kendu ezkeru, eskubidea daukanari Infernura botateko, alan dirautsuet, oni bildurra euki eiozue.

Zortzi-maraien bost txori salduten eztira, ta bat bakarra euretarik azturik eztago Jangoikoaren aurrean?

Eta zuen buruko ulle guztiak bere zenbaturik dagoz. Ez bada bildurrik euki: bada zuek txori asko baño geiago zaree.

Eta bai ta bere dirautsuet: gizonen aurrean autortuten nabena, gizonaren Semeak bere bera autortuko dau Jangoikoaren Angeruen aurrean.

Eta barriz gizonen aurrean ukatuten nabena, bera bere ukatua izan-go da Jangoikoaren Angeruen aurrean.

Eta gizonaren Semearen kontra berba egiten dabena, parkatuko jako: baño Espiritu Santuaren kontra biraoa diñoanari, parkatuko ez jako.

Eta zaroezanean Batzarretara, Juezen, ta Agintarien aurrera, ez ardurarik artu, zelan, edo zer eranzun, edo esango dozu.

Bada Espiritu Santuak ordu atan erakutsiko deusue, esan bear dozuena.

Eta Erriko batek esan eutsan: Maixua, esaiozu nire anajeri, nigaz zatitu dagiala senipartea.

Eta Jesusek eranzun eutsan: Gizona, nok egin nau ni zuen arteko Juez, edo zatitzalle?

Eta esan eutsen: Begira, ta gorde zaitzeze kutizia guztitik: zerren bakotxaren bizitzea eztago dituan gauzeen ugaritasunean.

Eta adirazo eutsen irudin bat esanik: Gizon aberats baten solo batek frutu asko ekarri eban.

Eta bere artean ziñoan: Zer egingo dot? bada eztaukat non sartu nire frutuak.

Eta ziñoan: Au egingo dot. Banatuko dodaz neure garautegiak, ta andiagotuko dodaz: ta an bilduko dodaz neure frutu, ta ondasun guztiak.

Eta nire arimeari esango deusue: Arima, urte askotarako ondasunak dituzu baturik: atsegindu zait, jan, edan, ta poztu zait.

Baña Jangoikoak esan eutsan: Zoro-eroa, gaur gabean biurtuko deusue arimea eskatuten: batu dozuna norentzat izango da?

Alan da beretzat gordeten dabena, ta Jangoikoagan aberats eztana.

Eta bere ikasleai esan eutsen: Beragaiti dirautsuet: ez arduraturik ibilli zeuroen arimarentzat, zer jango dozu, ez gorputzarentzat zer janzi-ko dozu.

Geiago da arimea janaria baño, ta gorputza jaztekoa baño.

Ara belak, zeintzuk ereinten eztabe, ez igitaitu, gordeleku ez garu-tegirik eztauke, ta Jangoikoak janarituten ditu. Bada zeinbat aek baño preziatuagoak etzaree zuek?

Eta nok zuetarik asko asmau arren, ukondo bat bere gorputzari eransi leio?

Bada gitxiago dana ezin badozue, zergaiti beste gauza kaiti zabiltze estu-larriturik?

Ara zelan azten dirian kanpoko liriok, oneek lan-bearrik, ez goruetan egiten eztabe: bada dirautsuet Salomon bere anditasun guztian janzi etzala onetariko batxo legez.

Orain bada, Jangoikoak alan janziten badau, gaur kanpoan dagoan bedarra, ta biar laban sartuko dana, zeinbat eta obeto zuek fede gitxikok?

Etzaitzeze bada ibilli arduraturik, jan, edo edango dozuena gaiti: ta etzaitzeze ibilli asmo goratuakaz.

Bada onelako gauza guztiak dira arduraturik darabiltzenak munduko jenteak. Eta zuen Aitak daki, oneen bearra dozuela.

Eta alan, billatu egizue lenengo Jangoikoaren Erreinua, ta bere justizia: ta gauza guztiok eransiko jatzuez.



22. IRAKURTZA

Jesusek bere Diszipuluen biotzetarik munduko gauzak kendu gura ditu: ta irakasten deutse, zelan beti zur, irazarririk egon bear dirian.

San Lukasek cap. 12. v. 32-59.

Talde txikia, ez bildurrik euki, zerren zuen Aitaren gogoko izan zan, Erreinua zuei emotea.

Saldu egizue dozuena, ta limosna egizue. Egizuez zartuten ez tirean fartikerak, Zeruetan ondasuna iños uts egingo eztana: nora lapurrik eldu-ten eztan, ez sitsak jaten daben.

Bada non zuen ondasuna dan, zuen biotza bere egongo da an.

Egon bitez zuen garriak esturik, ta argi erexegiñak zuen eskuetan.

Eta izan zaitze ezteguetatik datorrenean euren Jauna itxadoten daben gizonen antzekoak: datorrenean, ta atea joten dabenean, bertati idigi daioen.

Zorionekoak Jauna datorrenean bigirian idoroten dituan otseñak: Benetan dirautsuet, garri-estuko dala, ta bere maian jarri eragingo ditu, ta igarorik serbituko ditu.

Eta bigarren bigirian baletor, ta irugarren bigirian baletor, ta alan idoroko balitu, zorionekoak dira aek serbitzariak.

Baña au jakingo dozue, etxeko Nagusiak baleki, ze ordutan etorriko dan lapurra, bigirian egiaz egongo liteke, ta bere etxea zulotuten itxiko eleuke.

Zuek bada prestaturik egon zaitze: zerren nos gitxien uste dozuen orduan etorriko da gizonaren Semea.

Eta Pedrok esan eutsan: Jauna, irudintzau diñozu gugaiti, ala bai beste guztia kaiti bere?

Eta Jaunak esan eban: Nor uste dozu dala Jaunak bere etxekoan ganean ifini eban Maiordomo fiel, ta zurra, denporaz emon dagioen gari neurria?

Zorionekoa, Jauna datorrenean, alan egiten idoroten daben serbitzaria.

Egiaz dirautsuet, bere ondasun guztien ganean au ifiniko dabela.

Baña ak otseñak bere biotzean esango baleu: nire Jauna ezta agiri, ta asiko balitz jotera serbitzariak, ta kriadak, ta jatera, ta edatera, ta ordituta:

Nos gitxien uste daben egunean, ta eztakian orduan etorriko da a otseñaren Nagusia, ta andik kenduko dau, ta bere partea ifiniko dau desleialakaz.

Bada askoganik azotadua izango da, jakinik bere Nagusiaren borondatea, ta prestatu etzan, ta onen borondatea egin ez eban otseña.

Baña jakin ez ebana, ta kastigua zor jaken gauzak egin zituana, gitxiganik azotadua izango da. Bada asko emon jakonari, asko eskatuko jako: ta asko gomendatu jakonari, geiago eskatu deutse.

Sua sartutera etorri nintzan lurrera: ta zer gura dot, ezpada erexegi dedin?

Bada bateo bategaz bateatuko nas: ta ze estu ez nago egin arteraño?

Lurrean bakea sartutera uste dozue etorri nintzala? Dirautsuet, ezetz, ezpada alde-eragintza.

Bada emendik aurrera bost egongo dira etxe baten alkarreganik alde eginik, irurak bien kontra egongo dira, ta biak iruren kontra.

Aita semearen kontra egongo da, ta semea bere aitaren kontra; ama alabaren kontra, ta alaba amaren kontra; aubea bere erranaren kontra, ta errana aubearen kontra.

Baitabere zirautsan jenteari: dakutsuenean odoia elduten dala eguzki-sartaldara, esan daroazue: Euria dator; ta alan jazo oi da.

Eta egoi-axea danean, esaten dozue: bero egingo dau; ta alan da.

Finjitzalle guzurtiak, Zeru ta lurraren arpegiak ezagututen dakizue: bada zelan tenpora oraingo au eztakizue ezagututen?

Eta zergaiti zeuroenez juzgetan eztozue justu dana?

Zeure arerioaz zoazanean Agintariaren aurrera, alegiña egizu beraganik libretako bidean, jazo eztidin berak zu Juezagana eroatea, ta Juezak zu Alguazilari entregetea, ta Alguazil *edo Juraduak* presondegian zu sartzea.

Dirautsuet, andik urtengo eztozula, azkeneko maraia pagau arteraño.



23. IRAKURTZA

Ogeta amazortzi urtean gaixorik egon zan gizon bat osatuten dau Jesusek Jaiegun baten Jerusalemgo Piszina edo Garbitegian.

San Juanek cap. 5. v. 1-16.

Onen ostean zan Judeguen jai bat, ta Jesusek igon eban Jerusalem-era.

Eta Jerusalemen dago Probatika Garbitokia, Hebreoen artean Bethsaida deritxona, bost atarte dituana.

Euroetan etzazan gaixo asko, itsuak, errenak, baldauak, itxadoten uraren mugiera.

Bada Jaunaren Angeru bat aldi baten jatsiten zan Garbitokira, ta ura mugietan zan. Ta ura mugitu ezker, lenengo sartuten zana garbilekuan, osatuten zan edozein gatxetik.

Eta an zan ogeta amazortzi urtean gaixorik egoan gizon bat.

Eta Jesusek ikusi ebanean an zatzala a gizona, ta ezaguturik luzero egoala, esan eutsan: Osatu gura dozu?

Gaixoak eranzun eutsan: Jauna, ez dot gizonik sartu nagienik garbitokian, ura irabiatuten danean: bada ni noianeko, ni baño lenago beste bat sartuten da.

Jesusek esan eutsan: Jagi zaite, zeure oea artu egizu, ta zabiltz.

Eta berpetati a gisona osatu zan, ta artu eban bere oea, ta ebillan. Eta egun atan Jaia zan.

Esan eutsen bada Judeguak osatu zan gizonari: Jaieguna da, ta ezin eroan ziñei oea.

Eranzun eutsen: osatu ninduanak esan eustan: Artu zeure oea, ta zoaz.

Orduan itandu eutsen: Nor da esan eutsun gizona: Artu egizu oea, ta zabilz?

Baña osatu zan gizonak, ez ekian, nok osatu eban: zerren Jesus alde egin zan leku atan egoan jente andien artetik.

Gero Jesusek idoro eban Tenpluan, ta esan eutsan: Ara osatu zara: ez egizu bada beste bein bekaturik egin, gauza txarragoren bat jazo ezta-kizun.

A gizona joan zan, ta Judeguai esan eutsen, Jesus zala bera osatu ebana.

Onegaiti Judeguak persegietan eben Jesus, gauzok jaiegunean egiten zitualako.

24. IRAKURTZA

Judeguak Jesusi itandurik, zegaiti Jaiegunean osatuten daben, berak dirautse, bere Aita Jangoikoaz batera au egiten dabela.

San Juanek cap. 5. v. 17-29.

Eta Jesusek eranzun eutsen: Oraingiño nire Aitak egiten dau, ta nik egiten dot.

Eta ori beragaiti Judeguak geiago il gura eben: ez bakarrik Jaieguna gordetan ezebalako, baitabere, ziñoalako, Jangoikoa bere Aita zala, bardiña Jangoikoaz eginik. Eta alan eranzun eutsen, ta esan:

Egiaz, egiaz dirautsuet: Semeak berez ezin ezer egin leikela, ezpada dakusana Aitak egiten dabela: bada Aitak egiten daben guztia, bardin Semeak bere egiten dau.

Bada Aitak maite dau Semea, ta erakusten deutzaz berak egiten dituan gauza guztiak: ta onek baño egite andiangoak erakutsiko deutzaz, orrenbestez non mirarituko zaree zuek.

Zergaitik tze Aitak biztuten dituan legez illak, ta bizitza emon: alan Semeak nai dabenari bizitzea emoten deutso.

Eta Aitak iñor juzgetan eztau: bada juzgu guztia Semeari emon deutso,

Guztiak Semea onrau dagien, Aita onretan daben legez: Semea onretan eztabenak, eztau onretan Aita, bera biraldu ebana.

Egiaz, egiaz dirautsuet: nire berbea dantzuanak, ta ni biraldu ninduanagan sinisten dabenak, betiko bizitzea daukala, ta ezator juiziora, baña igaro zan eriotzatik bizitzara.

Egi egiaz dirautsuet: ordua datorrela, ta orain da, nos illak enzungo daben Jangoikoaren Semearen boza; ta dantzuenak, biziko dira.

Bada Aitak beragan bizitzea daukan legez; alan emon eutsan Semeari beragan bizitzea eukitea.

Eta eskubidea emon eutsan, juizioa egiteko, zerren gizonaren Semea dan.

Etzaitze miraritu onegaiti, bada ordua dator, zeñetan sepulturetan dagozan guztiak enzungo daben Jangoikoaren Semearen boza.

Eta ondo egin ebenak, joango dira biztuerako bizitzara: baña dongero egin ebenak, juizioko biztuerara.



25. IRAKURTZA

Aserratuten da Jesus Judeguen kontra sinistu gura ezteutselako ez berari, ez San Juani, ez Moisesi.

San Juanek cap. 5. v. 30-47.

Nik neurez ezerbere egin ezin dot. Dantzudan legez, juzgetan dot: ta nire juizioa justua da: bada ez nabil neure borondatearen billa, ezpada biraldu ninduanaren borondatearen.

Nik nire testigantza emoten badot, nire testimonioa ezta egiazkoa.

Beste bat da nire testimonioa emoten dabena: ta dakit egiazkoa dala nigaiti emoten daben testimonioa.

Zuek biraldu zenduen Juangana: ta testimonioa emon eutsan egiari.

Baña nik gizonen testimoniorik artuten eztot: baño au diñot, salbau zaitezen zuek.

Bera zan argi bat, erexeginik egoana, ta argituten ebana. Eta zuek poztu gura zenduen denpora labur baten bere argiaz.

Nik barriz Juanen testimonioa baño andiago daukat. Zerren Aitak nik betetako emon eustazan egitekoak; nik egiten dodazan gauzok, nire testimonioa emoten dabe, Aitak biraldu nabela.

Eta ni biraldu ninduan Aita berak nire testimonioa emon eban: ta zuek iñosbere bere boza enzun eztozue, ezta ikusi bere bere antz-irudia.

Ez eta dozue bere berbea egotez zeuroetan: sinistuten eztozuela berak biraldu eban onegan.

Arakatu egizuez Eskriturak, zeintzuetan zuek sinisten dozue beti betiko bizitzea dozuela: ta eurak dira nire testimonioa emoten dabenak:

Eta nigana etorri gura eztozue, bizitza euki eztagizuen.

Eztot gizonen gloriarik artuten.

Baña nik ezagutu deutsuet, ez dozuela Jangoikoaren maitetasunik zeuroetan.

Ni nire Aitaren izenean etorri nintzan, ta artuten enozue: beste bat baletor bere izenean a artuko zenduke. Zelan zuek sinistu ziñeike bataak besteaganik gloria artuten dozuela, ta Jangoikoarena bakarrik dan gloria, billatuten eztozue?

Eztozue uste izan bear, nik salatuko zaituedazala Aitaren aurrean: beste bat dago salatuten zaituezana, Moises, zeñegan zuek itxadoten dozuen.

Bada sinistuko bazeunskioe Moisesi, niri bere sinistuko zeunskide: bada berak ni gaiti eskribidu eban.

Baña bere eskribiduai sinisten ezpadeutsazue: zelan nire berbak sinistuko dozuez?



26. IRAKURTZA

**Herodesek enzunik Jesusen mirariak,
uste eban zala San Juan berak illerazo ebana,
ta au biztu zala. San Juan Bautistaren eriotzea.**

BATERA San Mateok 14. v. 1-12.

San Markosek cap. 6. v. 14-19.

San Lukasek cap. 9. v. 7-9.

Denpora atan Herodes Agintariak enzun eban Jesusen barria.

Bere belarrietara eldu zan egiten eban guztia, zerren zabaldu zan bere izena; ta zan-ezpazan legez gelditu zan, zerren ziñoen

Batzuk: Juan biztu zala illen arterik, ta orregaiti beragan birtuteak egiten ebela.

Eta beste batzuk: Elias agertu zala. Ta bestebatzuk: Atxinako Profetarik bat biztu zala. Ta bestebatzuk ziñoen: Profeta bat dala, Profetarik bat legez.

Eta Herodesek esan eban: Nik burua ebagi neutsan Juani: Nor da bada au, zeñegaiti ainbeste gauza dantzudazan? Ta alegiña egiten eban, ikustarren bera.

Eta bere otseñai esan eutsen: Au da a Juan nik idunbagetu nebana, illen arterik biztu dana.

Au da illen arterik biztu zan Juan Bautista; ta orregaitik birtuteak dabilz beragan.

Bada Herodesek estu eban Juan, ta loturik ifini eban presondegian Herodias bere anaje Filiporen emaztea gaitik, zeñegaz ezkondu zan.

Bada Juanek zirauntsan: ezin euki ziñei zure anajearen emaztea.

Eta il gura izanik, jentearen bildur zan: eukeelako Profetatzat.

Eta Herodiasek lakioak asmetan eutsazan: ta illerazo gura eban, baña ezin eban.

Zerren Herodesek jakinik gizon ona, ta santua zala, beneretan eban; ta gordetan eban, ta bere adibidez gauza asko egiten eban, ta gogo onaz enzuten eutsan.

Baña gero eldurik erazko eguna, zeñetan Herodesek zelebretan eban bere jaiotz-eguna, afaria emonik bere Agintaritzako Nagusiai, Buruai, ta Galileako Andiai:

Eta Herodiasen alabea sartu ezkerro, dantzatu, ta Herodesi ondo eretxi ezkerro, ta baitabere beragaz maian egozanai: Erregeak neskaxari esan eutsan: Eskatu egidazu gura dozun guztia, ta emongo deutsut:

Eta juramentu egin eutsan: Eskatuten deustazun guztia emongo deutsut, neure Erreinurik erdia bada bere.

Eta berak urtenik, bere amari esan eutsan: Zer eskatuko dot? Amak esan eban: Juan Bautistaren burua.

Eta sarturik berpetati Erregeagana, Bere amak kontuan ifinirik, esan eban: Ekartzu emen plater baten Juan Bautistaren burua.

Gura dot bertati emon daidazula plater baten Juan Bautistaren burua.

Eta Erregea tristetu zan: baña juramentua gaiti, ta beragaz maian egozanak gaiti, agindu eban, emon egoela; ez eutsan sentimenturik emon gura.

Enda bere zain egoan bat biraldurik, agindu eutsan, plater baten ekarri egiola Juanen burua: Ta idunbagetu eban presondegian.

Eta ekarri eban plater baten aren burua: ta neskaxari emon eutsan, ta neskaxak bere amari emon eutsan.

Eta au enzunik bere dizipuluak, etorri zirian, ta bere gorputza artu, ta enterrau eben, ta sepultura baten ifini eben; ta joan zirian Jesusi esatera.



27. IRAKURTZA

**Jesusek ezagaturik Herodesegaz igaroten zana,
aldegin zan Bethsaidako ermura, non bost ogigaz
janaritu zituan bost milla gizon.**

BATERA San Mateok cap. 14. v. 13-21.

San Markosek cap. 6. v. 30-44.

San Lukasek cap. 9. v. 10-17.

San Juanek cap. 6. v. 1-14.

Eta Jesusek au enzunik, andik alderatu zan.

Eta Apostoluak Jesusgana bihurturik, esan eutsen egin, ta irakasi eben guztia.

Eta berak esan eutsen: erdue aparte leku bakar batera, ta an atsegin gitxi bat artu egizue. Zerren asko zirian joan, ta etozenak: ta jateko bere astirik emoten ez eutsen.

Eta eurak arturik joan zan leku bakarrera.

Eta ontzi baten sarturik alderatu zirian Bethsaidako lurreko ermu batera.

Tiberiades deritxan Galileako beste itxas aldera.

Eta ekusen askok zelan joiazan, ta ezagutu eben: ta oñez joan zirian, ta ara etorri zirian Erri guzti aetatik, ta eurak baxen lenago eldu zirian.

Eta jente pilo askok jarraitu eutsen ekuselako gaixoen ganean egiten zituan mirariak.

Igon eban bada Jesusek mendi batera, ta an bere ikasleakaz jarri zan.

Eta ur egoan Pazkua, Judegen Jaieguna.

Eta ontzitik urteteen ikusi ebanean Jesusek orrenbeste jente, erruki-tu zan eurekaz; egozalako arzain baga dagozan ardiak legez.

Eta artu zituan, ta asi zan irakasten eurai Jangoikoaren Erreinuko gauza asko; ta euren gaixoak osatu zituan, ta sendatuten zituan bearra ebenak.

Eta beranduturik, beragana eldu zirian bere amabi dizipuluak, ta esan eutsen:

Ermu bakarra da au lekuau, ta ordu igaroa da.

Biraldu egizuz jenteok, inguruko Erri ta etxaguntzetara joanik, bizilekua ta janaria idoro dagien: bada emen ermu bakarrean gagoz.

Eta Jesusek esan eutsen: eztabe joan bearrik, zeurok jaten emon eizue.

Eta esan eutsen: berreun diruen ogia eroatera joango gara, ta jaten emongo deutsegu.

Eta Jesusek begiak jasorik, ta ikusirik ainbeste jente beragana etorrela, Feliperi esan eutsan: Nondik erosiko dogu ogia, oneek jan dagien? Au ziñoan probetarren bera; baña berak bekian zer egingo eban.

Felipek eranzun eutsan: berreun erlegiñen ogia ezta asko, bakotxak zati bat artu dagian.

Eta esan eutsen: Zeinbat ogi daukezue? Joan, ta ikusi egizue. Eta ikusi ezkeru,

Andres Simon Pedroren anaje, bere dizipuluetarik batek esan eutsan:

Emen da mutil bat garagarrezko bost ogi, ta arrain bi dituana: baña zer da au ainbesterentzat?

Ez edo ezpagoaz gu janariak eroatera jente guzti onentzat.

Bada baziran bost milla gizon legez. Ta berak bere dizipuluai esan eutsen: ekardazuez ona.

Eta agindu eutsen, jarri eragin egiela guztiai zatizka bedar ezearen ganean.

Leku artan egoan bedarluze asko.

Eta alan egin eben. Ta jarrierazo zituezan dirianak alkarte banaketan, eunka, ta berrogeta amarka.

Eta bost ogiak, ta arrain biak arturik, Zerura begiak jaso zituan:

Eta esker onak emonik, bedeinkatu zituan, ta zatitu zituan ogiak:

Eta bere dizipuluai emon eutsezan, jenteen aurrean ifini egiezan-tzat, ta dizipuluak jarririk egozan jenteai.

Baitabere zatitu eutsezan guztiai arraiñak, gura eben guztia.

Eta zirianak jan eben, ta ase-bete zirian.

Eta ase zirianean, bere dizipuluai esan eutsen: batu egizuez enparau dirian ondakiñak, galdu ezтитеzen.

Batu zituezan bada, ta bete zituezan amabi otzara, jan ezkeru, enparau zirian zatietatik bost garagar-ogi, ta arraiñetarik.

Eta jan ebenen neurria zirian bost milla gizon, kontau baga andra, ta umeak.

Jesusek egin eban mirariau ikusi ebanean aek gizonak, ziñoen: Au berau da egiaz, mundura etorriko dan Profetea.



28. IRAKURTZA

**Jesusek iges egiten dau Errege egin eztagien.
Bere Diszipuluak itxasoko ekatx andi baten arriskuan
dagozala, doa Jesus eurakgana ur ganean.**

BATERA San Mateok cap. 14. v. 22-36.

San Markosek cap. 6. v. 45-56.

San Juanek cap. 6. v. 15-21.

Eta Jesusek ezagutu ebanean, etorriko ziriala bera artu, ta Errege egiteko, iges egin eban beste bein berak bakarrik mendira.

Eta agindu eutsen bertati dizipuluai, sartu zitezela barkuan, ta joan zitezela bera baño lenago Bethsaidako beste itxas aldera, berak jentea despedietan eban bitartean.

Eta despeditu ezkerro, berak bakarrik igo eban mendi batera oraziño egitera; ta gautu zanean, an bera bakarrik egoan.

Eta beluturik, jatsi zirian itxasora bere dizipuluak.

Eta barkuan sarturik, igaro zirian beste itxas aldera Gafarnaun-ran-tza: ta ilundu zan: ta Jesus etzan etorri eurakgana.

Eta berandu izanik, barkua itxasoaren erdian egoan, ta bera bakarrik lurrean.

Eta ur-olatuak esetsiten eban barkua itxas erdian.

Eta jagiten zan itxasoa axe andiaren indarraz.

Eta ikusten zituan neke andiaz arraunean ebiltzela, kontrako axea eukelako.

Baña gaubeko laugarren bigirean eurakgana etorri zan itxaso ganean ebillala.

Eta arraundu ebanean ogeta bost, edo ogeta amar estadio (*milla pausa*) legez, ikusi eban, Jesus itxaso ganean ebillala, ta eurakgana etorrela, ta bildurtu zirian. Ta usterazoten eban, aurreragora euretari joiala.

Eta ikusirik ebillala itxas ganean, ikaratu zirian, ta ziñoen: Koko-ikaragarria da. Ta izuturik dedarrez asi zirian. Bada guztiak ikusi eban, ta bildur-ikara artu eban.

Baña Jesusek orduan berba egin eutsen, ta esan eban: ez bildurrik euki.

Neu nas, ez ikaratu.

Eta Pedrok eranzun eban ziñoala: Jauna, zeu bazara, agindu egidazu zugana joatea ur ganean.

Eta berak esan eutsan: Erdu. Eta Pedro barkutik jatsirik, uren ganean ebillan Jesusgana elduteko.

Baña axe andia ikusirik, bildur zan: ta ondatuten asirik, dedar egin eban esanik: Jauna balia zakidaz.

Eta bertati Jesusek luzetu eban eskua, ta oratu eutsan, ta esan eutsan: Siniste gitxiko gizona, zelan dudau zenduan? Eta eurak barkuan artu gura eban.

Eta igo eban euretara; ta barkura igonik, gelditu zan axea, ta barkua laster eldu zan, joan gura eban lurrera.

Eta barkuan egozanak etorri, ta adorau eban, esanik: Egiaz Jangoi-koaren Seme zara. Eta bere artean geiago mirarrituten zirian.

Bada oraingiño ondo gogoratu ez eban ogien gertaldia; zerren euren biotza ilundurik egoan.

Eta itxasoa igarorik, joan, ta eldu zirian Jenesaret-ko lurrera.

Eta barkutik leorrera urten ebanean, bereala ezagutu eban.

Eta erri atako gizonak ezagutu ebanean, Arin biraldu eban, bera egoala ekien erri alde guztira, ta ekarkeezan inguruko gaixoak euren oetan.

Eta ara bertara mindurik zirian guztiak ekarri eutsezan.

Eta bera sartuten zan Erri, ta leku guztietan ifinten zituezan gaixoak kalletan.

Eta erregututen eutsen, larga egioela ukututea edolabere bere soñekoaren ertza: ta ukututen eutsen guztiak osatuten zirian.



29. IRAKURTZA

**Jesusi darraioe eremuan janaritu zitu
jenteak Kafarnaun giño; ta emen erakusten deutse,
bera dala egiazko ogi bizitza-emollea.**

San Juanek cap. 6. v. 22-40.

Biamonean itxasoaren beste aldetik egoan jenteak ikusi eban, ez egoala an ezpada barku bat, ta etzala Jesus sartu barkuan bere dizipulua-kaz, ta bere dizipuluak eurak bakarrik joan ziriala.

Eta Tiberiadeko beste barku batzuk eldu zirian, ogia jan eben lekua-ren ondoan, graziak emon ezkerro Jaunari.

Jendeak bada ikusi ebanean, ez egozela an ez Jesus, ez bere ikasleak, barkuetan sartu zirian, ta Kafarnaunera joan zirian Jesusen billa.

Eta arkitu ebanean itxasoz beste aldera, esan eutsen: Maixua, nos eldu zara ona?

Jesusek eranzun eutsen; ta esan: Egiaz, egiaz dirautsuet, nire billa zabiltzela, ez ikusi dozuezan mirariak gaiti, ezpada ogia jan, ta ase-bete ziñielako.

Bear egizue, ez galduten dan ogia gaiti, ezpada betiko bizitzarako dirauana gaiti, zein gizonaren Semeak emongo deutsue. Zerren au Aita Jangoikoak siñatu eban.

Eta esan eutsen eurak: Zer egingo dogu, Jangoikoaren Obrak egiteko?

Jesusek eranzun eutsen, zirautsela: Au da Jangoikoaren obrea, sinistu daizuela berak biraldu ebanagan.

Eurak orduan esan eutsen: Ze miraria egiten dozu, guk dakusgun, ta sinistu daizugun? Zuk zer egiten dozu?

Gure Gurasoak jan eben mana eremuan, esanik dagoan legez: Zeruko ogia jaten emon eutsen.

Eta Jesusek esan eutsen: Egiaz, egiaz dirautsuet: Moisesek emon ez eutsuela Zeruko ogia, baña nire Aitak emoten deutsue Zeruko ogi egiazkoa.

Bada Jangoikoaren ogia da, Zerutik jatsi zana, ta munduari bizitza emoten deutsana.

Eurak bada esan eutsen: Jauna, iguzu beti ogi au.

Eta Jesusek esan eutsen: Neu nas bizitzaren ogia: nigan datorrenak, goserik eukiko eztau: ta nigan sinisten dabenak, iñosbere egarririk eukiko eztau.

Baña esan deutsuet, ikusi nozuela, ta sinistuten eztozuela.

Aitak emoten deustan guztia, nigana etorriko da: ta nigana datorrena, kanpora botako ezto:

Bada Zerutik jatsi nintzan, ez nire borondatea egiteko, ezpada ni biraldu ninduanaren borondatea.

Eta au da biraldu ninduan Aita onen borondatea; berak emon eustanik ezer galdu eztagidala, ezpada biztu daidala azkeneko egunean.

Eta biraldu ninduan Aitaren borondatea au da; bere Semea dakusana, ta onegan sinisten dabenak, beti betiko bizitza euki daiala, ta nik biztuko dot atzerengo egunean.



30. IRAKURTZA

**Judeguak deungero diño, Jesusek esan ebalako,
bera zala, bizitzako ogia: baña orrez guztiaz
darraio lan oni; ta eransiten dau, bere aragia,
ta odola diriala jan-edaria egiazkoak.**

San Juanek cap. 6. v. 41-59.

Baña Judeguak deungero ziñoen bera gaiti, ziñoalako: Ni nas Zerutik jatsi nintzan ogi bizia.

Eta aek ziñoen: Ezta au Jesus Joseperen Semea, zeñaren Aita, ta Ama dazaguz? Zelan bada diño beronek: Zerutik jatsi nintzan?

Baña Jesusek eranzun, ta esan eutsen: Ez egizue dongero esan alkarren artean.

Iñorbere nigana etorri ezin diteke, biraldu ninduan Aitak ezpadakar: ta nik biztuko dot gerorengo egunean.

Eskribiturik dago Profeteetan: Eta guztiak izango dira Jangoikoak irakasiak. Nire Aitari enzun, ta ikasi eban guztia, dator nigana.

Ez iñok nire Aita ikusi dabelako, ezpada Jangoikoarena danak, onek Aita ikusi dau.

Egiaz, egiaz dirautsuet: Nigan sinisten daben guztiak, betiko bizitzea dabela.

Ni nas bizitzako ogia.

Zuen Gurasoak jan eben mana ermuan, ta il zirian.

Au da Zerutik jasten dan ogia: bera jaten dabena, il eztidin.

Ni nas, Zerutik jatsi nintzan ogi bizia.

Baldin iñok ogi onetarik jaten badau, sekulako biziko da: ta nik emongo dodan ogia, da nire aragia munduaren bizitzea gaitik.

Orduan Judeguak asi zirian disputan euren artean, ta ziñoen: Zelan onek emon leigu bere aragia jateko?

Eta Jesusek esan eutsen: Egi, egiaz dirautsuet: Gizonaren Semearen aragia jaten ezpadozue, ta bere odola edaten ezpozue, eztozuela bizitzarik eukiko zeuroetan.

Nire aragia jaten dabena, ta nire odola edaten dabena, betiko bizitzea dauko: ta nik biztuko dot atzeneko egunean:

Bada nire aragia egiaz janaria da: ta nire odola egiaz edaria da.

Nire aragia jaten dabena, ta nire odola edaten dabena, nigan bizi da, ta ni beragan.

Aita bizi danak biraldu ninduan legez, ta ni nire Aita gaiti bizi nas: onelan jaten nabena bera nigaiti biziko da.

Au da Zerutik jatsi zan ogia. Ez zuen Gurasoak jan eben mana legez, ta il zirian. Ogi au jaten dabena, betiko-irautean biziko da.



31. IRAKURTZA

**Gauzok enzunik, aldegin zirian Jesusganik
bere dizipuluetarik batzuk: baña Apostoluak
irme gelditu zirian sinistean.**

San Juanek cap. 6. v. 60-72.

Au esan eban Kafarnaungo Batzarrean irakasten egoala.

Baña au enzun eben bere dizipuluetarik batzuk, esan eben: Irakaste gogorra da au, ta nok enzun lei?

Eta Jesusek bere artean jakinik, dongero ziñoela onegaiti bere dizipuluak, esan eutsen: Onek gatx-bidea emoten deutsue?

Bada zer liteke, bazenkusee gizonaren Semea len zegoan lekura igoten?

Espiritua da bizitza emoten dabena: baña aragiak eztakar probetxurik. Nik esan deutsuedazan berbak, espiritua, ta bizitza dira.

Baña zuen artean badira batzuk sinistuten eztabenak. Bada Jesusek lenengotik ekian, nortzuk zirian sinisten ez ebenak, ta nok salduko eban bera.

Eta ziñoan: Orregaiti esan deutsuet, iñor nigana ezin etorri ditekela, emoten ezpajako nire Aitaganik.

Ordureanik bere dizipuluetarik asko atzera biurtu zirian, ta ez ebiltzan beragaz.

Eta Jesusek esan eutsen amabiai: Ta zuek bere joan gura dozue?

Eta Simon Pedrok eranzun eutsan: Jauna, nogana joango gara? betiko bizitzako berbak dozuz.

Eta guk sinistu, ta ezagutu dogu zu zareala Kristo Jangoikoaren Semea.

Jesusek eranzun eutsan: Amabiok ez zinduedazan nik autu, ta zue-tarik bat deabrua da?

Eta ziñoan Judas Iskariotes Simonen Semea gaiti: zerren amabieta-rik bat onek salduko eban.

LAUGARREN LIBRUA

**Jesu Kristoren Bizitzea
Bateo ondoko bigarren Pazkuatik
bere Pasiño giño**



1. IRAKURTZA

**Pilatosek illerazo ezkeru Galileo batzuk,
ta Siloeko Torrea jausirik il zituzanakaz,
artuten dau Jesusek bidea esateko:
kondenauko diriala, penitentzia egiten eztabenak.
Osatuten dau Jai baten andra gaixo bat.**

San Lukasek cap. 13. v. 1-17.

Eta denpora atan an egozan batzuk esaten eutsezanak berari Galileoen barriak, zeñeen odola nastau eban Pilatosek euren sakrifiziokoagaz.

Eta Jesusek eranzun eutsen, esanik: Uste dozue, aek Galileotarrak bekatari andiagoak ziriala beste guztiak baño, alango gauzak padezidu arren?

Dirautesuet, ezetz: Baña barriz penitentzia egiten ezpadozue, aen antzera ondatuko zaree guztiok.

Bai ta bere arako amazortzi gizon, Siloeko Torrea euren ganean jausi, ta il zituzanak legez: uste dozue eurak ziriala zordunagoak, Jerusalem bizi zirian gizonak baxen?

Dirautesuet, ezetz: Baña baldin penitentzia egiten ezpadozue, guztiok aen antzera galduko zaree.

Eta esaten bere eban irudin au: Gizon batek eukan iko bat ifinirik bere mastian, ta joan zan beragana frutuaren billa, ta idoro, ez eban.

Eta mastegiko langilleari esan eutsan: Ara, iru urte da iko onetara natorrela frutu billa, ta arkituten eztot: ebagi egizu bada: zetako lurra beteko dau oraiño?

Berak eranzun eutsan, esanik: Jauna, aurten bere arren itxi egiozu, ta inguruan atxurtuko dot, ta satsak botako deustadaz:

Eta onenbestegaz frutua badakar, ondo; ta bestela gero ebagiko dozu.

Eta euren Batzarrean egoan irakasten Jaiegun baten.

Eta aror non amazortzi urtean gaioxozko espiritua eukan andra bat: ta ain makurturik egoan, eze, ezin gorantz begiratu eban.

Jesusek ikusi ebanean, deitu eutsan beragana, ta esan eutsan: Andrea, libre zagoz zeure gaixotasunetik.

Eta beragan eskuak ifini zituan, ta bereala arteztu zan, ta esker onak Jangoikoari emoten eutsazan.

Eta Batzarreko Nagusiak berbea arturik, aserraturik Jesusek Jaiegunean osatu ebalako, esan eutsan jendeari: Sei bear-egun dira: euroetan bada zatoze, osatu zaiezan, ta ez Jaiegunean.

Eta Jesusek berari eranzuten eutsala, esan eban: Irudintzalle-guzurtiak, zuetarik bakotzak eztau Jaiegunean askatuten askatik bere idi, edo astoa, ta daroa edaten emotera?

Eta Abranen alabau, Satanasek esturik amazortzi urtean euki daben au, ez zan askatu izan bear estura onetatik Jaiegunean?

Eta gauzok esanik, bere arerio guztiak lotsatuten zirian: ta jente guztia poztuten zan, berak ain galanto egiten zituan gauza oneetan.



2. IRAKURTZA

**Jesusek erakusten dau, ze gitxi salbetan dirian,
ta ze estua dan Zeru-bidea.**

San Lukasek cap. 13. v. 22-30.

Eta joian Uri, ta Erri guztietan irakasten, ta jarraituten Jerusalemgo bidea.

Eta gizon batek esan eutsan: Jauna, gitxi al dira salbetan dirianak? Eta berak eurai esan eutsen:

Dendatu zaitzeze ate bedarretik sartzeko: bada dirautsuet, askok sartu gurako dabela, ta ezingo dabela.

Eta etxeke Nagusia sartu ezker; ta atea itxiten dabenean, ta zuek oles ate-joka asten zarenean, diñozuela: Jauna, idigí eiguzu: ta berak eranzungo deutsue, diñoala: eztaikit nongoak zarean zuek:

Orduan asiko zaree esaten: Zure aurrean jan genduan, ta edan genduan, ta gure plazeetan irakasi zenduan.

Eta esango deutsue: Eztaikit nongoak zarean zuek: zoaze niganik gaistakeria egiten zenduenok.

An izango da negarra, ta agin karraskada: dakutsuezanean Abran, ta Isak, ta Jakob, ta Profeta guztiak Jangoikoaren Erreinuan, zuek barriz kanpora botaten zaituezala.

Eta etorriko dira Eguzkiaren-Sortaldetik, ta Sartaldetik, ta Egerdi-aldetik, ta Iper-aldetik, ta maian jarriko dira Jangoikoaren Erreinuan.

Eta aramen non azkenekoak diran lenengoak izango dirianak, ta lenengoak dira, azkenekoak izango dirianak.

3. IRAKURTZA

**Fariseoak deungerotzat emonik,
Apostoluak janen aurrean eskuak ez garbitutea,
Jesusek defendietan ditu aen esaka gaistoetarik.**

BATERA San Mateok cap. 15. v. 1-20.

San Markosek cap. 7. v. 1-23.

Eta beragana eldu zirian Fariseoak, ta Eskribatarik batzuk, Jerusalemendik etorri zirianak.

Eta ikusi ebenean bere dizipuluetarik batzuk bestetango eskuakaz jaten ebela, au da, garbitu baga, gauza ezaintzat euki eben.

Bada Fariseoak, ta Judegu guztiak eztabe jaten, askotan eskuak garbitu baga, onetan gordetan dabela Zaarren jatorrizkoa:

Eta Plazatik biurtuten dirianean jaten eztabe, lenago bustiten ezpada, ta gordetan ditue gauza asko, atxinatik datorkezanak, garbiturik ontziak, ta pitxerrak, ta metalezko tresnak, ta oe-kuxak.

Onegaiti Fariseo, ta Eskribak itanduten eutsen, esanik: Zergaiti zure dizipuluak austen dabe Zarretatik jatorkun etorkia? bada ogia jatean, eztiue eskuak garbituten, ta bestetako eskuakaz jaten dabe.

Eta berak eranzun eutsen, esanik: Eta zuek zegaiti austen dozue Jangoikoaren agindua zeuroen datorkizuna gaiti? Bada Jangoikoak esan eban:

Onetsi egizuz Aita, ta Ama. Ta il bedi, madarikatuten dituen Aita, ta Ama.

Baña zuek diñozue: Dirautsenak bere Aita, edo Amari *Korban*, au da, nik eskeñiten dodan doeak, zuri on egingo deutsu.

Eta ezteutsazue oni laketuten beste gauza geiago egiten bere aita, edo bere ama gaiti; ta eztitu onrauko bere aita, edo bere ama.

Eta Jangoikoaren agindua utsa egin dozue, ausiten dozuela Jangoikoaren berbea zeuroen atxinati jatortzuen oi dana zuek asmatua gaitik: ta beste onetariko gauza asko egin daroazue.

Irudintzalleak! ondo adierazo eban zuek gaiti Isaiasek, esanik: Erri onek ezpanakaz andizketan nau: baño euren biotza niganik urrin dago.

Alperrik bada onretan nabe, gizonen dotrinak, ta mandamentuak irakasirik.



Bada Jangoikoaren agindua largarik, ardura andiaz gordetan dozue gizonen datorkia, garbituen dozuezala pitxerrak, ta edontziak, ta beste onetariko gauza asko egiten dozuez.

Eta zirautsen: Galanto egiten dozue utsa Jangoikoaren agindua, zeuroen usadio atxinakoa gordetarren.

Eta beragana jenteari dei-eginik, esan eutsen: enzuzue, ta aditu egizue.

Gizonaganik kanpora dan gauzarik ezta, beragan sarturik loitu leikeanik bera; baña beraganik urteten dabenak, onexeeek dira gizona zikinduten dabeenak.

Aoan sartuten jakonak eztau loituten gizona; baña aotik urteten dabenak, onek loituten dau gizona.

Belarriak enzuteko dituanak, bentzu.

Orduan bere dizipuluak beraganaturik, esan eutsen: Bakizue, Fari-seoak berbau enzunik, gatx-bidea artu dabela?

Baña berak eranzun eban, esanik: Nire Aita Zerukoak landatuten eztaben landara guztia, sustraibagetuko da.

Larga egizue: Itsuak dira, ta itsuen itsu-aurrekoak: ta itsuak itsua badaroa, biak zuloan jausten dira.

Eta jentea itxi ebanean, etxean sartu zan, ta bere ikasleak itandu eutsen irudintzaren ganean.

Eta Pedrok eranzunik esan eutsan: Azaldatau egiguzu irudin au.

Eta Jesusek esan eban: Zer! oraindiño zagoze zuek adimentu baga?

Zer! Zuek bere orren adimentu gitxi dozue? Eztozue adietan, gizonagan sartzen dan kanpoko gauzeak ezin gatxik egin leiola?

Bada bere biotzean sartuten ezta, ezipabere sabelera igaroten da, ta gero toki loietara botaten da, beragaz daroazala jatekoaren ondarrak.

Baña gizonaganik urteten daben gauzak, zirautsen, oneek dira zikinduten dabenak.

Bada aotik urteiten daben gauzak, biotzetik urteten dabe, ta aek loituten dabe gizona.

Bada gizonen biotzaren barrutik urteten dabe gogoraziño gaistoak, adulterioak, aragizko bekatuak, eriotzak,

Lapurretak, testimonio guzurrezkoak, kutiziak, gaistakeriak, engañoak, deshoneskeriak, begirakune txarrak, biraoak, andigurak, erakeriak.

Gatx guztiok barrutik datoz.

Oneek dira gizona ezainduten dabenak. Baña eskuak garbitu baga jateak, eztau loituten gizona.

4. IRAKURTZA

**Alderaturik Jesus, Tiro ta Sidonen azkenetara,
an osatuten dau Kananearen alabea;
ta gero biurturik Galileako itxaso aldera
osatuten dau gizon gor ta mutu bat.**

BATERA San Mateok cap. 15. v. 21-31.

San Markosek cap. 7. v. 24-37.

Eta Jesus andik urtenik joan zan Tiro, ta Sidongo erri aldeetara.

Eta etxe baten sarturik, gura ez eban iñok jakin egian, baña ezin ezkutau zan:

Bada Kananeako andra, erri-bazter aetik urten eban batek, bere barria enzunik, eukan alaba bat espiritu zikiñak arturik,

Edar egiten eban, ziñoala: Jauna, Dabiden Semea, nizaz errukitu zaite: nire alaba deungero darabil deabruak.

Eta berak txitik eranzun ez eutsan. Ta beragandurik bere dizipuluak, erregututen eutsen, zirautsela: Jaramon egiozu, bada gure ostean dator dedarrez.

Eta berak eranzun, ta esan eban: Ez nas ni izan biraldua, ezipada Israelgo etxetik galdu dirian ardietara.

Baña bera etorri ta bere oñetara etxun zan.

Andrau Jentila zan, ta Sirofenisa jaiotez, ta adoradu eban, esanik: Jauna, balia zakidaz: ta erregututen eutsan atera egiala deabrua bere alabaganik.

Jesusek esan eutsan: Larga egizu lenago semeak ase-betetan: bada ondo eztirudi semen ogia artu, ta txakurrai emotea.

Berak barriz eranzun eban, esanik: Bai, Jauna, bada txakurtxoak maipetan jaten dituez semeen apurrak, Jaunen maitik jausten dirianak.

Orduan Jesusek eranzun eban, ta esan eutsan: O andrea! andia da zure sinistea: zuga egin bidi, zeuk gura dozun legez.

Esan dozun onegaiti, zoaz, bada deabruak urten dau zure alabaganik. Ta ordu atarik osatu zan bere alaba.

Eta bere etxera eldu zanean, idoro eban bere alaba oe ganean etxunik; ta deabruak beraganik urten ebala.



Eta Jesus andik urtenik, Tiroko mugetarik urtenik, Galileako itxasora joan zan Sidonetik, Dekapolisko erri erditik igaroten zala.

Eta ekarri eutsen gor, ta mutu bat, ta erregututen eutsen, eskua bere ganean ifini egiala.

Eta jenteen artetik alderaturik, atzak belarrietan sartu eutsazan: ta txua bota eban, ta miña ukutu eutsan:

Eta begiak Zerura jasorik, zizpuru egin, ta esan eutsan: *Ephpheta*, zeñek esan gura dau: *Idigi zaite*.

Eta bertati bere belarriak idigi zirian, ta askatu zan bere miñaren lotura, ta argiro berba egiten eban.

Eta agindu eutsen eurai, iñori esan ez egioela. Baña zeinbat eta geiago eragozten eutsen, ainbat eta geiago zabalduten eben: Eta are geiago miresten zirian, esaten ebeela: Guztia ederto egin eban: gorrai enzunerazo; ta mutuai berba-eragin eutsen.

Eta mendi batera igonik an jarri zan.

Eta beragana etorri zirian jente asko, eurakaz ekar deezanak mutuak,itsuak, eskuillak, ta beste asko: ta bota zituezan bere oñetara, ta osatu zituan.

Alangoz eze, jenteak miraritutuen zirian, ikusteaz mutuak berba egiten ebela, errenak ebiltzela,itsuak ekusdeela: ta txito asko alabetan eben Israelgo Jangoikoa.

5. IRAKURTZA

Jesusek zazpi ogigaz jaten emoten deutse lau milla gizoni, ume ta andrak kontau baga.

BATERA San Mateok cap. 15. v. 32-39.

San Markosek cap. 8. v. 1-10.

Egun aetan beste bein etorri ezkeroko jente pilo andi bat, ta zer jan ez eukirik, Jesusek deitu bere dizipuluai, ta esan eutseen:

Jente oneen errukia dot: bada iru egun dira nigaz dirauela, nire laguntzan dagozala, ta zer jan eztaukee: ta eztodaz barautan biraldu gura.

Eta barautan euren etxera biralduten badodaz, bidean indar-bagetu-ko dira: bada euretarik batzuk urrinetik etorri zirian.

Eta bere dizipuluak eranzun eutsen: Nok ogiz ase-bete leiz emen bakartasun onetan?

Zelan ermu onetan idoro giñei bear dan ogia ase-betetako orren jente andia?

Eta Jesusek esan eutsen: Zeinbat ogi dozuez? Eta eurak esan eben: zazpi, ta arrain gitxi batzuk.

Eta agindu eutsan jenteari lur ganean jarri zedilla.

Eta zazpi ogiak arturik, ta esker onak emonik, zatitu, ta emon eutseezan bere dizipuluai, jentearen artean zabaldu egiezantzat, egin eben legez.

Arraintxo gitxi batzuk bere bazituezan: ta bedeinkatu zituan, ta agindu eban, aurrean ifini egiezala.

Eta guztiak jan eben, ta ase zirian. Ta enparau zirian zatiakaz bete zituezan zazpi otzara.

Eta jan ebenak lau milla gizon zirian, ume ta andrak zenbatetu baga. Ta despeditu zituan.

Eta andik laster barkuan sartu zan bere dizipuluakaz, ta igaro zan Dalmanuthako errialdera, Majedango mugara.



6. IRAKURTZA

**Fariseoak beste bein eskatuten deutsez
señale adigarriak Jesusi. Ezainduten dau
bere dizipuluen fede gitxia; ta osatuten dau itsu bat.**

BATERA San Mateok cap. 16. v. 1-12.

San Markosek cap. 8. v. 11-26.

Eta Fariseoak, ta Saduzeoak beragana etorri zirian, ta beragaz dis-putan sartu zirian, eskatuten eutsela, erakutsi egioela Zeruko señaieren bat: tentetea gaiti.

Eta berak eranzun, ta esan eutsen: Arrastegian diñozue:

Eguraldi ona izango da, zerren Zerua gorri dagoan:

Eta goxean: Gaur ekatxa izango da, Zerua ilun-gorri dagoalako.

Zeruaren arpegia bada dakizue ezagututen: ta ezin ezagutu dozue denporaren señaieak?

Baña Jesusek bere espirituan zizpuruturik, esan eutsen: Zegaiti kasta onek señaiea eskatuten dau? Egiaz dirautsuet, kasta oni señaierik emongo ez jakola,

Kasta txar, ta adulteroak señaiea eskatuten dau, baño señaierik emongo ez jako, ezpada Jonas Profetaren señaiea. Eta eurak itxi, ta joan zan.

Eta eurak largarik, barkura barriro sartu zan, ta itxasoaren beste aldera igaro zan.

Eta bere dizipuluak igarorik beste bazterrera, aztu zirian ogiak artutea: Eta ez euken eurakaz barkuan ogi bat baxen.

Eta agindu eutsen, esanik: Ara; kontuz gorde zaitze Fariseo, ta Saduzeo, ta Herodesen lebadura, edo azkarriatik.

Baña eurak euren artean uste, ta esaten eben: artu ez genduzalako ogiak.

Eta Jesusek au ezaguturik, esan eutsen: Sinismen gitxiko gizonak, zegaiti zagoze gogoratuten zeuroen artean, ogirik ez dozuela?

Oraindiño adituten eztozue? Oraindo itsuturik dago zuen biotza?

Begiak dozuezala, ikusten eztozue? ta belarriak eukirik eztantzuzue? Gomuterik bere ez dozue?

Bost ogi bost milla gizoni zatitu neutsezanean, zeinbat otzarakada jaso zenduezan zatiz beterik? Amabi, eranzun eutsen.

Eta zazpi ogi zatitu nituanean lau milla gizonen artean, zeinbat otzara-zati artu zenduezan? Zazpi, esan eutsen.

Eta zirautesen eurai: Zelan bada adituten eztozue oraindiokorren,

Ez neutsuela esan ogia gaiti; gorde zaitze Fariseo, ta Saduzeoen azkarritik?

Orduan aditu eben, ez ebalá esan, gorde zitezela ogien azkarritik, ezpada Fariseo, ta Saduzeoen dotrinatik.

Eta Bethsaidera etorri zirian, ta ekarri eutsen itsu bat, ta erregututen eutsen, ukutu egioela.

Eta itsua eskutik arturik, erritik kanpora atera eban: ta txistua botarik begietara, ta bere ganean eskuak ifinirik, itandu eutsan, zerbait ikusten ete eban?

Eta berak begiraturik, esan eban: dakusdaz gizonak aretxak legez, dabiltzela.

Eta beste bein eskuak begi ganean ifini eutsazan, ta asi zan ikusten: ta osatu zan, alangoz eze gauza guztiak argiro ekusazan.

Eta bere etxera biraldu eban, esanik: zoaz etxera: ta errian sartuten bazara, iñoribere esan ez eiozu.



7. IRAKURTZA

Jesusek ezkutuan igoten dau Jerusalemgo Jaira; ta berba egiten dau argiro Tenpluan.

San Juanek cap. 7. v. 1-36.

Eta onen ondoan Jesus ebillan Galileatik, zerren Judeara igaro gura ez eban, Judeguak bere billa berau ilteko ebiltzelako.

Baña ur egoan Judeguen jai, Tabernaklena eritxona.

Eta bere anajeak esan eutsen: Emendik igaro zaitte, ta zoaz Judeara, zure dizipuluak bere zure egiteak ikusi daiezan.

Bada iñok ezkutuan eztau ezer egiten, ta alegiña egin daroa ezagutua izan dedin agirian: Au egiten badozu, munduari agertu zaitte.

Bada bere anajeak bere beragan sinisten ez eben.

Eta Jesusek esan eutsen: Nire denporea oraindio etorri ezta: baña zuen denporea beti dago prest.

Ezin munduak zuek gorrotau ziñeikeez: baña ni gorroto nau; nik bere testimonia emoten dodalako, bere egiteak txarrak diriala.

Zuek igo egizue jai onetara, baña nik igoko eztoz jai onetara; zergaitze nire denporea eldu ezta oraindiño.

Au esanik, bera Galilean gelditu zan.

Baña bere anajeak joan ezker, berak bere orduan igo eban jaira, ez agirian, ezpada ixilean legez.

Eta Judeguak bere billa ebiltzen jaietan, ta ziñoen: Non da a?

Eta esamesa andia ebillan jentearen artean bera gaiti. Bada batzuk ziñoen: Ona da. Ta bestebatzuk, ez, zerren jentear engañetan dituan.

Bada iñok berba egiten ez eban agirian bera gaiti Judegen bildurrez.

Eta jai erdian igo eban Jesusek Tenplura, ta irakasten eban.

Eta Judeguak miraritutun zirian, ta ziñoen: Zelan dakiz onek letrak, ikasi ezpaditu?

Jesusek eranzun eutsen, esanik: Nire dotrinea nirea ezta, ezpada biraldu nabarenarena.

Bere borondatea egin gura dabenak, ezagutuko dau dotrina, Jangoi-koarena danez, edo nik neuronez berbatuten dodanez.

Iñok beretik berba egiten badau, bere gloriaren billa dabil: baña biraldu ebanaren gloriaren billa dabillana, au egiazkoa da, ta bidebagerik beragan eztago.

Menturaz Moisesek legea emon ez eutsuen: ta zuetarik iñok legea egiten eztau?

Zergaiti il gura nozue? Jenteak eranzun eban, esanik: Deabrua dozu: Nok il gura zaitu?

Jesusek eranzun, ta esan eutsen: Egite bat egin dot, ta guztiok miraritutun zaree.

Orregaiti Moisesek emon eutsuen zirkunzisiñoa: ez bera Moisesena dalako, ezpada Aita-aurrekoena, ta jaiegunean gizakumea zirkunzidetan dozue.

Gizonak jaiegunean zirkunzisiñoa artuten badau, Moisesen legea ausi eztidin: nire kontra jagiten zaree gizon guzti bat jaiegunean osatu dodalako?

Ez egizue juzgatu kanpotik dirudienaz, baña jusgu justua juzgau egizue.

Jerusalengo batzuk ziñoen: Au ezta, ilteko billatuten dabena?

Aramen bada non agirian berba egiten daben, ta ezer esaten ezteutse. Benturaz Nagusiak ezagutu dabe au berau dala Kristo?

Baña bakigu au nongoa dan: ta Kristo datorrenean, iñok jakingo eztau nongoa dan.

Eta Jesusek jasoten eban boza Tenpluan, irakasten, ta esaten ebal: Zuek banazauzue, ta dakizue nongoa nasan: baña barriz ni neuganik etorri ez nintzan, baña egiatia da biraldu ninduana, zein zuek eztauzue.

Nik bazaut, zerren berea nasan, ta berak bidaldu ninduan.

Eta preso artu gura eben: baña iñok eskurik ezarri ez eutsan, bere ordua oraindiño eldu ez zalako.

Eta erriko askok beragan sinistu eben, ta ziñoen: Kristo datorrenean, onek baño miraria geiago egin ete leiz?

Fariseoak enzun zituezan a gaiti errian esaten zirian murmuriak: ta Sazerdoteen Buruak, ta Fariseoak biraldu zituezan ministroak bera estuteko.

Eta Jesusek esan eutsen: Denpora apur baten oraindio zuekaz egongo nas: ta noa biraldu ninduanagana.

Billatuko nozue, ta idoroko enozue: ta ni nagoan lekura, zuek ezin etorri zeintez.



Judeguak euren artean esan eben: Nora joango ete da au, idoroko eztogunau? Zabaldurik dagozan Jenteetara joan gurako ete dau, ta Jentilai irakasi?

Ze berba da esan eban au: Billatuko nozue, ta ez nozue idoroko: ta ni nagoan lekura, zuek ezin etorri zinteketz?

8. IRAKURTZA

**Jesusek diño, bera dala ur bizitzakoa.
Askok dauke Kristotzat. Fariseoak
amurru geiago bere kontra artuten dabe.**

San Juanek cap. 7. v. 37-53.

Eta jaiaren azkeneko, ta andiaren egunean an egoan Jesus, ta dedarez esaten eban: Iñor egarri bada, betor nigana, ta edan begi.

Nigan sinistuten dabenak, Eskritureak diñonez, bere sabeletik eriongo dira bizitzako urezko ibaiak.

Au ziñoan beragan sinisten ebenak artuko eben Espiritua gaiti: bada oraindiño etzan emon Espiritua, zerren Jesus etzan izan gloriatua oraingiño.

Jente aetatik bada askok berbok enzun ezkeru, ziñoen: Au profeta da egjaz.

Bestebatzuk ziñoen: Au Kristo da. Baña batzuk ziñoen: Zer bada Kristo Galileati etorriko ete da?

Eztiño Eskritureak, Kristo datorrela Dabiden odoletik ta Dabid egon zan Belengo Gaztelutik?

Eta onelan eztabaida egoan jenteen artean bere ganean.

Eta eurentarik batzuk preso artu gura eben: baña beragan eskurik iñok ifini ez eban.

Ministroak, bada biurtu zirian Sazerdoten Nagusietara, ta Fariseoetara. Eta oneek esan eutsen: Zegaiti ekarri eztozue?

Ministroak eranzun eben: Onek legez sekula gizonik berba egin ez eban.

Fariseoak barrero esan eben: Zer bada, zuek bere engañatuak izan al zaree?

Menturaz iñok Nagusi, ta Fariseoetarik sinistu dau beragan?

Baña nolanaiko jente legea eztakienak madarikatuak dira.

Nikodemok, (Jesusgana gaubez etorri zanak, ta eurentariko zanak) esan eutsen:

Menturaz gure legeak juzgetan dau gizon bat, lenago berari enzun baga, ta zer egin daben jakin arteraño?

Beroni eranzun, ta esan eutsen: Zu bere Galileoa al zara? Begira Eskriturai, ta ezagutu egizu, iñosko alditan Galileati jagi eztala Profetarik.

Eta bakotxa bere etxera biurtu zan.



9. IRAKURTZA

**Fariseoak daroe Jesusgana adulterioan topau eben
andra bat. Diño, bera dala munduko argia,
ta Jangoikoak biraldua; ta onegaitik
Judeguak arrika il gura dabe.**

San Juanek cap. 8. v. 1-59.

Eta Jesus joan zan Olibeteko basora:

Eta biaramonean Tenplura biurtu zan, ta erri guztia beragana etorri zan, ta jarririk irakasten eutsen.

Eta Eskribak, ta Fariseoak ekarri eutsen adulterioan idoro eben andra bat: ta erdian ifini eben.

Eta esan eutsen: Maixua, oraintxe andra au artu dogu adulterioan.

Eta Moisesek agindu euskun legean, onelakoai arrika egitea. Zuk bada zer diñozu?

Eta au zirautsen tentetarren, salatuteko bidea artute arren. Baña beranz makurturik Jesusek, atzagaz lurrean eskribietan eban.

Eta eurak itanduten irauela, zuzendu zan, ta esan eutsen: Zuen artean bekatu baga dagoanak, bota begio lenengo arria.

Eta bestebein makurtu zan, ta irauan eskribietan lurrean.

Eurak au enzunik, joan zirian bata besteen atzean, ta Zarrenak lenengoak: ta Jesus bakarrik gelditu zan, ta erdian egoan andrea.

Eta Jesusek artezturik esan eutsan: Andrea, non dira salatu zindue-zanak? iñok kondenau etzaitu?

Berak esan eban: Iñok bere ez, Jauna. Ta Jesusek esan eban: Nik bere kondenatuko etzaitut. Zoaz, ta iñosbere bekatuik ez egizu.

Eta beste aldi baten Jesusek berba egin eutsen eurai, esanik: Ni nas munduko argia: darraidana, eztabil illunetan, ta bizitzako argia eukiko dau.

Fariseoak esan eutsen: Zuk zeure testimonioa emoten dozu: zure testimonioa ezta egiazkoa.

Jesusek eranzun eban, ta esan eutsen: Nik nire buruaren testimonioa emoten badot bere, egiazko testimonioa da nirea: bada bakit nondik etorri nintzan, ta nora noian: zuek barriz eztakizue nondik natorren, ez nora noian.

Aragiaren erara zuek juzgetan dozue: baña nik iñor juzgetan eztot.

Eta nik juzgetan badot, nire juzgamentua egiazkoa da, zerren ze ez nago bakarrik; ezpada ni, ta ni biraldu ninduan Aita.

Eta zuen legean dago eskribiturik, gizon bien testigantza egiazkoa dala.

Ni nas neure testimonioa emoten dodana: ta ni bidaldu ninduan Aitak nire testimonioa emoten dau.

Eta eurak zirautsen: Non dago zure Aita? Jesusek eranzun eban: Ez nazazue ez ni, ez nire Aita: ni ezagutuko baninduzue, egiaz nire Aita bere ezagutuko zendukee.

Jesusek berbok esan zituan ondasuntegian, Tenpluan irakasten eba: ta iñok eskurik ezarri ez eutsan, zerren bere ordua etorri etzan.

Eta bestebein Jesusek esan eutsen: Ni banoa, ta billatuko nozue, ta zeuroen bekatuan ilgo zaree. Ni noian lekura zuek ezin etorri zeindekeez.

Eta Judeguak ziñoen: Menturaz berak bera ilgo dau, bada esan dau: Ni noianera, zuek ezin etorri zeindekeez?

Eta berak zirautsen: Zuek bekoak zaree: ni goikoa nas. Zuek mundu onetakoak zaree, ni ez nas mundu onetakoia.

Onegaiti esan neban, zeuroen bekatuetan ilgo zareala: bada sinisten ezpadozue ni nasala, zeuroen bekatuan ilgo zaree.

Eta eurak zirautsen: Nor zara zu? Jesusek esan eutsen: ni nas Asiere, berba egiten deutsuedan au.

Gauza asko daukadaz zuek gaiti zer esan, ta zer juzgatu: baña biraldu nabena egiatia da: ta nik berari enzun neutsana, dirautsuet au berau munduan.

Eta adietan ez eben, bere Aitari deituten eutsala Jangoikoa.

Jesusek bada esan eutsen: Gizonaren Semea jasoten dozuenean, orduan ezagutuko dozue neu nasala, ta neuk neurez ezer egiten eztodala, baña nire Aitak erakutsi eustana, au diñodala:

Eta biraldu ninduana, nigaz dago, ta bakarrik itxi ez ninduan: bada nik beti egiten dot berari dagokiona.

Gauzok berak esanik, askok beragan sinistu eben.

Eta Jesusek zirautsen beragan sinistu eben Judeguai: Baldin zuek irauten badozue nire berban, izango zaree egiaz nire dizipuluak:

Eta egia ezagutuko dozue, ta egiak librauko zaitue.

Eurak eranzun eutsen: Abranen etorkiak gara, ta iños besteren bean egon ez gara: Zelan bada zuk diñozu: Libreak izango zaree?

Jesusek eranzun eutsen: Egiaz, egiaz dirautsuet: bekatu egiten daben guztia, bekatuaren mendepan dagoala.



Eta menpetuak eztau beti irauten etxean: semeak barriz beti dirau.
Bada baldin semeak libretan bazaitue, egiaz izango zaree libreak.
Bakit Abranen semeak zareala: baña il gura nozue, nire berbea zue-
tan artu ezin dalako.

Diñot, nire Aitagan ikusi nebana: ta zuek egiten dozue zeuroen aita-
gan ikusi zenduena.

Eranzun, ta esan eutsen: Gure Aita Abran da. Jesusek esan eutsen:
Abranen semeak bazaree, Abranen obrak egizuez.

Baña orain il gura nozue, izanik ni Jangoikoari enzun neutsan egia
esan deutsuedan gizona. Abranek ez eban au egin.

Zuek zeuroen aitaren obrak egiten dozue. Ta eurak esan eutsen:
Jaio ez giñian gu desoneskeriatik: Aita bat zein Jangoikoa dan daukagu.

Eta Jesusek esan eutsen: Baldin Jangoikoa balitz zuen Aita, benetan
ni maitetuko nindukezue. Bada nik Jangoikoaganik urten neban, ta nator:
ta neu neurez etorri ez nintzan, ezpada biraldu ninduan berak.

Zegaiti adituten eztozue dirautsuedana? Nire berbea enzun ezin
dozelako.

Deabruaren semeak zaree zuek: ta zeuroen aitaren naigurak bete
gura dozue: munduaren asieratik zan bera gizon-iltzallea, ta egian iraun
ez eban; zerren egiarik beragan eztagoan: guzurra diñoanean, berez berba
egiten dau: guzurtia, ta guzurraren aita dalako.

Baña nik egia zuei esan arren, sinistuten ez nozue.

Nok zuetarik arpegian emongo deust bekatuaz? Baldin egia badi-
rautsuet, zegaiti sinisten ezteustazue?.

Jangoikoarena danak, Jangoikoaren berbak dantzuz. Orregaiti zuek
eztantzuzue, Jangoikoarenak etzarealako.

Judeguak eranzun eutsen, esanik: Guk ondo eztiñogu, zu zareala
Samaritanoa, ta deabrua dozula?

Jesusek eranzun eutsen: Ez dot nik deabrurik: baña bai nire Aita
onretan dot, ta zuek desondrau nozue.

Bada ni ez nabil nire gloriaren billa: bago nok billatu, ta juzgau
dagian.

Egi, egiaz dirautsuet: nire berbea gordetan dabenak, sekula eriotza-
rik ikusi eztau.

Judeguak esan eutsen: Oraintxe dazaugu, deabrua daukazula. Abran
il zan, Profetak bere bai, ta zuk diñozu: Nire berbea gordeten dabenak,
iñosbere eriotzea ikusiko eztabela?

Menturaz zara zu gure Aita Abran baño andiagoa, zein il zan, ta Pro-
fetak bere il zirian? Zein egiten zara zu?

Jesusek eranzun eutsen: Ni neu gloriatuten banas, nire gloria ezer
ezta; nire Aitak, zuek zeuroen Jangoikoa dala diñozuenak, gloriatuten
nau.

Eta eztazauzue bera: baña nik bazaut: ta eztazaudala esango baneu,
guzurtia, zuek legez izango nas. Baña bazaut, ta bere berbea gordetan dot.

Abran zuen Aitak nai andiaz deseau eban nire eguna ikustea: ikusi
eban, ta poztu zan.

Orduan Judeguak esan eutsen: Berrogeta amar urte oraindio ez
dozuz, ta Abran ikusi dozu?

Jesusek esan eutsen: Egi, egiaz dirautsuet, Abran jaio baño lenago,
nas ni.

Orduan artu zituezan arriak berari botateko: baña Jesus ezkutau zan,
ta Tenplutik urten eban.



10. IRAKURTZA

**Jesusek jaiegun baten osatuten dau itsu bat;
ta Fariseoak botaten dabe Tenplutik kanpora,
dedarrez autortuten dabelako Jaun au Kristo zala.**

San Juanek cap. 9. v. 1-41.

Eta igarotean Jesusek ikusi eban, jaiotzatik itsua zan gizon bat:

Eta bere dizipuluak itandu eutsen: Maixua, nok bekatu egin eban, onek, ala bere gurasoak, au itsua jaio zedin?

Jesusek eranzun eutsen: ez eban onek bekatu egin, ez eta gurasoak bere: ezpada Jangoikoaren egiteak beronegan agertu ditezen.

Bearrezkoa da, nik egitea, ni biraldu ninduanaren obrak, eguna dan artean: gauba etorriko da, zeñetan iñok obrau ezingo daben.

Munduan nagoan artean, munduaren argia nas.

Au esan ebanean, txistua bota eban lurrera, ta txuaz lupetza egin eban, ta lupetzaz igortzi zituan itsuaren begiak.

Eta esan eutsan: Zoaz, garbitu zaitte Siloeko garbitegi, Biraldua esan gura dabenean. Joan zan bada, ta garbitu zan, ta etorri zan ekusala.

Auzokoak, ta len eskean ikusi ebanak ziñoen: Ezta au, len jarririk, ta limosna eske egoana? Batzuk ziñoen: bera da.

Bestebatzuk ziñoen: Ezta au, ezpada bera dirudian bat. Baña berak ziñoan: Neu nas.

Eta zirautsen: Zelan idigi jakazan begiak?

Berak eranzun eban: Arako Jesus deritxan gizonak egin eban lupetza; ta igortzi zituan nire begiak, ta esan eustan: Zoaz Siloeko ikuz-lekura, ta garbitu zaitte. Ta joan nintzan, ta garbitu nintzan, ta dakust.

Eta esan eutsen: Non da a? Berak eranzun eban: Eztakit.

Itsua izan zana eroan eban Fariseoakgana.

Eta jaieguna zan Jesusek lupetza egin, ta begiak idigi eutsazanean.

Eta Fariseoak barriro itandu eutsen; zelan artu eban ikustea. Ta berak esan eutsen: Lupetza nire begietan ifini eban, garbitu nintzan, ta dakust.

Eta Fariseoetarik batzuk ziñoen: Jaieguna gordetan eztaben gizon au, ezta Jangoikoarena. Eta beste batzuk ziñoen: Zelan gizon bekatari batek mirariok egin leiz? Eta zer-esana ebillan euren artean.

Itsuari bestebein esan eutsen: Zuk barriz zer diñozu, zure begiak idigi dituana gaiti? Ta berak esan eban: Profetea dala.

Baña Judeguak ez eban sinistuten bera gaiti, itsua izan zala, ta ikustea artu ebala, arik eta ikustea artu ebanaren gurasoai deitu arteraño.

Eta itandu eutsen eurai, ta esan eban: Au da zuen seme, itsuturik jaio zala, zuek diñozuena? Zelan bada dakus orain?

Bere gurasoak eranzun eutsen, esanik: Bakigu au gure seme dala, ta itsu jaio zala:

Baña eztakigu, zelan orain dakusan: edo nok idigi deutzazan begiak: adina dau, berak beragaiti berba egin dagiala.

Itsuaeren gurasoak au esan eban, Judegen bildur zirialako: bada Judeguak erabagi eban, Batzarretik kanpora botatea, autortuten ebana Jesus zala Kristo.

Onegaiti bere gurasoak esan eban: edadea dauko, berari itandu egiozue.

Barriz bada itsua izan zan gizonari deitu, ta esan eutsen: Jangoikoari gloria emon egiozu: guk dakigu gizon ori bekataria dala.

Berak esan eutsen: Bekataria danez, eztakit: gauza bat dakit, ni itsua izanik, orain dakusdala.

Eta eurak esan eutsen: Zer egin eutsun? Zelan idigi eutsuzan begiak?

Berak eranzun eutsen: Esan deusuet, ta enzun dozue: zegaiti bestebein enzun gura dozue? menturaz zuek bere aren dizipuluak izan gura dozue?

Eurak madarikatu eban, ta esan eban: Izan zaitte zeu bere dizipulua: bada gu Moisesen dizipuluak gara.

Guk dakigu, Jangoikoak Moisesi berba egin eutsala: baño eztakigu au nongoa dan.

Ak gizonak eranzun eutsen, ta esan eutsen eurai: Gauza miragarria da, zuek ez jakitea au nongoa dan, ta idigi ditu nire begiak:

Eta dakigu, Jangoikoak ez dantzuiola bekatariak: baño baldin bat bada Jangoikoaren bildurrekoa, ta bere borondatea egiten badau, oni banzuio.

Iños enzun ezta, itsu jaio danaren begiak iñok idigi dituala.

Au Jangoikoarena ezpaliz, ezin ezer egin leikean.

Eranzun, ta esan eutsen: Guztiori bekatuetan jaio zara, ta zuk irakasten deuskuzu? Eta kanpora bota eban.

Jesusek enzun eban kanpora bota ebela: ta arkitu ebanean, esan eutsan: Sinisten dozu Jangoikoaren Semeagan?

Berak eranzun, ta esan eban: Nor da, Jauna, beragan sinistu daidan?



Eta Jesusek esan eutsan: Eta ikusi dozu, ta zugaz berbaz dagoana, ori berori da.

Eta berak esan eban: Sinisten dot, Jauna. Ta adarau eban auspaz.

Eta Jesusek esan eban: Juiziorako ni mundura etorri nintzan: dakusen ezta kusenak, ta itsutu ditezen dakusdenak.

Eta Fariseotarik batzuk au enzun eben, ta esan eutsen: Zer bada, gu bere itsuak al gara?

Jesusek esan eutsen: Itsuak baziñe, ez zenduke bekatu rik eukiko, ta orain diñozuelako: Bakusku; dirau zuen bekatuak.

11. IRAKURTZA

**Jesusek diño bera dala Arzain ona:
ta dazauzala bere ardiak.**

San Juanek cap. 10. v. 1-21.

Egi, egiaz dirautsuet: Atetik eztan beste lekutik ardien arditegira sartuten dana, au kentzallea, ta lapurra da.

Baña atetik sartzen dana, ardien arzaina da.

Oni atezainak idigiten deutso, ta ardiak bere boza danzue, ta bere izenaz ardi bakotxari deituten deutso, ta ateraten ditu.

Eta ardiak atera dituanean, euren aurrean doa bera: ta ardiak darraioe, dazauela bere boza.

Baña kanpotarrari ez darraioe, iges bai egiten dabe beraganik: zerren kanpokoan boza ezta zaue.

Irudin au Jesusek esan eutsen. Baña eurak aditu ez eben, zer zirautsen.

Eta osterabere Jesusek esan eutsen: Egi, egiaz dirautsuet, neu nasala ardien atea.

Etorri zirian guztiak kentzalleak, ta lapurrak dira, ta ardiak enzun ez zituezan.

Neu nas atea. Niganik sartuten dana, salbauko da: ta sartuko da, ta urtengo dau, ta jangarriak topauko ditu.

Lapurra ezta tor ezpada ostutera, ta iltera, ta ondatutera. Ni etorri nintzan, bizitza euki daien, ta ugaritasunaz euki dagien.

Ni nas Arzain ona. Arzain onak bere ardiak gaiti bere bizitzea emoten dau.

Baña ordekoak, ta arzain eztanak, ta ardiak bereak eztituanak, dakus otsoa datorrela, ta larga bere ardiak ta iges doa: ta otsoak ostu, ta zabal duten ditu ardiak.

Eta ordekoak (edo alogerakoak) iges egiten dau, alogerean dagoalako, ta parterik ardietan ezta ukalako.

Ni nas Arzain ona: ta neure ardiak dazaudaz, ta eneak nazaude.

Aitak ezagutu ninduan legez, nik bere Aita dazaut: ta nire arimean neure ardiak gaiti ifinten dot.



Artalde onetakoak eztirian beste ardi batzuk bere badodaz: ta neuk ekarri bear dodaz, ta ene boza enzungo dabe, ta egingo dira artalde bat, ta arzain bat.

Orregaiti Aitak maite nau: nik nire arimea ifinten dodalako, beste bein artuteko.

Iñok kenduten ezteust: baña neuk neuronez iminten dot, ta eskubidea dot ifinteko, ta eskubidea barrero artuteko: aginduan neure Aitaganik artu neban.

Eta berbok gaiti barrero jaio zan eztabaidea Judegen artean.

Eta eureetatik askok ziñoen: Deabrua dauko, ta zoratu jako: zegaiti danzuzue?

Bestebatzuk ziñoen: Deabrutuaren berbak eztira oneek: menturaz deabruak idigi leiz itsuen begiak?

12. IRAKURTZA

**Judeguak arrika egin gura eutsen Jesusi,
esan ebalako Jangoikoaren Semea zala:
Au jakinik Jaunak, aldegiten da eurakganik ermura.**

San Juanek cap. 10. v. 22-42.

Eta Jerusalem gordeten zan Barritzako jai: ta negua zan.
Eta Jesus ebillan Tenpluan Salomonen atartean.

Judeguak bada inguratu eben, ta esan eutsen: Nos artean gure arimea eroango dozu? Kristo bazara, esaiguzu argiro.

Jesusek eranzun eutsen: Dirautsuet, ta sinisten ezteustazue: nire Aitaren izenean egiten dodazan obra eurak nire testimonioa emoten dabe:

Baña zuek sinistuten eztozue, nire ardiarikoak etzarealako.

Nire ardiak nire boza danzue: ta nik dazaudaz, ta darraide: Eta nik beti betiko bizitza emoten deutset, ta iños galduko eztira, ta nire eskutik iñosbere iñok ostuko eztitu.

Nire Aitak emon eustana, gauza guztien ganean da: ta nire Aitaren eskutik iñok iños ostu ezin leiz.

Nire Aita, ta ni gauza bat gara.

Orduan Judeguak arriak artu zituezan berari arrika egiteko.

Jesusek eranzun eutsen: Nire Aitaren gauza on asko erakutsi deustuedaz, euretarik ze obra gaiti arrika egiten deustazue?

Judeguak eranzun eben: Arrika egiten ezteutsugue egite ona gaiti, ezpada biraoa gaiti: ta zu gizona izanik, zeu Jangoiko egiten zarealako.

Jesusek eranzun eutsen: Zuen legean eskribidurik eztago: Nik esan neban, Jangoikoak zaree zuek?

Bada Jangoikoak deituten baditu aek, zeintzuei Jangoikoaren berba egin jaken, ta Eskritureak ezin uts egin lei:

Niri Aitak santutu, ta mundura biraldu ninduan oni, zuek diraustazue: Biraoa diñodala: esan dodalako, Jangoikoaren Semea nas?

Neure Aitaren obrak baldin egiten ezpadodaz, sinistu ez eidazue.

Baña egiten baditut, niri sinistu gura ezpadeustazue bere, obrari sinistu egiezue; ezagutu, ta sinistu daizuen, Aita nigan dagoala, ta ni Aitagan.

Eta eurak preso artu gura eben: baña euren esku artetik urten eban.



Eta joan zan osterabere Jordaneko beste aldera, ara bertara non Juan egoan lenengoan bateatuten: ta an gelditu zan.

Eta asko beragana etorri zirian ta ziñoen: Egjaz Juanek milagrorik egin ez eban.

Baña Juanek onegaiti esan zituan gauza guztiak dira egiazkoak. Ta askok beragan sinistu eban.

13. IRAKURTZA

**Fariseoak bildurtu gura eben Jesus, esanik,
Herodes bere billa ebillela. Jesusek despreziaten ditu;
ta negar egiten dau Jerusalemene ganean.**

San Lukasek cap. 13. v. 31-35.

Egun beronetan Fariseo batzuk beragandu zirian, ta esan eutsen: Emendik urten egizu, ta zoaz: bada Herodesek il gura zaitu.

Eta berak esan eutsen: Zoaze, ta azeari orri esan eiozue, nik deabruak botaten dodazala, ta osasunak emoten dodaz gaur, ta biar, ta irugarren egunean nas akabatua.

Baña ni ibilli bear nas gaur, ta biar, ta beste egunean: bada ezin dateke, Profeta bat Jerusalemendik kanpora iltea.

Jerusalen, Jerusalem, Profetak ilten dozuzana, ta arrika esetsiten deutezuea zugana biralduak dirianai, zeinbat bider batu gura izan nituan zure semeak, egaztiak bere abia egapean legez, ta gura etzendum?

Aror bada zuen etxea bakartua itxiko jatzue. Ta dirautsuet, ikusiko ez nozuela, eldu artean denporea, zeñetan esango dozuen: Bedeinkatua Jangoikoaren izenean datorrena.



14. IRAKURTZA

Jesusek jaiegunean osatuten dau hidropesia, edo urmiñez egoan bat. Adirazoten ditu konbiteko irudintza, ta beste gauza asko.

San Lukasek cap. 14. v. 1-35.

Eta jazo zan, Jesus jai baten sarturik Fariseoen Nagusi baten etxera ogia jaten, eurak zelataka egokazan.

Eta ara non bere aurrean egoan gizon urmiñez egoan bat.

Eta Jesusek bere berbea zuzendurik legeko Irakasleai, ta Fariseoai, esan eutsen: Ondo egiña da Jaiegunean osatutea?

Baña eurak ixilik egon zirian. Orduan berak artu eban, osatu eban, ta biraldu eban.

Eta eurai eranzun, ta esan eban: Nok zuetarik ikusirik puzuan sarturik bere astoa, edo bere idia, bertati aterako eztau jaiegunean?

Eta ezin onetara eranzun eutsen.

Eta ikusirik konbidatuak aututen zituezala maian lenengo jarlekuak, irudin bat erakutsi eutsen, ta esan eban:

Ezteguetara deituten deitsuenen, etzait jarri lenengo jarlekuan, jazo eztidin an egotea zu baño honraduago bat:

Eta eldurik zu ta bera konbidau zaituezana, zuri esan eztagizun: Lekua emon eiozu oni: ta orduan azkeneko lekua artu bear eztagizun lotsariaz.

Deitua zareanean bada, zoaz, ta azkeneko lekuan jarri zaitte, konbidadu zaituana datorrenean, esan daizun: Adiskidea, gorago igo egizu. Orduan zugaz maian dagozan guztien aurrean izango zara onratua.

Bada goratuten dan guztia, izango da humildua: ta humil-beratuten dana, izango da goratua.

Baitabere konbidau ebanari esan eutsan: Bazkari, edo afariren bat egiten dozunean, ez egiezu deiegin ez zure adiskidei, ez zure anajeai, ez zure aideai, ez zure auzoko aberatsai, jazo eztidin eurak bere zu konbide-tea, ta kitututea.

Baña konbite egiten dozunean, deitu egizuz pobreak, gaixotiak, errenak, ta itsuak:

Eta zorionekoa izango zara, eztaukelako zegaz zuri eranzun: baño justuen biztueran sarituko jatzu.

Maian jaten egoan batek au enzun ebanen, esan eutsan: Zorionekoa jango dabena ogia Jangoikoaren Erreinuan.

Eta berak esan eban: Gizon batek afari andi bat egin eban, ta askori deitu eutsan.

Ta afari-ordua eldu zanean, biraldu eban bere serbitzari bat konbidaduai esatera, etorri zitezela, zerren gauza guztiak prest egozan.

Eta guztiak batera asi zirian atxakiak emoten. Lenengoak esan eban: Etxaguntza bat erosi dot, ta bera ikustera joan bear nas: erregututen deutsut, itxi nagizula.

Eta beste batek esan eban: Bost pare idi erosi dodaz, ta noa eurok probetara: erregututen deutsut, atxakiatu nagizula.

Eta beste batek esan eban: Emaztea artu dot, ta beragaitik ezin joan neindeke ara.

Eta serbitzaria biurturik, guztiaren kontua bere Jaunari emon eutsan: Orduan gogaiturik etxeko nagusiak bere otseñari esan eutsan: Urten egizu laster Erriko plaza, ta kaleetara: ta ekarri egidazuz ona arkituten dozuzan pobreak, ta gaixotiak, ta itsuak, ta errenak.

Ta otseñak esan eban: Jauna, egin da agindu dozun legez, ta oraindaño bago lekua.

Eta Jaunak otseñari esan eutsan: Urten egizu bideetara, ta esietara; ta beartu egizuz guztiak sartutera, nire etxea bete dedin.

Dirautesuet, deituak izan dirian gizonetarik inokbere nire afaria probauko eztabela.

Eta jente asko joiazan beragaz, ta eurakgana biurturik, esan eutsen eurai:

Baldin nigana inor badator, ta gorrotauten ezpaditu bere aita, ta ama, ta emaztea, ta semeak, ta anajeak, ta arrebak, bai ta bere bizitzea, ezin izan leiteke nire dizipulua.

Eta bere krutzea eztaoana, ta nire jarraian eztaoarena, ezin izan liteke nire dizipulua.

Bada nok zuetarik torre bat egin gura izanik, eztitu lenago jarririk kontuak ataraten, zeinbat bearko dan, ta ete daukan zegaz akabatu?

Jazo eztidin, zimenduak ifinirik, ta akabau ezinik, dakusen guztiak bere burlazar asi ezтитеzen,

Diñoela: Gizon au obrea egiten asi zan, ta ezin azkendu izan dau?



Edo ze Erregek beste Errege baten kontra urten gura dabenak, lenago epetasunaz gogoratuten eztau, amar milla gizonaz urten algo ete daben arpegja emoten ogei milla gizonaz bere kontra datorkanari?

Bestela bestea urrin dagoanean, mandataria biraldurik, bake eske jagoko.

Alan bada edozein zuetarik, dabena largauten eztabena, ezin izan diteke nire ikaslea.

Gatza ona da. Baña gatzak, bere gazitasuna galduten badau, zegaz gazituko da?

Ezta gauza, ez lurrerako, ez sats-tegirako: baña kanpora botako dabe: Enzuteko belarriak dituanak, bentzu.

15. IRAKURTZA

Eskriba ta Fariseoak deungero diño,
Jesusek artuten ditualako bekatariak.
Ta berak adirazoten ditu onetarako iru irudin:
1: Ardi galdu billatua. 2: Perla preziatua:
3: Seme galtzalle, gastalari, ondatzallea.

San Lukasek cap. 15. v. 1-32.

Eta Lukurariak, ta pekatariak elduten zirian, berari enzutera.

Eta Fariseoak, ta Eskribak deungero ziñoen, esanik: Onek bekatariak artuten ditu, ta eurakaz jaten dau.

Eta adirantza au ifini eutsen eurai:

Nor zuetarik da gizona, eun ardi eukirik, ta baldin bat galduten badau, itxiko eztituana larogeta emeretziak ermuan, ta joango eztaua galdu zanaren billa, arkitu arteraño.

Eta idoroten dabenean, pozik bere lepoan ifinten dau:

Eta etxera etorririk, deituten deutse bere adiskide, ta auzokoai, esaten deutsela: Indazue zoriona, idoro dodalako, galdu zan ardia.

Dirautsuet onelan pozkaria geiago izango da Zeruan penitentzia egiten daben bekatari baten ganean, ezen ez larogeta emeretzi justu penitentzia bearrik eztabenen ganean.

Edo ze andrak amar erlegin dituana, baldin errealegin bat galduten badau, argia erexegiten eztau, iñarraz etxea garbituten eztau, ta arduraz bere billa eztabil, topau arteraño?

Ta gero barriz arkitu ezker, deituten deutse bere adiskide, ta auzoai, ta diño: Indazue zoriona, idoro dodalako galdu neban erlegiña.

Alan dirautsuet, Jangoikoaren Angeruen aurrean izango dala pozgozoa, penitentzia egiten daben bekatari bategaiti.

Bai ta esan eban: Gizon batek seme bi zituan:

Eta euretarik gazteenak bere aitari esan eutsan: Aita, indazu dagotan senipartea. Eta berak zatitu eutsen ondasuna.

Andik egun gitxi barru, berea zan guztia seme gaztenak baturik, bere erritik urrin joan zan, ta an bere ondasun guztia ondatu eban, dongero bizirik.



Eta dana ondatu ebanean, erri atara gose andi bat eldu zan, ta bera asi zan premiñaz beartutera.

Eta joan zan, ta batu zan alde atako auzo bategana, zeñek biraldu eban bere kortara txarriak zaindutera.

Eta bere sabela bete gura eban lauñoekoak jaten zituezan ezkurraz: ta iñok emoten ez eutsazan.

Baña beragandurik, esan eban: Zeinbat alogerakok daben ogia franco nire aitaren etxean, ta ni goseak illik nago emen!

Jagiko nas, ta nire aitagana joango nas, ta esango deusatz: Aita, bekatu egin dot Zeruaren kontra, ta zure aurrean: Ez nas duin zure seme deitua izateko: Egin nagizu zure alogerako bat legez.

Eta jagirik, joan zan bere Aitagana. Ta oraindo urrin egoala, bere aitak ikusi eban, ta errukiz bigundurik, ta beragana arin joanik, besarkatu, ta laztandu eban.

Eta semeak esan eutsan: Aita, bekatu egin dot Zeruaren kontra, ta zure aurrean; merezi eztoz zure seme deitutea.

Aitak, barriz bere otseñai esan eutsen: Ekartzue agudo ona soñekorik preziatuena, ta janzi egiozue, ta ifini eiozue eleztuna bere eskuan, ta oñekoak bere oñeetan:

Ta ekartzue txalik gizenena, ta il egizue, ta jan daigun, ta jataldi bat egin daigun:

Bada nire seme au il zan, ta biztu da; galdu zan, ta arkitu da. Ta asi zirian konbitea zelebretan.

Eta bere anaje nagusia soloan egoan, ta etorri zanean, ta etxera urreratu zanean, enzun eban kanta-soñua, ta korua: Eta etxeko otsein bati deiturik, itandu eutsan, zer zan a.

Eta onek esan eutsan: Zure anajea etorri zan, ta zure aitak il-eragin dau txalik lodiena, barriro bizirik ikusi dabelako.

Bera orduan aserratu zan, ta sartu gura ez eban: baño urtenik aita asi jakon erreguka.

Eta berak aitari eranzun, ta esan eutsan: Aror non urte askotan serbidu zaitudan, ta iñosbere zure agindua ausi eztoz, ta neure adiskideakaz jateko iños aume bat emon ezteustazu:

Baña etorri danean, andra galduakaz bere ondasuna ondatu daben zure seme au, il erazo dozu txal gizendua.

Orduan aitak esan eutsan: Semea, zu beti zagoz nigaz, ta nire ondasun guztiak zureak dira:

Baña jataldi au egin, ta gozo-poztu bear giñean, zerren zure anaje au il zan, ta biztu zan; galdu zan ta arkitu zan.

16. IRAKURTZA

Jesusek adirazoten dau Maiordomo lapurraren irudintza. Limosna egitea. Ez itxitea emaztea. Aberats zekena, ta Lazaro eskekoa.

San Lukasek cap. 16. v. 1-31.

Baitabere zirautsen bere dizipuluai: Oi zan gizon aberats bat, bere Ordekoa eukan bat; ta bere aurrean au salatu eben, bere ondasunak galduten zituala.

Deitu, ta esan eutsan: Zer da zu gaiti dantzudan au? zeure kontura dagoanaren errazoia emon egizu: zerren ezin izango zara Ordekoa.

Orduan Jabe-Ordekoak bere artean esan eban: Zer egingo dot, neure Jaunak ordekotasuna kenduten badeust? Atxurto ezin dot: eskean ibilteko lotsa nas.

Bakit zer egin, ordekotasuna kenduten deustenean, bere etxeetan artu nagien.

Bere Jaunari zor eutsen bakotxari deitu eutsan, ta lenengoari esan eutsan: Nire Jaunari zeinbat zor deusazu?

Ta onek eranzun eutsan: Eun orio-ontzi. Ta esan eutsan: artu egizu zeure eskriturau, ta jarri zaite bereala, ta eskribidu egizu berrogeta amar.

Gero beste bati esan eutsan: Eta zuk zeinbat zor dozu? ta eranzun eban: eun anega gari. Ta berak esan eban: Artuizu zeure papera, ta eskribidu egizu larogei.

Eta Nagusiak alabau eban Maiordomo gaistoa, zurtasunaz egin ebalako: zerren mundu onetako semeak, argiaren semeak baño zurragoak dira eurai dagokien gauzeetan.

Eta nik dirautsuet: Adiskideak egizue zure ondasun uts-guzurrezkoakaz, izatea galduten dozunean artu zagiezan beti-betiko bizilekuetan.

Gauza txikian mena dana, andian bere izango da: ta bidebagea dana gitxian, bidebagea izango da askoan bere.

Bada ondasun bidebagetan menak izan ezpazaree: nok fiatuko deusue egiazkoa dana?

Eta iñorenean ezpazaree izan fielak; zeuroena dana nok emongo deusue?



Otseñik iñopere Ugazaba bi ezin serbidu leiz: edo bada bata gorroto izango dau, ta bestea maitetuko dau: edo batagana batuko da, ta bestea despreziatuko dau: Jangoikoa, ta ondasunak ezin serbitu ziñeikez.

Baña Fariseoak zeken-kutiziosuak izanik, gauza guztiok enzuezan, ta burla egiten eutsen.

Eta berak esan eutsen: Zuek zaree gizonen aurrean justutzat erakusten zareanak: baño Jangoikoak bazauz zuen biotzak; bada gizonentzat goratua dana, gorrotogarria da Jangoikoaren aurrean.

Legea, ta Profetak Juan giño: ordureanik da erakusia Jangoikoaren Erreinua, ta guztiak indar egiten dabe beragan.

Eta errazago da Zerua, ta lurra igarotea, eze ez legeko tilde bat bakarra.

Edozein bere emazte itxi, ta beste bat artuten dabenak, adulterioa egiten dau: bai ta bere senarrak larga dabenaz ezkontuten danak, adulterioa egiten dau.

Zan gizon aberats bat, soñeko preziatuaz, ta eun guztiz finaz janzi ten zana; ta egunoro galanto jaten ebana.

Eta an zan eskeko bat Lazaro eritxona, aberatsaren ateetan etzaten zana, llagaz beterik,

Aberatsaren maitik jausten zirian apurrak jan gura zituan, ta iñok emoten ez eutsazan: txakurrak barriz etorri, ta zaoriak txupetan eutsezan.

Pobre au il zanean, Angeruak eroan eben Abranen tokira: ta aberatsa bere il zan, ta Infernura bota zan.

Eta neke-peneetan egoala, jasorik begiak, ikusi eban urrinetik Abran, ta Lazaro bere lekuan egoala.

Eta berak dedarrez esan eban: Aita Abran arren errukitu zaite nizaz, ta biraldu eidazu Lazaro, onek bere esku-atz puntea uretan sartu, ta busti dagidan nire ao-miña, zerren neke latzetan nago sugar onetan.

Eta Abranek esan eutsan: Semea, gomute zaite ondasunak artu zenduzala zeure bizitzan, ta, Lazarok ez eukazala ezpada gatxak: bada orain bera da emen gozoratua, zu barriz neke-penatua.

Orrez geiago utsune urrin andi bat dago zuen, ta gure bitartean: alangoz eze emendik zuetara igaro gura dabenak, ezin igaro ditekez, ez eta ortik ona bere.

Eta esan eban: Bada erregututen deusut, biraldu daizun nire Aitareren etxera:

Bada bost anaje ditut, eurentzat testimonioa izan dedin, jazo eztidin eurak bere etortea nekezko leku onetara.

Eta Abranek esan eutsan: Dituez Moises, ta Profetak: bentzuez.

Baña berak esan eban: Ez arren orrela, aita Abran; bada baldin illerarik bat bajoake eurai, penitentzia egingo dabe.

Ta Abranek esan eutsan: Ezpadanzue Moises ta Profetak biztuko baliz il bat bere, sinistuko eztabe.



17. IRAKURTZA

**Dator Jesus Filipino Zesareako errira.
Emoten deutso San Pedrori lentasuna,
ta onek dazau Jangoikoaren semetzat.**

BATERA San Mateok cap. 16. v. 13-20.

San Markosek cap. 8. v. 27-30.

San Lukasek cap. 9. v. 18-21.

Eta etorri zan Jesus Filipoko Zesareara.

Eta jazo zan, bera bakarrik oraziñoan egoala, beragaz egozan bere dizipuluak.

Eta joan zan Jesus bere dizipuluakaz Zesarea Filipoko erri aldetara.

Ta bidean itanduten eutsen bere dizipuluai, zirautsela: Nor dala diñoie gizonak gizonaren semea?

Eta eurak eranzun eutsen: Batzuk, Juan Batista dala, bestebatzuk, Elias, ta besteak Jeremias; ta bestebatzuk lenagoko Profetetarik bat biztu dala.

Orduan esan eutsen: ta zuek nor nasala diñozue?

Simon Pedrok eranzun eban, esanik: Zu zara Kristo, Jangoiko biziaren Semea.

Ta Jesusek eranzunik, esan eutsan: Zorionekoa zara Simon, Juanen semea, zerren ez aragiak, ez odolak ezteutsu agertu, ezpada nire Aita Zeruetan dagoanak:

Ta nik dirautsut zuri, zu zareala Pedro, ta arri onen ganean eregiko dot neure Elexea, ta Infernuko ateak ezingo dabe bere kontra.

Ta zuri emongo deutsudaz Zeruetako Erreinuko giltzak. Ta lurrean estuten dozuna, estuko da Zeruetan: ta lur ganean askatuten dozuna, askatua izango da Zeruetan bere.

Orduan agindu eutsen bere dizipuluai, ta zemaituaz eragotzi eutsen, iñori esatea au, bera zala Jesus Kristoa.

18. IRAKURTZA

**Jesusek erakusten deutse bere dizipuluai,
ur egoala bere Pasiñoa, ta eriotza.
Aserratuten da San Pedroren kontra;
ta irakasten dau, baktzak bere krutzea eroaten.**

BATERA San Mateok cap. 16. v. 21-28.

San Markosek cap. 8. v. 31-39.

San Lukasek cap. 9. v. 22-27.

Ordutik asi zan Jesus adietan emoten bere dizipuluai, konbeni zala gizonaren semea joatea Jerusalenera:

Eta gauza asko padezietea, ta despreziatua izatea Zarreetatik, ta Sazerdoteen Nagusiakganik, ta Eskribatarik, ta izatea eriotzara kondentua; ta biztutea irugarren egunean.

Eta argiro au berbatuten eban. Ta Pedrok aparte arturik, beragaz aserratuten asi zan esaten eutsala: Jauna, zukanik urrin bijoa ori, ez zugaz orrelakorik.

Baña bera biurturik, ta begiraturik bere dizipuluai zernaitu eban Pedro, zirautsala: Zoaz niganik, Satanas: eragozgarria egiten zatxataz, zerren eztakizuzan Jangoikoaren gauzak dirianak, ezpada gizoneenak.

Eta deiturik jenteari bere dizipuluakaz, orduan Jesusek esan eban: Nire atzean, ta jarraian etorri gura dabenak, ukatu begi bere burua, ta egunoro artu begi bere krutzea, ta jarraitu begit.

Bada bere arimea salbau gura dabenak, galduko dau a.

Baña bere arimea galduten dabenak nigaiti, ta Ebanjelioa gaiti, salbauko dau a.

Ba zer balioko deutso gizonari mundu guztia irabaztea baldin bera, ta bere arimea galduten badau?

Edo zer emongo dau ordeaz gizonak bere arimea gaiti?

Bada nirez, ta nire berbaz lotsatuten dana jente adultera, ta bekatari onen erdian, gizonaren semea bere azaz lotsatuko da, datorrenean bere Anditasunean, ta Aitaren, ta Angeruenean.

Zerren gizonaren semea etorriko da bere Aitaren glorian bere Angeruakaz: ta orduan baktxari emongo deutsu bere egiteen erara.



Eta esaten eutsen: egiaz dirautsuet, emen dagozanetarik batzuk ezta-be igaroko eriotzea, Jangoikoaren Erreinua ikusi baño lenago datorrela poderioaz; gizonaren semea datorrela bere Erreinuan.

19. IRAKURTZA

Gloriaz beterik agertuten da Jesus Taboreko mendian.

BATERA San Mateok cap. 17. v. 1-13.

San Markosek cap. 9. v. 1-12.

San Lukasek cap. 9. v. 28-36.

Eta berba oneek esan ezkerro, jazo zan arik zortzi egun legez, artutea Jesusek beragaz Pedro, ta Santiago, ta Juan beronen anajea.

Eta eroan zituan bakarrik mendi altu alderatu batera, ta igon eban mendira oraziño egitera.

Eta oraziñoa egiten eban bitartean, bestetu jakan arpegia:

Eta euren aurrean beste-iruditu zan. Ta argitu zan bere arpegia eguzkia legez:

Ta bere soñekoak argitu, ta zuritu zirian edurra legez orrenbeste ze, munduan dan garbitzallerik ezin zuriago ifini eukezan.

Eta aror non beragaz berba egiten eben gizon bik. Ta oneek zirian Moises, ta Elias,

Zeintzuk agertu zirian anditasunean, ta berbaz egozan Jesus gaz: ta berba egiten eben Jerusalemen kunpliduko eban bere urterearen ganean.

Baña Pedro, ta beragaz egozanak loz astundurik egozan: ta irazarri ziriane an ikusi eben Jesusen gloria, ta beragaz egozan beste gizon biak.

Eta beraganik alde egin ziriane an, Pedrok Jesusi esan eutsan: Maixua, Jauna, ondo da gu emen egotea.

Gura badozu, daiguzan emen iru bizi-leku, bata zuretzat, bestebat Moisesentzat, ta bestea Eliasentzat.

Bada ez ekian zer ziñoan: zerren izu-bildurturik egozan.

Oraindiño bera berbaz egoala, etorri zan odoi argitsu bat, zeñek bere gerizeaz estaldu zituan: ta bildurtu zirian sarturik eurak odoian.

Eta odoitik etorri zan boz bat, ziñoala: Au da nire Seme maitea, zeñegan atsegin andia artu dodan: berari enzun egiozue.

Eta boz au urtenik, idoro eben Jesus bakarrik.

Enzun ebenean dizipuluak jausi zirian auspaz, ta ikara andia artu eben.

Baña Jesus eurak-ganatu zan, ukutu zituan, ta esan eutsen: jagi zaitzeze, ta ez bildurrik euki.



Eta begiak jasorik, ta ingurura begiraturik, beste inõrbere ez eben beragaz ikusi, ezpada Jesus bakarrik.

Eta menditik jatsi zirianeane, Jesusek agindu eutsen, ikusi ebena inõri esan ez egioela, gizonaren semea illeen artetik biztu artean;

Eta eurak ixillik euki eben, ta egun aetan inõri esan ez eutsen ikusi eben gauzarik.

Eta gertaldi au gorderik euki eben: bakarrik euren artean itanduten eben; zer esan gurako dau arako: Illeen arterik biztu artean?

Eta itandu eutsen bere dizipuluak, zirautsela: Bada zelan diñoie Fari-seoak, ta Eskribak, Elias lenago etorriko dala?

Ta berak eranzun eutsen, esanik: Elias egiaz etorriko da, ta datorre-nean, gauza guztiak bere egotaldira biurtuko ditu; ta izango da, eskribitu-rik dagoan legez, gizonaren semearen ganean, zeñek asko igaroko dau, ta despreziatua izango da.

Baña dirautsuet, Elias etorri zala, ta ezagutu ez eben, ta gura eben guztia beragaz egin eben, bera gaiti eskribidurik dagoan legez.

Onela padezidu eragingo deutse gizonaren semeari bere.

Orduan dizipuluak ezagutu eben, Juan Bautista gaiti berba egiten eutsela eurai.

20. IRAKURTZA

**Jatsirik Jesus Taboreko menditik,
osatuten dau alditsu bat; ta irakasten dau,
zeinbat al daben fede bizi batek.**

BATERA San Mateok cap. 18. v. 14-20.

San Markosek cap. 9. v. 13-28.

San Lukasek cap. 9. v. 37-44.

Eta biaramonean jatsiten ziriala eurak menditik, urten eutsen bidera jente pilo andi batek.

Eta bere dizipuluetara eldu zanean, ikusi zituan euren ondoan maki-na bat jente, ta Eskribak disputan egozala eurakaz.

Eta jente guztia Jesus ikusirik bildurtu zan, ta ikaraz beterik arin berari agur egitera joan zan.

Eta itandu eutsen eurai: ze disputa da zuena?

Eta aror non jenteen arteko gizon bat beragana etorri zan, ta belau-niko ifinirik bere aurrean esan eban: Arren begiratu eiozu nire semeari, bada besterik ez dot.

Jauna, errukitu zaitte nire semeaz, bada alditsua da, ta asko igaroten dau: ta sarritan surtara jausten da, ta askotan uretara.

Eta aramen non espiritu batek artuten daben.

Eta artzen daben lekuan, lurraren kontra joten dau, ta bertati asten da dedarrez, ta bitza botarazo, ta agin-otsak eragiten deutzaz, ta igartuaz doa, ta ozta beraganik aldegiten da, zatituten dabela:

Eta zure dizipuluai eroan deutset;

Eta erregutu neutsen atera egioela, ta ezin osatu izan dabe.

Eta Jesusek eranzun eban, esanik: O jente-kasta fede ta sinismen bagea, ta gaisto! nos artean zuekaz egongo nas?

Nos giño sufriduko zaituedaz? ekardazu ona zure semea.

Ta ekarri eben.

Ta urreratu zanean, ta ikusi ebanean, asi zan espiritua nekalduten bera: lurrera bota, ta goiberatu eban.

Eta beragaz lurrean emonik, irultzen zan bitza zeriola.

Eta bere aitari itandu eutsan: Zeinbat denpora da au jazoten jakola? Ume txikia zanik, esan eban aitak:



Eta askotan bota dau surtara, ta ureetara, beragaz akabetako. Baña baldin zerbait al badagizu, euki egizu gure errukia, ta lagundu eiguzu.

Eta Jesusek esan eutsan: Sinistu al badaizu, izan-alak dira gauza guztiak sinisten dabeneztat.

Eta orduan mutilaren aitak dedarrez, ta negarrez esan eban: Jauna, sinisten dot; lagun zakioz nire fede gitxiari.

Eta Jesusek ikusi ebanean jente piloa etorrela, zemaitu eutsan espiritu loi-zikiñari, zirautsala: Espiritu gorra, ta mutua, nik aginduten deutsut, urten daizula beroneganik; ta geiago sartu etzaitzala onegan.

Orduan txilio andiak emoten zituala, ta gatx asko egiten eutsala urten eban beraganik, ta gelditu zan illik legez: adiñabestez, ze, askok ziñoen: Illik dago.

Baña Jesusek eskutik oraturik, lagundu eutsan jagiten, ta jagi zan; ta ordutik osatu zan mutilla, ta biurtu eutsan bere aitari.

Eta zirianak miraritu zirian Jangoikoaren alaz.

Eta etxean sartu ezkerro, orduan dizipuluak eldu zirian aparte Jesus-gana, ta itandu eutsen: Zergaitik guk ezin atera genduan a?

Jesusek esan eutsen: Zeuroen fede gitxia gaiti. Bada egiaz dirautsuet ziapea garau bat dun beste fede baldin bazeunke, esango deutzazue mendi oni: Aldatu zaitte emendik ara, ta aldatuko da; ta eztago zuek ezin ziñeiken gauzarik.

Baña onelako deabruak eztira botaten, ezpada oraziñoaz ta barauaz.

21. IRAKURTZA

**Galilea, ta Kafarnaunera Jesus biurturik,
adirazo eutsen bere dizipuluai
bere eriotza gogorra, bere biztuerea;
ta aginduten dau pagetea Erregeari bere egokia.**

BATERA San Mateok cap. 17. v. 21-26.

San Markosek cap. 9. v. 29-31.

San Lukasek cap. 9. v. 44-45.

Eta urtenik erri atarik, igaro zirian Galileatik, ta gura ez eban iñok jakin egien.

Eta eurak berba egirik Galilean, ta guztiak mirariturik egiten zituan gauzakaz, bere dizipuluai esan eutsen: Zeuroen biotzetan gauzok ifini egizuez.

Ta irakasten eutsen bere ikasleai, ta zirautsen: gizonaren semea izan-go da entregatua gizonen eskuetara.

Ta il erazoko dabe, ta il ezkerro biztuko da irugarren egunean.

Baña eurak berba au aditu ez eben, ta ain iluna egiten jaken, ze, ezin oartu eben, ta bildur zirian itanduten orren ganean, ta entero asko triste-tu zirian.

Eta eldu ezkerro Kafarnaunera, etorri zirian Pedrogana Errege-diruaren kobratzalleak, ta esan eutsen: Zuen Maixuak errege-dirua pagetan eztau.

Esan eban: Bai. Eta etxean sarturik, Jesusek aurreraturik esan eutsan: Zer deritxazu Pedro? Lurreko Erregeak nortzuetarik artuten dabe tributu, edo zensoa? Euren semeetarik, ala kanpokoetarik?

Kanpokoetarik, eranzun eban Pedrok. Jesusek esan eutsan: beraz semeak libre dagoz.

Baña gatx-bidea eurai emon eztaioguen, zoaz itxasora, ta ezarri egizu amua, ta artu egizu lenengo datorren arraiña; ta aoa idigi eiozu, ta idoroko dozu amabi erreal balio dituan diru bat: artu ta emon egizu ni gaiti, ta zu gaiti.



22. IRAKURTZA

**Apostoluak euren artean diardue,
zein andiago izango dan: Jesusek dirautse:
egin daitezela an egoan sein baten antzekoak.
Berba egiten dau gatx-bide, edo eskandaloaren ganean.**

BATERA San Mateok cap. 18. v. 1-9.

San Markosek cap. 9. v. 32-49.

San Lukasek cap. 9. v. 46-50.

Baita bere etorri jaken gogora, nor euretarik izango zan andiena.
Baña Jesusek ikusirik euren biotzeko asmoak,
Eta etxean egozala, itandu eutsen: Zer esaten ziñoezan bidean?
Baña eurak ixilik egozan, zerren diardu eben bidean euren artean,
nor izango zan euretarik andiena.
Eta jarririk deitu eutsen amabai:
Ordu atan dizipuluak eldu zirian Jesusgana, ta esan eben: Nor uste dozu dala andiena Zeruetako Erreinuan?
Eta berak esan eutsen: Baldin iñok lenengoa izan gura badau, izango da guztien azkerengoa, ta guztien serbitzaria.
Eta Jesusek sein bati deiturik, ta arturik ifini eban bere ondoan euren erdian.
Eta laztandu ezkeron esan eutsen eurai:
Egiaz dirautsuet, biurtu, ta egiten ezpazare seintxo txikiak legez, etzaree sartuko Zeruetako Erreinuan.
Seiñau legez bada humilduten dana, au da andiena Zeruetako Erreinuan.
Eta nire izenean onelako sein bat errezibietan dabenak neu artuten nau.
Eta artuten nabenak, ez nau ni artuten, ezpada artuten dau ni biraldu ninduana.
Bada zuen guztien artean txikerragoa dana, auxe da andiena.
Eta Juanek eranzun eutsan, zirautsala: Maixua, ikusi doguz zure izenean deabruak botaten zituen batzuk, guri jarraituten ezteuskuenak, ta eragotzi deutsegue, gugaz ezarraizuelako.
Eta Jesusek esan eutsan: Ez eiozue eragotzi: bada ezta nire izenean miraria egiten dabenik, ta laster nigaiti deungero esan leienik.

Bada zuen kontra eztagoana, zuen alde da.

Eta basu bete ur edateko emoten deutsuenak nire izenean Kristorenak zareelako: egiaz dirautsuet, bere saria galduko eztabela.

Eta nigan sinisten daben txikitxoai bekatu-bidea emoten deutsanari; obe leuke,

Errota-arri bat bere idunera estu, ta itxas-ondarrera botatea.

Ai munduaz bere eskandaloak gaiti! Bearra da gatx-bideak etortea: baña ai gizonaz zeñegaiti bekatu-bidea datorren!

Eta zeure eskuak bekatu-bidea emoten badeutsu; ebagi egizu: esku-bakotxaz bizitzara sartzea obe dozu, esku biakaz sekula amatauko eztan infernuko sutekira joatea baño:

Non aen arra iños ilten eztan, ta sua beinbere amatatuko eztan.

Eta zeure oñak bekaturako bidea baldin emoten badeutsu, ebagi egizu: bada obe da erren bizitzan sartutea, oin bi euki, ta iñosbere amatauko eztan infernuko sutekira ondatutea baño.

Eta zure begiak gatx-bidea emoten badeutsu, atera, ta bota egizu zeuganik; bada, obeago dozu begibakotxa bizitzan sartutea, begi bi eukirik, infernuko su ta garrera bota zagiezan baño:

Non aen arra ilten eztan, ta sua amatauko eztan iñosko alditan.

Bada dirianak gatzituko dira suaz, ta sakrifizio-gei guztia gatzaz gatzituko da.

Gatza ona da: baña gatza gatzbagetuten bada, zegaz gatzituko da? Euki egizue gatza zeuroetan, ta euki egizue bakea zeuroen artean.



23. IRAKURTZA

**Jesusek erakusten dau daukan ardurea txikiakaz:
lagun urkoaz euki bear dan karidadea:
ta amar-milla diruen irudintza.**

San Mateok cap. 18. v. 10-35.

Begira ez despreziatuaz txikitxo oneetarik bat: bada dirautsuet, euren Angeruak beti dakusela Zeruetan neure Aita Zeruetan dagoanaren arpegia.

Bada galdu zana salbetara etorri zan gizonaren Semea.

Zer deritzazue? Baldin batek eun ardi balitu, ta euretarik bat galdu ten bada; menturaz larogeta emeretziaik larga mendietan, ta eztoa galdu zanaren billa?

Eta jazoten bada arkitutea: dirautsuet, beragaz geiago poztuten dala, beste larogeta emeretzi galdu etzirianakaz baxen.

Alan ezta borondatea Zeruetan dagoan zuen Aitaren aurrean, galdu dedin onetariko txikertxo bat.

Eta zure anajeak zure kontra bekatu egiten badau, arteztu egizu zeure, ta aren artean bakarrik: Enzuten badeutsu, irabazi dozu zeure anajea.

Ta enzuten ezpadeutsu, testigu bat, edo bi zeugaz artu egizuz, testigu bi, edo iruen aoan baieztu dedin berba guztia.

Ta ezpadanzuz, esan eiozu Elexeari: ta baldin ezpadanzuio Elexeari, euki egizu Jentil fedebage, ta Bekatari agiritzat.

Egiaz dirautsuet, lurraren ganean estuten dozen guztia, Zeruan bere lotua izango dala: ta lurraren ganean askatuten dozen guztia, askatua izango dala Zeruan bere.

Baitabere dirautsuet, baldin zuetarik bik gogoz artuko balebe lurraren ganean, eskatuten daben edozein gauza emongo deutse nire Aita Zeruetan dagoanak.

Bada non nai bi, edo iru nire izenean batuten dirianean, an euren erdian nago ni.

Orduan Pedrok beragana eldurik, esan eban: Jauna, parkatuko deutsat nire anajeari nire kontra bekatu egiten daben guztietan, zazpi bider giño?

Jesusek dirautso: Ez dirautsut zazpi bider giño, ezpada irurogeta amar zazpi biderko giño.

Orregaiti Zeruetako Erreinuak dirudi gizon Errege bere otseñai kontuak artu gura eutseezan bati.

Eta kontuak artuten asi ezkerro, etorri zan beragana amar milla diru zor eutsazan bat.

Eta ez eukirik nondik kitutu, agindu eban bere Nagusiak saldu egiezala bera, ta bere emazte, ta bere semeak, ta eukan guztia, ta pagau ekio-la zorra.

Orduan serbitzariak auspaz etxunik bere oñetara, erregututen eutsan, zirautsala: Jauna, itxadon eidazu arren, ta guztia kitutuko deutsut.

Nagusiak serbitzari aren errukia artu eban, larga eban libre, ta zorra parkatu eutsan.

Urten eban serbitzari onek, ta idoro eban berari eun diru zor eutsazan beste serbitzari bere lagun bat: ta esetsirik ito gura eban zirautsala: Pagau egidazu zor deustazuna.

Eta etxunik bere lagunaren oñetara erregututen eutsan zirautsala: Paziencia piska bat euki egizu, ta dana pagauko deutsut.

Eta ak gura ez eban: ta joan zan, ta presondegian sartueragin eban, zor eban guztia kitutu artean.

Bere lagun serbitzariak ikusirik jazoten zana, sumindu zirian asko: ta joan zirian Nagusiari esatera gerta zan guztia.

Orduan bere Nagusiak deitu, ta esan eutsan: Serbitzari gaistoa, zor guztia nik parkatu neutsun, zerren erregutu zeustan:

Etzenduan bada zeure lagunaz euki bear errukia, nik zugaz euki neban legez?

Eta aserraturik Nagusia emon eban borreroen eskuetara, arik eta zor guztia kitutu arteraño.

Auxe berberau egingo dau zuekaz nire Aita zerukoak, biotz-biotzetik bakotxak bere anajeari parketan ezpadeutso.



24. IRAKURTZA

**Samaritarrak eragozten deutse Jesusi
euren erritik Jerusalemenera igarotea.**

San Lukasek cap. 9. v. 51-56.

Eta bere Asunziñoko denporea etorren legez, adirazo eban Jerusalemenera balilloa legez.

Eta mandariak bere aurrean biraldu zituan: eurok joan, ta sartu zirian Samaritanoen Erri baten, ostatua prestautera.

Eta artu ez eben, adietan emoten ebalako, Jerusalemenera joiala.

Eta au ikusirik Santiago, ta Juan bere dizipuluak, esan eben: Jauna, gurozu esan daigun, Zerutik sua jatsi, ta erre daizela?

Baña bera eurakgana bihurturik, aserratu jaken, esanik: Eztakizue ze espiritukoak zareen.

Gizonaren semea etorri etzan arimak galdutera, ezpada salbetara. Eta joan zirian beste errialde batera.

25. IRAKURTZA

**Jesusek berba egiten dau eskandalo, injuria,
ta fedearen ganean. Amar lepradun osatuten ditu.
Iñok eztaki nos etorriko dan kontuak artutera.**

San Lukasek cap. v. 1-37.

Eta bere dizipuluak esan eutsen: Ezin liteke eskandalo edo gatx-bideak ez etortea: Baña ai a zeñegaiti datozen!

Obe leuke, errota-arri bat bere idunean ifini, ta botako balebe itxasora, txikitxo oneetarik batxori bekatu-bidea emotea baxen.

Begira zeurok gaiti: Zure anajeak zure kontra bekatu egiten badau, arteztu egizu; ta damututen bajako, parkatu eiozu.

Eta zazpi bider egunean zure kontra bekatu egiten badau, zazpi aldiz egunean zugana bihurtuten bada, diñoala: Damu dot; parkatu egiozu.

Eta Apostoluak Jaunari esan eutsen: Geiagotu eiguzu fedea.

Eta Jaunak esan eban: ziape garau bat beste fede bazeunke, esango deutzazue masusta-arbola oni: Atera zaitte sustraitik, ta aldatu zaitte itxasora: ta obedituko deutzue.

Eta nok zuetarik eukirik otseñ bat lurra landu, edo taldea gordeten daben bat, kanpotik datorrenean, dirautso: bertati igaro, ta maian jarri zaitte:

Eta lenago ez tirautso: Prestatu egizu afaria, ta serbidu nagizu jan, ta edaten dodan bitartean, ta gero zuk jan-edango dozu?

Menturaz zor deutso eskerrik otseñ ari, onek egin ebalako agindu jakona?

Uste dot ezetz. Alan zuek bere egiten dozuezanean aginduten jatzuezan gauza guztiak, esazue: Serbitzari gauzezak gara: egin bear gendua, egin dogu.

Eta gerta zan bera joiala Jerusalemenera, igarotea Samaria, ta Galilearen erditik.

Eta alde-erri baten sarturik, amar gizon lepradunak urten eutsen, urrinetik egozala.

Eta dedarka esan eben: Jesus Maixua, euki egizu gure errukia.

Berak ikusi zituanean, esan eban: Zoaze, erakusi zaitzeze Sazerdoteai. Eta jazo zan, joiazala, garbiturik gelditutea.



Eta euretarik batek ikusirik garbitu zala, biurtu zan esker onak dedarka Jangoikoari emoten.

Eta auspaz lurrean Jesusen oñetara etxun zan, esker onak emoten eutsazala: ta au Samaritanoa zan.

Eta Jesusek eranzun eban, esanik: Menturaz amar eztira garbitu dirianak? ta bederatziak non dira?

Etzan besterik biurtu, ta Jangoikoari gloria emon egionik ezpada kanpotar au.

Eta esan eutsan: zoaz, bada zeure fedeak osatu zaitu.

Ta Fariseoak itandu eutsen: Nos etorriko da Jangoikoaren Erreinua? eranzun eutsen, esanik: Jangoikoaren Erreinua etorriko ezta oartu al litekean eraz.

Eta esango eztabe, ara an, ara emen: bada Jangoikoaren Erreinua zeuroen barruan dago.

Ta bere dizipuluai esan eutsen: Egunak etorriko dira zeñetan ikusi gurako dozuen gizonaren Semearen egun bat, ta ikusiko eztozue.

Ta esango deutsue: ara emen, ara an non dagoan. Joan etzaitze, jarraitu ez eiozue.

Bada oñeztu-argiak zerupean argia emonik, batetik bestera argituten daben legez; onela izango da gizonaren Semea bere bere egunean.

Baña bear da lenago, berak asko igarotea, ta deungetzat jente-kasta onek bera emotea.

Eta Noe-ren egunetan jazo zan legez, alantxe izango da gizonaren Semearen egunetan bere.

Jaten eben, edaten eben: gizonak artuten zituezan emazteak, ta andrak senarrak Noe Utxa-ontzian sartu arteraño: ta Uriola etorri zan, ta dirianak ondatu zituan.

Au berau jazo zan Lot-en egunetan; Jan, ta edaten eben: erosi, ta salduten eben: landatu, ta etxeak egiten zituezan.

Ta Lot-ek Sodomatik urten eban egunean, Zerutik inotsi zan sua, ta sufrea, ta guztiak il zituan.

Onelangoa izango da gizonaren Semea agertuko dan eguna.

Ordu atan tellatuan dagoanak, baditu bere alajak etxe barruan, jatsi ezpedi euren billa; ta kanpoan baldin badago, ezpidi biurtu atzera.

Gomute zaitze Lot-en emazteaz.

Bere bizitzea gorde gura dabenak, galduko dau: ta galduten dabenak, biztuko dau.

Dirautsuet: gauba atan bi oe baten egongo dira, bata eroango da, ta bestea geldituko da.

Emakume bi egongo dira batera eioten: bata eroango da, ta bestea largako da: ta bi soloan; bata eroango da, ta bestea itxiko da.

Eranzun, ta esan eutsen eurak: Non, Jauna?

Eta berak esan eban: Non gorputza dan, arrañoak batuko dira an.



26. IRAKURTZA

**Jesusek oraziño egiten irakasteko dakartz Juez,
ta emakume alargun baten antz-adigarriak,
ta Fariseo, ta Bekatari agiri batena.**

San Lukasek cap. 18. v. 1-14.

Baitabere zirautsen irudin au, zerren beti, beinbere uts egin baga oraziño egin bear dan,

Ziñoala: Erri baten egoan Juez bat; ez Jangoikoari bildurrik ez gizonai lotsarik ez eutsena;

Eta erri atan bertan egoan andra alargun bat, beragana etorri, ta esaten eutsana: Bengau nagizu neure kontrakorraganik.

Ta denpora luzea igaro zan egin gura ezik. Baña arik ara esan eban bere artean: Nik ezpadot bere Jangoikoaren bildurrik, ez gizonen lotsarik;

Baña barriz alargun onek daragoidalako, bengatuko dot, ainbeste bider etorri eztakidan gogaerazoten.

Eta Jaunak esan eban: Enzuzue zer diñoan Juez justizia bageak.

Enda bada Jangoikoak bereak dirianakaz, gau ta egun berari kexetan dirianakaz, benganza egingo eztau? ta pazienza eukiko dau eurretan?

Dirautsuet, laster egingo dabela euren benganza. Eta gizonaren Semea juzgetara datorrenean, uste dozue fede asko idoroko dabela lurrean?

Eta esan eban irudintza au bere, eurretan fiatzen zirian batzuei, justuak bailitzan legez, ta besteak desprezietan zituezan.

Gizon bik igo eben Tenplura, oraziño egitera: Fariseoa bata, ta beste Bekatari-agiria.

Fariseoak zutik egoala, bere artean oraziño egiten eban onela: Esker-onak emoten deutsudaz, Jangoikoa ez nasalako ni beste gizon lapur, justutasun bage, adulteroak legez, ta Bekatari Publikano au legez.

Astean birritan barau egiten dot; dodan guztiaren amarrenak emoten dodaz.

Baña Bekatari-agiriak urrin egoala, begiak bere jaso gura ezik zerura: baña bai joten eban bere bularra, ziñoala: Nire Jangoikoa, parkatu eidazu arren bekatari oni.

Dirautsuet, au jatsi zala, baña a ez, justuturik bere etxera: zerren goratuten dan guztia, humilduko da: ta humilduten dana, izango da goratua.

27. IRAKURTZA

**Jesusek berba egiten dau
Matrimonioaren ganean.**

BATERA San Mateok cap. 19. v. 1-12.

San Markosek cap. 10. v. 1-12.

Eta Jesusek gauzok esan zituanean joan zan Galileatik, ta andik urte-rik, joan zan Jordanen beste aldeko Judeako lur mugara.

Eta jente askok jarraitu eutsen, ta an osatu zituan; ta barrero irakasten eutsen oi eban legez.

Eta Fariseoak eldu jakazan tentazar, ta esaten ebela: Ondo egiña bazan gizon batek bere emazte largetea edozein bidez?

Baña berak eranzun, ta esan eutsen: Moisesek zer agindu eutsuen?

Eurak esan eben: Moisesek laketu eban larga-karta eskribidu, ta emaztea itxitea.

Eta Jesusek eranzun eutsen, esanik: Zeuroen biotzeko gogortasuna gaitik agindu au itxi eutsuen eskribidurik.

Irakurri eztozue, sortuerako asieratik gizona egin ebanak, arra, ta emea egin zituala Jangoikoak, ta esan ebala:

Beragaiti largako ditu gizonak bere aita, ta ama, ta batuko da bere emazteaz.

Eta biak izango dira aragi baten.

Eta alan eztira ia bi, ezpada aragi bat.

Alan bada Jangoikoak batu ebana, ezpegi aldetu gizonak.

Dirautse: Zegaiti bada Moisesek agindu eban larga-karta emon, ta itxitea?

Esan eutsen berak: Zerren Moisesek zeuroen biotz-gogortasuna gaiti laketu eutsuen zeuroen emazteak largetea: baña lenengotik etzan orrela.

Eta dirautsuet: baldin iñok itxiten badau bere emazte, ezpada adulterioan jausi dalako, ta beste bat artzen badau, adulterioa egiten dau: ta ezkonduen dana bestek larga dabenaz, egiten dabela adulterioa, *edo aragizko ezkonz-bekatua*.

Eta gai onen ganean gero etxean bestebein bere dizipuluak itandu eutsen.



Eta berak esan eutsen: Bere emazte itxi, ta besteATEGAZ ezkontzen danak, adulterioa aren kontra egiten dau.

Eta emazteak bere senarra largetan badau, ta besteATEGAZ ezkontetan bada, adulterioko bekatua egingo dau.

Bere dizipuluak esan eutsen: gizonaren gauza orrela bada bere emazteaz, konbeni ezta ezkontudea.

Eta berak esan eutsen: Guztiak eztira orren gai, ezpada aek zeintzuei emon jakeen.

Bada dira irandu batzuk, euren amaren sabeletik alan jaio zirianak: ta dira beste batzuk, gizonen eskuz iranduak dirianak: ta beste irandu batzuk dagoz, eurak irandu zirianak Zeruetako Erreinua irabaztea gaiti. Gai-kapaz dana, izan bedi.

28. IRAKURTZA

**Jesusek seiñen ganean bere eskuak ifinten ditu.
Erakusten ditu ondasunak dakardezan arriskuak:
ta sari andiak eskeñiten deutsez darraionari berari.**

BATERA San Mateok cap. 19. v. 13-30.

San Markosek cap. 10. v. 13-31.

San Lukasek cap. 18. v. 15-30.

Orduan ekarri eutsezan ume txiki, ta seiñak, eurai ukutu egioentzat, euren ganean eskuak ifini, ta oraziño egin egian.

Ta au ikusirik bere dizipuluak, aserratu, ta oñoten eutsen ekartzenai

Ta Jesusek ikusi ebanean, deungerotzat artu eban, ta deiturik esan eutsen eurai:

Itxi eiezue seiñai, ta eragotzi ez egiezue nigana etortea, bada onela-koena da Zeruetako Jangoikoaren Erreinua.

Egiaz dirautsuet: Artuten eztabenak Jangoikoaren Erreinua ume txikiak legez, eztala bertan sartuko.

Eta besarka laztandu, ta euren ganean eskuak ifinirik, bedeinketan zituan.

Eta eskuak ifini eutsezanean, joan zan andik.

Eta urten ebanean bidean ifinteko, arin etorri jakon gizon aidenagusi andiki bat, ta belauniko ifinirik, itandu eutsan, zirautsala:

Maixu ona: ze on egingo dot, sekulako bizitzea irabazteko?

Eta Jesusek esan eutsan: Zegaiti diraustazu *ona*?

Zegaiti itanduten deustazu *onaren*? Bakarrik bat da ona, zein dan Jangoikoa. Ezta iñor onik ezpada Jangoikoa. Baña baldin bizitzan sartu gura badozu, mandamentuak gorde egizuz.

Besteak esan eban: Zeintzuk? Ta Jesusek esan eutsan:

Bakizuz mandamentuak: Eztozu iñor ilgo: Eztozu besteren senar-emazteaz aragizko bekatuak egingo: Eztozu ostuko: Eztozu testimonio guzurrezkorik esango: Eztozu engañurik egingo:

Honrau egizuz zeure aita, ta zeure ama: ta maitetu egizu zeure lagun-urkoa zeure burua legez?

Gizon gazteak esan eutsan: Dan ori txikitarik gorde dot: Zer geiago egin bear dot oraindikorren?

Jesusek au enzun ebanean beragan begiak ifinirik, erakutsi eutsan maitetasuna, ta esan eutsan: Oraindio gauza bat falta jatzu.



On ona izan gura badozu, zoaz, ta saldu egizu dozun guztia, ta pobreak emon eiezu, ta Zeruan ondasun bat eukiko dozu; ta zatoz, ta jarraidazu.

Eta zaldunak berba au enzun ebanean, tristetu zan, beraganik aldegin zan, zerren ondasun ugariak zituan:

Zerren entero aberatsa zan.

Jesusek triste ikusi ebanean,

Eta ingurura begiraturik, esan eutsen bere dizipuluai: Zein gatx sartuko dirian Jangoikoaren Erreinuan aberatstasunak dituenak.

Egjaz dirautsuet, nekez sartuko dala Zeruetako Erreinuan aberats bat.

Eta dizipuluak miraritutun zirian bere berba oneekaz. Baña Jesusek bestebein eranzun eutsen, esanik:

Orrez geiago dirautsuet, semeak; ze gauza gatxa dan sartutea Jangoikoaren. Erreinuan ondasunetan konfietan dabenak.

Errazago da bada igarotea gamelua jostorrazaren begitik, Zeruetako Jangoikoaren Erreinuan aberats bat sartutea baño.

Bere dizipuluak berbok enzunik, asko miraritu zirian, ta alkar esaten eben:

Nor bada salbau leiteke?

Orduan Jesusek eurak begiraturik, esan eutsen: Ezin dateken gauza da au gizonentzat, baña ez Jangoikoarentzat.

Esan eutsen eurak: Ezin ala dana gizonentzat, al litekeana da Jangoikoarentzat, zerren Jangoikoarentzat egikizunak dira gauza guztiak.

Orduan Pedrok berbea arturik, esan eutsan: Aror non guk guztia larga dogun, ta jarraitu deutsugu; ze esker-sari bada emongo jaku?

Eta Jesusek esan eutsen: Benetan dirautsuet, jarraitu deustazuenok, biztuera azkenekoan gizonaren Semea bere Anditasunezko jarlekuan jarten danean, zuek bere amabi jarlekutan jarriko zaree, Israelgo amabi Probinziak juzgetako.

Eztago iñorbere itxi dabenik etxea, edo anajeak, edo arrebak, edo aita, edo ama, edo emaztea, edo semeak, edo lurak ni gaiti, nire izen, ta Ebanjelio, Jangoikoaren Erreina gaiti,

Eun bider geiago artuko eztituanik, orain denpora onetan, etxeak ta anajeak, ta arrebak, ta amak, ta semeak, ta lurak, nekeakaz; ta gero barriz beste munduan beti betiko bizitza.

Baña lenengoetarik asko azkenekoak izango dira, ta azkenekoak lenengoak.

29. IRAKURTZA

Jesusek erakusten dau lan-beargillen irudina.

San Mateok cap. 20. v. 1-16.

Zeruetako Erreina irudituten da gizon familiadun Guraso, goxean goxetik bere mastirako langillen billa urten eban bati.

Eta alogerakoak azjuste eginik euren eguneko bear-saria diruzkoa emoteko, biraldu zituan bere mastuira.

Eta urten eban egerdi aurrean, ta ikusi zituan beste batzuk plazan alperrik egozala.

Eta esan eutsen: Zuek bere zoaze nire mastegira, ta dagokizuena emongo deutsuet.

Eta eurak joan zirian. Bestebein urten eban bazkal-ondoan, ta arrastegian, ta ori berori egin eban.

Eta urtenik illunzean, ta idororik bestebatzuk an egozala, esan eutsen: Zer egiten dozue emen alperrik egun guztian?

Eta eurak eranzun eutsen: Iñok pere alogerean eroan ez gaitualako. Dirautse berak: Zoaze zuek bere nire mastira.

Eta gauba eldurik, mastiko jabeak bere ordekoari esan eutsan: Deitu langillai, ta euren alogera emon egiezu, azkenekoetatik asi ta lenengoetaraño.

Gaberortean joan zirianak etorri zirianeanean, bakotxak bere dirua artu eban.

Eta lenengo joanak eldu zirianeanean, uste eben, geiago emongo eutse-la: baña ez eban artu bakotxak ezpada diru bat.

Eta artutean oñoten eben etxe-buruaren kontra,

Ziñoela: Azkenekook bakarrik ordu baten bear egin dabe ta bardindu dozuz gugaz, eguneko astuntasuna, ta beroa eroan doguzanokaz.

Baña berak aetarik bati eranzun, ta esan eutsan: Adiskidea, bidebagerik egiten ezteutsut: Konpondu ezkinean alkar diru bategaitik?

Artu egizu zeurea dana, ta zoaz: bada nik atzerengo oni zuri lainbeste emon gura deutsat.

Ez edo al dot nai dodana egin? Menturaz txarra da zure begia, ni ona nasalako?

Alan izango dira azkenekoak, lenengoak: ta lenengoak, gerorengoak: bada asko dira deituak, baña gitxi autuak.



30. IRAKURTZA

**Jesusek erakusten deutse bere ikasleai
Jerusalengo bidean, zeinbat igaro bearco eban
Erri onetan. Aserratuten da Zebedeoren semeen kontra,
besteak baño andiago izan gura dabelako.**

BATERA San Mateok cap. 20. v. 17-29.

San Markosek cap. 10. v. 32-45.

San Lukasek cap. 18. v. 31-34.

Eta bidean egozan Jerusalenera joateko, ta Jesus euren aurrean joian ta miraritutuen zirian, ta jarraioen bildurraz.

Eta bere amabi dizipuluak aparte arturik barriro, esan eutseezan bere ganean etorriko zirian gauzak.

Eta esan eutsen eurai: Gu goaz dakusuen legez Jerusalenera, ta beteko dira, gizonaren Semea gaitik, Profetak eskribidu zituezan gauza guztiak:

Bada gizonaren Semea entregatua izango da Sazerdote-en Nagusiai, ta Eskribai, ta Zaarrai.

Eta eriotzara kondenatuko dabe.

Eta emongo dabe Jentilai, burlazar darabilden, ta azotadu, ta kruztean josi dagien; ta izango da iraindua, ta azotadua, ta txistu-egina.

Eta azotadu ezkerre, bizitzea kenduko deutse.

Eta irugarren egunean biztuko da.

Baña ezerbere ez eben aditu onetarik: ta berbau ulertu ez eben: ez eben adituten zirautsena.

Orduan eldu zan beragana Zebedeoren semeen ama bere semeakaz, adoretan, ta zerbait eskatuten eutsala.

Berak esan eutsan: Zer gura dozu? Berak esan eban: Esaizu, nire seme biok jarri ditezela zeure Erreinuan, bata zeure eskoatara, ta bestea zure ezkerretara.

Orduan eldu zirian beragana Santiago, ta Juan Zebedeoren semeak, ta esan eutsen: Maixua, nai dogu egin daiguzula eskatuten deusugun guztia.

Eta berak esan eutsen: Zer gurozue egin daizuedan? Eta esan eben: Iguzu jarri gaitazan zeure Glorian, batau zeure eskoian, ta bestea zure ezkerrean.

Eta Jesusek eranzun eutsen, esanik: Eztakizue zer eskatuten dozuen. Edan algo dozue nik edango dodan kaliza, edo bateatuak izan, ni bateatuko nasan bateoan?

Eta eurak eranzun eutsen: Bai geinke.

Berak esan eutsen: Egiaz nik edaten dodan nire kaliza edango dozue: ta ni bateatua nasan bateoaz bateatuak izango zaree.

Baña jarrea nire eskoatara, ta nire ezkerretara ez jagot niri zuei emotea, ezpada nire Aitak prestaturik deutesenai.

Eta amarrak au enzun ebenean, aserratu zirian Santiago ta

Juan anaje biaren kontra. Baña Jesusek beragana deitu, ta esan eutsen: Dakizue jenteen Buru-agintariak euren erriak menperatuten dituela; ta nagusiagoak dirianak eskubidea dabela euren ganean.

Ezta orrela izango zuen artean: bada zuen artean nagusiago izan gura dabenak, izan bedi zuen serbitzaria.

Eta zuen artean lenengoa izan gura dabena, guztien serbitzaria izango da.

Bada gizonaren Semea etorri etzan, bestek bera serbitu dagian, ezpada serbietara, ta bere bizitza emotera askoen erospena gaiti.



31. IRAKURTZA

**Jesusek urreraturik Jerikora
itsu baten begiak argituten ditu.**

San Lukasek cap. 18. v. 35-43.

Eta jazo zan urreratu zanean Jerikora, itsu bat an bidearen ondoan egotea jarririk limosna eske.

Eta enzun ebanean igaroten zan jente tropela, itandu eban zer zan a.

Eta esan eutsen: Jesus Nazareno igaroten zala.

Eta dedarka esan eban: Jesus, Dabiden Semea, errukitu zaita niaz.

Eta aurrean joaiazanak aserratuten jakazan ixildu zedintzat. Baña berak deadar geiago egiten eban: Dabiden Semea, euki egizu nire errukia.

Eta gelditu zan Jesus, ta agindu eban ekarri egoela. Eta beragandu jakonean, itandu eutsan,

Esanik: Zer gura dozu egin daizudan? Eta berak eranzun eban: Jauna, ikustea.

Eta Jesusek esan eutsan: ikusi egizu; zure fedea osatu zaitu.

Eta berpetati ikusi eban, ta jarraitu eutsan Jangoikoa gloriatuten ebala. Ta jente guztiak au ikusirik, alabatu eban Jangoikoa.

32. IRAKURTZA

**Jerikon Zakeoren etxean
sartuten da Jesu Kristo.**

San Lukasek cap. 19. v. 1-10.

Eta Jesus sartu ezkerot igaroten zan Jerikotik.

Eta aror Zakeo eritxon gizon bat: ta au Arrendatzalleen Burua zan, ta aberatsa:

Eta ikusi gura eban nor zan Jesus: ta ezin eban jente andia gaiti, zerren gorputz txikizkoa zan.

Bera arin joan zan, ta iko batera igo eban, ikusteko: zerren andik igaro bear eban.

Eta Jesus leku atara eldu zanean, begiak jasorik, ikusi eban, ta, esan eutsan: Zakeo jatsi zaita laster, zerren zure etxean gaur geratu bear nasan.

Bera barriz jatsi zan: ta pozik etxeratu eban.

Eta au ikusirik guztiak, deungero ziñoen, joan zalako gizon bekatari baten etxera.

Baña Zakeo ifinirik Jaunaren aurrean, esan eutsan: Jauna, aror non nire ondasunen erdia emoten deusedan pobrei: ta baldin ezer iñori kendu badeusat, lau bider geiago biurtzen deusat.

Eta Jesusek esan eutsan: Gaur osasuna etorri jako etxe oni: au bere Abranen semea dalako.

Bada gizonaren semea etorri zan galdu zana billatu, ta salbetara.



33. IRAKURTZA

**Jesusek Judeguai adierazoten deutse
irudintza bat gizon Jaun andi batena,
zein joanik beste Erreinu batera, biurtu zanean,
kontuak eskatuten deutsez bere serbitzariai,
berak emoniko diruen ganean.**

San Lukasek cap. 19. v. 11-28.

Eurak au enzunik, jarraitu eban esaten eutsela bardintza bat, Jerusalem ondoan egoalako: ta uste ebelako, laster agertuko zala Jangoikoaren Erreinua.

Esan eban bada: Jaun andi bat joan zan urrin egoan erri batera, an artuteko Erreinu bat, ta gero biurtuteko.

Eta deitu ezkerok bere serbitzarietarik amarri, emon eutsezan amar diru, ta esan eutsen: tratuan irabazi egizue ni natorren bitartean.

Baña bere Errikoak gorroto eben: ta bere atzean mandataria bat biraldirik, esan eutsen: Nai eztoqu onek gure ganean erreginatutea.

Eta biurtu zanean bere Erreinua arturik, agindu eban deitu egiela dirua emon eutsen serbitzariai, jakiteko zeinbat bakotxak irabazi eban.

Eldu zan bada lenengoa, ta esan eban: Jauna, zure diruak irabazi ditu amar diru.

Eta esan eutsan: Ondo dago, serbitzari ona: gauza gitxian mena izan zarealako, eukiko dozu agintaritza amar Errien ganean.

Eta etorririk beste bat, esan eban: Jauna, zure diruak bost diru irabazi ditu.

Eta oni esan eutsan: Zuk bere amar Urien ganean eukiko dozu esku-bidea.

Eta irugarrena etorri zan, ta esan eban: Jauna, aramen zure dirua, zein gorderik euki dot miesa baten:

Zerren zure bildur izan nasan, zarealako gizon gogor-latza; daroazu ifini eztozuna, ta igitaituten dozu erein eztozuna.

Orduan berak esan eutsan: Serbitzari gaistoa, zeure aoz kondenetan zaitut: Bazenkian ni nintzala gogorra, daroadana ifini eztodana, ta igitaituten dodala erein ez nebana:

Zergaiti bada nire dirua ifini etzenduan tratuan, neure biurreran artu nengiantzat irabazteakaz?

Eta esan eutsen an aurrean egozanai: Kendu oni dirua, ta emon eiozue amar diru dituanari.

Eta eurak esan eutsen: Jauna, orrek amar diru ditu.

Bada nik dirautsuet, daukanari emongo jakola, ta askotuko jako: baño ez dabenari, daukana bere kenduko jako.

Baitabere ekarri egidazue on arako nire arerio gura ez ebenak nik euren ganean erreinatutea, ta emen bertan nire aurrean il egizuez.

Ta au esanik, joian aurrean igarotera Jerusalemenera.



34. IRAKURTZA

**Jesusek Jerikotik urtenik
itsu bien begiak argituten ditu.**

*BATERA San Mateok cap. 20. v. 29-34.
San Markosek cap. 10. v. 46-52.
San Mateok an.*

Eta eurak Jerikotik urtenik, jente askok jarraitu eutsan:

Eta bidearen ondoan egozan itsu bi jarririk, ta enzun ebenean Jesus igaroten zala, dedarrez asi zirian esaten: Dabiden Seme Jauna, euki egizu gure errukia.

Eta jenteak agiraka egiten eutsen ixildu zitezen. Baña eurak txilio geiago egiten eben, ziñoela: Jauna, Dabiden Semea, errukitu zaite guzaz.

Eta Jesus geratu zan, ta deitu eutsen, ta esan eban: Zer gura dozue egin daizuedan?

Jauna, eranzun eben, gure begiak idigi ditezela.

Eta Jesusek arturik euren errukia, ukutu eutsen begietan: ta ordu berean ikusi eben, ta jarraitu eutsen.

San Markosek an.

Eta Jerikotik urtetea bera, ta bere dizipuluak, ta eurakaz jente asko, Bartimeo itsua Timeoren semea egoan jarririk eskean bidearen ondoan.

Eta enzunik Jesus Nazareno zala, asi zan deadarka, ta esaten: Jesus Dabiden Semea, arren nire errukia.

Eta asko aserratuten jakazan ixildu zedintzat. Berak barriz dedar geiagoaz ziñoan: Dabiden Semea, errukia nigaz.

Eta Jesus gelditu zan, ta agindu eban deitu egoela. Deiturik bada itsuari, dirautse: Abia zaite: jagi zaite, zerren deituten deutsun.

Berak bota kapea, ta saltuka joan zan beragana.

Eta Jesusek berbea arturik, esan eutsan: Zer gura dozu egin daizudan? Ta itsuak esan eutsan: Maixua, ikustea.

Eta Jesusek esan eutsan: Zoaz, zeure fedea salbau zaitu: ta bereala ikusi eban, ta jarraion bidean.

35. IRAKURTZA

**Marta ta Mariak biralduten deutse
mandatua Jesusi, euren neba Lazaro
txar dagoala ta bitartean ilten da.**

San Juanek cap. 11. v. 1-31.

Eta oi zan Lazaro eritxon gaixo bat Betaniakoa, Maria, ta Martaren erri txiki batekoa.

Eta Maria zan arako igutzi eutsazana Jaunari bere oñak ungentuaz, ta leortu bere ulleakaz, zeñaren neba Lazaro gaixorik egoan.

Bere arrebak bada biraldu eutsen esatera Jesusi: Jauna, aror non maite dozuna gaixorik dagoan.

Eta Jesusek au enzunik, esan eutsen: Gaixotasun au ezta eriotzarako; baña da Jangoikoaren gloriarako, beragaiti Jangoikoaren Semea andizkatua izan dedin.

Jesusek barriz maite zituan Marta, ta bere aizta Maria, ta Lazaro.

Eta enzunik gaixorik egoala, leku atan bertan gelditu zan beste egun bian.

Eta onek igarorik esan eutsen bere dizipuluai: Goazan osterabere Judeara.

Dizipuluak esan eutsen: Maixua, oraintxe Judeguak arrika egin gura izan deutsue, ta ara zoaz bestebein?

Jesusek eranzun eban: egunak amabi ordu eztitu? Egunaz dabillena estropezurik emoten eztau, zerren mundu onetako argia dakusan.

Baña gabez badabil, laprast egin daroa, an argirik eztagoalako.

Au esan, ta gero esan eutsen eurai: Lazaro gure adiskidea lo dago: baña noa bere lotik irazarritera.

Eta bere dizipuluak esan eben: Jauna, lo badatz osaturik egongo da.

Baña Jesusek bere eriotzea gaiti ziñoan: ta eurak uste eben lozko loa gaiti berba egiten ebala.

Orduan argiro esan eutsen: Lazaro il da.

Ta atsegin dot zuekaitik ez egon izana an, sinistu daizuen. Baña goazan beragana.

Orduan Tomas, Didimo eritxonak esan eutsen beste dizipuluai: Gu bere goazan, ta il gaitazan beragaz.



Etorri zan bada Jesus, ta idoro eban lau egun ziriala sepulturaren egoala.

Eta Betania egoan Jerusalemek legua erdi legez.

Eta Judegu asko etorri zirian konsoletara Marta, ta Maria euren nebea gaiti.

Martak bada enzunik Jesus etorrela, bidera urten eutsan: ta Maria etxean gelditu zan.

Eta Martak Jesusi esan eutsan: Jauna, emen egon baziña nire nebea ilgo etzan.

Baña orain bere baki, Jangoikoari eskatuten deutzazun guztia, Jangoikoak emongo deutzula.

Jesusek esan eutsan: Zure neba biztuko da.

Martak dirautso: Ondo dakit azkeneko egunean biztuko dala.

Jesusek esan eutsan: Ni nas biztuerea, ta bizitzea: nigan sinistuten dabena, ilten bada bere, biztuko da:

Eta nigan bizi dana, ta sinisten dabena, sekula ilgo ezta. Sinisten dozu au?

Berak esan eban: Bai, Jauna, nik sinistu dot zareala Kristo Jangoiko biziaren Semea, mundu onetara etorri zareana.

Ta au esanik, joan zan, ta ixilik deitu Maria bere aitzari, ta esan eutsan: Maixua emen dago, ta deitzen deutzua.

Berak au enzunik, agudo jagi, ta beragana joan zan.

Bada Jesus oraindiño etzan eldu Erritxo atara, ezpabere egoan Martak bidera urten eutsan leku atan bertan.

Beragaz bada, ta bera konsoletan etxean egozan Judeguak, ikusirik Maria arin jagi, ta urtetan ebala, joan zirian bere atzean, ziñoela: Negar egitera doa sepulturara.

36. IRAKURTZA

**Jesusek Lazaro illa biztuten dau:
mirari onegaz Fariseoak gorroto geiago artuten deutse;
ta beragaiti aldegiten da ermura.**

San Juanek cap. 11. v. 32-56.

Eta Maria eldu zanean Jesus egoan lekura, ikusi ta bertati auspaz etxun zan bere oñeetara, ta dirautso: Jauna, emen egon baziña, etzan ilgo nire neba.

Jesusek ikusi ebanean negarrez, beronegaz etorri zirian Judeguak bere negar egiten ebela, berak bere zizpuru egin eban, ta mindurik gelditu zan beragan.

Eta esan eban: Non ifini zenduen? Esan eutsen: Erdu, Jauna, ta ikusiko dozu.

Eta Jesusek negar egin eban.

Orduan Judeguak esan eben: Begira ze maite eban.

Eta eurentarik batzuk esan eben: Onek bada itsuturik jaio zanaren begiak idigi ezker, ezin egin eukean au il etzedilla?

Baña Jesusek beragan zizpuruturik bestebein, joan zan sepultura-obiara, kueba-leze zanera: ta arri andi bat bere ganean ifini eben.

Jesusek esan eban: Kendu eizue arri-estali ori. Marta illaren arrebeak esan eutsan: Jauna, kirats-atsiturik dago, bada lau egun dira il zala.

Jesusek esan eutsan: Esan ezteutsut, sinisten badozu, ikusiko dozu-lala Jangoikoaren gloria?

Jaso eben bada arria: ta Jesusek goraturik begiak, esan eban: Aita, esker-onak emoten deutzazun enzun nozulako.

Nik ondo nekian beti nanzuzula, baño inguruan dagoan jentea gaiti, esan neban: sinistu dagien, zuk biraldu nozula.

Eta au esanik boz goratuaz dedar egin eban, ziñoala: Lazaro, erdu kanpora.

Eta berpetati urten eban egon zanak illik, oñak esturik, ta eskuak loturik, ta arpegia miesa zatiaz estaldurik. Jesusek esan eutsen: Askatu, ta itxi eiozue joan dedin.

Maria, ta Marta ikustera etorri zirian Judegu askok, ikusirik Jesusek egin ebana, sinistu eben bertati beragan.



Baña euretarik batzuk joan Fariseoakgana, ta esan eutsen zer egin eban Jesusek.

Ta Sazerdoten, ta Fariseoen Buru-nagusiak bildu eben Batzarra, ta ziñoen: Zer egiten dogu, zerren gizon onek mirari asko egiten dituan?

Baldin orrela itxiten badogu, guztiak beragan sinistuko dabe: ta Erromatarrak etorri, ta ondatuko ditue gure erria, ta jentea.

Baña, euretarik batek, Kaifas zeritxon Sazerdote nagusia zanak esan eutsen: Zuek ezer eztatizue,

Gogoratuten bere eztozue, konbeni jatzuela il dedin gizon bat, erriagaiti, ta jente guztia galdu eztidin.

Baña au ez eban esan bere buruz; ezpada izanik urte atako Sazerdote nagusia, adirazo eban, Jesus ilgo zala jentea gaiti:

Eta ez bakarrik erriko jentea gaiti, baitabere batuteko batzan zabaldurik egozan Jangoikoaren semeak.

Eta alan egun atarik artu eben asmoa zelan emongo eutsen eriotzea.

Eta beragaiti etzan erakusten Jesus agirian Judegen artean, ta aldegin zan Efren eritxon Erri ermuaren ondoan egoan lekura, ta an bizi zan bere dizipuluakaz.

Eta ur egoan Judegen Pazkoa: ta erri atarik asko joan zirian Jerusalemenera Pazkoa baño len, eurak an garbituteko.

Eta ebiltzen Jesusen billa: ta batak besteari zirautsan egozanean Tenpluan: Zer uste dozue, etorri eztalako Jaira?

Eta Sazerdoten Buruak, ta Fariseoak euken agindurik, iñok bekian non zan, agertu egiala, preso artuteko.

37. IRAKURTZA

**Biurturik Jesus Betaniara,
Mariak ungentu balio andikoaz
igortziten ditu bere oñak: onen damu dau Judasek.
Batuten dira jenteak, ta datoz beragana.**

BATERA San Mateok cap. 26. v. 6-13.

San Markosek cap. 14. v. 3-9.

San Juanek cap. 12. v. 1-11.

Jesus bada Pazkoa baño sei egun lenago etorri zan Betaniara, non egon zan Lazaro illa, berak biztu ebana.

Eta an Simon lepradunen etxean presta eutsen afari bat.

Eta Marta zan serbitzaria, ta Lazaro zan maian egozanetarik bat beragaz.

Orduan Mariak artu eban libra bat ungentu nardo-buru uts balio andikoa.

Eta Jesusen oñak igutzi zituan, ta bere ulleakaz igortzi zituan bere oñak ta alabastroko ontzia ausirik, bota eutsan burura, maian etxunik egozala; ta ungentuaren usañez etxe guztia bete zan.

Eta bere dizipuluak au ikusirik, aserratu zirian ziñoela: Zetako galduten da alan ungentu au?

Irureun dirutan saldu leitekean ungentu au, ta pobreai emon: ta gogor berba egiten eben bere kontra.

Eta Judas Iskariotes bere dizipuluetarik batek, zeñek salduko eban, esan eban:

Zegaiti saldu etzan irureun dirutan ungentu au, ta emon etzan pobreai?

Au beronek esan eban, ez pobreen ardurarik eukalako, ezpada lapurra zalako, ta bere bolsak eukirik, eureetan ekarrelako emoten ebena.

Baña Jesusek au aditurik, esan eutsen: Zegaiti zaree gogaikarriak emakume oni?

Larga eiozue, gorde daian nire entierruko egunerako.

Gauza ona nigan egin dau.

Zerren pobreak beti dozuez zeuroekaz, ta nos nai on egin ziñeike eurai, ni barriz ez nozue beti.

Onek berari dagokiona egin dau.



Bada emakume onek nire gorputzean ungentu au botarik, ni enterretako egin dau, aurreragotik balsamaturik nire gorputza sepulturarako.

Egiaz dirautsuet, Ebanjelio au prediketan dan munduko leku guztietan, onek egin dabena bere agertuko dala beronen gomutean.

Jakin eben bada Judegetarik askok, Jesus an egoala; ta etorri zirian ez bakarrik bera gaiti, baitabere ikustea gaiti Lazaro illen arterik biztu ebana.

Eta Sazerdoteen Buru nagusiak asmau eben Lazaro bere iltea: Zerren asko bera gaiti aldegiten zirian Judegetarik, ta sinisten eben Jesusegan.

BOSTGARREN LIBRUA

**Jesu Kristo gure Jaunaren Bizitza
Jerusalenen triunfoz sartu zanetik
Zerura igo artean.
Bere Pasiño, Eriotza, ta Biztuera**



1. IRAKURTZA

Jesus sarturik Jerusalemene astaganean, ezagututen dabe Jangoikoaren Semetzat. Negar egiten dau Erriaren ganean.

BATERA San Mateok cap. 21. v. 1-11.

San Markosek cap. 11. v. 1-11.

San Lukasek cap. 19. v. 29-44.

San Juanek cap. 12. v. 12-19.

Biamonean Jerusalemenera urreratu ziriane, ta eldurik Bethfajera, Olibeteko basora,

Orduan Jesusek biraldu zituan bi bere dizipuluetarik,

Eta esan eutsen: Zoaze zuen aurrez aur dagoan erritxikira,

Eta an sartu ta bertati idoroko dozue asto bat, ta beragaz astakume bat zeñaren ganean eguño iñor jarri eztan gizonetarik; askatu egizue, ta ekarri eidazue.

Eta iñok itanduten badeutsue; zegaiti askatuten dozuen, eranzun eiozue, Jaunak bear dituala: ta bereala largako ditu.

Au guztiau jazo zan, bete zedin ziñoana Profetak, esanik:

Siongo alabari esan eiozue: Aror non zure Errege zugana datorren bigunik, jarririk asto eme baten, ta astakume ar bustarri pean dagoanaren ganean.

Joan zirian bere dizipuluak, ta egin eben Jesusek agindu eutsena.

Eurak joan, ta arkitu eben astoa esturik bidez kanporako aurrean: ta askatu eben.

Eta astoa askatutean, euren jabeak esan eutsen: Zetarako astoa askatuten dozue?

Eurak eranzun eutsen, zelan Jesusek agindu eutsen; zerren Jaunak bear eban; ta larga eutsen.

Eta ekarri eutsezan Jesusi asto eme, ta astakumea.

Jai-fiestara etorri zan jente pilo andi batek, enzunik Jesus Jerusalemenera etorrela,

Artu zituezan palma adar-orriak, ta berari bidera urtenik, dedarka ziñoen: Hosana, bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena, Israelgo Erregea.

Eta Jesusek idoro eban astotxo, ta beronen ganean ifini zituezan eurek jaztekoak, ta bere ganean jarri-eragin eutsen, eskribidurik egoanez:

Etzaitte bildurtu, Siongo alabea, aramen non datorren zure Erregea astakume baten jarririk.

Au orduan ez eben aditu bere dizipuluak: baña Jesus gloriatu zanean, orduan gomutadu zirian, gauzok bera gaiti eskribidurik egozala, ta eurok beragan bete ziriala.

Eta bera joiala, zabalduen zituezan euren soñekoak bidean: ta beste batzuk eriñonz adarrak ebagi, ta bidean zabalduen zituezan.

Eta Olibeteko mendiko oñera eldu zanean, dizipulu guztiak piloka gozo-pozez beterik asi zirian Jangoikoa alabetan dedarka, ikusi zituezan miragarri guztia kaiti,

Esaten ebela: Bedeinkatua izan bedi Jaunaren izenean datorren Erregea, bakea Zeruan, gloria goietan.

Eta bere aurretik, ta atzetik etozan jenteak, dedar egiten eben ziñoela: Hosana, Dabiden Semeari.

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena: Bedeinkatua Dabid gure aitaren Erreinu datorrena: Hosana goietan.

Eta testimonioa emoten eban Jesusegaz egon zan jente andiak Lazarori sepulturatik deitu, ta illen artetik biztu ebanean.

Eta onegaiti bidera urten eutsen jente askok: enzun ebelako, berak mirari au egin ebala.

Baña Fariseoak alkar esan eben: Eztakusue ezerbere aurreratuten eztogula? Ara zelan mundu guztiak darraion.

Eta jenteen artean egozan Fariseo batzuk esan eutsen: Maixua, egiezu agirika zeure dizipuluai.

Berak eranzun eutsen: Dirautsuet, eze, baldin eurak ixilduko balira bere, arriak dedar egingo dabela.

Eta urreratu zanean, Erria ikusirik negar egin eban beronen ganean, esanik:

Ai eta ezagutuko bazendu, ta beintzat zeure egun onetan, bakea ekarri leizuna! baña orain ezkutaunik dago zure begietarik.

Bada zure kontra egunak etorriko dira, zeintzuetan zeure arerioak inguratuko zaituen esiturik, ta itxiko zaitue, ta alde guztitik estutuko zaitue:

Eta lurreratuko zaitue zu, ta zure barruan dagozan zure semeak, ta zugean itxiko eztabe arririk arriaren ganean: zeure bisitako tenporea eza-gutu etzendualako.



Eta Jerusalemen sartu zanean Erri guztia mugitu zan, ziñoela: Nor da au?

Eta jenteak ziñoen: Au da Jesus Profeta Nazaret Galileakoa.

Eta Jerusalemen sartu zan Tenpluan: ta gauza guztiak ikusirik, beran-dutu zanean, urten eban Betaniara amabiakaz.

2. IRAKURTZA

**Biaramonean biurtuten zala Jesus Jerusalemenera,
madarikatu eban iko bat, ta bertati igartu zan.
Sartuten da Tenpluan, ta andik kanpora
botaten ditu erosle, ta saltzalleak.**

BATERA San Mateok cap. 21. v. 12-22.

San Markosek cap. 11. v. 12-26.

Eta urrengo egunean, goxean Betaniatik Urira biurtzen zala gose zan.

Eta ikusirik urrinetik bidearen ondoan iko batek orriak zituala, ara joan zan ikustera ezer idoroten baeban beragan.

Eta eldu zanean, orriak ez besterik topau etzituan: zerren iko den-pora etzan.

Eta eranzunik esan eutsan: Sekula zukanik jaio ezpedi fruturik: Iñok iños jango ez aldau zukanik fruturik.

Eta bere dizipuluak enzun eben au; ta bereala igartu zan ikoa.

Eta Jerusalemenera joan zirian. Eta Elexan sartu ezkerok, asi zan andik kanpora botaten bertan saldu, ta erosten ebenak.

Eta banatu zituan tratudunen maiak, ta usoak salduten zituezanen jarlekuak.

Eta laketuten ez eban iñok aldatutea Elexan aldagarrik.

Eta irakasten eutsen ziñoala: Eskribidurik dago nire etxea oraziñoeko etxea deitua izango dala jente guztiaganik; zuek barriz lapur-tokia egin dozue berau.

Au enzunik Sazerdoten Nagusiak, ta Eskribak ebiltzen zelan bizitzea kenduko eutsen; zerren bere bildur zirian, bere dotrinaz jente guztia mirariturik egoala.

Eta Elexan etorri zirian beragana itsu, ta errenak, ta osatu zituan.

Sazerdoten Buruak, ta Eskribak ikusirik egin zituan gauza arrigarriak, ta mutillak Tenpluan deadarrez, ta esaten: Hosana Dabiden Semea-ri: samindu zirian:

Ta esan eutsen berari: Banzuzu oneek diñoena? Ta Jesusek esan eutsen: Bai. Eztozue nosbait irakurri, ume txiki, ta bularreko seiñetarik atera dozu alabanza oso-betea?



Eta eldurik arratstegia, eurak largarik joan zan Erritik kanpora Beta-niara; ta emen gelditu zan.

Eta biaramonean ikoaren albotik igaroten ziriala ikusi eben igarturik sustraitik.

Eta au ikusirik dizipuluak miraritu zirian, ta ziñoen: zelan orren laster igartu da?

Eta gomutau zan Pedro, eta esan eutsan: Maixua, aror non igartu dan madarikatu zenduan ikoa.

Eta Jesusek eranzun, ta esan eutsen: Jangoikoagan konfianza euki egizue.

Egiatz dirautsuet, baldin federik bazeunke, ta dudarik ez, ez bakarrik egingo dozue ikoaz; baña baitabere

Baldin iñok mendi oni esango baleuskio, jagi zaite, ta bota zaite itxasora, ta dudau baga bere biotzean, sinistuko baleu egingo dala diñoana, guztia egingo da.

Beragaiti dirautsuet, oraziñoan eskatuten dozuen guztia, sinistu egizue emongo jatzuela; ta etorriko jatzuela.

Eta oraziño egiteko abiatuten zareanean, iñoren kontra baldin ezer badozue, parkatu egiozue: onelan zuen Aita Zeruetan dagoanak zuei bere parkatu daizuezan zeuroen bekatuak.

Eta zuek parkatuten ezpadozue: zuen Aita Zeruetan dagoanak zuei bere zeuroen bekatuak parkatu ezteutsuez.

Eta egunero irakasten eban Elexan. Baña Sazerdoteen Buru nagusiak, ta Eskribak, ta erriko Agintariak, il gura eben:

Eta zer egin beragaz ez ekien. Bada jente guztia mirariturik egoan, berari enzuten.

3. IRAKURTZA

**Jentil fedebageak datoz Jesus ikustera:
ta euren aurrean Zerutik datorren
boz batek andizketan dau.**

San Juanek cap. 12. v. 20-50.

Eta an egozan Jentil batzuk, jaiegunean adoretara igo eben artekoak. Onek bada eldu zirian Felipe Besaida Galileakoa zanagana, ta erre-gututen eutsen, esanik: Jauna, ikusi gura geunke Jesus.

Felipe etorri, ta Andresi esan eutsan: ta Andresek, ta Felipek esan eutsen Jesusi.

Eta Jesusek eranzun eutsan, esanik: Ordua bator, zeñetan gizonaren Semea izango dan glorifikatua.

Egi egiaz dirautsuet, lurrean jausten dan gari garaua ilten ezpada, bera bakarrik geldituko dala: baña ilten bada, frutu asko daroa.

Bere arima maite dabenak, galduko dau: ta bere arimea munduan gorroto dabenak, gordeko dau beti betiko bizitzarako.

Baldin iñok serbiduten banau, jarraitu begit: ta non ni nagoan, an egongo da nire serbitzaria bere. Ta iñork serbietan banau, nire Aitak au onrauko dau.

Orain nire arimea turbaturik dago. Ta zer esango dot? Aita, salbau nagizu ordu onetarik. Baña orregaiti etorri nas ordu onetara.

Aita, andizkatu egizu zeure izena. Onetan etorri zan Zerutik boz bat esan ebana: Nik andizkatu dot, ta osterabere andizkatuko dot.

An egozan jenteak, enzun ebenean boza, esan eben, trumoi bat izan da. Bestebatzuk ziñoen: Angeru batek berba egin deutso.

Jesusek eranzun eban, esanik: Boz au etorri ezta nigaiti, ezpada zuek gaiti.

Orain da munduaren judizioa: orain botako da kanpora mundu one-tako Agintaria.

Eta baldin ni jasoten banas lurretik, guztia neugana ekarriko dot.

Eta au ziñoan adirazoteko zelango eriotzeaz ilgo zan.

Jenteak eranzun eutsan: Guk legetik dogu enzunik, Kristok betiko iraungo dabela: zelan bada diñozu zuk, gizonaren Semea jaso izan bear dala? Nor da gizonaren Seme au?



Jesusek esan eutsen: Oraindiño zuetan argi piska bat bago. Zabiltze argia daukazuen artean, iluntasunak artu ez zagjezan ta ilunetan dabillanak, eztaki nora doian.

Argia dozuen bitartean, argiagan sinistu egizue, argiaren semeak izan zaitezten. Au esan eutsen Jesusek; ta joan zan, ta euretarik ezkutau zan.

Baña orrenbeste mirari euren aurrean egin arren bere, ez eben sinistuten beragan:

Bete zedin Isaias Profetearen berbea, esaten ebala: Jauna, nok sinistu eutsan gure entzuteari? ta nori agertu jako Jaunaren besoa?

Orregaiti ezin sinistu eben, zerren Isaiasek beste bein esan eban:

Begiak itsutu eutsezan, ta biotza gogortu eutsen, begiakaz ikusi ezta-gien, biotzaz aditu eztaien, ta biurtu ta osatu eztaidazan.

Isaiasek au esan eban, bere gloria ikusi ebanean, ta bera gaiti berba egin ebanean.

Orrez guztiaz Buru nagusietarik askok beragan sinistu eben: baña Fariseoak gaiti ez eben agertuten, bota ez egiezan Batzarretik kanpora.

Zerren ze maiteago eben gizonen gloria, Jangoikoaren gloria baño.

Eta Jesusek boza goratu, ta esan eban: Nigan sinisten dabena, eztau nigan sinistuten, ezpada ni biraldu ninduanagan.

Eta ni nakusanak, dakus ni biraldu ninduanana.

Ni argitzat etorri nintzan mundura: nigan sinisten dabena, gelditu eztidin ilunetan.

Eta iñok nire berbak badanzuz, ta gordetan ezpadituz; eztot nik juzgetan: zergaiti tze etorri ez nintzan mundua juzgetara, ezpada mundua salbetara.

Desprezietan nabenak, ta nire berbak artuten eztituanak, bauko nok juzgau daian: esan dodan berbeak juzgauko dau bera azkeneko egunean.

Bada nik neuganik berba egin eztot, baña ni biraldu ninduan Aitak berak agindu eustan zer esango neban, ta ze berba egingo neban.

Eta dakit, bere agindua dala betiraun guztiko bizitzea. Bada nik diñodana, diñot alan zelan Aitak esan deustan.

4. IRAKURTZA

**Jerusalengo Agintariak dirautse Jesusi,
ze eskubidegaz gauzok egiten dituan:
ta Jaunak irudin bategaz adirazoten deutse
euren biotz gogorra Jaungoikoaganako.**

BATERA San Mateok cap. 21. v. 23-32.

San Markosek cap. 11. v. 27-33.

San Lukasek cap. 20. v. 1-8.

Eta egun aetarik baten, bera egoala jenteari irakasten, ta prediketean Elexan, batu zirian Sazerdoten Buruak, ta Eskribak, Zarrakaz.

Eta onela berba egin eutsen berari: Ze eskubidez gauzok egiten dozuz? ta nok emon deutsu poderioa gauzok egiteko?

Ta Jesusek eranzun, ta esan eutsen: Nik bere berba bat itanduko deutsuet, ta badiraustazue au, nik bere zuei esango deutsuet ze eskubidez au egiten dodan.

Juanen Bateoa nongoa zan? Zerukoa, ala gizonena? eranzun eida-zue.

Eurak barriz euren artean gogoratuten eben, esanik: Badiñogu Zerukoa zala, esango deusku: Zegaiti bada sinistu ez zeuntsen?

Eta badiñogu gizonena zala, jenteen bildur gara: erri guztiak arrika egingo deusku; bada egiazat dauko Juan Profeta zala.

Bada guztiak euken Juan Profetatat. Ta eranzun eutsen Jesusi, ziño-ela: Ez ekiela nongoa zan: Eztakigu.

Eta Jesusek esan eutsen: Nik pere esango ezteutsuet zuei, ze poderioaz gauza oneek egiten dodazan.

Baña zer deritxazue? Gizon batek seme bi zituan, ta eldurik nagusiagoagana, esan eutsan: Semea, zoaz gaur, ta bear egizu nire mastian.

Eta semeak eranzun eutsan, esanik: Eztot gura. Baña gero damutu jakon, ta joan zan:

Ta eldu zan besteagana, ta ori berori esan eutsan; ta berak eranzun, ta esan eutsan: Joango nas, Jauna: baña joan etzan.

Zeñek oneek bioetarik egin eban Aitaren borondatea? Eurak esan eben: Lenengoak. Jesusek esan eutsen: Egiaz dirautsuet: Zuek baño lenago joango diriala Jangoikoaren Erreinura Bekatari agiriak, ta emakume loi-zikiñak.



Zerren etorri zan Juan zuetara Justutasuneko bidean, ta ez zeuntsen sinistu; ta Bekatari agiriak, ta emakume galduak sinistu eutsen:

Zuek barriz ikusi ezkeru, penitenziarik bere egin etzenduen gero, sinistuteko berari.

5. IRAKURTZA

Jesusek dirautse Fariseoai mastiaren irudintza.

BATERA San Mateok cap. 21. v. 33-46.

San Markosek cap. 12. v. 1-12.

San Lukasek cap. 20. v. 9-19.

Eta asi zan esaten jenteari: Enzuzue irudin au.

Zan gizon etxe-buru bat, masti bat ifini ebana, ta esiz inguratu eban, ta atxurraz sakondurik egin eban an bertan tollare bat, ta egin eban torre bat, ta emon eutsen errentan nekazari batzuei, ta joan zan urrineru denpora luzerako.

Eta eldu zanean frutu denporea, biraldu eutsen nekatzalleai bere otseiñetarik bat, oni emon egioentzat mastegiko frutua.

Eurak oraturik, kolpeka astindu, ta utsik biurtu eban.

Eta barriru biraldu eutsen beste otsein bat: baña eurak au bere jo eban, arrika egin eutsen, ta burua ausi eutsen, ta injuriaz bete ezkeru, biurtu eban ezerbere baga.

Eta biraldu eban irugarrena bere. Beste orrenbeste zein besteai oni bere egin eutsen, ta kanpora atera ta il eban.

Barriru biraldu zituan lengoak baña serbitzari geiago: ta eurak deungero artu zituezan: ta euroetarik batzuk mindu zituezan, ta beste batzuk il.

Eta mastiaren Jabeak esan eban: Zer egingo dot? Biralduko dot neure seme maitea: bearbada dakusenean errespetoa eukiko deutse.

Eukirik bada seme bat entero maite ebana, biraldu eutsen azkenean, ziñoala: lotsea eukiko deutse nire semeari.

Baña nekazariak ikusi ebenean semea, esan eban euren artean:

Au da Jabegaia, erdue, il daigun, ta gurea izango da bere senipartea.

Eta oraturik, atera eban mastegitik kanpora, ta il eban.

Orain bada mastiako Jabea datorrenean, zer egingo dau aek nekatzalleakaz?

Eurak esan eban: Ondatuko ditu gogortasunaz aek gaistoak, ta arrendauko dau bere mastia beste nekazari bere denporan frutuak pagauko deutsezana.

Etorriko da, ta ilgo ditu nekatzalleok, ta beste batzuei emongo deutse mastuia. Ta eurak au enzunik, esan eban: Ez al da izango orrelakorik.



Eta berak eurai begira esan eban: Zer da bada eskribidurik dagoan au: Etxea egiten egozanak bota eben arria, au berau etorri zan izatera etxe-eskiñako ikusgarriana?

Jauna gaiti au egin zan, ta gauza miragarria da gure begietarako?

Beragaiti dirautsuet, kenduko jatzuela zuei Zeruetako Erreinua, ta emongo jako onen frutuak egiten dituanari.

Eta arri onen ganean jausten danak istanda egingo dau: ta berau iñoren ganera jausten bada, apurtuko da.

Eta Sazerdoten Nagusiak, ta Fariseoak enzun zituezanean irudintza oneek, aditu eben eurak gaiti berba egiten ebala.

Eta orduan eskua egotzi gura izanik, jentearen bildurra euken: zerren tze Profetatzat euken, ta larga eben, ta joan zirian.

6. IRAKURTZA

**Ezteguetako bardintza gaz adirazoten deutse
Jesusek Judeguai, eurok Zerutik
kanporatuak izango ziriala; ta euren lekuan
Jentil fede bageak artuko ziriala.**

San Mateok cap. 22. v. 1-14.

Eta Jesusek eragoiola bere berba egiteari, bestebein barriro zirautsen irudinetan:

Zeruetako Erreinuak dirudi, bere seme bati ezteguak egin eutsazan gizon Errege bati.

Eta bere otseñak biraldu zituan deitutera eztegura konbidaturik egozanai, ta etorri gura ez eben:

Barriro beste serbitzari batzuk biraldu zituan, bere partez esatera deituai: Jakin egizue prestatuak daukadala jataldi bat, illik dagoz zezenak, ta gizenduten euki dodazan egaztiak, prest dago guztia: erdue ezteguetara.

Baña eurak despreziatu eben: ta joan zirian, bata bere landa-etxera; ta bestea bere saldu-erosietara:

Eta besteak esetsi eutsen serbitzariai, ta galantak emon ezkerro, il zituezan.

Errege au enzunik, aserratu zan: ta bere soldaduak biraldurik, apurtu zituan aek gizon-iltzalleak, ta erre eban euroen Erria.

Orduan esan eutsen bere ogipekoai: Ezteguak prestatuak dagoz baña konbidauak diñak etzirian.

Zoaze bada bide urteeratara, ta idoroten dozuezan guztiai deitu eiezue ezteguetara.

Eta urtenik serbitzariak bideetara, batu zituezan arkitu zituezan guztia, onak, ta deungak: ta bete zirian ezteguak maian jarri zirian jenteakaz.

Eta Erregea sartu zan ikustera maian egozanak, ta ikusi eban an gizon bat ezteguako janziera ez eukana.

Ta esan eutsan: Adiskidea, zelan emen sartu zara ez eukirik ezteguoko soñekoa? Baña berak ez eban txitik egin.



Orduan Erregek esan eutsen bere Ministroai: Estu egizue ori oin, ta eskuz, ta bota egizue kanpoko iluntasunetara: an izango da negarra, ta agin karraskada.

Bada asko dira deituak, ta gitxi autuak.

7. IRAKURTZA

Fariseoak biralduten deutsez mandatariak Jesusi, itandutera, ondo zanez Erregeri zensoa pagatea: ta azpitik kontuan ifinten dituez, preso artu dagiela.

BATERA San Mateok cap. 22. v. 15-22.

San Markosek cap. 12. v. 13-17.

San Lukasek cap. 20. v. 20-26.

Orduan Fariseoak joan zirian, ta euren artean esan eben, zelan uste-kabea uts eragingo eutsen bere berbeetan.

Eta azpitik zelatan egokazala, biraldu zituezan Fariseo batzuk euren dizipuluak, Herodestarrakaz, justuen irudi-antza artu egien,

Jausi eragiteko berbaren baten, ta ifinteko Agintariaren eskubide, ta aginduaren azpian.

Oneek bada itandu eutsen, esanik: Maixua, dakigu egiatia zareala,

Eztozula irakasten, ez esaten zuzen-mena eztana, ta ezteutsezula jaramoten munduko esamesai, ez begiratuten gizonai azaletik dirudiana gaiti, bada Jangoikoaren bidea irakasten dozu egiaz:

Orain bada esan eiguzu: Zer deritxazu?

Errege-dirua pagetean ondo, ala deungero egingo dogu?

Jesusek barriz euren malsintasuna ezaguturik, euren asmu zitela adi-turik, esan eutsen:

Guzurtiak, zegaiti tentetan nozue? Erakusi eidazue ikusteko errege-diru bat, ta eurak ifini eutsen aurrean diru bat.

Eta Jesusek esan eutsen: Norena da antz-irudi au, ta letratallu au?

Dirautse: Erregearena.

Eta Jesusek eranzun, ta esan eutsen: Erregeri bada emon eiozu Erregearena dana, ta Jangoikoari Jangoioarena dana.

Eta au enzun ebenean, ezin kontraesan zituezan bere berbak jentearren aurrean; lenagotik bai mirariturik bere eranzueraz, ixildu zirian, ta largarik bera, aldegin zirian.



8. IRAKURTZA

Jesusek erabagiten dau Saduzeoak ifinten deutesen disputa bat.

BATERA San Mateok cap. 22. v. 23-33.

San Markosek cap. 12. v. 18-27.

San Lukasek cap. 20. v. 27-40.

Egun atan etorri zirian beragana Saduzeoetarik batzuk, aragiaren biztuera ukatuten dabenak, ta itandu eutsen;

Zirautsela: Maixua, Moisesek itxi euskun eskribiturik, baldin iñoren anajea ilten bada, emaztea eukirik, ta umerik itxi baga, beragaz ezkondu dedilla anajea, ta onek eregi daiala bere anaje illaren semetasuna.

Ona bada non zirian zazpi anaje, ta nagusia il zan semerik itxi baga, ondorengorik itxi baga,

Eta artu eban emazte au bigarrenak, ta il zan seme baga. Eta artu eban irugarrenak. Ta onelan batak bestearen ondoren zazpiak, ta dirianak il zirian umerik itxi baga; Ta guztien ondorengo emaztea bere il zan.

Orain bada, aragiaren biztueran, aatarik zeñena izango da emazte au? Bada zazpirak euki eben emaztetzat.

Eta Jesusek eranzun eutsen, esanik: Eztakutsue uts egiten dozuela, adituten eztozuezalako Eskriturak, ta Jangoikoaren birtutea?

Bada illen arterik biztuten dirianean, ezkonduko eztira, ezkonzara bere emongo eztira, ezpabere Zeruetako Angeruak legez izango dira.

Mundu onetako semeak ezkonduen dira, ta ezkontzan emoten dira: Baña mundu atan, ta illen arteko biztueran diñatzat eukiten dirianak, ezkonduko eztira, ez ezkonzan emongo dira.

Eta andik atxina ezin ilgo dira: zerren Angeruakaz bardiñak dira, ta Jangoikoaren semeak dira, biztuerako semeak direalako.

Eta illak biztuko diriala irakurri eztozue Moisesen libruan, Jangoikoak esan eban legez sasiaren ganean, ziñoala:

Ni nas Abranen Jangoikoa, ta Isak-aren Jangoikoa, ta Jakob-eren Jangoikoa?

Ezta illen Jangoikoa, ezpada biziena, zerren guztiak beretzat bizi dirian. Ta alan zuek uts egiten dozue asko.

Eta Eskribatarik batzuk eranzun eutsen, zirautsela: Maixua ederto esan dozu.

Eta jentek au enzunik, mirarrituten zirian bere dotrinaren.

Eta andik aurrera etzirian aurreratuten geiago itandutera.

9. IRAKURTZA

Jesusek erakusten dau zein dan mandamentuetarik lenena, ta bearrena.

BATERA San Mateok cap. 22. v. 34-40.

San Markosek cap. 12. v. 28-34.

Baña Fariseoak enzunik, ixildu eragin eutsela Saduzeoai, bildu zirian batzarran:

Eta disputa enzun eban legeko Jakitun euretarik bat eldu zan, ta iku-sirik, ain ondo eranzun eutsela, itandu eutsan tentautearren:

Maixua, zein da mandamentu andia legean? Aginduetarik lenengoa?

Eta Jesusek eranzun eutsan: Mandamentu guztietarik lenena da: Ara, Israel, zure Jangoikoa Jangoiko bat bakarra da:

Eta maitetuko dozu zeure Jangoikoa zeure biotz guztitik, zeure arima guztiaz, zeure borondate guztiaz, ta zeure indar guztiaz.

Au berau da agindu andiena, ta lenengoa.

Eta onen antzekoa da bigarrena: Maitetuko dozu zeuk zeu legez zeure lagun urkoa. Eztago oneek baño agindu andiagorik.

Mandamentu bi oneetan dagoz barruraturik lege guztia, ta Profetak.

Eta Eskribak esan eban: Maixua, egiaz esan dozu ondo, bat dala Jangoikoa, ta bera baño besterik eztago:

Eta maitetuteak bera biotz guztitik, ta adimentu guztiaz, ta borondate guztiaz, ta alegin guztiaz; ta amaduteak lagun projimoa geure burua legez, geiago balio dabela ofrenda-eskentza, ta sakrifizio guztiak baño.

Eta Jesusek ikusirik jakintsuro eranzun ebala, esan eutsan: Jangoikoaren Erreinutik etzagoz urrin. Ta etzan iñor azartuten geiago itandutera.



10. IRAKURTZA

Jesusek itanduten deutse Fariseoai, zelan adietan daben arako: Kristo da Dabiden Semea?

BATERA San Mateok cap. 22. v. 41-46.

San Markosek cap. 12. v. 35-37.

San Lukasek cap. 20. v. 41-44.

Eta Fariseoak batera egozala, Jesusek itandu eutsen; Esaten eutsela: Zer deritxazue Kristoren? Noren seme da? Eurak esan eutsen: Dabidena.

Eta Jesusek, Elexan irakasten egoala, eranzun eban, esanik: Zelan diñoie Eskribak Dabiden semea dala Kristo?

Bada Dabid berak Espiritu Santuak argiturik deituten deutso Jauna, diñoala Salmoen libruan:

Jaunak esan eutsan Jaunari: jarri zaite nire eskoatara.

Zure arerioak ifini daizadan artean zure oñeen jarlekutzat.

Bada Dabidek deituten badeutso Jauna, zelan da bere seme?

Eta txitik iñokpere ezin eranzun eutsan: ta egun atarik iñor azartu etzan ezer itandutera berari. Ta erriko jente makina batek gogo onaz enzuten eutsan.

11. IRAKURTZA

Jesusek agertuten ditu Fariseoen gaistakeriak; ta irakasten deutso jenteari aen esanak egitea, baña iñolako ez euren egiteak jarraitutea.

BATERA San Mateok cap. 23. v. 1-39.

San Markosek cap. 12. v. 38-40.

San Lukasek cap. 20. v. 45-47.

Orduan Jesusek berba egin eutsen erriari, ta bere dizipuluai, Bere dotrinan zirautsela: Moisesen Irakas-lekuan jarri zirian Eskriba, ta Fariseoak.

Corde, ta egizuez bada dirautsuezan gauza guztiak: baña ez eizue egin euren egitekoen erara: zergaiti tze esan bai, baña egiten eztabe.

Bada karga astun, ta eroan ezinak estu, ta ifinten ditue gizonen solbarda ganean: baña eurak ezta atz bategaz bere mugitu gura eztabe.

Euren egikera guztiak egiten ditue gizonak ikusi daizentzat.

Corde zaiteze Eskribatarik, bada onek jantziera luzeakaz ibilli gura oi dabe; ta alan zabalduten ditue zinta luzeak, ta arrotuten ditue euren franjak.

Afarietan maite ditue lenengo jarlekuak, ta lenengo aurkiak Batzarretan;

Eta agur onak enzutea, leku agirietan, ta gizonak deitu daioen Maixuak.

Irunsiten ditue andra alargunen etxeak, oraziño luzeen atxakiaz, irudirazorik oraziño luzeak. Onek artuko dabe kondenaziño andiagoa, gogortasun andiagoaz izango dira juzgatuak.

Zuek barriz eztozue gura izan bear deitu zaiezan Maixuak: bada bat bakarra da zuen Maixua, ta zuek guztiok anajeak zaree.

Eta iñori deitu ez eiozue zeuroen Aita lurraren ganean: bada bat da zuen Aita, Zeruetan dagoana.

Eta etzaitze deitu Maixuak: bada bat da zuen Maixua, Kristo.

Nagusiago dana zuen artean, izango da zuen serbitzaria. Zergaiti tze goragotuten dana, humildua izango da: ta humilduten dana, andizkatua izango da.



Ai zuek Eskriba, ta Fariseo guzurtiak irunsiten dozuezanak alarguen etxeak, oraziño luzeak eginik: beragaiti artuko dozue juizio estuago bat!

Ai zuek Eskriba, ta Fariseo hipokritak; zerren itxasoa, ta lurra inguratuten dozuez kanpotar bat zeuroktarra egiteko: ta egin ezker, egiten dozue zuek baño bi bider diñago Infernurako!

Ai zuek, itsu-aurrekoak, esaten dozuenak: Tenplua gaiti juramentu egitea utsa da: baño Tenpluko urrea gaiti juramentu egiten dabena, zordun da!

Barbullo, ta itsuak! Zer da andiago, urrea, ala urrea santututen dabena Tenplua?

Eta Altarea gaiti juramentu egitea, ezer ezta: baño juramentu egiten dabena Aldaran dagoan ofrenda gaiti, zordun da.

Itsuak: Zein da andiago, ofrenda, ala Aldarea eskentza santututen dabena?

Altarea gaitik bada juramentuten dabena, juramentu egiten dau bera gaiti, ta bere ganean dagozan gauza guztiak gaiti.

Eta Tenplua gaiti juramentu egiten dabena, juramentuten dau bera gaiti, ta beragan bizi dana gaiti:

Eta Zerua gaiti juramentu egiten dabena, juramentuten dau Jan-goikoaren Jarlekua gaiti, ta bertan jarririk dagoana gaiti.

Ai zuek Eskriba, ta Fariseo hipokritak, amarrena pagetan dozuenak batana, ezamillua, kominua, ta hortu-bedarrak, ta larga dozuez bearrago diran gauza legekoak, justizia, errukitasuna, ta fedea! Gauzok egin bear zirian, ta ez itxi aek besteak.

Gida zuzenbidegille itsuak, eltxo bat irazi, baño gamelu bat irunsiten dozuenak.

Ai zuek Eskriba, ta Fariseo irudintzalle utsak, edontziak, ta platerak kanpotik garbituten dozuezanak: baño barrutik zagoze lapurreta, ta zikin-keriaz beterik.

Fariseo itsua, garbitu egizu lenengo ontzi, ta plater barrua, kanpotik dagoana garbia izan dedin.

Ai zuek Eskriba, ta Fariseo guzurtiak, dirudizuenak sepultura zuri-tuai, kanpotik eder gizonen begietan, baño barrutik illen azur ta kiratstasun guztiz beterik dagozanak!

Alan zuek bere kanpotik erakusten zaree egiaz ederrak gizonai; ta barruan zagoze finjimentuz, ta gaistakeriaz beterik.

Ai zuek Eskriba, ta Fariseo finjitzalle utsak, egiten dozuezanak Profeteen sepulturak, ta azur-tokiak apainduten dozuezanak!

Eta diñozue: Gure aita-aurrenen egunetan baldin gu bizi izan bagiaña, ez geuntsen lagunduko ilten Profetak.

Eta alan zeurok zeuroen testimonioa emoten dozue, Profetak il zituezanen semeak zareala.

Zuek bere bada bete egizue zeuroen gurasoen neurria.

Sierpeak, suge-kumeak, zelan iges egingo dozue Infernuaren juiziotik?

Beragaiti bada ara zelan biralduten deusuedazan Profetak, ta Jakitunak, ta Letradunak, ta euretarik ilgo dozuez, ta krutzean josiko dozuez, ta euroetarik zeuroen Batzarretan azotauko dozuez, ta persegituko dozuez erritik errira.

Zuen ganera etorri dedin lurraren ganean bota dan odol errubage gutzia, Abel justuaren odoletik Zakarias Barakiasen semearen odola giño, zein il zenduen tenplu, ta altarearen bitartean.

Egiaz dirautsuet, gauza guztiok etorriko diriala jente-kasta onen ganera.

Jerusalen, Jerusalem, Profetak ilten dozuzana, ta arrika egiten deusazuena, zugana biralduak dirianai, zeinbat bider bildu gura izan eztozaz zure semeak, olloak bere egapean bere txitak batuten dituan legez, ta zuk gura etzenduan?

Aror bada non zuen etxea bakarturik geldituko jatzuen.

Bada dirautsuet, orainganik geiago ikusiko ez nozuela; zuek esan arteraño: Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.



12. IRAKURTZA

**Jesusek alabetan dau bere diru bi diru-tokian
bota zituan alargun pobrea.**

BATERA San Markosek cap. 12. v. 41-44.

San Lukasek cap. 21. v. 1-4. ta 37-38.

Eta Jesus jarririk egoala ofrenda-utxaren aurrean, begira egoan zelan jenteak an botaten zituezan diruak.

Eta aberats askok asko ezarten eben.

Baitabere ikusi eban andra alargun pobretxo batek botaten zituela diru txiki bi, txuriko bien baliokoak.

Eta deiturik bere dizipuluai, esan eutsen: Egiaz dirautsuet, beste bota eben guztiak baño onexek alargun beartu onek geiago ezarri dau diru-zepoan.

Bada guztiak bota dabe an sobra euki dabenetik; baño onek berak bear izan dabenetik, bere igaropidetik.

Eta egunez egoan irakasten Elexan; ta gaubez urten, ta igaroten eban Olibete eritxon basoan.

Eta goxean goxeti etorren jentea, berari entzute arren Elexan.

13. IRAKURTZA

**Jesusek dirautse bere ikasleai Jerusalemgo Tenplua
banatua izango dala: eurak persegituak
izango diriala: ta geroko denporetan
Profeta guzurtiak jagiko diriala.**

BATERA San Mateok cap. 24. v. 1-14.

San Markosek cap. 13. v. 1-13.

San Lukasek cap. 21. v. 5-19.

Eta urten ezkeru Jesus Tenplutik, aldegiten zan. Ta bere dizipuluak beragana eldu zirian, Tenpluko ikusgarriak erakusteko.

Eta batzuk ziñoela, Tenplua egoala arri preziatuaz, ta doez apaindurik:

Bere dizipuluetarik batek esan eutsan: Maixua, begira ze arriak, ta ze apaindurak.

Eta Jesusek eranzun eutsen, esanik: Bakusue au guzti au? obra andi miragarriok?

Egiaz dirautsuet: Etorriko diriala egunak, zeñetan emen geldituko eztan arririk arriaren ganean, banatuko eztanik.

Eta Olibeteko mendian arpegiz Tenplura egoala jarririk, etorri zirian beragana bere dizipuluak ixilka,

Ta Pedro, ta Santiago, ta Juanek, ta Andresek ixilean itandu eutsen, zirautsela: Maixua;

Esan eiguzu: nos izango dira gauzok? ta ze señale izango da gauzok beteten asten dirianean?

Eta ze señale agertuko da zure etorreran, ta munduaren akaberan?

Eta Jesusek eranzun, ta esan eutsen: Begira, iñok engañau etzaizen.

Bada asko etorriko dira nire izenean, esango dabenak: Ni nas Kris-to: ta denporea ur dago, ta asko engañauro ditue: Kontu bada ez joatean, euren atzean.

Eta danzuzuezaneean gerrak, ta gerren barriak, ta alborotoak, begira ikaratu etzaiteezan: bada konbeni da au egin dedin; baño ezta izango bereala azkena.

Orduan zirautsen eurai: Eregiko da jentea jentearen kontra, ta Erreinu-ua Erreinuaren kontra.



Eta errietan izango dira lur-ikara andiak, ta gaixotasunak, ta goseak, ta izango dira Zerutik gauza arrigarriak, ta señaie andiak.

Eta gauza guztiok min andien asierak dira.

Baña guzti au baño lenago, preso artuko zaitue, ta persegitu, emoten zaituezala Batzarretara, ta presondegiatara.

Baña gorde egizue zueuroen buruak. Bada entregauko zaitue Batzar-kuntzetara, ta azotauko zaitue Batzarretan, ta agertu bearko dozue nire izena gaiti Agintari, ta Erregen aurrera.

Ta au jazoko jatzue egiatasuna gaiti.

Euki egizue bada gogoan entregetara zaroezanean, ez asmetea lena-go, zelan eranzungo dozuen.

Baña esazue emoten jatzuena ordu atan.

Baña nik emongo deutsuet aoa, ta jakituria, zeñi ezin jaurterazo, ta kontraesango deutsen zuen arerioak.

Zerren zuek etzaree berba egiten dozuenak, ezpada Espiritu Santuak.

Eta anajeak anajea emongo dau eriotzara, ta aitik semea: ta semeak jagiko dira euren gurasoen kontra, ta il eragingo ditue.

Eta zeuroen gurasoak, ta anajeak, ta senideak, ta adiskidak entre-gauko zaitue naigabera, ta il erazoko ditue zuetarik batzuk.

Eta guztiak gorroto izango zaitue nire izena gaiti.

Baña zuen buruko ulle bat bere galduko ezta.

Eta askok orduan bekatu-bidea artuko dabe, ta alkar entregauko dira, ta euren artean ezin ikusi izango dira batak bestea.

Eta eregiko dira Profeta guzurti asko, ta asko engañoauko ditue.

Eta zerren askotuko dan gaistakeria, otzituko da askoen karidadea.

Baña dirauanak, ta sufrietan dabenak azkeneraño, au salbauko da.

Zeuroen pazienziaz jabetuko zaree zeuroen arimaz.

Eta Erreinuko Ebanjelio au mundu guztian predikauko jake jente guztiai: ta orduan etorriko da azkena.

14. IRAKURTZA

Jesusek erakusten ditu Jerusalem galduko danaren señaieak ta Juizio egunekoak.

BATERA San Mateok cap. 24. v. 15-51.

San Markosek cap. 13. v. 14-37.

San Lukasek cap. 21. v. 20-36.

Dakutsuenean bada Jerusalem ekersituz inguraturik, jakin eizue ur dagoala orduan bere ondagarria:

Beragaiti bada dakusuenean Daniel Profetak adirazo eban ondame-di nazkagarria dagoala egon bear eztaben leku santuan: aditu begi, irakurten dabenak.

Orduan Judean dagozanak iges egin begie mendietara: ta bere erdian dagozanak urten begie: ta kanpoetan dagozanak sartu ez beitez bertara.

Eta tellatu ganean dagoana, jatsi ezpidi bere etxera, ez eta sartu bere zerbait aterateko bere etxetik:

Eta soloan dagoana biurtu ez bidi atzera, bere soñekoa artuteko.

Zerren egunok benganazkoak dira, bete ditezen eskribiturik dago-zan gauza guztiak.

Ai seindun dirianen, ta ugazamakaz egun aetan! Erregutu egizue bada, zuen iges egitea jazo eztidin ez neguan, ez jaiegunean.

Bada egun aetan izango dira ain atsekaba andiak, eze, Jangoikoak kriaturak sortu zituazanetik oraingño orrelangorik izan ezta, ez sekula izango bere.

Bada estura andia izango da lurraren ganean, ta aserrea erri onen-tzat.

Eta jausiko dira ezpataren ao zorrotzean: ta esturik katigu eroango ditue Erbeste guztietara, ta Jentilak oñazpituko dabe Jerusalem: Jenteen denporak bete arteraño.

Eta baldin Jaunak ezpalitu laburtuko aek egunak: bizi danik salbau-ko ez liteke: baño Jangoikoak autu zituan autuak gaiti, laburtu zituan aek egunak.

Orduan iñok esaten badeutsue: Ara non dagoan Kristo emen, edo an, sinistu ez egizue:



Zergaiti tze jagiko dira Kristo falsoak, ta Profeta guzurrezkoak, ta egingo ditue señaile andiak, ta ikusgarri miragarriak: alangoz eze, al baliz, santuak bere jausiko litekez errakuntzan.

Kontuan zagoze bada: ondo dakusue lenagotik guztia esan deutsue-dala.

Badirautsue bada: Ara non dagoan ermuon, ez egizue urten: ara non dagoan etxeko ezkutuenean, ez eiozue sinistu.

Bada oñeztu-argia eguzki-jaiotzetik urten, ta sartaldean agertuten dan legez: alan izango da gizonaren Semearen etorrerea bere.

Bada non gorputza dagoan, an batuten dira arrañoak bere.

Eta señaileak izango dira Eguzkian, ta Illargian, ta izerretan; ta lurrean jenteen estura, itxaso, ta beronen olatuak emongo dituen ots bildurgarriak gaiti.

Geldituten diriala gizonak ikaraz igarturik, mundu guztiari jazoko jakana itxadotea gaiti.

Eta egun aetako larritasunaren ostean, eguzkia ilunduko da, ta Illargiak argirik emongo eztau, ta Zerutik izarrak jausiko dira, ta Zeruko Birtuteak mugituko dira.

Eta orduan agertuko da Zeruan gizonaren Semearen señailea: ta orduan lurreko jente guztiak negar egingo dabe.

Ta orduan ikusiko dabe gizonaren Semea datorrela Zeruko odoietan agintaritza andiaz, ta gloriáz, ta anditasunaz.

Eta biralduko ditu bere Angeruak tronpetakaz, ta dedar andiaz: ta batuko ditue lau axeeatik bere autuak Zeru goienetik euren kabugño.

Gauzok bada betetan asten dirianean, begira, ta zeuroen buruak jaso egizuez: zerren ur dago zuen erredenziño erospena.

Eta antz-irudin bat esan eutsen: Begira ikoari; bere adarrak samur dagozanean, ta bere orriak jaioten dirianean, ta arbola guztiak:

Berezko frutua emoten dabenean, dakizue, urrean dagoala udea.

Alan zuek bere dakusuenean, gauza guztiok egin diriala, jakin eizue, ateetan, ur dagoala Jangoikoaren Erreinua.

Egiaz dirautsuet, eztala igaroko mundu au, gauza guztiok bete arte-raño.

Zerua, ta lurra igaroko dira; baña nire berbak igaroko eztira.

Baña nos izango dan a eguna, ta ordua iñopere eztaki, ez Zeruko Angeruak, ez Semeak, ezpada bakarrik Aitak. Begira bada, bigirian zagoze, ta oraziño egizue: bada eztakizue, nos izango dan denpora au.

Kontu zeurokaz, zeuroen biotzak astundu eztitezen geiegi jateaz, ta edateaz, ta bizitza onetako ardurakaz: ta ustebaga beingoan zuen ganera a eguna etorri eztidin.

Irazarririk zagoze bada, denpora guztian oraziñora emonik, merezi daizuen aldegitza gauza guztiok, gizonaren Semearen aurrean izan, ta zutik egongo dirianok.

Eta Noe-ren egunetan jazo zan legez, alan izango da gizonaren Semearen etorrerea bere.

Bada uriola baño lenago jan edanetan egozan legez, ezkontuten zirian, ta euren semeak ezkontuten zituezan Noe Utxa-ontzian sartu zan egun artaraño legez,

Eta aditu ez eben ugoldea etorri, ta guztiak eroan artean: alan izango da gizonaren Semearen etorrerea bere.

Orduan bi egongo dira soloan: bata eroango da, ta bestea geldituko da.

Errota baten andra bik eioko dabe: bata eroango da, ta bestea gertutuko da.

Irazarrik zagoze bada, zerren eztakizue ze ordutan zuen Jauna etorriko dan.

Baña jakin egizue ze, etxeko Nagusiak baleki, ze ordutan lapurra etorriko dan, bigirian egongo liteke dudarik bago, ta itxiko ez leuka etxea zulututen.

Beragaitik bada prest-abiaturik egon zaitezue zuek bere, zerren nos eta gitxiago uste dozuen, etorriko da gizonaren Semea.

Nor dala uste dozue bere Jaunak ifini eban serbitzari men, ta zurra bere etxekoen ganean, jaten emon dagioen onei bere denporan?

Zorionekoa, bere Jauna datorrenean, alan egiten idoroten daben serbitzari a.

Egiaz dirautsuet, ifiniko dabela au bere ondasun guztien ganean.

Baña serbitzari gaisto ak esango baleu bere biotzean: Ezta oraindiño etorriko nire Jauna:

Ta asiko balitz manatuten bere lagunak, ta jaten, ta edaten ordituten dirianakaz:

Etorriko da serbitzari onen Nagusia itxadoten ez eban egunean, ta eztakian orduan:

Ta alderagingo dau, ta bere zatia ifiniko dau gaistoakaz. An izango da negarra, ta agin karraskada.



Urrinera joan zan gizon batek legez, zeñek larga eban bere etxea, ta bere otsein bakotxari agindu eutsan egin bear eban guztia, ta ate-zainari esan eutsan bigirian egon zedilla.

Irazarririk zagoze bada, zerren eztakizuen nos etorriko dan etxe-jabea: ala ilunzan, ala gauberdian, ala ollar-kantuan, ala goxean.

Jazo eztidin ustekaban etorririk, zuek lo idorotea.

Zuei dirautsuedana, guztiai dirautset: Bigiran zagoze.

15. IRAKURTZA

**Kontuan gagozala dirausku Jesusek:
ta onetarako erakusten ditu amar Birjiñen,
ta ondasun emonen irudinak,
ta bakotxari emongo jakon bear-saria.**

San Mateok cap. 25. v. 1-46.

Orduan Zeruetao Erreinua izango da amar Birjiñeen antzekoa, zeintzuk artu ezkeru euren argi-ontziak, urten eutsen bidera Esposoari, ta Esposari.

Baña euretarik bostak zirian ganorabakoak, ta beste bostak zurzoliak:

Ganorabako bostak artu ezkeru argi-ontziak, ez eben eroan eurakaz oriorik.

Zurzoliak barriz argi-ontziakaz batera artu eben orioa euren ontzietan.

Eta zelan etzan agiri Esposoa berandugiño, loak artu, ta lo egin eben guztiak.

Baña aror non gauberdian enzun zan dedarka bat: Aramen non datorren Esposoa, urten eiozue bidera.

Onetan aek Birjiña guztiak jagi zirian, ta prestatu zituezan euren argi-ontziak.

Eta eroak zurrai esan eutsen: Iguzue zuen oriotik, zerren gure argi-ontziak amatetara doaz:

Ta zur begiratuak eranzun eutsen, esanik: Bear bada ezta asko izango guretzat, ta zuentzat, eta alan zoaze salduten dan lekura, ta erosi egizue zeuroentzat.

Erostera joan zirian bitartean, Esposoa etorri zan: ta prestaturik egozanak sartu zirian beragaz ezteguetara, ta atea itxi zan.

Geroago beste Donzellak bere etorri zirian ziñoela: Jauna, Jauna, idigi eiguzu.

Berak eranzun eutsen, esanik: Egiaz dirautsuet, ezazaudezala.

Bigirian zagoze bada, eztakizuelako eguna, ez ordua.

Bada alan da gizon bat legez, zeñek urteteen bere erritik urrin batera, deitu bere serbitzariak, ta bere ondasunak eurai emon eutsezan:



Ta bati emon eutsazan bost diru, beste bati bi, ta irugarrenari bat emon eutsan, baktxari bere gaiaren erara; ta bertati joan zan.

Bost diru artu zituana, joan zan eurekaz irabaztera saldu-erosietan, ta beste bost irabazi zituan.

Baitabere bi artu zituana, beste bi irabazi zituan.

Baña bat artu ebana, joan zan, ta atxurtu eban lurra, ta an gorde eban bere Jabearen dirua.

Andik denpora luze barru serbitzari aen Nagusia etorri zan, ta deiegin eutsen kontuak emotera.

Eta eldurik bost diru artu zituana, emon eutsazan beste bost diru, zirautsala: Jauna, bost diru emon zeustazan, aror eurakaz irabazi dodazan beste bost geiago.

Eta Nagusiak esan eutsan: Ondo, serbitzari ona, ta zuzen-mena; gitxian arteza izan zarealako, askoren ganean ifiniko zaitut, sartu zaite zeure Jaunaren gozotasunean.

Baita eldu zan onelan diru bi artu zituana, ta esan eban: Jauna diru bi emon zeustazan, orra bada eurakaz irabazi dodazan beste biak.

Bere Nagusiak esan eutsan: Ondo dago, serbitzari on, ta zuzena: gitxian mena izan zarealako, askoren ganean ifiniko zaitut, sartzaite zeure Jaunaren pozkarian.

Etorri zan diru bakarra artu izan ebana, ta esan eban: Jauna dakit aldi gogor txarrekoa zareala, igitaituten dozu non erein etzenduan, ta batu-bildu non zabaldu etzenduan:

Beragaiti bildur nintzan, ta joan nintzan ezkutatzera lurpean zure dirua: aramen non dozun zeurea.

Eta bere Nagusiak eranzun eutsan, esanik: serbitzari gaisto, ta nagia, bazenkan igitaituten dodala erein ez nebana, ta bildu non zabaldu eneban:

Bada emon bear zeuntsen tratulariai nire dirua, ta nik etorri ezkeru artuko neban ziur irabazteakaz nirea zana.

Kendu eiozue bada dirua, ta emon eiozue amar diru dituanari.

Bada daukanari emongo jako, ta ugarituko da: baño eztaukanari, kenduko jako daukala uste dabena bere.

Eta alan serbitzari gaiezau bota egizue kanpoko iluntasuneetara: an izango da negarra, ta agin-irringa.

Eta barriz gizonaren Semea datorrenean bere anditasunean, ta bera-gaz Angeru guztiak, orduan jarriko da bere jarleku andientsuan:

Eta jente guztiak bere aurrean batuko dira, ta aldegingo ditu batzuk besteetarik, Arzainak aldegiten dituan legez ardiak aumeetarik:

Ta ardiak ifiniko ditu bere eskoatara, ta aumeak bere ezkerretara.

Orduan Erregeak esango deutse bere eskoatara dagozanai: Erdue, nire Aitaren bedeinkatuak, gozatu egizue mundua danetik prestatuak jagotzuen Erreinua:

Zerren gose nintzan eta jaten emon zeunsteen: egarri nintzan, ta emon zeunsteen edaten: kanpotarra nintzan, ta emon zeunsten ostatua:

Billosik nengoan, ta janzi ninduzuen: gaixorik, ta ikusi ninduzuen: preso, ta etorri ziñen ni ikustera.

Onak orduan eranzun, ta esango deutse: Jauna, nos ikusi zindugun goseak illik, ta jaten emon geuntsun: edo egarturik, ta edaten emon geuntsun?

Eta nos ikusi zinduguzan ostatua eske, ta artu zindugun: edo billosik, ta janzi zindugun?

Edo nos ikusi zenduguzan gaixorik, edo preso, ta joan ginian zu ikustera?

Eta Erregeak eranzunik esango deutse: Egiaz dirautsuet, nire anaje txikiak egin zeuntsena, niri egin zeunstela.

Orduan ezkerretara dagozanai bere esango deutse: Zoaze niganik madarikatuak deabru, ta beronen Angeruentzat prestatuak dagoan sutege betikora.

Bada gose nintzan, ta ez zeunsten jatekorik emon; egarri nintzan, ta ezeunsten edatekorik emon:

Ostatu eske nengoan, ta emon ezeunsten: billosik nengoan, ta janzi ez ninduzuen: gaixorik, ta preso, ta ikusi ez ninduzuen.

Orduan eurak bere eranzungo deutse, esanik: Jauna, nos ikusi zinduguzan goseak, edo egarriak illik, edo ostatua eskatuten, edo billosik, edo gaixorik, edo presondegian, ta ez zinduguzan serbidu?

Orduan eranzungo deutse, dirautsela: Benetan dirautsuet: nire txiki-txo oneetatik bati egin ez zeuntsena, niri bere egin ez zeunsteela.

Eta oneek joango dira betibetiko nekaldietara: ta Justuak barriz betiko iraungo dabena bizitzara.



16. IRAKURTZA

Konpontzen da Judas Sazerdoteen Nagusiakaz eurai entregetako Jesus bere Maixua.

*BATERA San Mateok cap. 26. v. 1-5. 14-16.
San Markosek cap. 14. v. 1-2-10-11.
San Lukasek cap. 22. v. 1-6.*

Laster zan Txantxadure bageko Pazkoa deituten dana.
Eta Jesusek esateok azkendu zituanean, esan eutsen bere ikasleai:
Bakizue egun bien ondoan izango dala Pazkoa, ta gizonaren Semea
izango da entregatua krutzean josi dagien.

Eta Sazerdoteen Nagusiak, ta Eskribak ebiltzen asmetan zelan Jesus
ilgo eben.

Orduan batu zirian Sazerdoteen Buruak, ta erriko Agintariak Kaifas
eritxon Sazerdote nagusiaren Jauregian.

Eta euren batzarran berba egin eben, zelan Jesus lotu, ta il erazoko
eben: baña erriaren bildur zirian.

Baña ziñoen: Ez jaiegunean, jazo eztidin errian alborotoren bat.

Eta Judas, izen gaistoz Iskariotes eritxon, amabietarik bategan sartu
zan Satanas.

Eta Sazerdoten Nagusietara joan zan, eurai salduteko Jesus.

Eta Sazerdoten Buruakaz, ta Agintariakaz berba egin eban, ea zelan
eurai eskura emongo eutsen;

Ta esan eutsen: Nik zuei au entregetarren, zeinbat emon gura deus-
tazue?

Eurak enzun ebenean poztu zirian, ta agindu eutsen emongo eutse-
la dirua. Ta eurak promestu eutsezan ogeta amar zidarrezko diru.

Eta ondodagoan eurakaz gelditu zan. Ta ordureanik ebillan okasiño
billa entregetako jenteak batu baga.

17. IRAKURTZA

Apostoluak prestetan dabe Pazkoarako bear dana, ta Jesusek afalduten dau eurakaz.

*BATERA San Mateok cap. 26. v. 17-20.
San Markosek cap. 14. v. 12-17.
San Lukasek cap. 22. v. 7-18.*

Txantxaduria-bageko lenengo egunean, zeñetan il bear zan Pazkoa:
Eldu zirian Apostoluak Jesusgana, ta esan eutsen: Nora gura dozu
joan gaitezen prestatuta, Pazkoa jan daizun?

Eta biralduten ditu bere Apostoluetarik bi Pedro, ta Juan, zirautsela:
Zoaze Pazkoa maneatutera, jan daigun.

Eta eurak esan eben: Non gurozu dispondu daigun?

Eta esan eutsen: Zoaze Urira, ta bertan sartu ta bertati idoroko
dozue gizon bat ur-ontzi bat daroala, jarraiozue sartzen dan etxe giño:

Eta non sartuten dan, esaiozue etxe-buruari: Maixuak dirautsu:

Nire denporea ur dago; zure etxean eukiko dot Pazkoa nire dizipu-
luakaz. Non da jate-lekua? Non dago Pazkoa nire dizipuluakaz jango dan
sala, edo aposentua?

Eta berak erakusiko deusue afal-leku andi bat, apaindurik: an prest
euki egizuez gauzak guretzat.

Eta urten eben dizipuluak, ta Urira joan zirian; ta idoro eben esan
eutsen legez.

Ta dizipuluak Jesusen agindua egin eben; ta prestatu eben Pazkoa.

Eta arrastegia eldurik ara joan zan amabiakaz.

Eta ordua zanean maian jarri zan, ta beragaz amabi Apostoluak.

Ta esan eutsen: Ondo asko deseatu izan dot zuekaz au Pazkoau jatea
il baño len.

Bada dirautsuet, emendik aurrera beste bein jango eztodala Jangoi-
koaren Erreinua eldu arteraño.

Ta kaliza arturik, esker onak emon, ta esan eban: Artu eizue, ta batak
besteari emon zeuroen artean.

Bada dirautsuet, eztodala geiago edango matsaren edaririk, etorri
arteraño Jangoikoaren Erreinua.



18. IRAKURTZA

Komuniño santua baño len jagiten da Jesus afal-maitik, ta garbituten ditu bere dizipuluen oñak.

San Juanek cap. 13. v. 1-17.

Pazkoako jaieguna baño lenago, jakinik Jesusek, etorri zala mundu onetarik bere Aitagana igaroteko bere ordua: maitetu izan ezker munduan egozan bereak, maitetu zituan azkenegiño.

Eta afaria eginik, deabruak ifini ezker Judas Simon Iskariotesen semearen biotzean, saldu egiala:

Jesusek jakinik Aitak gauza guztiak bere eskuetan ifini zituala, ta Jangoikoaganik urten ebalat, ta Jangoikoagana joiala:

Afaritik jagi zan, ta bere soñekoak kendu zituan, ta esku-zamau bat arturik, ingurutu eban garririk.

Bota eban gero ura ur-ontzi baten, ta asi zan garbituten bere dizipuluen oñak, ta leortuten inguraturik eukan esku-zamauaz.

Etorri zan bada Simon Pedrogana. Ta Pedrok dirautso: Jauna, zuk niri oñak garbituten deustazuz?

Jesusek eranzun eutsan, esanik: Orain zuk eztakizu, nik egiten dodana, baña gero jakingo dozu.

Pedrok dirautso: Sekula oñik garbituko ezteustazu. Jesusek eranzun eutsan: Garbituten ezpazaitut, eztozu nigan parterik eukiko.

Simon Pedrok dirautso: Jauna, ez bakarrik nire oñak, baita bere eskuak, ta burua.

Jesusek dirautso: Garbi dagoanak, oñak garbitutea baño besterik bear eztau, bada guztia dago garbirik. Ta zuek garbi zagoze, baña ez guztiak.

Ekialako nok salduko eban, orregaiti esan eban: Ez zagoze guztiak garbi.

Eta euren oñak garbitu ezker, bere soñekoak arturik, ta barrero maian jarririk, esan eutsen: Bakizue zer egin dodan zuekaz?

Zuek deituten deustazue Maixua, ta Jauna: ta ondo diñozue: alantxe nas.

Bada nik zuen Jaun, ta Maixu onek garbitu badeutsuedaz oñak: zuek bere batak besteari oñak garbitu bear deutzazue.

Jarraibidea bada emon deutzuet, nik zuekaz egin dodan legez, zuek bere egin daizuen.

Egi egiaz dirautsuet: eztala otseña bere Ugazaba baño geiago: ez eta biraldua bere ezta biraldu dabena baño andiago.

Baldin au badakizue, zorionekoak izango zaree, egiten badozue.



19. IRAKURTZA

Maian jarririk dagoala Jesusek adirazoten dau, beragaz egozanetarik batek salduko dabela.

BATERA San Mateok cap. 26. v. 21-25.

San Markosek cap. 14. v. 18-21.

San Lukasek cap. 22. v. 21-23.

San Juanek cap. 13. v. 18-32.

Eztiñot zuek guztiok gaiti: bakit nortzuk autu nituan: baña bete dedin Eskriturea: Nigaz ogia jaten dabenak, jasoko dau bere orpoa nire kontra.

Orainganik dirautsuet, jazo baño len, egin dedinean, sinistu daizuen ni nasala.

Egi egiaz dirautsuet: Artuten dabenak nik biralduten dodana, neu artuten nau: ta ni artuten nabenak artuten dau ni biraldu ninduana.

Jesusek au esan ebanean ikaratu zan espirituan: ta protesta egin eban,

Eta maian jarririk, ta jaten egozala, esan eban: Aramen non dagoan maian ni entregauko nabenaren eskua.

Egiaz, egiaz dirautsuet: zuetarik nigaz jaten dagoan batek entregauko nabela.

Ta dizipuluak alkar begira egozan, dudan nogaiti ziñoan.

Ta eurak guztiz tristeturik, asi zan bakotxa esaten: Menturaz nas ni, Jauna?

Eta berak eranzun, ta esan eban: Amabietarik nigaz eskua platerean sartuten daben batek, onek ni entregauko nau.

Ta gizonaren Semea doa egiaz, bera gaiti eskribidurik dagon legez.

Baña ai a gizona, zeñegaiti gizonaren Semea besten eskura emona izango dan! Obe zan beretzat, a gizona sekula jaio ezpaliz bere.

Eta Judas saldu ebanak eranzunik, esan eban: Maixua, menturaz nas ni ori? Eranzun eutsan: Zeuk esan dozu.

Eta eurak euren artean asi zirian batak besteari itanduten, zein euretarik izango ete zan au egingo ebana.

San Juanek an.

Eta Jesusek maite eban bere dizipuluetarik bat egoan etxunik maian Jesusen besartean.

Simon Pedrok kiñada bat egin, ta esan eutsan: Nor da diñoana?

Berak orduan etxunik Jesusen bular ganean, esan eutsan: Jauna, nor da?

Jesusek eranzun eutsan: Nik ogia bustirik emoten deusadana a bera da. Ta bustirik ogia emon eutsan Judas Simon Iskariotesen semeari.

Eta kopauaren atzean sartu zan Satanas beragan. Ta Jesusek esan eutsan: Egiten dozuna, egizu laster.

Baña maian egozanetarik iñok ez ekian zergaiti zirautsan.

Bada batzuk uste izan eben, Judasek diru-bolsa erabillalako, esan eutsala Jesusek: Erosi egizu Pazkoarako bear doguna: edo zerbait pobreai emon egioela.

Eta berak kopaua artu ebanean, kanpora urten eban. Ta gauba zan.

Eta berak urten ezkerro, esan eban Jesusek: Orain da gloriatua gizonaren Semea, ta Jangoikoa da andizkatua beronegan.

Baldin Jangoikoa beronegan doatsututen bada, berak bere berau zorionduko dau beragan, ta laster andizkatuko dau.



20. IRAKURTZA

Jesusek egiten dau Komuniñoko Sakramentu adoragarria.

BATERA San Mateok cap. 26. v. 26-30.

San Markosek cap. 14. v. 22-26.

San Lukasek cap. 22. v. 19-20.

Eta eurak afaldu ezkeru artu eban Jesusek ogia,
Eta esker onak emonik bedeinkatu, ta zatitu eban; ta bere dizipuluai
emon eutsen, esanik: Artu, ta jan egizue:

Au da nire gorputza zuek gaiti emoten dana: au egizue nire gomutean.

Baitabere arturik kaliza afaldu ezkeru,

Graziak emon zituan, ta eurai emon eutsen, ziñoala: Onetarik guztiok edaizue. Ta guztiak edan eben atarik.

Ta esan eutsen: Bada au da nire odola, testamentu barrikoa asko gaiti ixuriko dana, bekatuen parkamentuan.

Ta dirautsuet: gaurgeiago edango eztodala mats-frutu onetarik arako egunera artean, zeñetan zuekaz barria edango dodan Jangoiko nire Aitaren Erreinuan.

Eta himno-alabanza esanik urten eben Olibeteko mendira.

21. IRAKURTZA

Apostoluen artean jagi zan disputa bat zein andiago izango zan euretarik geldituten dau Jesusek: ta adirazoten deutse euren igeska gauba atan, ta San Pedoren ukaerea.

San Lukasek cap. 22. v. 24-38.

Baitabere euren artean jagi zan errieta bat, ea zein euretarik eukiko zan andiagotzat.

Eta Jesusek esan eutsen: Jenteen Erregeak euren Jaunak dira, ta euren ganean agintaritzta daukenak, ongillak dira deituak.

Baña zuek ez orrela: ezpada zuen artean andiago dana, egin bidi txikia legez: ta aurrenean dagoana, serbietan dagoana legez.

Bada zein da andiago, maian jarririk dagoana, ala serbietan dabena? ezta andiago maian jarririk dagoana? Ni nago bada zuen erdian serbiduten dabena legez.

Baña zuek zaree nigaz iraun dozuenak nire tentaziñoetan.

Eta orregaiti nik disponduten dot Erreinua zuentzat, nire Aitak niretzat prestatu eban legez berau;

Nire maian nire Erreinuan jan, ta edan daizuen: ta jarri zaitezen jarleku ganeetan Israelgo amabi Probinziak juzgetako.

San Juanek cap. 13. v. 33-38.

Semetxoak oraindiño zuekaz nago puska baten. Billatuko nozue, ta Judeguai esan neutsen legez: Ni orain noian lekura, zuek ezin etorri zintekenez: ori berori dirautsuet orain zuei.

Mandamentu barri bat emoten deutsuet: Alkar batak bestea maitetu zaitela, nik maitetu zaituedazan legez, zuek bere zeuroen artean maitetu zaitezentzat.

Onetan guztiak ezagutuko dabe nire dizipulua zarea, maitetasuna badozue zuen artean.

Simon Pedrok esan eutsan: Jauna, nora zoaz? Jesusek eranzun eban: Ni orain noian lekura ezin jarraitu ziñeit orain; baño gero jarraituko deustazu.



Pedrok dirautso: Zergaiti orain ezin jarraitu neizu? Zu gaiti neure bizitzea ifiniko dot.

San Lukasek an.

Eta Jaunak esan eban: Simon, Simon, ara Satanasek eskatu zaitue garia legez galbaituteko.

Baña nik erregutu dot zugaiti utsegin eztaian zure fedea: ta zuk bein biurturik sendotu egizuz zeure anajeak.

BATERA San Mateok cap. 26. v. 31-35.

San Markosek cap. 14. v. 27-31.

Orduan Jesusek esan eutsen: Zuek guztiok gauba onetan uts egingo dozue nigan, bada eskribidurik dago: Joko dot Arzaina, ta zabalduko dira bere taldeko ardiak.

Baña biztu nadinean illen arterik, zuek baño lenago egongo nas Galilean.

Pedrok eranzun, ta esan eutsan: Baldin guztiak uts egiten badabe bere zugar, nik ez, nik sekula largako etzaitut.

San Mateok, San Markosek,

San Lukasek, San Juanek an.

Berak esan eutsan: Jauna, prest nago zugaz joateko presondegi, ta eriotzara bere; neure bizitzea zugaiti ifiniko dot.

Jesusek eranzun eutsan: Zure bizitzea nigaiti ifiniko dozu? Egi-egiaz dirautsut,

Pedro, ollarrak gaur soñotuko eztabela, zuk ukatu arteraño iru bider, nazazuzula.

Zuk bada gaur gabea, ollarrak bi bider kantau baño len ukatuko nozu iru aldiz.

Baña berak eragoion, esaten eba: Zugaz il bear baliz bere ukatuko etzaitut. Ta beste dizipulu guztiak bere auxe berau ziñoen.

San Lukasek an

Eta esan eutsen eurai: Biraldu zaituedazanean bolsa бага, ta bidezorro бага, ta oñetako itxiak бага, menturaz ezer falta izan jatzue?

Ta eurak eranzun eben: Ez. Berak esan eutsen: Bada orain bolsea dabenak, artu begi; bai ta zakua bere: ta eztaukanak, saldu begi bere soñekoa, ta erosi begi ezpatea.

Bada dirautsuet, nigan kunpli bear dala eskribidurik dagoan au: Ta gaistoan artean kontau eben: Bada niri jagotazan gauzak betetasuna dauke.

Baña eurak eranzun eben: Jauna, aramen ezpata bi. Ta berak esan eutsen: Asko dira.



22. IRAKURTZA

Jesusek darraio bere sermoiari. Konoletan ditu bere ikasleak; emonik bere barri onak, ta Aitaren, ta Espiritu Santuarenak, baitabere karidade, oraziño, ta bere joatearenak.

San Juanek cap. 14. v. 1-31.

Ezpedi izutu zuen biotza. Jangoikoagan sinisten dozue, nigan bere sinistu egizue.

Nire aitaren etxean bizileku asko dago; alan ezpalitz, esango neutsuen: Bada noa zuei prestatzera lekua.

Eta joaten banas, ta prestetan badeutsuet lekua; etorriko nas beste-bein, ta neugan artuko zaituedaz, ni nagoan lekuan; zuek bere egon zaitezen.

Baita bakizue nora noian, ta bidea dakizue.

Tomasek dirautso: Jauna, eztakigu nora zoazan, ta zelan jakin giñei bidea?

Jesusek dirautso: Neu nas bidea, ta egia, ta bizitzea: Iñor eztator Aitagana, ezpada nigaiti.

Banezaukeue ni, egiaz nire Aita bere ezagutuko zenduke: ta orain-ganik ezagutuko dozue, ta ikusi dozue.

Felipek dirautso: Jauna, erakuskuzu Aita, ta auxe dogu asko.

Jesusek dirautso: Ainbeste denpora da zuekaz nagoala, ta ezagutu ez nozue? Felipe, ni nakusanak, dakus nire Aita bere. Zelan bada diñozu: Erakuskuzu Aita?

Sinisten eztozu ni nagoala Aitagan, ta Aita nigan? Nik dirautsuedazan berbak, neuk neuronez eztiñodaz. Ezpada Aita nigan egonik, berak egitekoak egiten ditu.

Eztozue sinistuten ni Aitagan nagoala, ta Aita nigan?

Bestela sinistu egizue egiteko eurak gaiti. Egi egiaz dirautsuet: Nigan sinisten dabenak berak egingo dituala nik egiten ditudan obrak, ta egingo ditu oneek baño andiagoak; bada ni noa Aitagana.

Eta aitari eskatuten deutzazuen guztia nire izenean, au egingo dot: Aita gloriatua izan dedin Semeagan.

Nire izenean zerbait eskatuten badeustazue, au egingo dot.

Maite banozue, nire mandamentuak gorde egizue.

Nik Aitari erregutuko deusat, ta emongo deutsue beste Konsolatzalle bat, zuetan beti biziko dana,

Egiaren Espiritua, munduak artu ezin dabena, zerren ikusi, ez ezagututen eztaben: baña zuek ezagutuko dozue, zuetan biziko dalako, ta zuetan egongo dalako.

Etzaituedaz itxiko umezurtzak: zuetara etorriko nas.

Oraindiño piska bat: ta munduak ikusiko ez nau. Zuek barriz bana-kutsue: zerren ni bizi nasan, ta zuek biziko zaree.

Egun atan ezagutuko dozue, nire Aitagan nagoala, ta zuek nigan, ta ni zuetan.

Nire mandamentuak dituana, ta gordetan dituana, ori da maite nabena ni. Ta maite nabena ni, nire Aitak maite izango dau: ta nik amaduko dot, ta neuk neugan agertuko dot.

Orduan esan eutsan Judasek, ez Iskariotesek: Jauna, zer jazo da, zu agertuteko guri, ta ez munduari?

Jesusek eranzun, ta esan eutsan: Iñok maitetuten banau, gordeko dau nire berbea, ta nire Aitak maitetuko dau, ta beragana etorriko gara, ta beragan biziko gara.

Ni maite ez nabena, nire berbak gordeten eztitu. Ta enzun dozuen berbea, ezta nirea; ezpada ni biraldu nabena Aitarena.

Gauzok esan deutsuedaz zuekaz nagoala.

Eta Konsolatzalleak, Espiritu Santuak, nire izenean Aitak biralduko dabenak, berak gauza guztiak irakasiko deutsuez, ta gomuterazoko deutsue nik dirautsuedan guztia.

Bakea itxiten deutsuet, nire bakea emoten deutsuet: ezteutsuet nik emoten munduak emon oi daben legez. Ezpedi ikaratu, ez bildurtu zuen biotza.

Enzun zenduen, esan neutsuela: Banoa, ta banator zuetara. Maite baninduzue, poztuko zintek ez egiaz Aitagana noialako: bada Aita ni baño andiago da.

Eta orain esan deutsuet, egin dedin baño lenago: sinistu daizuen, egin dedinean.

Ia zuekaz berba asko esango eztodaz, bada bator mundu onetako Agintaria, ta nigan eztauko ezerbere.

Baña munduak ezagutu dagian, ametan dodala Aita, ta Aitak mandatu e mon eustan legez, alan egiten dot. Jagi zaiteze, ta goazan emendik.



23. IRAKURTZA

**Sermoi berari daragoiola, diño Jesusek,
bera dala matsa, bere Aita nekatzaria,
ta bere dizipuluak mentuak.
Dirautse alkarregaz euki bear daben
maitetasuna; ta Judeguak bera ilteaz
egingo daben gogorkeria, igesbide bagea.**

San Juanek cap. 15. v. 1-27.

Ni nas mats egiazkoa, ta nire Aita da nekazaria.

Nigan fruturik eztakarren mats-adar guztia kenduko dau: baña frutua dakarrena, garbituko dau, frutu geiago emon dagian.

Zuek garbirik zagoze esan deutsuedazan berbak gaiti.

Gelditu zaitetze nigan, ta ni zuetan. Mats-adarrak ezin ekarri leikian legez fruturik baldin matsean ezpadago: ez eta zuek bere nigan ezpazagoze.

Bada ni nas matsa, zuek mats-adarrak: nigan dagoanak, ta ni bera-gan, onek frutu asko dakar: zerren ni бага ezerbere ezin egin ziñeie.

Nigan eztagoana kanpora botako da mats-adarra legez, ta igartuko da, ta batuko dabe, ta suan sartuko dabe, ta erreko da.

Nigan bazagoze, ta nire berbak zuetan geldituko balira, gura dozuen guztia eskatuko dozue, ta egingo jatzue.

Onetan da nire Aita gloriatua, zuek frutu asko emotean, ta nire dizipuluak egiñak izatean.

Aitak maitetu naben legez, alan nik pere amatu zaituedaz. Nire maitetasunean geratu zaitetze.

Nire aginduak gordetan badozue nire amorean geldituko zaree, nipere nire Aitaren aginduak gorde nituan legez, ta nago bere maitetasunean.

Gauzok esan deutsuedaz, nire gozorotasuna zuetan egon dedin, ta zuen poza oso-betea izan dedin.

Au da nire mandamentua, batak bestea maitetu zaitezela nik maite zaituedazan legez.

Iñok maitetasun andiagorik au baño eztauko, zein dan bere bizitzea bere adiskideak gaiti ifintea.

Zuek nire adiskideak zaree, baldin egiten badozue nire aginduak.

Gaur-geiago esango ezteutsuet serbitzariak, bada otseñak eztaki bere Jaunak zer egiten daben. Baña zuei esan neutsuen adiskideak; eza-guerazo deutsuedazalako nire Aitari enzun neutsazan gauza guztiak.

Zuek ni autu ez nozue: baña nik zuek autatu zinduedazan ta ifini zaituedaz joan zaitezen, ta frutua dakartzuen; ta zuen frutuak dirauan: Aitak emon daizuen nire izenean eskatuten deutsazuen guztia.

Gauzok aginduten deutsuedaz maitetu zaitezela alkar.

Baldin munduak gorroto bazaitue, jakin eizue zuek baño lenago ni gorrotau ninduala.

Zuek mundukoak baziñe, munduak berea dana maite izango leuke: baña mundukoak etzarealako, ezpada nik mundutik autuak, orregaiti gorroto zaitue munduak.

Gomuta zaitetze nik esan neutsuen berbeaz: Serbitzaria ezta bere Nagusia baño andiago. Ni persegitu banabe, zuek bere persegituko zaitue: nire berbea gorde baebenak, zuena, bere gordeko dabe.

Baña gauza guztiok egingo deutsuez nire izena gaiti: bada eztazue ni biraldu nabena.

Ni etorri ezpaninz, ta berba egin ezpaneuntse, ez leuke eukiko bekatu-rik: baña orain eztauke euren bekatuaren atxakiarik.

Ni gorroto nabenak, nire Aita bere gorroto dau.

Bestek sekula egin eztituen obrak nik egin ezpanitu eurakaz, ez leuke eukiko bekatu-rik: baña orain ia ikusi ditue, ta ezin ikusi nabe, ez nire Aita.

Baña au da bete dedin euren legean eskribidurik dagoan berbea: Bide-bageaz gorrotadu ninduen.

Baña datorrenean Konsolatzallea nire Aitak biralduko deutsuena, egiaren Espiritua, Aitaganik datorrena, berak nire egiatasuna emongo dau.

Eta zuek egiatasuna emongo dozue, lenengotik nigaz zagozelako.



24. IRAKURTZA

**Jesusek oartuten deutsez bere ikasleai
bere izena gaiti igaroko dituezan neke-penak:
ta konoletan ditu bere despedidan.**

San Juanek cap. 16. v. 1-33.

Au esan deutsuet, gatx-biderik artu eztagizuen.

Batzarretatik botako zaituez: baña dator ordua, zeñetan zuek ilten zaituanak, usteko dau mesede egiten deutsalala Jangoikoari.

Eta au egingo deutsue, ezagutu ez ebelako ez Aita, ez ni.

Baña au esan deutsuet: ordua datorrenean gomuta zaitezzen, nik au esan neutsuela.

Lenengoan gauzok esan ez neutsuezan, zuekaz nengoalako. Baña orain noa biraldu ninduanagana; ta zuetarik iñok itanduten ezteust: nora zoaz?

Bañabada gauzok esan deutsuedazalako, tristurak bete dau zuen biotza.

Baña nik egia dirautsuet: konbeni jatzuela ni joatea: bada ni ezpanoa, etorriko ezta zuetara Konsolatzailea: baña joaten banas, biralduko deutsuet au.

Eta bera datorrenean, argudituko deutso munduari bekatuaz ta justiziaz, ta juizioaz:

Bekatuaz, egiaz, nigan sinistu eztablelako:

Ta justiziaz, Aitagana noialako, ta ikusiko ez nozue: Ta juizioaz, munduko Agintaria juzgatua dalako.

Oraindiño gauza asko daukat zer esan zuei: baña ezin eroan ziñeiez orain.

Baña egiaren Espiritua datorrenean, egia guztia irakasiko deutsue: bada eztau berba egingo berak berez, ezpada esango dau enzun daben guztia, ta agertuko deutsuez gauza etorkizunak.

Berak andizkatuko nau: zerren niretik artuko daben, ta zuei agertuko deutsue.

Aitak dituan guztiak dira nireak. Onegaiti esan neutsuen nireaganik artuko dabela: ta zuei agertuko deutsuela.

Piska bat, ta ia ikusiko enozue: ta beste piska bat ta ikusiko nozue: zerren Aitagana noian.

Onetan bere dizipuluetarik alkar esan eben: Zer da dirauskun au: Piska bat, ta ez nozue ikusiko, ta beste puska bat, ta ikusiko nozue, Aitagana noialako?

Eta ziñoen: Zer da dirauskun au: Piska bat? Eztakigu zer diñoan.

Eta Jesusek ezagutu eban, itandu gura eutsela, ta esan eutsen: Itaunka zagoze zuen artean esan dodanaz: Piska bat, ta ikusiko ez nozue; ta beste piska bat, ta ikusiko nozue.

Egiaz, ta benetan dirautsuet: Zuek negar egingo dozuela, ta zizpu-ruak emongo dozuezala, mundua barriz poztuko da: ta zuek triste egongo zaree, baña zuen tristetasuna biurtuko da gozotasunean.

Seiña egiteko dagoan andrea triste dago, bere ordua datorrelako; baña semea egin dabenean, bere esturaren gomutik ez dau, gizon bat jaioda dalako pozkariaz.

Zuek bere orain triste zagoze egiaz, baña beste bein ikusiko zaituedaz, ta zuen biotza poztuko da: ta zuen gozo-poza iñok kenduko ezteustue.

Eta egun atan ezerbere itanduko ezteustazue. Benebenetan dirautsuet: Aitak emongo deutsuela nire izenean eskatuten deutzazue guztia.

Oraindiño ezer eskatu eztozue nire izenean. Eskatu eizue, ta artuko dozue, zuen poza bete izan dedin.

Gauzok antz-irudinetan esan deutsuedaz. Ordua dator zeñetan irudintzetan berba egingo ezteutsuedan: zerren argiro berba egingo deutsuet neure Aitaren ganean.

Egun atan nire izenean eskatuko dozue; ta ezdirautsuet nik zuek gaiti Aitari erregutuko deutzadala.

Bada nire Aitak maite zaitue, zuek maite izan nozuelako, ta sinistu dozuelako Jangoikoaganik urten nebala.

Aitagani urten neban, ta mundura etorri nintzan: bestebein itxiten dot mundua, ta Aitagana noa.

Bere dizipuluak dirautse: Aramen non argiro orain berba egiten dozun, ta eztiñozu antz-irudinik.

Orain dazaugu gauza guztiak dakizuzala, ta ez tala zuri iñok itandu bearrik: onetan sinisten dogu Jangoikoaganik urten zenduala.

Jesusek eranzun eutsen: orain sinisetan dozue?

Aror non datorren ordua, ta ia etorri da, zeñetan bakotxa bere alde-rik deslai zabalduko zareen, ta bakarrik largako nozue: baña ez nago bakarrik, zerren Aita nigaz dagoan.

Au esan deutsuet, bakea nigan euki daizuen: Munduan estura euki-ko dozue: baña konfiatu egizue; bada nik goiartu dot mundua.



25. IRAKURTZA

**Jesusek bere aitari eskatuten deutso bera gaiti,
bere dizipuluak gaiti, ta beragan
sinistuko eben guztiak gaiti.**

San Juanek cap. 17. v. 1-26.

Gauzok Jesusek esan zituan: ta begiak Zerura jasorik, esan eban: Aita ordua dator, glorifikatu egizu zeure Semea, zure Semeak zu gloriatu zaizan.

Aragi guztien ganean eskubidea emon zeuntsan legez, berari emon zeuntsan guztiak, eurai bere betibetiko bizitzea emon daioen.

Eta au da betiko bizitzea: Ezagutu zaiezala zu Jangoiko bakar egiazkoa, ta Jesu Kristo zuk biraldu zenduana.

Nik gloriatu zaitut lurraren ganean, ta azkendu dot egiteko emon zeunstan egikerea.

Orain bada, Aita, gloriatu nagizu zeuk zeugan mundua sortu baño len zeugan euki neban gloriáz.

Agertu neutsen zure izena mundutik emon zeunstazan gizonai: Zeuzirian, ta niri emon zeunstazan, ta gorde eben zure berbea.

Orain ezagutu dabe, emon zeunstazan gauza guztiak zeuganik diriala.

Bada emon deutedaz emon zeunstazan berbak; ta eurak artu ditue, ta egiaz ezagutu dabe, zuganik urten nebala, ta sinistu dabe zuk biraldu nozula.

Nik eurak gaiti erregututen deutesut: Eztot mundua gaiti erregututen, ezpada emon zeunstazan oneek gaiti, zerren zureak diran.

Ta nire gauza guztiak zureak dira, ta zureak nireak dira: ta eureetan izan nas argitua.

Eta ni ia ez nago munduan, baño oneek munduan dagoz, ta ni zugana noa: Aita santua, gorde egizuz zeure izena gaiti emon zeunstazan aek: gu legez gauza bat izan ditezen.

Eurakaz egon nasan artean gorde dodaz zure izenean: Gorde dodaz emon zeunstazanak, ta iñor eurentarik galdu ezta, ezpada galtzapenako semea, Eskriturea bete zedin.

Baña orain zugana noa, ta diñot au munduan, nire gozotasun osoa euretan bete dedin.

Nik emon neutsen zure berbea, ta munduak gorroto izan ditu, mundukoak ezteiralako, ni bere mundukoa ez nasan legez.

Ezteutsut erregututen kendu daizuzala mundutik, ezpada gorde daizuzala gatxetik:

Mundukoak ezтира, ni bere mundukoa enasan legez.

Egian santutu eizuz. Zure berbea egia da.

Zuk mundura biraldu ninduzun legez, nik bere mundura biralduten dodaz.

Eta eurak gaiti ni neu santututen nas, eurak bere egiaz santutuak izan ditezen.

Ez bakarrik erregututen dot eurak gaiti, baitabere euren berbea gaiti nigan sinistuko dabenakaiti.

Dirianak gauza bat izan ditezen, zu, Aita, nigan, ta ni zugan legez, eurak bere gauza bat gugan izan ditezen: munduak sinistu daian zuk biraldu ninduzula.

Nik eurai emon deutset zuk emon zeunstan gloria; gauza bat izan ditezen, gu bere gauza bat garean legez.

Ni euretan, ta zu nigan; gauza baten beteak izan ditezen; ta munduak dazauan, zuk biraldu nozula, ta maitetu dozuzala, ni bere amatu nozun legez.

Aita, gura dot, emon zeunstazanak nigaz ni nagoan lekuan egon ditezen; nire gloria ikusi daien: bada mundua dan baño lenagotik maitetu nozu:

Aita justua, munduak etzaitu ezagutu, baño nik ezagutu zaitut: ta oneek ezagutu dabe zuk biraldu ninduzula.

Eta ezaguerazo deutset zure izena, ta ezagutu eragingo deutset; amatu nozun amorea egon dedin euretan, ta ni euretan.



26. IRAKURTZA

**Doa Jesus Jesemaniko hortura.
Iru bider oraziño egiten dau.
Bere tristeza, larritasun, ta agonía.**

BATERA San Mateok cap. 26. v. 36-46.

San Markosek. cap. 14. v. 32-42.

San Lukasek cap. 22. v. 39-46.

San Juanek cap. 18. v. 1-2.

Jesusek gauzok esan zituanean, urten eban bere dizipuluakaz Zedrongo ibaiaren beste aldera.

Urten eban, ta joan zan oi eban legez oliboen mendira. Ta bere dizipuluak bere jarraitu eutsen.

Orduan joan zan Jesus eurakaz Jesemani eritxon hortu batera.

Hortu bat egoan lekuan sartu zirian bera, ta bere dizipuluak.

Eta Judas entregauko ebanak bere bekian a lekua: zerren askotan joaten zan ara Jesus bere dizipuluakaz.

Eta esan eutsen bere dizipuluai: jarri zaitze emen, ara noian bitartean, ta nik oraziño egin artean. Oraziño egizue, tentaziñoan jausi etzaitzen.

Eta beragaz eroan zituan Pedro, ta Santiago, ta Juan: ta asi zan larrituten, ta estututen, tristetu, ta ikaratuten.

Orduan esan eutsen eurai: Triste dago nire arimea eriotzara giño: itxozue emen, ta bigira egizue nigaz.

Eta pausu batzuk emon ezkerre aldegin zan eurretarik, arri tirakada bat legez, ta belauniko ifinirik orazino egiten eban;

Ziñoala: Aita, gura badozu, igaro egizu niganik kaliz au: baña ezpidi egin nire borondatea, ezpada zurea.

Eta agertu jakan Zeruko Angeru bat, indartuten ebana, ta lurean auspaz etxun zan bere arpegiaren ganean, ta oraziño egin eban.

Eta illaginian ifinirik oraziño egiten eban gogokiago.

Eta esan eban: Abba, Aita, al badedi igaro bedi niganik kaliz au.

Gauza guztiak egin ziñeiz, aldegizu niganik kaliz au, baña egin ezpidi nik gura dodana, ezpada zuk gura dozuna.

Eta egin jakon bere izerdia, odolezko tantak lurra giño eriozanak.

Eta oraziñotik jagi zanean, etorri zan bere dizipuluetara, ta idoro zituan tristeaz loak arturik.

Eta esan eutsen: Zegaiti lo egiten dozue? jagi zaitze, ta oraziño egizue, tentaziñoan sartu etzaitzen.

Eta Pedrori esan eutsan: Simon, lo zagoz? Eta bada, ezin egon izan zaree nigaz bigirian ordu baten.

Irazarririk zagoze, ta oraziñoan, tentaziñoan sartu etzaitzen. Espiritua egiaz prest dago, baña aragia gaixo dago.

Eta osterabere joan zan oraziño egitera, lengo berbak esaten zituala: Aita niria, ezin igaro bada kaliz au nik berau edan baga, zure borondatea egin bedi.

Eta bestebein etorri zan, ta aurkitu zituan lo, zerren euren begiak astundurik egozan; ta ez ekien zer berari eranzun.

Eta larga zituan, ta barriro joan zan irugarren aldia oraziño egitera, lengo berbak esaten zituala.

Eta irugarrenez etorri zan bere dizipuluetara, ta esan eutsen: Lo egizue, ta atsegin artu eizue.

Asko da: ordua eldu da; aramen non gizonaren Semea doian emona izatera bekatarien eskuetara.

Jagi zaitze, goazan: aramen non dagoan ur entregauko nabena.



27. IRAKURTZA

**Judasek mosu falsoaz entregetan dau Jesus:
artuten dabe preso: biurtuten deutso Malkori
San Pedrok kendu eutsan belarria.**

BATERA San Mateok cap. 26. v. 47-56.

San Markosek cap. 14. v. 43-52.

San Lukasek cap. 22. v. 47-53.

San Juanek cap. 18. v. 3-11.

Eta oraindiño berbok azkendu etzituan, non aror Judas Isakariotes, amabietarik bat.

Artu ezkeru soldadu-tropa bat, ta Sazerdote nagusien, ta Fariseoen Alguazilak, etorri zan ara, ta beragaz jente pilo bat ezpatakaz, ta makillakaz; farolakaz, ta suziakaz, ta armakaz,

Zeintzuk biraldu zituezan Sazerdote Nagusiak, ta Eskribak, ta erriko Zaarrak.

Ta traidoreak onei emon eutsen señaile bat, esanik: Nik mosu emoten deusadana, ori berori da: estu eizue, ta kontuz eroan eizue.

Eta eldu zanean, etorren euren aurreti;

Eta urreratu zan bertati Jesusi laztan-mosu emoteko ta esan eban: Maixua, Jangoikoak gorde zaizala: ta mun egin eutsan.

Ta Jesusek esan eutsan: Adiskidea, zetara zatoz?

Judas, laztan-mosuaz entregetan dozu gizonaren Semea?

Baña Jesusek jakinik beragan etorriko zirian gauza guztiak, aurreratu zan, ta esan eutsen: Noren billa zatoze?

Eranzun eutsen: Jesus Nazarenoaren billa. Jesusek esan eutsen: Neu nas. Ta Judas bera entregetan ebana bere an zan eurakaz.

Esan eutsenean bada: Nau nas: atzera biurtu zirian ta lurtean jausi zirian.

Baña bestebein itandu eutsen: Noren billa zatoze? Ta eurak esan eban: Jesus Nazarenoren billa.

Jesusek eranzun eban: Esan deusuet, neu nasala: ta nire billa bazatoze, larga eiezue onei joaten.

Bete zedin esan eban berbea: Emon zeunstenetarik iñor galdu eztot.

Onetan eldu zirian, ta Jesusi eskua ezarri eutsen, ta estu-lotu eban.

Eta beragaz egozanak ikusirik zer jazotera joian, esan eutsen: Jauna, ezpataz erituko dogu?

Eta Simon Pedro Jesusegaz egozanetarik batek, eskua luzeturik atera eban bere ezpatea,

Ta joten ebalta Sazerdote Nagusiaren serbitzaria, ebagi eutsan eskoako belarria. Ta serbitzari oni eritxon Malko.

Baña Jesusek berbea arturik, esan eban: larga egizue oraindiño. Ta ukutu eutsan belarrian, ta osatu eban.

Jesusek orduan Pedrori esan eutsan: Sartu egizu zeure ezpatea bere tokian, zerren ezpatea artuten dabenak, ezpateaz ilgo dirian. Aitak emon eustan kaliza nik edango eztot?

Menturaz uste dozu, erregutu ezin neiola nire Aitari, ta biralduko deustazala berpetati amabi Angeruen ejerzitu baño geiago?

Zelan bada beteko dira Eskriturak, alan konbeni dala egitea?

Ordu atan Jesusek esan eutsen Sazerdoteen Nagusiai, ta Tenpluko Agintariai, ta Zarrai ara etorri zirianai: Lapur bategana legez urten dozue ezpatakaz, ta makilakaz ni preso egitera.

Egunean egunean zuekaz egon ezkeru Tenpluan, eskurik luzetu etzenduen nire kontra.

Baña au da zuen ordua, ta iluntasunetako eskubidea.

Baña au guztiau egin zan, Profeten Eskriturak bete zitezen.

Orduan bere dizipuluak bera largarik, zirianak iges egin eban.

Eta bere jarraian joian gizon gazte bat, izara bategaz estaldurik gorputz utsen ganean: ta oratu eutsen.

Baña berak largarik izarea, iges egin eutsen soñeko baga.



28. IRAKURTZA

Daroe preso Jesus Anas, ta Kaifasen etxera, non bete eben bidebagez.

BATERA San Mateok cap. 26. v. 57-68.

San Markosek cap. 14. v. 53-65.

San Lukasek cap. 22. v. 54. 55. 63. 65.

San Juanek cap. 18. v. 12-24.

Gerrarideak bada, ta Erri-zainak, ta Judeguen Ministroak artu eben preso Jesus; ta estu eben:

Eta lenengo eroan eben Anasgana, Kaifas urte atako Sazerdote Nagusia zanaren Gierraba zalako.

Eta Kaifas zan Judeguai konsejua emon eutsena: Konbeni zala gizon bat il zedin erria gaiti.

Baña loturik eukeenak Jesus, eroan eben Kaifas Sazerdoteen Buru nagusiaren etxera, zeñetan batu zirian Sazerdote guztiak; ta Eskribak, ta Agura zarrak.

Eta Pedrok jarraion urrinetik, bai ta beste dizipulu batek. Ta a dizipulua Sazerdote nagusiaren ezaguna zan, ta sartu zan Jesusegaz Sazerdote nagusiaren atartean.

Eta Pedro atetik kanpora egoan. Ta Sazerdotearen ezaguna zan beste dizipuluak urten eban, ta ate-zain egoan neskatxari esan eutsan, ta sartu eban Pedro barrura Sazerdote Nagusiaren etxe barru giño.

Eta neskatxa atezainak esan eutsan Pedrori: Zu bere etzara gizon onen dizipuluetarikoak? Berak esan eban: Ez nas.

Serbitzariak, ta Ministrariak egozan zutik suaren aurrean, zerren otz egiten eban, su erexegina egoan atartearen erdian, ta berotuten zirian: ta Pedro bere zutunik egoan suan berotuten.

Eta eurak inguruan jarririk, Pedro bere euren erdian egoan ikusteko zer jazoten zan.

Sazerdote andiak bada itandu eutsan Jesusi bere dizipulu, ta bere dotrinaren ganean.

Jesusek eranzun eutsan: Nik agirian berba egin deusat munduari: nik beti irakasi dot Judegu guztiak batuten dirian Batzakuntzan, ta Tenpluan: ta ezkutuan ezer esan ezot.

Zer itanduten deustazu niri? Itandu eiezu nik esan nebana enzun dabena: aror non oneek dakien nik esan deusdana.

Au esan ebanean, an egoan serbitzarietatik batek matrallako bat Jesusi emon eutsan, esanik: Alan eranzuten deusazu Sazerdote nagusiarri?

Jesusek eranzun eutsan: Deungero berba egin badot, dongetasunaren testimonioa emon egizu: baña ondo egin badot, zegaiti joten nozu?

Eta Anasek biraldu eban esturik Kaifas Sazerdote Nagusiagana.

Baña Sazerdoteen Buruak, ta Batzar guztiak testimonio guzurrezkoaren billa ebiltzen Jesusen kontra, eriotzara emoteko.

Ta idoro ez eben; etorri baziran bere testigu guzurti asko.

Bada askok ziñozezan guzurrezko testimonioak bere kontra: baña ez etozan alkar ondo euren artean euroen esanak.

Baña geroenean eldu zirian testigu falso bi:

Ta jagi zirian, testigantza guzurrezkoa eriala bere kontra: ta esaten ebela:

Geuk enzun deutsegu oni esaten: Jangoikoaren Tenplua banatu neike, ta barriro egin iru egun barru.

Nik banatuko dot gizonen eskuz egin zan Tenplu au, ta iru egunean egingo dot beste bat eskuz ez egiña.

Eta euren testimonioa ez etorren ondo.

Ta Sazerdote Nagusiak jagirik guztien erdian, itandu eutsan Jesusi, zirautsala: Eztozu ezer eranzuten oneek zure kontra diñoenari?

Baña bera ixilik egoan, ta ez eutsan ezer eranzun. Sazerdote Nagusiak barriro itandu, ta esan eutsan: Zara zu Kristo, Jangoiko bedeinkatua- ren Semea?

Jangoiko bizia gaiti konjoretan zaitut, esan daiguzula, zu bazara Kristo, Jangoikoaren Semea.

Jesusek esan eutsan: Zuk esan dozu: Neu nasala.

Baña dirautsuet, emendik aurrera ikusiko dozuela gizonaren Semea jarririk Jangoikoaren birtutearen eskoatara; ta etorten Zeruko odoietan.

Orduan Sazerdote Nagusiak urratu zituan bere jaztekoak, ta esan eban: Biraoa esan dau: Ze testigu geiagoren bearrik dogu?

Enzun dozue madarikaziñoa? Zer deritxazue? Eta eurak eranzun, ta esan eben: Merezi dau eriotzea.

Orduan txu-txistua bota eutsen arpegira.

Eta Jesus eukeenak burlazar, ta joka erabillen.

Ta estaldu eben, ta kolpeak emoten eutsezan; beste batzuk beton- dokoak bere arpegian emoten eutsezan, ta itanduten eutsen;

Eta esaten eben: Kristo, igerri egiguzu; Nor da jo zaituana?

Eta beste gauza asko ziñoen biraoka bere kontra.



29. IRAKURTZA

**San Pedrok iru bider ukatuten dau Jesus:
Ta negarrez urtuten dau bere bekatua.**

BATERA San Mateok cap. 26. v. 69-75.

San Markosek cap. 14. v. 66-72.

San Lukasek cap. 22. v. 56-62.

San Juanek cap. 18. v. 25-27.

Bitartean Pedro egoan jarririk atartetik kanpora, bean: zutik egoan berotuten.

Eta beragana eldu zan Sazerdote Nagusiaren kriadarik bat.

Ta ikusi ebanean Pedro suaren ondoan jarririk, kontuz begiratu eutsan, berotuten egoala,

Eta esan eban: ta au bere beragaz egoan: ta zu Jesus Galileoaz zengozan.

Baña berak ukatu eban guztien aurrean, ziñoala: Emakumea, ezta-zaut ori. Eztazaut, ta eztakit zer diñozun bere.

Eta urten eban kanpora atartearen aurrera, ta ollarrak kantau eban.

Eta berak urten ezkeru atetara, beste kriada batek ikusi eban, ta an egozanai esan eutsen: Au bere Jesus Nazarenogaz egon zan. Ta esan eutsen berari: Zu bere etzara bere dizipuluetarikoa?

Eta bestebein ukatu eban juramentuaz: Ez nas: Eztazaut gizon ori.

Eta andik laster osterabere, ta ordu bete legez igarorik, Sazerdote Nagusiaren beste gizon serbitzari Pedrok belarria ebagi eutsanen aide batek,

Baieztu, ta ziñoan: Egiaz au beragaz egoan: Galileoa bere ba. Etzindudan neuk zu ikusi beragaz hortuan?

Eldu zirian an egozanak, ta Pedrori esan eutsen: Segurubere zu bere jente orren artekoa zara: bada Galileoa zara: ta zeure berba egikunak eza-gutu erazoten zaitu.

Eta bestebein ukatu eban, ta esan eban Pedrok: Gizona, eztakit zer diñozun.

Orduan asi zan erneguka, ta biraoka, ta juramentuka: Eztazaut zuk diñozun gizon ori.

Eta oraindiño bera berbaz egoala, ollarrak soñutu eban bigarren aldiz.

Eta Jaunak biurturik, begiratu eutsan Pedrori.

Eta gomutau zan Pedro Jesusek esan eutsan berbeaz, ollarrak bi bider kantau baño lenago, ukatuko nozu iru aldiz.

Eta kanpora urten ezkeru Pedro, asi zan negar egiten: lazkiro negar egin eban.



30. IRAKURTZA

**Eriotzako sententzia emoten deutse Jesusi.
Damututen da Judas bere traiziñoaz;
ta ateraten dau emendik desesperaziñoa,
ta bere burua urkatutea.**

BATERA San Mateok cap. 27. v. 1-10.

San Markosek cap. 15. v. 1.

San Lukasek cap. 22. v. 66-71.

Eta egundu zanean batu zirian erriko Zarrak, ta Sazerdoten Buruak, ta Eskribak Jesusen kontra, eriotzara emoteko.

Eta eroan eben euren Bilkuntzara, ta esan eutsen: Baldin zu Kristo bazara, esaiguzu.

Eta esan eutsen berak: Badirautsuet, sinistuko ezteustazue.

Ta itanduten badeutsuet bere, eranzungo ezteustazue, ez eta largako enozue.

Baña gaurganik gizonaren Semea jarririk egongo da Jangoikoaren birtutearen eskoatara.

Guztiak esan eben: Orrela zu Jangoikoaren Seme zara? Berak esan eban: Zeurok diñoazue neu nasala.

Ta eurak esan eben: Ze testigantza geiagoren bearrik dogu? Bada geuk bere aotik enzun dogu.

Ta eroan eben loturik, ta emon eutsen Ponzio Pilatos Agintariari.

Orduan Judas bera entregau ebanak, ikusi ebanean, eriotzara kondenuatu ebela; damuaz bearturik, biurtu eutsezan ogeta amar zidar-diruak Sazerdoteen Buruai, ta Zarrai,

Ziñoala: Bekatu egin dot, entregaturik errubagearen odola. Ta eurak esan eben: Guri zer deusku? Begiratu ei zendu zeuk.

Ta botarik Tenpluan diruak, aldegin zan, ta joan zan, ta urkatu zan kordel batik.

Sazerdoteen Buruak artu zituezan diruak, ta esan eben: Konbeni ezta oneek sartutea ondasun-tokian, odolaren prezioa dirialako.

Eta orren ganean alkar aditurik, eurakaz erosi eben Lapikogilla baten landa bat, Kanpotarren sepulturatzat.

Ta orregaiti deitu zan a lur-landea, Hazeldama, au da, odol-ibarra gaur giño.

Orduan bete zan Jeremias Profeteak esan ebana: Ta artu zituezan ogeta amar zidarrezko diruak, preziotuaren prezioa, Israelgo semeetarik preziotu ebanarena:

Eta emon zituezan Lapikogillaren landea gaiti, Jaunak agindu eustan legez.



31. IRAKURTZA

Daroe Jesus Pilatosgana, onek biralduten dau Herodesgana, ta onek zorotzat biurtuten deutso Pilatosi.

BATERA San Mateok cap. 27. v. 11-14.

San Markosek cap. 15. v. 1-5.

San Lukasek cap. 23. v. 1-12.

San Juanek cap. 18. v. 28-38.

Eta jagirik a jente pilo guztia, ta estu eragin ezkeru Jesus, eroan, ta entregatu eutsen Pilatosi.

Eroan eben bada Jesus Kaifasen etxetik Gobernariaren Jauregira. Ta goxean zan: ta eurak etzirian sartu Jauregiko Tribunalean, ez loitute arren, ta Pazkoa jan al egiteko.

Pilatosek bada kanpora urten eban eurakgana, ta esan eban: Ze saladura dakartzue gizon onen kontra?

Eranzun, ta esan eutsen: Au erruduna ezpaliz, ekarriko ez geuntsun.

Orduan Pilatosek esan eutsen: Zeurok artu, ta juzgau egizue zeuroen legearen erara. Ta judeguak esan eutsen: Guri laketuten ez jaku iñor iltea.

Bete zedin Jesusek esan eban berbea, adirazorik zelango eriotzeaz ilgo zan.

Eta salatuten asi zirian, esanik: Au aurkitu dogu gure Jenteari adibide txarrak emoten, eragozten dabela Erregeari errege-dirua pagetea, ta diñoala, bera dala Kristo Erregea.

Barriri bada Pilatos sartu zan Jauregian, ta Jesusi deitu eutsan...

Eta Jesus eroan eben Agintariaren aurrera; ta Agintariak itandu, ta esan eutsan: Zara zu Judeguen Erregea?

Jesusek eranzun eban: Ori zuk zeuganik diñozu, edo bestek ori nigaiti esan deutso?

Pilatosek eranzun eban: Menturaz nas ni Judegua? Zeure Jenteak, ta Sazerdote Nagusiak nire eskuetan ifini zaitue: Zer egin dozu?

Jesusek eranzun eban: Nire Erreinua ezta mundu onetakoa: baldin nire Erreinua mundu onetakoa balitz, nire agindupekoak pelearko leuke duda baga, ni Judeguai emona izan ez nendintzat: baña orain nire Erreinua ezta emengoa.

Pilatosek orduan esan eutsan: Orrela zu Errege zara? Jesusek eranzun eban: Zeuk diñozu,

Ni Errege nasala. Ni onetarako jaio nintzan, ta onetarako mundura etorri nintzan, egiaren egiatasuna emotera: egiarena danak, dantzu nire boza.

Pilatosek dirautso: Zer da egia? Ta au esanik, urten eban bestebein Judeguetara, Sazerdoteen Buruetara, ta jenteagana,

Eta esan eutsen: Eztot beragan idoroten gauza txarrrik.

Eta Sazerdoteen Buruak, ta Zarrak salatuten ebenean gauza askoren ganean, ez eban ezerbere eranzun.

Ta Pilatosek osterabere itandu, ta esan eutsan:

Eztanzuzuz zeinbat testimonio diñoezan zure kontra? Eztozu ezer eranzuten? ara zeinbat gauzeetan salatuten zaituezan.

Baña Jesusek ez eutsan areanbere eranzun bere berbaren bati; alangoz eze Pilatos Agintaria entero asko miraritu zan.

Baña esetsiten eben, ziñoela: Bakebagneturik dauko jentea, Judea guztian zabalduten daben dotrinaz, Galileatik asi, ta onagiño.

Pilatosek Galilea enzunik, itandu eban Galilearra zanez.

Eta ezagutu ebanean Herodesen agintaritza azpikoa zala, biraldu eutsan Herodesi, zein denpora atan idoroten zan Jerusalem.

Ta Herodesek Jesus ikusi ebanean, asko poztu zan: zerren atxinatik ikusi gura izan eban, gauza asko bera gaiti enzunik zitualako, ta itxadoten eban ikusiko ebala mirariaren bat egiten.

Itaune asko bada egin eutsazan. Baña berak ezer bere eranzuten ez eutsan.

Eta Sazerdoteen Buru, ta Eskribak egozan salatuten irme.

Eta Herodesek bere soldaduakaz despreziatu eban: ta janzierazo eban barregarritz soñeko zuri bategaz, ta biraldu eban atzera Pilatosgana.

Ta egun atan gelditu zirian adiskideturik Herodes ta Pilatos: euren artean lenago arerioturik egon ezkeru.



32. IRAKURTZA

Judeguak eskatuten deutse Pilatosi Jesusen eriotzea, ta Barrabasen libertadea.

BATERA San Mateok cap. 27. v. 15-26.

San Markosek cap. 15. v. 6-15.

San Lukasek cap. 23. v. 13-25.

San Juaneke cap. 18. v. 39-40.

Pilatosek bada deitu eutsen Sazerdoten Buruui, ta Agintariai, ta jenteari,

Ta esan eutsen: Nire aurrera ekarri dozue gizon au, erriko bake-kentzalle legez, ta ara non zuen aurrean nik berari itandu ezker, eztoz ezer beronegan topau salatuten dozuen gauzeetarik.

Ezta Herodesek bere: bada beragana biraldu zaituedaz, ta orra non bapere probau ezteutso eriotzea zor jakon gauzarik.

Largako dot bada kastigau ezker.

Baña Gobernariak bear eban libertadea emon Jaia gaiti eurak gura eban preso bati.

Ta denpora atan egoan Barrabas eritxon preso famadun bat, presondegian beste gaisto okerrakaz egoana, errierta baten eriotza bat egin ebalako.

Ta baturik erria, asi jakazan eskatuten oi zan mesedea.

Ta eurak baturik, Pilatosek esan eutsen: Gura dozue bada, emon daizuedan libre Judeguen Erregea?

Nori gura dozue emon daiodan libertasuna? Barrabasi, ala Jesus Kristo deritxonari?

Bada bekian ikusi ezinaz ifini ebela bere eskuetan Sazerdote Nagusiak.

Eta bere adizainean jarririk egoala, biraldu eutsan esatera bere emazteak: Ezertan sartu etzaite justu orregaz: bada bart bera gaiti gauza asko begitandu jataz.

Baña Sazerdoteen Buruak, ta Zarrak mugietan eban erriko jentea eskatutera Barrabas, ta illerazotera Jesus.

Eta Gobernariak eranzun, ta esan eutsen: Biok tarik zeñi gura dozue libertadea emon diodan?

Eta jente guztiak ao batez deadarrez ziñoen: Il eragin egizu au, ta askatu eiguzu Barrabas. Barrabas barriz lapur bat zan,

Zein ifini eban presondegian errian egin zan errierta bategaiti, ta eriotza bat gaiti.

Eta Pilatosek barriro berba egin eutsen, Jesus askatu gura izanik:

Zer nai dozue bada egin daidan Judegen Erregeaz? Kristo deritxon Jesusegaz?

Ta eurak barriro dedar egiten eban, ziñoela: Krutzean josi egizu, krutzean josi egizu: Guztiak diñoen: krutzean josia izan bedi.

Ta berak irugarrenez esan eutsen: Bada ze gatx egin dau onek? Nik idoroten eztoz beragan eriotzea merezi daben gauzarik: kastigauko dot bada, ta askatuko dot.

Baña eurak eragoion, eskatuten ebela dedarka, krutzean josia izan zedilla: ta geituten zituezan euren dedarrak, esanik: krutzean josia izan bedi; krutzean josi egizu.

Eta Pilatosek ikusirik ezerbere aurreratuten ez ebala, ta geroago ta geiago azten zala errierte; ekarri eragin eban ura, ta guztien aurrean eskuak garbitu zituan, esanik: Justu onen odoletik ni erru baga nago: or konpon zeurok.

Eta jente guztiak eranzunik esan eban: Bere odola betor gure ganera, ta gure semeen ganera.

Eta Pilatosek gustu emon gura izanik erriari, juzgatu eban egin zedilla eurak eskatuten ebena.

Eta libretzat emon eban eurak eskatu eban Barrabas presondegian egon zana errierta, ta eriotzea gaiti.

Ta azotadu eragin ezker Jesus, emon eutsen eurai, ta euren borondata, krutzean josi egientzat.



33. IRAKURTZA

**Azotadu, ta aranzaz koroitu ezkeru Jesus,
ateraten dabe erriaren aurrera,
ta barriro eskatuten dabe bere eriotzea.**

*BATERA San Mateok cap. 27. v. 27-30.
San Markosek cap. 15. v. 16-19.
San Juanek cap. 19. v. 1-16.*

Pilatosek bada orduan artu eban Jesus, ta azotadu eban.

Eta Gobernariaren soldaduak arturik Jesus eroateko adizainera, eroan eben adizaineko atartera, ta onen inguruan ifini eben soldadeska guztia.

Ta billostuten ebela, janzi eutsen granazko mantu bat:

Ta aranzazko koro bat eginik, ifini eutsen buru ganean, ta kañabera bat bere eskoako eskuan.

Eta beragana etozen. Ta bere aurrean belauna biurturik, burlazar erabillen.

Ta asi zirian agur buru makurtuak berari egiten, esanik: Jangoikoak salba zaizala Judegen Erregea: ta belarrondokoak emoten eutsezan.

Eta gorro-txu-txistuak ezarten eutsezala, artu eben kañabera, ta joten eben buruan: ta belauniko ifinirik adoretan eben.

San Juanek an.

Pilatosek bada urten eban bestebein kanpora, ta esan eutsen: Aramen non kanpora ateraten deusuedan, jakin daizuen, gauza txarrik beragan idoroten eztodala.

Ta Jesusek urten eban eroiala aranzazko koro bat, ta errege-janzi gorri bat. Ta Pilatosek esan eutsen: Aramen gizona.

Eta Sazerdote Nagusiak, ta Ministroak ikusi ebenean, dedar txilioka ziñoen: Krutzean josi egizu, krutzean josi egizu. Pilatosek dirautse: Zeurok artu, ta krutzean josi egizue: bada nik eztot idoroten beronegan gauza txarrik.

Judeguak eranzun eutsen: Legea dogu guk, ta legearen erara il bear da, Jangoikoaren Seme egin dalako.

Pilatosek berbok enzunik, geiago bildurto zan.

Eta barriro sartu zan adizainera, ta Jesusi esan eutsan: Nongoa zara? Baña Jesusek ez eutsan eranzun.

Eta Pilatosek dirautso: Niri ezteustazu berba egiten? Eztakizu, daukadala eskubidea zu krutzean jositeko, ta dodala eskubidea zu libretako?

Jesusek eranzun eban: Etzenduke eukiko agintaritarik nire ganean, goitik emon ezpalitxazu. Beragaiti bekatu andiagoa dauko zuri entregatu nabena.

Ta ordureaganik Pilatosek alegiña egiten eban bera askatuteko. Baña Judeguak deadar egiten eben; esanik: Baldin au libretan badozu, etzara Erregearen adiskide: bada Errege egiten dana, Zesar Erregearen kontrakor egiten da.

Pilatosek bada berbok enzun zituanean, atera eban Jesus kanpora ta jarri zan bere adizaineko lekuan, Lithostrotos deituten dana, ta Gabbata Hebreoan.

Eta zan Pazkoako Prestaerako eguna, ta egerdi aurreko ordua, ta esan eutsen Judeguai: Aramen zuen Erregea.

Ta eurak dedar egiten eben: Ken, ken, krutzean josi egizu. Pilatosek dirautse: Zeuroen Erregea krutzean josiko dot? Sazerdote Nagusiak eranzun eben: Guk ez dogu Zesar baxen beste Erregerik.

Orduan emon eutsen eurai, krutzean josia izan zedin.

Ta artu eben &a. infra.



34. IRAKURTZA

**Doa Jesus bere krutzeaz Kalbariora:
jositen dabe krutzean: ta egiten ditue
beragaz beste gogartade asko.**

BATERA San Mateok cap. 17. v. 31-34. 38. 37. 35. 36.

San Markosek cap. 15. v. 20-23. 25-28. ta 24.

San Lukasek cap. 23. v. 26-34. ta 28.

San Juanek cap. 19. v. 16-24.

Ta artu eben Jesus.

Ta burlaz iraindu ezker, billostu eutsen errege-soñeko gorria, ta janzi eutsezan bere soñekoak, ta ateraten dabe kanpora krutzean josteko.

Ta berak bere solbardan bere krutzea eroiala urten eban Kalbario, ta Hebreoan Golgotha deritxon lekura: ta an krutzean josi eben.

Eta eroiala idoro eben andik igaroten zan Zireneko gizon bat, Simon eritxona, borda solotik etorrena, Alexandro, ta Ruforen aita.

Au beartu eben Jesusen krutzea eroatera, ta krutze kargea eroan eragin eutsen Jesusen atzean.

Eta berrajozan erriko jente askok, ta emakumeak, zeintzuk zizpuru ta negar egiten eben.

Baña Jesus biurturik eurakgana, esan eutsen: Jerusalengo alabak, ez egizue negar egin nire ganean; negar egizue bai zeuroen ganean, ta zeuroen semeen ganean.

Zerren etorriko dira egunak zeñetan esango daben: Zorionekoak seingeak, ta umerik euki ez eben sabelak, ta ugatzik emon ez eben bularrak.

Orduan asiko dira esaten mendiai: Jausi zaitzeze gure ganean; ta munai: Estaldu gagizuez.

Bada egur ezean au egiten badabe, igarrean zer egingo da?

Baitabere beragaz eroiazan beste bi gaiskille zirianak il eragiteko.

Eta eroan eben Golgotha deritxon leku batera: zeñek esan gura dau Kalbario tokia.

Eta emon eutsen edaten ardao mirraduna beaztunaz nasturik. Ta aoan sartu ebanean, ez eban edan gura; ta artu ez eban.

Zan bada egerdia krutzean josi ebanean; ta beragaz beste lapur bi, bata eskoatara, ta bestea ezkerretara, bata alde batera, ta bestea bestera, ta erdian Jesus.

Eta an bete zan profezia diñoana: Gaistoakaz bardindu eben.

Baña Jesusek ziñoan: Aita, parkatu egiezu: bada eztakie zer egiten daben.

Ta Pilatosek bere eskribidu eban letreru bat, ta krutze ganean ifini eban. Ta letreruak eukan eskribidurik bere eriotzaren motibua.

Eta bere buru ganean ifini eben eskribidurik bere eriotzaren adikizun au: *Au da Jesus Nazareno Errege Judeguena.*

Eta Judeguetarik askok irakurri eben letratallu au; Uriaren urrean egoalako Jesus krutzean josi ebenen lekua. Ta eskribidurik egoan Hebreo, Griego, ta Latinez.

Ta Judegen Sazerdote Nagusiak zirautsen Pilatosi: Ez egizu eskribidu Judegen Erregea; ezpada berak esan ebala: Judegen Erregea nas.

Pilatosek eranzun eban: Eskribidu dodana, eskribidu dot.

Soldaduak Jesus krutzean josi ezker, artu zituezan bere jaztekoak, ta lau zati egin zituezan: soldadu bakotxarentzat bere zatia, ta tunika.

Euren ganean suerteak botarik, ikusteko zeñek zein eroango eban: Baña tunikeak ez eukan josturarik, goitik bera eoa zalako.

Eta alkar esan eben: Urratu eztaigun, ezpada suerteak bota daiguzan nori dagokion; bete zedin Eskritura diñoana: Euren artean nire soñekoak zatitu zituezan, ta nire soñekoaren ganean suerteak bota zituezan.

Eta soldaduak au alan egin eben, ta jarririk goardia egiten eutsen.



35. IRAKURTZA

Jesus krutzean dagoala Judeguak irainduten dabe.

An idoroten da bere Ama Maria:

Eguzkia ilunduten da: Jesus ilten da.

BATERA San Mateok cap. 27. v. 39-50.

San Markosek cap. 15. v. 29-37.

San Lukasek cap. 23. v. 35-37.39-46.

San Juanek cap. 19. v. 25-30.

Eta igaroten zirianak madarikatuten eben eraginik euren buruak,
Ta esanik: Ah zu Jangoikoaren Tenplua banatu, ta iru egunean barri-
ro egiten dozuna,

Librau egizu orain zeure burua. Jangoikoaren Seme bazara, jatsi
zaite krutzetik.

Ta jentea begira egoan, ta berari burlazar.

Baitabere Sazerdoteen Buruak, Eskriba, ta Zarrakaz barregarriz
ziñoen:

Besteak salbau ditu, bera barriz ezin salba da: Israelgo Errege bada
jatsi bedi orain krutzetik, ta sinistuten deutsegu: salbau bedi bera, baldin
bada au Kristo, Jangoikoaren autua;

Kristo Israelgo Erregea jatsi orain krutzetik, ikusi, ta sinistu daigun.

Jangoikoan konfietan dau: librau begi, ondo gura badeutso; bada
esan eban: Jangoikoaren Semea nas.

Soldaduak bere burla egiten eutsen beragana eldurik, ta birnagea
opaturik,

Ta esanik: Bazara zu Judegen Erregea, salba zaite zeu.

Eta krutzean josirik egozan lapurretarik batek biraotuten eban, ta
esan: Zu Kristo bazara, salbau gaizuz zeu, ta gu.

Baña besteak zematuten eban, esanik: Zuk bere ez dozu Jangoikoa-
ren bildurrik egonik urkamendian bertan?

Eta gu egiaz gure erruz, dogulako gure egitekoai dagokana: baño
onek gauza txarrik egin eztau.

Ta Jesusi zirautsan: Jauna, gomutau zaite nizaz, zatozanean zeure
Erreinura.

Ta Jesusek esan eutsan: Egiaz dirautsut: Gaur neugaz izango zarea-
la Glorian.

Eta Jesusen Krutzearen ondoan egozan bere Ama, ta bere Amaren
aiztea, Maria Kleofasena, ta Maria Magdalenea.

Eta ikusirik Jesusek bere Ama, ta maite eban dizipulua an egoala
esan eutsan bere Amari: Andrea, aror zure seme.

Gero dizipuluari esan eutsan: Aror zure Ama. Ta ordu atarik dizi-
puluak artu eban beretzat.

Eta eguerditik iruretagiño iluntasanuk egin zirian mundu guztian.

Ta eguzkia ilundu zan.

Ta irurak baño len boz andiaz dedar egin eban Jesusek, ziñoala: *Eli,
Eli, lamma sabacthani*: au da, Neure Jangoikoa, neure Jangoikoa, zegaiti
desanparau nozu?

An egozanetarik bada batzuk, au enzun ebenean, ziñoen: Eliasi deie-
giten deutso onek.

Onen ondoan Jesusek jakinik, gauza guztiak azkendu ziriala, Eskri-
turea bete zedin, esan eban: Egarrri nas.

An egoan ontzi bat birnagez beterik.

Eta berpetati eurretarik bat arin joan ta artu eban esponja-arrokia, ta
busti-bete eban binagre-ozpinian, ta kañabera baten ifinirik, emoten
eutsan edaten.

Eta bestebatzuk ziñoen: Itxozue, dakuskun, datorrenez Elias bera
libretara.

Eta Jesusek artu ebanean birnagea, esan eban: Akabatu da.

Eta Jesusek dedar andi bat emonik, esan eban: Aita, zure eskuetan
gomendatuten dot nire espiritua.

Eta au esanik, ta burua makurturik emon eban espiritua, il zan.



36. IRAKURTZA

Jesus il ezkeru ikusi zirian mirariak.

BATERA San Mateok cap. 27. v. 51-56.

San Markosek cap. 15. v. 38-41.

San Lukasek cap. 23. v. 45. 47-49. 46.

San Juanek cap. 19. v. 31-37.

Eta aror non bertati urratu zan goitik bera zati bitan Tenpluko belo-estalgia. Ta lurra ikaratu zan, ta arriak zatitu zirian.

Ta sepulturak idigi zirian; ta il zirian santu askoren gorputzak biztu zirian.

Eta urtenik sepulturetatik bera biztu ezkeru, etorri zirian Uri santu-
ra, ta agertu jakezan persona askori.

Ta aurrez aur egoan Zenturionek ikusi ebanean jazo zana, alan il zala dedar bat emonik, alabatu eban Jangoikoa, esanik: Au gizonau egiaz zan Jangoikoaren Semea.

Ta beragaz egozanak Jesus jagoten, ikusi ebanean lur-ikara, ta egiten zirian gauzak, bildur andia artu eben; ta ziñoen: Egiaz Jangoikoaren Semea zan au.

Eta ekusen guztiak ikusgarri au, ta igaroten zana, biurtuten zirian kolpeka euren bularrak.

Eta Jesusen ezagunak, ta Galileatik jarraitu eutsen emakumeak, ta bera serbietan etorriak urrinetik begira egozan gauzok.

Euren artean egozan Maria Magdalena, ta Maria Santiago txikerra-
ren ama, ta Joserena, ta Salome Zebedeoren semeen ama.

Zeintzuk Galilean egon zanean jarraitu, ta serbiduten eutsen, ta beste asko beragaz batera etorri izan zirianak Jerusalemenera.

San Juanek an.

Eta Judeguak, Prestaera-eguna zalako, Jaian gelditu etzitezen gorpu-
tzak Krutzean, orduko Jaiaren eguna andia zalako, erregutu eutsen Pila-
tosi, bernak ausi ta kendu eizala andik.

Etorri zirian bada Soldaduak: ta ausi eutsezan bernak lenengoari, ta beste beragaz krutzean josi zanari.

Baña Jesusgana etorri zirianean, ikusirik illik egoala, ez eutsen ber-
narik ausi.

Baña soldaduetarik batek lanza bategaz bularra idigi eutsan, ta ber-
tati urten eben odolak, ta urak.

Ta au ikusi ebanak, emon eban testimonioa, ta egiazkoa da bere tes-
timonioa: ta berak daki, egia diñoala, zuek bere sinistu daizuen.

Bada gauzok egin zirian bete zedin Eskriturea: Bere azurrik ausiko
eztozue.

Baitabere diño beste Eskritura batek: Ikusiko dabe igaro ebena.



37. IRAKURTZA

Krutzetik eratsirik Jesusen gorputza ifinten dabe Sepulturan: ta Judeguak ifinten ditue an guarda zain jaolak.

BATERA San Mateok cap. 27. v. 57-66.

San Markosek cap. 15. v. 42-47.

San Lukasek cap. 23. v. 50-56.

San Juanek cap. 19. v. 38-42.

Onez geroz, ta berandu egin zanean, bada zan Prestaera, Jaiaren aurreko eguna.

Etorri zan Jose eritxon gizon aberats bat, Senadore noblea, gizon ona, ta mena:

Onek ez eban lekuri emon gura izan ez batzarrari, ez bertan egin zirian euren gauzai, zan Arimathea Judeako Urikoa, Jangoikoaren Erreñua berak bere itxadoten ebana.

Au joan zan, ta azartasunaz sartu zan Pilatosgana, ta Jesusen gorputza eskatu eutsan.

Zan Jesusen dizipulua; baña ez agiria, Judeguen bildurrez.

Ta Pilatos miraritu zan, omen laster il zalako: ta Zenturioni deiturik, itandu eutsan, il bazan.

Eta Zenturionganik jakinik, emon eutsan gorputza Joseri.

Etorri zan bada, ta kendu eban Jesusen gorputza.

Ta Nikodemo bere, gaubez lenago joan zana Jesusgana, etorri zan eun libra mirra ta balsamu legez ekartzala nasturik.

Eta Josek erosi eban izara bat, ta Krutzetik kendurik batu eban izara garbian.

Ta Jesusen gorputza artu, ta estu eben miesetan balsamuakaz, Judeguak entieruetan oi eben legez.

Krutzean josi eben leku atan egoan hortu bat, ta hortuan iñor lenago ifini etzan sepultura barri bat.

An bada ifini eben Jesus, ur egoalako sepulturea, ta Judegen Prestaerako eguna zalako.

Ta bere sepultura baten sartu eban (*Josek*), barria zan, ta atx baten idigi eragin eban. Ta sepulturaren sarreran arri andi andi bat ifini, ta joan zan:

Ta Prestaerako eguna zan, ta Zapatu jaia asiten zan.

Ta bere atzean joiazala andrak Maria Magdalena, ta beste Maria Jose-ren ama Jesusi Galileatik jarraitu eutsenak, ta an sepulturaren aurrean egozala jarririk, begira egozan non iminten eben, ta zelan iminten eben bere gorputza.

Eta biurtu zirianeanean prestau zituezan balsamu, ta untura usaintsuak: ta Zapatu-jaian geldirik egon zirian legeak aginduten eban legez.

Baña Prestaera egunaren biaramonean, Sazerdoteen Buruak, ta Fari-seoak etorri zirian batera Pilatosgana;

Esaten ebela: Jauna, gogoan dogu, ak engañatzalleak oraindo bizi zala, esan ebala: Iru egun barru biztuko nas.

Agindu egizu bada, gorde dagiela sepulturea irugarren egun giño: jazo eztidin, bere dizipuluak etorri, ta ostu, ta jenteari esatea:

Biztu da illen arterik; ta azkeneko errakuntzau izango da lenengoa baxen deungeagoa.

Pilatossek dirautse: Zainak dozuez, zoaze, ta zaindu egizue dakizuen legez.

Eurak joan zirian, ta segurututeko sepulturea, sellatu eben arria, ta para gordetzalle-jaolak.



38. IRAKURTZA

Jesusen Biztuerako barri onak emoten deutsez Angeruak andra emakumeai.

BATERA San Mateok cap. 28. v. 1-7.

San Markosek cap. 16. v. 1-7.

San Lukasek cap. 24. v. 1-8.

San Juanek cap. 20. v. 1.

Eta Zapatu arrastegian, asteko lenengo eguna egundutean, Maria Magdalena, ta Maria Santiagoren ama, ta Salomek erosi zituezan balsamuak, joateko Jesus balsamututera.

Ta astearen lenengo egunean goxean goxetik, oraindo ilun egoala, eldu zirian sepulturara urten ezkeru eguzkiak, eroiezala prestau zituezan balsamuak.

Eta euren artean ziñoen: Nok kenduko deusku sepulturaren aoan dagoan arria?

Ta aror non ustekabean asmau zan lur-ikara andi bat. Zerren Jaunaren Angeru bat Zerutik jatsi zan; ta eldurik eragin eban arria, ta bere ganean jarri zan: Iusture argi baten antzera argia emoten eban bere arpegiak: ta bere soñekoak edurra zirudien.

Ta bere bildurrez ikaratu zirian gordegillak, ta illik legez gelditu zirian.

Baña begiratu eben (*emakumeak*), ta ikusi eben aldeginik sepulturako arria: ta au entero andia zan.

Ta sarturik sepulturaren, idoro ez eben Jesus Jaunaren gorputza.

Ta jazo zan onegaiti ikaraturik egozala, euren ondoan ifini zirian gazte bi jazteko argitsuakaz.

Eta bildurturik egozala, ta burua lurreranz makurturik, esan eutsen: Ez eizue bildurrik euki; bada dakit Jesus Krutzean josia izan zanen billa zabiltzela.

Zergaiti illen artean billatuten dozue bizi dana?

Emen eztago: bada biztu da, esan eban legez:

Gomuta zaitzeze esan eutsuenaz, Galilean egon zanean, Ziñoala: Bear da, gizonaren Semea emona izan dedilla gizon bekatarien eskuetara, ta krutzean josia izan dedilla, ta irugarren egunean biztu dedilla.

Erdue, ta ikusi egizue Jauna gorde eben tokia.

Eta zoaze agudo, ta esan eiozue bere dizipulu, ta Pedrori, biztu dala: ta jakin egizue Galilean itxadoten deusuela; an ikusiko dozue, esan eutsuen legez: lenago bere au adirazo deusuet.

Ta gomutau zirian bere berbaren.



39. IRAKURTZA

**Jesusen Biztuerako barri pozak
emoten deutsez andrak Apostoluai.
San Pedro, ta San Juan datoz sepulturara.**

*BATERA San Mateok cap. 28. v. 8.
San Markosek cap. 16. v. 8.
San Lukasek cap. 24. v. 9-12.
San Juanek cap. 20. v. 2-10.*

Eta berpetati urten eben sepultura egoan lekutik bildurraz, ta gozo-
poz andiaz, ta arinka joan zirian dizipuluai esatera.

Ta iñoribere ezer esan ez eutsen (bidean), bildurrak arturik egozala-
ko: ta au guztiau esan eutsen amaka (*dizipuluai*), ta beste guztiai.

Ta gauzok Apostoluai esan eutsezanak zirian Maria Magdalena, ta
Juana, ta Maria Santiagoren ama, ta eurokaz egozan bestea.

Eta eurak begitaziño erotzat eukezan berbok, ta sinistu etzituezan.

Eta joan zan arin (*Maria Magdalena*) San Pedrogana, ta Jesusek maite
eban beste dizipuluagana, ta esan eutsen: Sepulturatik kendu dabe Jauna,
ta eztakigu non imini daben.

Urten eben bada Pedro, ta beste dizipuluak, ta sepulturara joan
zirian.

Eta biak batera arin egin eben, baña beste dizipulua aurreratu zan,
Pedrok baxen arinago joanik, ta lenengo eldu zan sepulturara.

Ta makurtu ezkerok ikusi zituan ifinirik eun-miesak: baña barrura
sartu etzan.

Eldu zan bada Pedro bere jarraian etorrena, ta sepulturalekuan sartu
zan, ta ikusi zituan eunak ifinirik,

Ta buru ganean euki eban izerkaria, ez eunakaz ifinirik, ezpada batu-
rik beste leku baten.

Orduan beste dizipulu lenago eldu zana bere sartu zan, ta ikusi eban,
ta sinistu eban:

Zerren oraindiño adietan ez eben Eskritura ziñoana, bera biztu bear
zala illen arterik.

Eta bestebein euren etxera biurtu zirian dizipuluak.

Eta joan zan (*Pedro*) mirariturik bere artean ikusi ebanaz.

40. IRAKURTZA

**Maria Magdalenari agertuten jako Jesus,
barriro biurtu zanean sepulturara.**

*BATERA San Markosek cap. 16. v. 9.
San Juanek cap. 20. v. 11-17.*

Eta biztu zanean (*Jesus*) asteko lenengo eguneko goxean lenengo
agertu jakon Maria Magdaleneari, zeñeganik zazpi deabru atera izan
zituan.

Baña Maria negarrez egoan kanpoan sepulturaren ondoan. Ta alan
negarrari eragoiola, makurtu zan, ta sepulturara begira egon zan:

Ta ikusi zituan Angeru bi zuriz janzirik, jarririk bata buru aldean, ta
bestea oñetan, Jesusen gorputza ifini izan zan lekuan:

Ta esan eutsen: Emakumea, zegaiti negar egiten dozu? Dirautse:
Eroan deustelako emendik neure Jauna, ta eztakit non ifini daben.

Ta au esanik, atzera biurtu zan, ta ikusi eban Jesus zutunik egoala:
baña ez ekian Jesus zala.

Jesusek dirautso: Emakumea, zeri negar egiten deutzazu? Noren
billa zabilz? Berak uste izanik hortulaua zala, esan eutsan: Jauna, zeuk
eroan badozu, esan eidazu non ifini dozun; ta neuk eroango dot.

Jesusek dirautso: Maria. Berak biurturik dirautso: Rabboni, zeñek
esan gura dau Maixua.

Jesusek dirautso: Ukutu ez eidazu, zerren oraindiño igon eztot nire
Aitagana: baña zoaz nire anajetara, ta esan egiezu: Igoten dot nire Aita, ta
zuen Aitagana, nire Jangoiko, ta zuen Jangoikoagana.



41. IRAKURTZA

**Jesus agertuten jake sepulturatik etozen andrai.
Judeguak emoten deutse dirua sepultura-zain
egozanai, esan daientzat, dizipuluak ostu dabela
Jesusen gorputza: ta Magdaleneak dirautse
Apostoluai, berari agertu jakala Jesus bizturik.**

*BATERA San Mateok cap. 28. v. 9-15.
San Markosek cap. 16. v. 10-11.
San Juanek cap. 20. v. 18.*

Eta Jesus idoro zan eureka (*sepulturatik biurtzen zirian emakumeakaz*), ta esan eutsen: Jangoikoak gorde zaiezala. Ta eurak beragana eldu zirian, ta laztandu zituezan bere oñak, ta adorau eben.

Orduan Jesusek esan eutsen: Ez eizue bildurrik euki: Zoaze, esaioe-zue nire anajeai, Galileara doazala, an ikusiko nabe.

Ta eurak joiazan artean, sepultura-zainetarik batzuk joan zirian Errira, ta igaro zan gertaldi guztien kontua emon eutsen Sazerdoteen Buru nagusiai.

Ta baturik Zarrakaz, ta zer egin bear zan itundurik, makina bat diru emon eutsen gordegilla-zainai,

Zirautsela: Esazue, bere dizipuluak gaubez etorri, ta ostu dabela gu lo gagozala.

Ta au elduten bada Agintariaren belarrietara, guk sinisterazoko deustegu, ta segurutuko zaitueguz.

Eurak dirua artu eben, ta egin eben irakasi eutsen erara. Ta Judeguen artean zabaldu zan barri onek dirau gaurgiño.

Maria Magdalena etorri zan esatera a gaz egon izan zirianai, ta triste ta negarrez egozan aei: Ikusi dodala Jauna, ta au esan deust.

Ta eurak enzun ebenean, bizirik egoala, ta berak ikusi ebala, ez eutsen sinistu.

42. IRAKURTZA

**Egun berean agertuten jake Jesus
Emausera joazan dizipulu biai.**

*BATERA San Markosek cap. 16. v. 12-13.
San Lukasek cap. 24. v. 13-35.
San Lukasek an.*

Eta onen ondoan beste modu baten erakutsi zan erri txiki batera joiazan (*Dizipulu*) oneetarik biri.

Egun berean (*Biztuera*) joiazan errialde Emaus eritxon batera, Jerusalemik legua bi legez egoanera.

Eta eurak joazan euren artean berba egiten jazo zirian gauza oneen ganean.

Eta alkar berbaz, ta batak besteari itanduten joazala, eldurik Jesus bera, eurakaz joian bidean.

Baña euren begiak estaldurik egozan ezagutu ez egientzat.

Eta berak esan eutsen: Ze berbak dira bidean zeuroen artean dozuezanak, ta zegaiti zagoze orren triste?

Ta eurretarik batek Kleofas eritxonak eranzun eutsan, esanik: Zu bakarrik zara erbestekoa Jerusalemen, ta eztakizu an igaro dana egun oneetan?

Berak esan eutsen: Ze gauza? Ta eranzun eben: Jesus Nazarenorena, zein izan zan gizon Profeta, al andikoa egiteetan, ta esateetan Jangoiko, ta jente guztien aurrean:

Ta zelan Sazerdote Nagusiak, ta gure Agintariak kondenatu eben eriotzara, ta Krutzean josi eben.

Ta guk itxadoten genduan, berak Israel erredimituko ebala: ta orain guztionen ganean gaur da gauzok jazo dirianen irugarren eguna.

Eta barriz gure arteko emakume batzuk ikaratu gaituez, zeintzuk egundu baño len sepulturara joan zirian,

Ta bere gorputza an ez idororik, ziñoen: An ikusi ebela Angeruen ikuste, bizi dala diñoenena.

Ta gutarik batzuk sepulturara joan zirian; ta idoro eben alan zelan emakumeak esan eben zala, ta bera arkitu ez eben.



Ta Jesusek esan eutsen: O gogor, ta biotz atzeratukoak sinistuteko Profetak esan eben guztia!

Menturaz bear etzan, Kristok gauzok igarotea, ta alan bere glorian sartutea?

Ta asirik Moises, ta Profeta guztietatik adirazoten emoten eutsezan bera gaiti berba egiten eben Eskritura guztiak.

Eta urreratu zirian joazan gaztelura, ta berak adietan emoten eban aurrerago joiala.

Baña gura ta gurez gelditu eben, esanik: Geratu zaite gugaz, zerren gaberortea da, ta eguna boa. Ta eurakaz sartu zan.

Eta eurakaz maian jarririk egoala, ogia artu eban, ta bedeinkatu eban, ta zatitu ezkeru emoten eutsen eurai.

Ta euren begiak idigi zirian, ta ezagutu eben: ta orduan bera desagertu zan euren begietarik.

Ta batak besteari esan eutsan: Menturaz su-garturik ez egoan geure biotza geure barruan, bidean berba egiten euskunean, ta irakasten euskuzanean Eskriturak?

Ta jagirik ordu berean biurtu zirian Jerusalemenera: ta batubildurik idoro zituezan amakak, ta eurakaz egozanak,

Esaten ebela: Jauna biztu da egiaz, ta Simoni agertu jako.

San Lukasek an.

San Markosek cap. 16. v. 13.

Eta eurak esan eben bidean jazo jaken guztia: ta zelan ezagutu eben ogia zatitzean (*Mark.*), ta ez eutsen sinistu.

43. IRAKURTZA

**Jesusek erakusten dau bere Biztuerea
egerturik dizipuluai, sarturik euren etxean
ateak itxirik egozala: ta andik zortzi egun
beste bein Santo Tomasi bere llagak agerturik.**

BATERA San Markosek cap. 16. v. 14.

San Lukasek cap. 24. v. 36-43.

San Juanek cap. 20. v. 19-31.

Eta gauzok esaten zituela, ta amakak jaten egozala agertu jaken.

Ta astearen lenengo eguneko arrastegian, ta Judegen bildurrez dizipuluak baturik egozala ateak itxirik, Jesus etorri zan, ta euren erdian ifini zan, ta esan eutsen: Bakea izan dedilla zuekaz: Neu nas, ez bildurrik artu.

Ta ezaindu eutsen euren sinisbagnetasun, ta biotzeko gogortasuna; sinistu ez eutselako bera bizturik ikusi ebenai.

Baña eurak izaturik, ta ikaraturik, uste eben espirituren bat ekusela.

Ta berak esan eutsen: Zegaiti zagoze arriturik, ta pensamentuak zuen biotzetara igoten dabe?

Ikusi egizueez nire eskuak, ta nire oñak, bada neu nas: ukutu, ta begiratu egizue espirituak eztaukala aragirik, ez azurrik, dakusuen legez nik ditudala.

Ta au esanik, erakutsi eutsezan esku, ta oñak, ta bularra. Ta gozopoztu zirian dizipuluak Jauna ikusirik.

Baña ez eben legez oraindiño osoro sinisten, ta poz gozoz mirariturik egozala, berak esan eutsen: Jangarririk badozue?

Ta eurak aurrean para eutsen arraiñ erre zati bat, ta eztiabia bat.

Eta euren aurrean jan ezkeru, artu ondakin enparauak, ta eurai emon eutsezan.

Ta bestebein esan eutsen: Bakea zuekaz, Aitak biraldu ninduan legez, alan nik bere biralduten zaituedaz.

Eta berbok esanik, arnasa-axea bota eban euren ganera, ta esan eutsen: Espiritu Santua artu egizue:

Bekatuak parkatuten deutsezuezanai, parkatuko jakez: ta estuten deutsezuezanai, lotuko jakez.

Baña Tomas Didimo eritxon amabietarik bat, etzan egon Jesus etorri zanean.



Ta beste dizipuluak esan eutsen: Jauna ikusi dogu. Berak esan eutsen: Baldin bere eskuetan ezpadakust untzeen zuloa ta untzeen lekuan neure atza sartuten ezpadot, ta bere bularrean neure eskua sartuten ezpadot, sinistuko eztot.

Ta zortzi egunen buruan, ostera bere baturik egozan barruan bere dizipuluak, ta Tomas eurekaz: Jesus etorri zan ateak zarraturik egozala, ta euren erdian ifini zan, ta esan eban: Bakea zuei.

Eta gero Tomasi esan eutsan: Sartu egizu emen zeure atza, ta ikusi egizuz nire eskuak, ta ekarzu zeure eskua; sartu eizu nire bularrean: ta etzaitze izan sinisgea, ezpada fededuna.

Tomasek eranzun, ta esan eutsan: Nire Jauna, ta neure Jangoikoa.

Jesusek esan eutsan: Tomas, ikusi nozulako, sinistu dozu: Zorionekoak ikusi ez ninduanak ta sinistu ebenak.

Beste mirari asko bere Jesusek bere dizipuluen aurrean egin zituan, eskribidurik eztagozanak libru onetan.

Baña oneek eskribidu dira, sinistu daizuen Jesus dala Kristoa, Jan-goikoaren Semea: ta sinisturik euki daizuen bizitzea bere izenean.

44. IRAKURTZA

**Arraintzan ebiltzela Apostoluak,
agertuten jake Jesus. San Pedrori
gomendatuten deutzaz bere ardiak; ta adietan
emoten deutso ze erako eriotzeaz ilgo dan.**

San Juanek cap. 21. v. 1-24.

Gero bestebein agertu jaken Jesus bere dizipuluai Tiberiadesko itxsoan: ta erakutsi zan onela:

Batera egozan Simon Pedro, ta Tomas Didimo eritxona Kana Galileakoa, ta Zebedeoren semeak, ta beste bi bere dizipuluetarik.

Simon Pedrok dirautse: Arraintzara noa. Eurak dirautse: Gu bere zugaz goazan. Urten eben bada, ta igo eben barkuan: ta gaubatan batxo bere artu ez eben.

Baña goxa eldu zanean Jesus egoan itxas-bazterrean: baña dizipuluak ezagutu ez eben Jesus zala.

Ta Jesusek esan eutsen: Semeak, badozue zerbait jateko? Eranzun eutsen: Ez.

Berak dirautse: Ezarri egizue sarea barkuaren eskoatara: ta topauko dozue. Bota eben sarea; ta ezin atera eben arrain askoren askoz.

Orduan arako Jesusek maite eban dizipuluak esan eutsan Pedrori: Jauna da. Ta Simon Pedrok enzun ebanean Jauna zala, janzi eban bere soñekoa, zerren jazteko baga egoan, ta bota zan itxasora.

Beste dizipuluak barriz etorri zirian barkuan, lurretik urrin ez egoalako, ezpada berreun ukondo, sarea arraiñak ateraten ebela.

Ta lurrera eldurik ikusi zituezan su-txingarrak ifinirik, ta euren ganean arrain bat iminirik, ta ogi bat.

Jesusek dirautse: Ekartzuez ona orain artu dozuezan arraiñak.

Orduan Simon Pedrok igon eban, ta ekarri eban leorrera sarea arraiñ andiz beterik, eun ta berrogeta amairu. Ta orrenbeste izanik, etzan sarea urratu.

Jesusek dirautse: Erdue, jan egizue. Ta beragaz jaten egozanetarik iñor aurreratu etzan berari itanduten: Nor zara zu: jakinik Jauna zala.

Elduten da bada Jesus, ta arturik ogia eurai emoten deutse, baita arraiña bere.



Au zan irugarren aldia, zeñetan Jesus agertu jaken bere dizipuluai, biztu ezkeron illen arterik.

Eta jan ezkeron dirautso Jesusek Simon Pedrori: Simon Juanen semea, maite nozu oneek baño geiago? Erantzuten deutso: Bai, Jauna, zeuk dakizu maite zaitudala. Berak dirautso: Janaritu egizuz nire azuri-bildotsak.

Bigarrenez dirautso: Simon Juanen semea, maite nozu? Erantzuten deutso: Bai, Jauna, zeuk dakizu maite zaitu dala. Berak dirautso: Janaritu eizuz nire azuriak.

Irugarrenez dirautso: Simon Juanen semea, maite nozu? Pedro tristetu zan irugarrenez esan eutsalako: Maite nozu? ta esan eutsan: Jauna, zuk gauza guztiak dakizuz: zuk bakizu maite zaitudala. Esan eutsan: Janaritu egizuz nire ardiak.

Bene benetan dirautsut, gaztea zinianean estuten zinian, ta nora nai joaten zinian: Baña zartuten zareanean, luzetuko dozuz zeure eskuak, ta bestek estu, ta eroango zaitu gura eztozun lekura.

Au esan eban, izentaturik ze eriotza eraz Jangoikoa glorifikatuko eban; ta au esanik, dirautso: Jarraidazu.

Biurturik Pedro ikusi eban bere atzean jarraiola arako beste dizipulu Jesusek maite ebana, ta afarian bere bular ganean eratzorik egon zana; ta esan eutsana: Jauna, zein da entregatuko zaituana?

Ta Pedrok ikusi ebanean a, esan eutsan Jesusi: Jauna, ta au zer?

Jesusek esan eutsan: Alan gura badot au gelditu dedin ni etorri artean: Zuri zer deutsu? Zuk jarraidazu.

Berba au bada jagi zan anajeen artean a dizipulua eztala ilten. Ta Jesusek esan ez eutsan: Ezta ilten; ezipada: Alan gelditu dedin gura dot ni etorri arteraño, zuri zer deutsu?

Au da gauza oneen egiatasuna emoten daben dizipulua, ta gauzok eskribidu zituana: ta dakigu egiatzkoa dala bere testimonioa.

45. IRAKURTZA

**Agertuten jake Jesus bere dizipuluai
Galileako mendian, ta Uri santuan:
biraltzen ditu prediketara; ta emoten deutse
Eskritureen ezaguera argia.**

BATERA San Mateok cap. 28. v. 16-20.

San Markosek cap. 16. v. 15-18.

Apostoluen Aktak cap. 1. v. 4-8.

San Lukasek cap. 24. v. 44-50.

San Mateok an.

Ta amaka dizipuluak joan zirian Galileara Jesusek agindu eutsen mendira.

San Pablok 1. korinth. cap. 15. v. 6-7.

Gero ikusi eben bosteun anaje baño geiagok batera egozala: zeintzuetarik gaurko egunean asko bizi dira, ta beste batzuk il zirian.

Gero agertu jakon Santiagori, ta gero Apostolu guztiai.

San Mateok an.

Ta ikusi ebanean adoradu eben: baña batzuk dudau eben.

Ta Jesusek eldurik berba egin eutsen esanik: Eskubide guztia emon jat Zeruan, ta lurrean.

Zoaze bada, ta jente guztiai irakasi eiezue, bateatuten dozuezala Aitaren, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren izenean.

Irakasten deutsezuela gordeten agindu deutsuedazan gauza guztiak.

San Markosek an.

Ta esan eutsen: Zoaze mundu guztiti, ta predikadu eiozue Ebanjelioa kriatura guztiai.

Sinistu, ta bateatuten dana salbauko da: baña sinisetan eztabena kondenauko da.

Ta sinistuten dabenai jarraituko deutsezan señaileak oneek dira: Nire izenean botako dituez deabruak: berba-egikuna barriak berba egingo ditue.



Sierpeak kenduko ditue, ta gauza edendurik baldin edaten badabe, gatzik egingo ezteutse: gaixoen ganean eskuak ifiniko ditue, ta osatuko dira.

San Mateok an.

Eta ara, ni zuekaz nago egun guztietan munduaren akabera giño.

Apostoluen Egintzak an.

Ta eurakaz batera jan ezker agindu eutsen Jerusalemik etzitezela aldegin, ezpada an itxadon egjela, esan eban, Aitaren agindea nire aotik enzun zenduena.

Bada Juanek egjaz uragaz bateatu eban, baña zuek izango zaree bateatuak Espiritu Santuaz, ez egun asko barru.

San Lukasek an.

Ta esan eutsen: Oneek dira esan neutsuezan berbak oraindiño zuekaz nengoanean, bear bearra zala bete-kunplitea nigaiti eskribidurik egoan guztia Moisesen legean, ta Profeteetan, ta Salmoetan.

Orduan idigi eutsen adimentua aditu egiezantzat Eskriturak:

Eta esan eutsen: Alan dago eskribidurik, ta alan bear zan Kristok padezidu egian, ta irugarren egunean biztu zedin illen arterik.

Ta predikatu zedilla bere izenean penitenzia, ta bekatuen parkaziñoa jente guztiai, Jerusalemetik asirik.

Ta zuek gauza oneen testiguak zaree.

Ta nik biralduten dot zuen ganera nire Aitaren agindua: zuek barriz emen Urian egon zaiteze, goiko birtuteaz janziak izan zaitezen bitartean.

Ta atara zituan kanpora Bethaniara...

Apostoluen Egintzak an.

Orduan batu zirianak itanduten eutsen, esanik: Jauna, biurtuko ete dozu denpora onetan Israelgo Erreinua?

Ta esan eutsen; Ez dagotzue zuei jakitea, Aitak bere agintaritzaz azpian jfini zituan denpora, ta orduak.

Baña artuko dozue Espiritu Santuaren birtutea zuen ganera etorriko dana, ta izango zatxatazee testiguak Jerusalemen, ta Judea guztian, ta Samarian, ta munduaren kabugiño.

46. IRAKURTZA

Jesusek igoten dau Zeruetara Olibeteko menditik bere dizipuluak ekuseela.

BATERA San Markosek cap. 16. v. 19-20.

San Lukasek cap. 24. v. 50-53.

San Juanek cap. 21. v. 25.

Apostoluen Egintzak cap. 1. v. 9-12.

Mark v. 19. Eta Jesus Jauna eurai berba egin ezker,

Akt. v. 9. Eurak ekusela igon eban.

Luk. v. 50. Eta bedeinkatu zituan bere eskuak jasorik.

Ta bedeinkatu ezker, eurretarik aldegin zan, ta zan Zerura eroana.

Akt. v. ibi. Ta artu eban odoi batek, zeñek kendu eban euren begietarik.

Mark an. Igo eban Zerura, ta jarririk dago Jangoikoaren eskoatara.

Akt. v. 10. Ta bera joiala, eurak egozala Zerura begira aror non euren alboan jfini zirian persona bi soñeko zuriakaz,

Ta esan eutsen: Gizon Galilearrak, zegaiti zagoze Zerura begira? Zuen aurretik Zerura igon daben Jesus au, etorriko da alan, zelan ikusi dozuen Zerura joaten.

Luk. v. 52. Eta eurak bera adoradu ezker, Jerusalemenera biurtu zirian pozkari andiaz;

Akt. v. 12. Jerusalemen ondoan dagoan Olibeteko menditik, Jaieguneko bide ibilte bat.

Luk. v. 53. Ta beti egozan Tenpluan Jangoikoa alabatu, ta bedeinkatuten.

Mark. v. 20. Ta eurak urten eben, ta leku guztietan predikau eben, Jau-nak eurai lagundurik, ta baiezturik euren dotrinea lagunduten eutsen mirariakaz.

Joan 25. Beste gauza asko Jesusek egin zituanak dagoz: ta baldin guztiak eskribituko balira, uste dot, mundu guztian bere kabituko ez litekezala eskribidu bear litekezan libruak.

Luk. Amen.

O.S.C.S.R.E.

Fr. Pedro Antonio de Añibarro

[Sinatuta eta izenpetuta]



IDOROGARRIA

jakiteko non dagozan urte guztiko Domeka, ta Santuen Jaietako Ebanjelioak

Onetarako kontuan egon bear da Predikaria ze Ebanjelista, ta ze Ebanjelio dan egun atakoa.

Abenduko 1 Domekako Ebanjelioa idoroko da 5n. *libruan*, 14n. *irakurtzan*.

2. Domekea. 2. *libr*. 33. *irakurtza*.

3. Domeka. 2. *libr*. 7. *irakur*.

4. Domeka. 2. *libr*. 11. *irakur*.

Gabon arteko Domeka. 1. *libr*. 11. *irakur*.

Erregeen urrengo 1 Domeka. 1. *libr*. 14. *irakur*.

2. Domeka 2. *libr*. 10. *irakur*.

3. Domeka. 2. *libr*. 20. *irakur*.

4. Domeka. 2. *libr*. 24. *irakur*.

5. Domeka. 3. *libr*. 18. *irakur*.

6. Domeka. 3. *libr*. 18. *irakur*.

Domeka Septuagesima. 4. *libr*. 29. *irakur*.

Sexagesima. 3. *libr*. 17. *irakur*.

Quinquagesima. 4. *libr*. 30. *irakur*.

Autseen eguna. 2. *libr*. 18. *irakur*.

Garizumako 1 Domekea. 2. *libr*. 6. *irakur*.

2. Domeka 4. *libr*. 19. *irakur*.

3. Domeka 3. *libr*. 14. *irakur*. ta 15.

4. Domeka 3. *libr*. 27. *irakur*.

5. Domeka 4. *libr*. 9. *irakur*.

Erramu eguna 5. *libr*. 1. *irakur*. *Cum aporinquasset Jesus Hierosolymam*.

Pasiño Santua. 5. *libr*. 26. *irakur*.

Eguen Santua 5. *libr*. 18. *irakur*.

Pazkoa loratua 5. *libr*. 38. *irakur*.

Astelena 5. *libr*. 42. *irakur*.

Martizena 5. *libr*. 43. *irakur*.

1. Domeka 5. *libr*. 43. *irakur*.

2. Domekea 4. *libr*. 11. *irakur*.

3. Domeka 5. *libr*. 24. *irakur*.

4. Domeka 5. *libr*. 24. *irakur*.

5. Domeka 5 *libr*. 24. *irakur*.

J.K. Aszensiñoa 5. *libr*. 43. *irakur*.

Domeka urrengoa 5 *libr*. 23. *irakur*.

Maiatz Pazkoa, Pentekostes 5 *libr*. 22. *irakur*.

Astelena 3 *libr*. 2. *irakur*.

Martizena 4 *libr*. 11. *irakur*.

Trinidad Santua 5. *libr*. 45. *irakur*.

Korputz Kristi 3. *libr*. 30. *irakur*.

1. Domeka Pentekostes urrengoa 2 *libr*. 19. *irakur*.

2. Domeka 4 *libr*. 14. *irakur*.

3. Domeka 4 *libr*. 15. *irakur*.

4. Domeka 2 *libr*. 12. *irakur*.

5. Domeka 2 *libr*. 16. *irakur*.

6. Domeka 4 *libr*. 5. *irakur*.

7. Domeka 2 *libr*. 19. *irakur*.

8. Domeka 4 *libr*. 16. *irakur*.

9. Domeka 5 *libr*. 1. *irakur*.

10. Domeka 4 *libr*. 26. *irakur*.

11. Domeka 4 *libr*. 4. *irakur*.

12. Domeka 2 *libr*. 35. *irakur*.

13. Domeka 4 *libr*. 25. *irakur*.

14. Domeka 2 *libr*. 18. *irakur*.

15. Domeka 2 *libr*. 32. *irakur*.

16. Domeka 4 *libr*. 14. *irakur*.

17. Domeka 5 *libr*. 9. *irakur*.

18. Domeka 2 *libr*. 26. *irakur*.

19. Domeka 5 *libr*. 6. *irakur*.

20. Domeka 3 *libr*. 12. *irakur*.

21. Domeka 4 *libr*. 23. *irakur*.

22. Domeka 5 *libr*. 7. *irakur*.

23. Domeka 2 *libr*. 28. *irakur*.

24. Domeka 5 *libr*. 14. *irakur*.

Beste Ebanjelio lau Denpora, Bijilia, ta Garizumako Ferietakoak atera leiz azkeneko Idorogarritik:



SANTUEN JAIETAKO EBANJELIOAK

Emen izentetan ezterian Santuak idoroko dira bean Askoen Ebanjelioetan.

San Andres Ap. Ebanjelioa 2 libr. 12 irakur.

S. Tomas Apost. 5 libr. 43 irakur.

Jesusen Jaiotza 2 libr. 1 irakur. *In principio erat Verbum.*

S. Esteban m. 5 libr. 11 irakur.

S. Juan Ebanj. 5 libr. 44 irakur.

S.S. Inozenteak m. 1 libr. 12. irakur.

Urtebarri eguna 1 libr. 9. irakur.

Erregeen eguna. 1 libr. 10. irakur.

Jesusen Izen S. 1 libr. 9. irakur.

Kandelario eguna. 1 libr. 11. irakur.

S. Felipe, ta Santiago Ap. 5 libr. 22 irakur.

Maiatzeko S. Kruz eguna. 3 libr. 2 irakur.

S. Juan Bautista 1 libr. 4. irakur.

S. Pedro Apost. 4 libr. 17 irakur.

Maria S. Bisitaziñoa 1 libr. 3 irakur.

S. Maria Magdalena 2 libr. 36 irakur.

Santiago Ap. Patroia 4 libr. 30 irakur.

Maria S. Asunziñoa. 3 libr. 7 irakur.

S. Bartolome Ap. 2 libr. 14 irakur.

S. Juanen Degollaziñoa 3 libr. 26 irakur.

Iraillako S. Kruz eguna 5 libr. 3 irakur.

S. Mateo Ap. 2 libr. 27 irakur.

S. Simon, ta S. Judas Ap. 5 libr. 23 irakur.

Santu guztien eguna 2 libr. 15 irakur.

S. Martin Obisp. 3 libr. 20 irakur.

Missus est Gabriel Angelus, Ama Birjiña Martikoan, bere Izenean, Abenduan, ta S. Gabrielen egunean. 1 libr. 2 irakur.

Loquente Jesu ad turbas: Maria S. Konzeziño, Errosario, ta beste bere Jaietan: 3 libr. 15 irakur.

Cum esset desponsata: S. Jose, bere Desposorio, Gabon egunean: 1 libr. 7 irakur.

Quis putas major est: S. Migel, ta Angeruen egunetan 4 libr. 22 irakur.

Designavit Dominus: S. Markos, S. Lukas, S. Ignazio Loiolakoa: 2 libr. 31 irakur.

Confiteor tibi Pater: San Matias Ap. Aita S. Franzisko, S. Pablo Ermu-tarra: 2 libr. 35 irakur.

Hoc est preceptum meum. 5 libr. 23 irakur.

Si quis venit ad me. 4 libr. 14 irakur.

Si quis vult post me venire. 4 libr. 18 irakur.

Nisi granum frumenti: San Lorenzo, ta beste asko 5 libr. 3 irakur.

Ego sum vitis vera, et Pater meus: S. Isidro Nekazaria: ta beste asko 5 libr. 23 r.

Ego sum vitis, vos palmites. 5 libr. 23 irakur.

Cum audieritis prelia. 5 libr. 13 irakur.

Descendens Jesus de monte. 2 libr. 14 irakur.

Homo peregre proficiscens. 5 libr. 15 irakur.

Vigilate, quia nescitis. 5 libr. 14 irakur.

Vos estis sal terre: Doktoeren egunetan 2 libr. 16 irakur.

Sint lumbi vestri. 3 libr. 22 irakur.

Nolite timere. 3 libr. 22 irakur.

Homo quidan nobilis. 4 libr. 33 irakur.

Ecce nos reliquimus omnia. 4 libr. 28 irakur.

Simile est regnum celorum decem Virginibus: 5 libr. 15 irakur.

Accesserunt ad Jesum: 4 libr. 27 irakur.

Simile est regn. thesauro abscondito 3 libr. 18 irakur.

Ingressus Jesus perambulabat Jericho. 4 libr. 32 irakur.

ASKOEN EBANJELIOAK

Liber generationis, J.K. Maria S. Jaiotzan, ta S. Joakinen egunean 1 libr. 5 irakur.



BIZKAIKO IZENEN ADIERANTZA GIPUZKOAN, TA NAFARROAN, G. TA N.GAZ ADIRAZORIK

Agea, abea, *viga*.
 agindu: n. manatu: *mandar*.
 aizta: g. n. aizpa: *hermana de la hermana*.
 alboa, alde: g. n. aldamera: *lada*.
 alojera, bearsaria: *jornal*.
 amatau: g. itzali: *apagar*.
 arakatu, aratu: *rastrear*.
 arbintasuna: *ira*.
 ardura: arreta: *cuidado*.
 area: g. ondarra: n. legarra: *arena*.
 arerioa: g.n. etsaia: *enemigo*.
 aror. g. orra: *ve hai*.
 arrastegia, arratsaldea: *la tarde*.
 arraundu: *remar*.
 arteztu, zuzendu: *enderezar*.
 askea: g. estrabia: n. ganbela: *pesebre*.
 asko: n. anitz: *mucho*.
 asmau: n. sumatu: *adivinar, discurrir*.
 astuna: n. aidurra: *pesada*.
 atartea, ataria: *portal*.
 atzea: n. gibela: *tras, atras*.
 aubea: g. n. amagiarraba: *suegra*.
 aurrea: n. aitzinea: *delante, tera*.
 auspaz jarri: *postrarse*.
 autu, autatu: *elegir*.
 azartu: g. ausartu: *atreverse*.
 azkarria, g. legamia: *levadura*.
 azkendu: g. n. bukatu, aitu: *acabar*.
 aztu: n. atzendu: *olvidar*.
 azuria, bildotsa: *cordero*.

Bala, balea: ballena, *pez*.
 barrua: g. n. barrena: *interior, dentro*.
 basoa: n. oiana: *monte*.
 batzarra: bilkuntza: *congreso, sinagoga, concilio*.
 baxen: g. n. baizik: *tan*.
 bedarluzea: *heno: yerba larga*.
 belu, berandu: *tarde*.
 berbea: g. itza: n. mintza, tzoa: *palabra*.
 bertati, laster: n. sarri, fite: *luego*.
 bigirea, g. gaubela: *veladuria*.
 biguña: n. beratxa: *blando*.
 biraldu, bidaldu: n. igorri: *enviar*.
 biurtu: n. itzuli: *volver*.
 boskotxa: *ruda yerba*.

Dendatu: *esforzarse, aplicarse*.
 deungea, dongea: g. n. gaiztoa: *mala*.
 domekea: n. igandea: *domingo*.

Edena, edendu: g. n. pozoia: *veneno*.
 edolabere: n. badere: *alomenos*.
 ekandua: oitura: *costumbre*.
 enparau: *sobrar*.
 enzun: g. aditu, *oyr*.
 erago; diardu: *insistir, darle a ello*.
 eragotzi: g. n. debekatu: *prohibir*.
 erbestea, deserria: *destierra*.
 erdu, g. atoz, n, zato: *ven tu*.
 erlegiña, errealezirarra: *real de plata*.
 erraz, *facil*.
 errua: g. n. *culpa*.
 errukitu: g. n. urrikaritu: *apiadarse*.
 esan: n. erran: *decir*.
 Eskribak ziran legeko jakintsu letradunak.
 eskudatu: *defender*.
 estutu: n. ertsitu: *apretar y estu atar*.
 etxaguntza: g. baserria: n. borda: *caserio*.
 etxun, g. n. etxin, etzin, *recostarse*.
 ezaina, itxusia: *cosa fea*.



ezer, zerbait: n. deus: *algo*.
eztegua: g. n. eztaia: *boda*.

Fariseoak *zirian azalezko santutasuna erakusten eben gizon batzuk, baña biotz txarrekoak, ta gaistoak*.

Garaua: g. alea n. pikorra, bia: *grano*.
garbitu: n. txautu: *limpiar*.
geitu: n. berretu: *aumentar*.
geratu, gelditu: *quedar*.
giarraba: g. n. aitagiarraba: *suegra*.
goiartu, goitu: g. n. gallendu, garaitu: *vencer*.
goldea, bostortza: *arado*.
gorrotoa: g. gaitzerizkoa. n. etsaigoa: *odio*.
goruetan: g. ardazketan egon: *hilar*.
gura izan: g. n. nai izan: *querer*.

Hipokrita, birtute finjitzalea.
hortua: g. n. baratza: *huerto*.

Iduna: g. n. lepoa: *pescazo*.
idunbagnetu: g. n. lepobagnetu: *degollar*.
ikoa: g. n. pikoa: *igo, iguera*.
imilauna: g. lakaria: *16ª parte de una fanega: algo menos que celemin*.
iñarrea: g. erratza: *escoba*.
iraindu: *agriarse, enojarse*.
irazarri: g. eznatu: *despertar*.
irme, irrime; sendo: *fuertemente*.
istanda: n. lerre egin: *reventar*.
itandu: g. n. galdetu: *preguntar*.
itundu: *convenir en palabra*.
itxi: g. n. utzi, itxi: *dejar, y cerrar*.
iustura, iñustura, oñeztua: g. tximista: *relampago*.
izarea: g. n. mandira: *sabana*.

Jagi: g. jaiki: *levantarse*.
jagon, jaon, zaindu: g. n. zaitu: *custodiar*.
jaramon ez: *no hacer caso*.
jarri: g. eseri: *sentarse*.

jausi: g. erori: *caer*.
jazo, gertatu: *acaecer, suceder*.

Kopaua: g. n. mokadua: *bocada*.

Lagunkidea: *legion*.
laketu: *permitir*.
lapikogillea: g. n. eltzegillea: *ollero*.
larga: n. utzi: *dejarlo*.
laumarai: *un cuarto, moneda*.
lauoñekoa, txarria: g. ganaubeltza: *marrano*.
legez: g. n. bezela: *como*.
lolloa, bedar txarra: *zizaña*.
lotsa, lotsatu: n. alkea, alketu: *avergonzarse*.
lukurerua: *logrero, usurero*.
lupetza: g. loia: *loda*.

Magina. *vaina*.
maraia: *maravedi*.
mastia: n. ardantza: *viña*.
miesea, euna: *lienzo*.
muna: *collada*.

Nebea: *hermano de la hermana*.

Obetandua: *perfecto*.
opa: g. n. eskeñi: *ofrecer*.
oratu: g. n. itxasi: *asir*.
osatu: g. n. sendatu: *sanar*.
ostean, atzean, n. gibelean: *atras*.
ostu: n. ebatsi: *hurtar*.
otseña: g. n. mirabea: *criado, sirviente*.
otzarea: g. otarra: *cesta*.

Puplikanoak *zirian errendatzalleak, edo lukurerauak, edo bekatari agriak*.

Salatu: *acusar, delatar*.
sartaldea: *occidente*.
satsa: g. zimaurra: n. ongarrria: *fiemo, estiercol*.



seiña: g. n. aurra: *niño* n. seia.
 seindun. g. n. aurdun: *embarazada*.
 seingea: g. n. aurbagea: *esteril*.
 sortaldea: *oriente*.
 sustraia: n. zaña: *raiz*.

Taldea: rebaño.
 txantxadurea, *levadura*.

Ugazaba: g. n. nagusia: *amo*.
 ugerra: g. erdoia: *roña*.
 ulertu: *comprehender, advertir*.
 ur, urrean, urreratu: g. n. urbil, urbildu: *cerca, acercarse*.
 uriola, urjola: g. ugoldea: *diluvia*.
 urrin: g. n. urruti: *lejos*.
 urten: g. n. irten, n. atera: *salir*.

Zaina, zaindu: g. n. zaia, zaitu: *custodiar*.
 Zelan: g. n. nola: *como*.
 zemaitu, zematu: n. meatxatu: *amenazar, reprehender*.
 zenturion; *euntaria*.
 zenzuna: *juicio, entendimiento*.
 ziapea: *mostaza*.
 zizpurua: *suspira*.

Beste izen batzuk dira berez ezagunak: alkar elkar: bardin berdin:
 azurra ezurra: ebagi ebaki: emon eman: idigi idiki: gatxa gaitza: jagi jaiki:
 baltza, beltza: narrua larrua: soloa soroa: ukutu ikutu: ullea illea.